

Formazio politikorako esperientziak herri mugimenduetan



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gasteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



Joxemi
Zumalabe




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



HEGOA
HEGOKO ETORKUNTZA
HEGOKO ETORKUNTZA

Formazio politikorako esperientziak herri mugimenduetan



Argitalpen hau egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak “Jakintzen aniztasuna eta emantzipaziorako prestakuntza politikoa” proiekturako (2014) eman duen diru-laguntza jaso da. Testuen edukiaren erantzukizuna egileena baizik ez da. Proiektu honen ardura duten erakundeek ez dute liburu honetan jasotako iritziak ezinbestez izan behar, eta, era berean, iritzi horiek ez dute finantziazioa eman duen instituzioa tartean sartzen.

Finantzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Formazio politikorako esperientziak herri mugimenduetan

Egilea: Olatz Dañobeitia Ceballos et al.

2016ko apirila

Argitaratzaileak::



www.hegoa.ehu.eus
hegoa@ehu.eus



www.democraciaglobal.org
info@democraciaglobal.org



www.joxemizumalabe.eus
harremanak@joxemizumalabe.eus

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea 81 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako campuseko liburutegia

Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Azalaren ilustrazioa: Loinaz Lekuona Izagirre

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege zenbakia: BI-366-2016

ISBN: 978-84-16257-08-9



Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Baimenduta dago obra hau kopiatzea, banatzea eta jendaurrean hedatzea, betiere, baldin eta haren egiletza aitortzen bada eta xede komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ez dago obra hau aldatzerik, eraldatzerik edo hartatik eratorritako beste obra bat sortzerik. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

aurkibidea

Aurkezpena	5
Iratxodun ipuina	11
<i>Claudia Korol</i>	
Borbor (K). Herri-jakintzez, igarotzeez eta (trans)formazioez	15
<i>Olatz Dañobeitia Ceballos eta Josefina Roco Sanfilippo (Joxemi Zumalabe Fundazioa)</i>	
Jakintzak eta mugimenduen arteko elkar-hizketak Perun: ehuntzearen antzeko esperientziari buruzko apunteak	69
<i>Mar Daza, Raphael Hoetmer, Nicola Foroni, Gina Vargas eta Luna Contreras (Demokrazia eta Eraldatze Globala Programa)</i>	
Emantzipaziorako prestakuntzako prozesu politiko-feministak Guatemala 2010-2015	133
<i>La Cuerda Elkarte Feminista, Petén Ixqik Emakumeen Elkartea eta Emakumeen Sektoreko liantza Politikoa. La Cuerda Elkarte Feminista, Petén Ixqik Emakumeen Elkarte eta Emakumeen Sektoreko Aliantza Politikoaren (prestakuntza-prozesuaren bultzatzaileen) eta Paula Irene del Cid Vargas eta María Dolores Marroquín (esperientzia sistematizatze prozesuaren bideratzaileen) arteko ituna</i>	
Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduaren Florestan Fernandes Eskola Nazionaleko ikastaro latinoamerikarrak	177
<i>Beatriz Casado Baides eta Judite Stronzake</i>	
Jakintzen aniztasuna eta prestakuntza emantzipatzailea	245
<i>Zesar Martínez eta Beatriz Casado</i>	
Epilogo. Nazioarteko lankidetzaren eta formazio askatzailea	287
<i>Gonzalo Fernández, Ortiz de Zárate</i>	

Aurkezpena

Jakintzen aniztasuna eta Formazio politiko askatzailea proiektuaren barruan egindako ikerketa baten ondorioa da esku artean duzun liburua. Proiektu honek Iparra-Hegoa perspektiba gainditu nahi izan du eratu zenetik eta beraz, Hegoa institutuak, Peruko PDTG Programa de Democracia y Transformación Global erakundeak¹ (Demokrazia eta Eraldaketa Globalaren Programa) eta Joxemi Zumalabe fundazioak² garatu dute elkarrekin proiektua.

Subjektu politiko gisa gizarte-mugimenduek duten izaera estrategikoaz, eta kapitalismo neoliberalaren krisiak duen izaera askotariko eta sistemikoaz analisi eta begirada antzekoak partekatzen ditugulako topo egin dugu erakundeok. Gizartea antolatzeko eta arautzeko eredu baten krisi baten aurrean gaude, biziari eusteko gai ez dela erakusten ari den krisia eta honek, erronka kolektiboak jartzen dizkigu aurrez aurre. Gure antolaketa sozial eta politikoa ez da gai, ordea, erronka horiek gainditzeko. Hain zuzen, zailtasun horiexek garamatzate jakintza eta subjektu desberdinen arteko elkarriketa ezinbestean zabaltzera. Izan ere, subjektu horien borroka-prozesuetan gizarte-mugimenduek jakintzak, proposamenak eta praktikak eraikitzen dituzte, sormen soziala eta berrikuntza politikoa sustatzen dituztenak; eta horrek erreferentzia-eragile gisa gai egiten ditu, jakintzen talde-elkarriketa eraikitzeko, eta elkarriketa horiek bidea eman dezaten zeruertze emantzipatzailetarantz joateko behar diren eraldaketetan aurrera egiteko.

1 PDGT Demokrazia eta Eraldaketa Globalaren Programa <www.democraciaglobal.org> zentro autonomo bat da politika ikertzeko, politikan gaitzeko eta ekintza politikorako. Mundu berri honetan, Peru berri baten aldeko borrokek bultzatu nahi ditu, demokratizatuz, boterea diziplinaz gaindi aztertuz, eta globalizazio-prozesuan dauden gizarte-mugimenduen bidez. Konpromiso argia du autonomiaren, demokrazia erradikalaren, feminismoaren, naturarekin bat egitearen, eta justizia sozialaren aldeko borrokekin; horri esker, lan egiteko zuzeneko harremanak eraiki ditu mugimendu feministarekin eta nekazarien eta indigenen komunitateen mugimendurekin.

2 Sortu zenetik, Joxemi Zumalabe Fundazioak <www.joxemizumalabe.org> helburu du Euskal Herriko herri-mugimenduei lagundu eta berauek bultzatzea, bertoko ekimenek, taldeek eta herri-mugimenduek egiten dituzten ekarpen sozialak eta politikoak ikusaraziz, sendotuz eta, merezi duten esker ona adieraziz. Herri-mugimenduetan, herri-mugimenduekin eta herri-mugimenduentzat lan egiteko bokazioa du, eta bide horretan, bere lan-ardatzak oinarri hauek ditu: gizartea eraldatzeari buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko espazio herrikoiak sortzea, herri-mugimenduetako barruko funtzionamendua sendotzeko tresnak lantzea, eta aktibismoa politikoa sendotzeko ezagutzaren prestakuntza eta transmisioa bultzatzea. Ahalduntze-prozesuak eta mugimenduen arteko sinergiak sortzeko ikuspuntutik egiten du hori dena.

Modu horretan partekatu ditugu Joxemi Zumalabe fundazioaren eta PDTGren esperientziak, eta gizarte-mugimenduei eta lankidetzakritikoari buruz Hegoa Institutuak garatu duen lana; eta, hala, elkarrekin ikusi dugu garrantzitsu eta estrategikoak direla nazioarteko artikulazioak eta mugimenduak. Horiek formazio politikoa ardatz hartzen baitute, eta horrek subjektu politiko gisa sendotu egiten ditu. Izan ere, formazioak antolaketa eta mobilizazio prozesuei, politikan eragiteko eta bestelako proposamenak eraikitzeko gaitasunari eragiten dio zuzenean.

Hori dela-eta, gizarte-mugimenduko lau elkarrizketa eta formazio esperientzia sistematizatuz, ikertzeari ekin genion. Hainbat eratako esperientziak izan ziren, testuinguru soziopolitiko desberdinetan gauzatutakoak. Gauza asko ikas daitezke haiengandik (bai asmatu izan dutenetik eta baita, bai izan dituzten zailtasun eta mugengatik). Hauek izan dira ikerketaren helburuak: gizarte-mugimendua subjektu politiko gisa formazio politikoa askatzailearen zer osagaiak sendotzen duten identifikatzea. Hau da, gizarte-mugimenduetako formazio-prozesuen izaera askatzailea sendotzen duten gakoak identifikatzen laguntzea da alegia. Formazio politikoa gidatzen duten talde eta mugimenduak ikertu direla nabarmendu nahi dugu, gehienetan sistematizazio-prozesuak euren esku hartuz.

Liburuak bost atal ditu, eta lau esperientzia eta laurak alderatuz egindako azterketa bat bisitatzeko bidai bat planteatzen digu; hala, berezitasunak, ikasketak eta denek partekatzen dituzten osagaiak identifikatzen ditu azterketak, inspirazio-iturri izan daitezke-eta beste testuinguru batzuetarako.

Bidaiaren lehen geldialdian, *BORBOR (K) Euskal Herriko Herr-Jakintzen Laborategia* ezagutuko dugu. Herri jakintzaren laborategia ireki eta kolektiboa da, eraikitzen ari dena. Joxemi Zumalabe fundazioak abiatu zuen 2013an, eta pertsonak eta taldeak batu zitzaizkion hurrengo urte bietan; 2015eko irailean, berriz, fase berri bati ekin zion, lehen ikastaroa abiatu baitzuen. BORBOR (K) laborategiari esker, ekimen askotarikoen arteko elkarrizketa abiatu da, hainbat arlotatik herri-formazio ekimenak bultzatu baitira azken hamarkadetan Euskal Herrian: GITE-IPES, Urtxintxa Eskola, EHNE-Bizkaia, Ipar/hegoa Fundazioa, Manu Robles Arangiz Fundazioa, Udako Euskal Unibertsitatea, Emagin, etab. Elkarrekin aztertu ditugu metatzaille historiko horren lorpen eta indarguneak, gabeziak, ahulguneak eta etorkizuneko erronkak. Zeregin hori izan du BORBOR (K) laborategiak azken bi urteetan, eta sistematizazio horrek badu zer kontatu.

Itsasoa zeharkatu eta bigarren geldialdia Perun egingo dugu, PDTG Demokrazia eta Eraldaketa Globalaren Programak azken sei urtean elkarlotu dituen elkarrizketak eta prestakuntzak ezagutzeko. Peruko hainbat gizarte-mugimendu hainbatetan *Jakintzen eta Mugimenduen Elkarrizketa* izeneko topaketetan elkartu ziren, eta horren sistematizazioa azalduko da. Topaketa horietan, Peruko gizarte-mugimendu desberdinetako kideen artean esperientziak partekatu eta elkarrizketak izan dira: feministak, aniztasun sexualekoak, gazteak, ikasleak, afrikar ondorengoak, indigenak, nekazariak, erazketen eraginpean dauden lurralde eta komunitateetakoak, auzo txiroetako erakundeak, sindikatuak, erakunde politikoak, etab. Sistematizazioarekin ikusi ahal izan dugu *Jakintzen eta Mugimenduen Elkarrizketak* eztabaidetarako eta talde-analisietarako guneak izan direla ondorengo gaiak ulertzeko: Peruko egoera politikoa, gizarte-mugimenduek eraiki dituzten eraldaketa prozesuen lorpenak eta erronkak, eta prozesu horien arteko enkontru eta desenkontruak.

Bidaiatzen jarraituko dugu, orain Guatemalara, Formazio Politiko Feministaren Eskola nola sortu den eta nola jarri den martxan ezagutzeko. Protagonisten errealitatera eta beharrianetara egokitu da prozesu hori malgutasun handiarekin, bidean metodologia birdiseinatu ahal izateko; prestakuntzari jarraipena emateko, berriz, beste lurralde batzuetan beste batzuk egin dira, baita topaketak ere, eta horiek osatu dute herri-heziketa feministaren proposamen berri-tzailea. 2010eko martxotik 2015eko otsailera bitartean sortu, diseinatu eta sistematizatu zuten esperientzia hori, Guatemalako emakumeek eratutako hiru elkarteek bat egin zutenean: Alianza Política Sector de Mujeres (Emakumeen Aliantza Politikoa), Asociación de Mujeres de Petén Ixqik (Peten Ixqik-eko Emakumeen Elkarte) eta Asociación Feminista La Cuerda (La Cuerda Elkarte Feminista).

Brasil da bidaiaren laugarren geldialdia. Formazio politikoaren erreferentziazko eskola da gizarte-mugimendu askorentzat, ez bakarrik Brasilen, baizik eta Latinoamerika osoan eta munduko beste hainbat lekutan ere bai: Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduko Florestan Fernandez Eskola Nazionalak (ENFF); hamar urte bete zituen 2015ean. Eskola horretako ikastaro eta jarduerak sistematizatu dira, eta arreta jarri da *ENFFko ikastaro latinoetan*. Zortzi edizio egin dituzte, guztira; Latinoamerika eta Karibeko gizarte-mugimenduetako lider ugari jaso dute bertan formazioa, eta euren herrialdeetako formazio politikoko prozesuetarako inspirazio pedagogiko eta metodologikoak izan dira ikastaro horiek.

Bidaia guztiek ezagutu den guztia laburbiltzeko une bat behar dute, alderdi askotatik ikasketak ateratzeko hain zuzen ere. Bidaiaren bosgarren eta azken

geldialdian sistematizatutako lau esperientziak elkarrekin alderatu eta aztertu nahi izan dugu, osagai komunak, berezitasunak eta ikasketak identifikatzeko. Nazioarteko ikuspuntutik, beste testuinguru batzuetan osagai horien inspirazio-iturri izan daitezke ahalmen askatzailea duten formazio politikoko prozesuak garatzeko. Azterketa bera egitea oso aberasgarria izan da. “Jakintza A(u)nitz: herri-borrokak, ezagutza askatzaileak eta formazio politikoa izeneko nazioarteko jardunaldiak” izan ziren azterketa horren abiapuntua. Donostian egin ziren, 2015eko ekainean. Jardunaldiek jarraipena izan zuten: liburuko atal bakoitza idazteko taldeetako ekarpenak irakurri eta bildu ziren, eta gero esperientziak elkarrekin alderatuz aztertu ziren; horrek osatzen du da azken atala.

Askok jarri dute bere harri koskorra prozesuan. Denei eskertzen dizkiegu egin dituzten ekarpenak. Ea atalak irakurtzean, eztabaida pizten eta zuen antolaketa eta borroka prozesuak indartzen laguntzen dizuen.

Iratxodun ipuina

Claudia Korol

Kontatzen ari natzaizun ipuin honek hasiera asko ditu, eta ez du amaierarik. Geografia asko eta istorio desberdinak ditu. Hamaika ipuin dira, eta ipuin bakarra da. Ipuina irakurtzen edo entzuten ari zara eta neu bitartean berau urrunetik idazten ari naiz, itsasoaren bestaldetik, edo itsasoa zeharkatzen ari naizela.

Kontatzen ari natzaizun ipuin honek, herriok bideak aurkitzeko egiten ditugun bidaiez dihardu. Bidai horietan zenbatetan galdu gareneko ipuna da eta nola jarraitu galdetuz aurkitzen dugu. Aurkitutzat jotzen genuen mundua nola beraurkitzen, nola ezagutzen eta nola ikasten dugunari buruzko ipuina ere bada. Ezer ez dakigula jakitearen abentura kontatzen duen ipuina da eta ezjakina eta desiratua dena asmatzen jarraitzearena ere.

Euskal Herrian idazten ari naiz ipuina, Europako bazter bateko lurralde matxinatuan. Aske izan nahi duten gizon-emakumeen artean ari naiz idazten ipuina; espetxealdi ezin gogorragoei aurre egin behar dieten pertsonen artean (400dik gora preso politiko), zergatik eta euren burua, euren hizkuntzan, independente amesten dutelako, euskaraz. Pedagogia askatzailearen baitan egin izan ditugun saiakerez aritu ginen lurralde horretan. Topaketa horietan Cajamarkako eta Conga No Va-ko borroketan laguntzen diharduten Perutar herri hezitzaileak zeuden; maia- eta kitxe-ehunetan klitoriak bordatzen dituzten feminista guatemalarrak; Brasilgo lurrik gabekoen mugimenduko pedagogoak, euskal eragileak, Galiziako internazionalistak, hegaz egiten ikasteko euren sekretuak irakatsi zizkiguten sorginak, baita Almodovar neska bat ere, eta nekazari andaluziar talde bat ere bai; oliba-biltzaile harroak beraiek; ume itzainaren poemekin batera maletan kateaturik bihurrikeri lorquianoa ekarri zutela uste dut.

Noizbehinka, bizar itxiko agure bat agertzen zela ikusi nuen; gure berbeta sutsuez egiten zuen barre; konplizitatearekin uste dut, baina berehala joan zen beste norabait. Orduan gogoratu nuen aste batzuk lehenago Venezuelan hainbat kidekin euren iraultza iraultzeaz, XXI. mendeko sozialismoa feministagoa egiteaz, euren feminismoa sozialistagoa egiteaz, euren abertzaletasuna internazionalistagoa egiteaz, euren pedagogia errebelde eta askatzaileagoa egiteaz hizketan genbiltzala, agure hura bertatik zebilela, bere bizar zuri eta irribarre bihurri berberarekin.

Ipuinetan iratxoak agertzea ondo ikusia dago. Agurea iratxoa izan daiteke. Iratxo baten bizarra eta irribarrea baititu. Baina ez dakit benetan ba ote den. Orain gogoan dut oso leku desberdinetan ikusi dudala, Palestinan, Chiapasen, Bolivian..., eta

ia beti, Ponpeian. Agurea ez dela iratxoa pentsatzen dut orain; taupada baten aurpegia dela uste dut. Agurea Paulo Freire deitu daitekeela uste dut; baina, horrek misterioa kenduko lioke gure ipuinari. Edo, beharbada, hobe da Paulo deitzea, ipuinaren misterioa ez bait da bere aurpegia edo bere izena; ipuinaren misterioa, bidean gurutzatzen diren bere begirada eta irribarreen jatorria da.

Kontatzen ari natzaizun ipuin hau begiradan irribarrea izanik idazten da; horrek laguntzen bait digu munduaren minak uxatzen, eta gertuko ortzimugatik baino haratago ikusten. Beste begiradetan geure burua ikusten ere, amesten eta berrasmatzen dabiltzan herrien begiradetan, hain zuzen. Esan nizun, bada, zapaltzen ari naizen lurralde honetan lauhundik gora begirada espetxeetan daudela. Baita Palestinan ere, bertako begirada asko basakeriaz okupatutako edo bonba israeldarrek suntsitutako lurraldeetan zokoratuta daude. Jakin badakigu, Venezuelan euren petrolio bereganatu eta iraultza amaitu nahi duen inperio batek begirada hauetako batzuk mehatxupean dituela. Baina, hala eta guztiz ere, begirada eta irribarre horiek aurre egiten diete gatibu aldiei. Kontatzen ari natzaizun ipuin hau ikusi egin dut. Hormen ostean irribarreak ikusi nituen. Palestinako errefuxiatuen kanpalekuetan begirada askeak ikusi nituen. Venezuelan iratxoaren jolasa ikusi nuen inperioari iseka egiten.

Kontatzen ari natzaizun ipuin hau herri hezkuntza gisa kontatzen da. Herri bakoitzak jartzen dituen kolore, erritmo eta zapoak ditu eta agure brasildarraren bizarra baino luzeagoa den memoria du. Kontatzen ari natzaizun ipuin honek ez du amaierarik. Irribarrearen bihotzeraino dihoan bidaia da, taupadarik bizienak jatorria duen lekurainoko bidaia.

Paulo Freirek hezkuntza askatasunaren praktika gisa ulertzera gonbidatu gintuen hezkuntzari buruzko bere lehen saiakeretan. Eta bere zapalduen pedagogiak, itxaropenaren pedagogiak, amorrurenak, sumindurarenak, ausardiarenak, matxinadarenak, keinuetan, hitzetan eta ekintzetan alfabetatzen jarraitzen du oraindik orain. Paulok hainbat bider eta hainbat modutara jaiotzearen dialektika iraultzailean sinetsi zuen. Che halako egun batean jaiotzen lehen aldiz... berak ere barre egiten du ipuin honen edozein txokotan agertzearekin batera, bere urtebetetzea ospatu dezagun; hori dio. Kontatzen ari natzaizun ipuin desordenatu hau taupada bizi, kutsakor eta solidarioa da. Ipuin guztiak guevaratu egiten duen iratxoa da. Hemengo eta hango inkisizio guztien ostean jaiotzen jarraitzen duen historia sorgindua da. Irribarre eta begirada batean bizi den matxinada da, che.

Claudia Korol, 2015eko ekainaren 14an

BORBOR (K).

Herri-jakintzez, igarotzeez eta (trans)formazioez

Olatz Dañobeitia Ceballos
eta Josefina Roco Sanfilippo (Joxemi Zumalabe Fundazioa)

1. Sarrera gisa

Eskuarteaz duzun lan hau, Euskal Herrian eta Euskal Herrirako (aurrerantzean EH) herri-jakintzen laborategia sortzeko abenturan parte hartu duten hainbat militanten talde-lanaren emaitza da.

Hiru milloei biztanle baino gutxiagoko Herrialde txiki hau hainbat opresiok zeharkatzen dute. Horien artean espainiar eta frantziar estatuekin duen gatazka politikoak, besteak beste herri bezala duen autodeterminazio eskubidea aitortzen ez diotelako, bere historia garaikidea ezaugarritu du.

Horren ondorioz, borroka-historia zabala eta anitza du. Badu antolakuntza-sare zabal, eskarmentuzko eta anitza. Horrela hainbat arlotako auto-antolakuntzan esperientzia aberats eta emankorra du: hizkuntza berreskuratzeko arloan, aisia eta astian, komunikabideetan (egunkari, aldizkari eta irratietan), okupatutako (ala ez) eta auto-kudeatutako espazioetan, ekonomia solidarioan, hezkuntza-eredu propio zein alternatiboetan, festa herrikoietan eta protesta-ekitaldietan.

Mugimendu ekologistak, antidesarrollistak, feministak, elkartasun-mugimendu internazionalistak, antimilitaristak, bazterketa soziala eta pobrezia-aren aurkakoak, LGTB mugimenduak, antiarrazistak, langileen borrokakoak, nekazarienak eta arrantzaleenak, presoen (sozial eta politikoen) eskubideen aldekoak...Euskal Herria borroka egiteko hainbat modu eta milaka protagonistaz bete dute. Horiek guztiak, gatazka, garaipen zein porrot artean eta beti ere errepresio zein kontrol tresna konplexuen artean aurrera eginez gaurdaino heldu zaizkigu.

Ibilbide honetan guztian mugimenduen agendan egon dira beti formakuntza politikoen programak eta prozesuak. Dela eragileen barnean, dela horretarako berriaz garatutako proiektuen bidez.

Borrokan, proiektuen eta esperientzien joan-etorri honetan EHko mugimenduetatik eta mugimenduentzako formazio politiko baterako espazio bat bir-sortzeko ametsa indartuz joan da. *Borbor (k). Herri Jakintzen Laborategiaren* xedea formazio politikorako proiektu irekia, taldekoa eta eraikitzailea izatea da. Abiapuntua 2013an eta Joxemi Zumalabe Fundazioan

(JMZ aurrerantzean)¹ duen arren prozesuko bi urteetan jendea gehitu zaio eta 2015eko irailean fase berria hasiko du lehenengo ikasturtearekin.

Borbor (k)ren oinarrietako bat Herri Mugimenduen arteko harresiak gainditzeari lotuta dago

“Mugimenduok gure lanerako gaitasuna biderkatu eta aberastu beharra daukagu baita hausnarketaren eta lan komunaren bidez ere. Hortik dator trebatzeko beharra. Formazio ideologikoa, historikoa (transmisioa), metodologikoa, teknologikoa, emozionala... gure iritziz ez dira gutxi formazioaren bidez lantzea garrantzitsuak erizten zaizkigun eremuak. Guzti honi deitzen diogu Formazio Politikoa.”

Horrela, bada, lehen urrats gisa, EHko Mugimenduetan jada bazegoen formazio politikoa ber-pentsatzen hasi ginen. Horretarako prozesu parte-hartzaile eta kolektibo baten bidez, aurretik zeuden formazio proiektuekiko errespetuan aritu nahi zuen elkarrizketa dinamika abiatu genuen. Helburua, esperientzia horiek hobeto eta sakonago ezagutzeaz gain, horien partaide ziren pertsonak hasiera hasieratik proiektu honen eraikuntza eta garapena bere egitea izan zen.

Testu honek esperientzia hori guztia sistematizatu nahi du. Hau da, *“Borbor (k) Herri Jakintzen Laborategia”* proiektua eztabaidatzeko eta eraikitzeko ibilbidea bera.

Horretarako Esperientzien Sistematizaziorako metodologia aukeratu dugu², gure praktika kritikoki aztertzeko, ikaskuntzak ateratzeko, alternatibean

1 Joxemi Zumalabe Fundazioa 1996an sortu zen, antolatutako herri-sareari lagun egin eta indartzeko asmoz. Gaur egun 15 militante inguru ditu mugimenduetan, mugimenduekin eta mugimenduentzat prozesuak eta hausnarketak dinamizatze/errazteko eta trebatzeko. <www.joxemizumalabe.org>.

2 Esperientzien sistematizazioa 70eko hamarkadan sortu zen, Latinoamerikan herri-heziketan aritzen ziren erakundeetan. Oscar Jara Hollidayk (2014) azpimarratzen du proposamen irekia dela eta etengabe eraikitzen ari dela; esperientzia bat edo gehiagoren interpretazio kritikoa da, eta horien antolamendutik, erregistrotik eta berreraikipenetik bizitako prozesuaren logika ezagutzen edo azaltzen da, prozesu horretan parte hartu duten faktoreak, elkarrekin erlazionatzeko modua, eta horrela zergatik egin duten ezagutzeaz eta azaltzeaz gain. Sistematizazioa parte hartzeko prozesu bat da; horri esker gertatutakoa antolatu egin daiteke, eta, horrela, memoria historikoa berreskuratu, interpretatu, ezagutza berriak ikasi, eta beste pertsona batzuekin partekatu. Hori dela eta, sistematizazioa aukera epistemologiko eta politiko handia da, hegoalde globaletik oparitu zaigun tresna boteretsua, herri-alorretik eta herri-alorrerako ezagutza kolektiboa eta kritikoa sortzeko aukera, gertatzen diren prozesuak eta egoerak geure hitzekin izendatzeko aukera, geure agiriak sortzeko eta informazioa sozializatze/ko aukera.

zirriborroak egiteko eta jakintza askatzaileak eraikitzekeo tresnak eskaintzen baititu beronek.

Zentzu horretan, EHko Herri Mugimenduen formazio politikorako aurreko esperientzia batzuk Esperientzien sistematizaziotik berriro hartzea kontu aparta izango da kasu honetan, eraikitzen ari garen Borbor (k) proiektu honen korapilo epistemologikoak, pedagogikoak eta antolakuntza-mailakoak identifikatu eta ulertu ahal izango baititugu. Hausturak, aukerak, zailtasunak, erronkak eta eztabaidagai diren eremu guztiak hautemateak balio politiko handia du egin nahi den sistematizazio-ariketa honentzat:

- Prozesu eta proiekturen arteko harremanari kasu egin eta zaindu. Horien dinamismoek adierazten digutenari adi egon.
- Prozesuan orain arte egindako ibilbidean asmatu diogunari zein hutsunei so egin.
- Borbor (k) sustatu zein ikaskuntza eta gomendioen bilana eskaini.

1. taula. Borbor (k)ren sistematizazio prozesuaren laburpena	
ZER sistematizatzen dugu?	Borbor (k) herri-jakintzaren laborategia sortzeko prozesua. 1. eta 2. faseak
NOLA sistematizatzen dugu?	Esperientziak sistematizatzeko metodologia. Idatzizko eta ikusizko erregistroak, prozesuaren azterketa kolektiboa.
ZERGATIK/ZERTARAKO sistematizatzen dugu?	Ikaskuntzak atera. Gomendioen gida bat egin, proiektua abian jartzeko.

Iturria: Geuk egin.

Sistematizazio honen iturriak hauek izan dira: Borbor (k) talde sustatzailearen barneko bileretako idatziak, audioak, argazkiak eta bideoak eta mugimenduekin izanwdako kontraste-topaketetako edota jardunaldietakoak. Irekitzeko eta parte hartzeko une desberdinak izan dira prozesuaren zedarriak eta bakoitzak behar eta egoera desberdinak markatu dituenenez, Borbor (k) birformulatu egin behar izan da.

2. taula. Kontrasteen bilera		
Data	Bilera	Ezaugarriak, kideak eta xedeak
Otsaila 2014	Zazpikotearekin	Bi alde biko saio hauekin: Bizkaiko Urtxintxa Eskola, UEU, EHNE Bizkaia, Ipar Hegoa, Robles Arangiz, Emagin, Ipes, ikaskuntzak eta nahiak partekatzeke.
Ekaina 2014	Topaketak UEU	Zazpi formazio proiektuekin eta mugimendu gehiagorekin (30 kide) eztabaidarako jardunaldi irekia, mugimenduen formazio politikoaren gabeziez, indarrez eta erronkez hitz egiteko.
Uztaila 2014	Azterketa	Talde sustatzailearen bi bilera, aurreko saioetako aktak eta audioak aztertzeko. Etorkizuneko proiektuaren diagnostikoa, azterketa eta oinarritzko definizioa. Lehenengo zirriborroa idatzi.
Iraila 2014	Izena eman Izendatu	Bileraren zirriborroa amaitu, proiektuari izena emateko. Borbor (k) jai.
Urria 2014	Herrialdeak	Aldi bereko 5 bilera herrialdeko 5 hiriburutan. Mugimenduak herrialdeka pilotatzeko. 200 erakunde baino gehiagori egin zitzaion deia, zirriborroa kontrastatzeko eta balizko gaiak pentsatzeko.
Azaroa 2014	Birdefinizioa	Herrialdeko bileren azterketa trinkoa egin eta ekarpenak sartu.
Urtarrila 2015	<i>Prozesukideak</i>	Zalantzak, kontraesanak eta zailtasunak partekatzeke.
Otsaila 2015	Jardunaldi irekia	Formazio politikoa herri-hezkuntzatik birpentsatzeko eta ordura arte aurkitutako korapiloric handienentzako ekarpenak jasotzeko: gaiak, partaideak eta formatua/antolakuntza.
Apirila 2015	Sistematizazioko barne tailerra	Prozesuaren erreskatea eta azterketa hiru norabidetan: 1. Borbor (k) mugimenduetara / mugimenduak Borbor (k)ra. 2. Borbor (k) talde motorra eta talde motorra Borbor (k)ra. 3. Borbor (k) gutako bakoitzarengana eta gu Borbor (k)ra. Korapiloen, ikaskuntzen eta eraldaketen matrizea sortu.

Iturria: Geuk egina.

2. Zer motatako formazioaren oinordekoak gara?

Gaur egungo egoera dela eta, Euskal Herrian eta bertako mugimenduetan koiuntura berriak ditugu. Eraldaketa-prozesu harrigarrian gaude, azalez aldatzen ari gara eta galdera berrientzako erantzun berriak sortzen ere bai. Gatazka politikoari eta armatuari lotutako ziklo politikoa aldatuz doa, gure herrialdea hamaika krisitan sartuta dago eta sistema-mundu hau (zibilizazio heteropatriarkal kapitalista) modu askotara ari zaigu interpelatzen banako eta taldeko subjektu legez. Hausnarketarako eta eztabaidarako espazioak biderkatu egin dira eta atomizazioak jarraitu egiten du. Baina halaber, geroz eta saiakera gehiago egiten ari dira, antolakunde ezberdinen arteko prozesu komunak artikulatu eta eraikitzeko.

Eszenatoki berriek formula berriak behar dituzte eta ez dira zerotik abiatuko, iraganean pilatutako kapital politiko anitzak elikatzen baititu. Hori dela eta, gure intuizioak dio inertzia zaharrak gainditu beharra dagoela, baina pilatutako hainbat ikaskuntza ere aintzat hartu behar ditugula.

Hasteko, JMZko partaideen artean barne eztabaida eta hausnarketa egin genuen, lehenengo urratsak nola egin jakiteko. Ondoren, bigarren urratsean, harremanetan jarri eta gure proiektua eta ideia aurkeztu genien formazioa xede duten erakundeei edo euren proiektu politikoetan formazioa tresna estrategikotzat dutenei. 3. taulan dago sintetizatuta formazioari lotutako erakunde batzuei buruz jasotako informazioa

3. taula. Euskal Herrian formazioarekin zerikusia duten gizarte-taldeak	
EHNE-Bizkaia	Nekazaritzako sindikatua, nekazaritzako erakunde profesionala, 1976-1977 urteetan jaio eta legezatu zen. Hainbat urtetako ibilbidean errebindikazioez gain, proposamenak ere egin ditu, eta gaur egungo helburu nagusia Euskal Herri osoan elikadura burujabetza sustatzea du. Formazio erabat agroekologikoaren aldeko apustua egin du, eta bere ikastaro eta formazioko jarduera guztien xedea bertako eta sasoiko nekazaritza defendatzea eta hedatzea da. < http://ehnebizkaia.eus/index.php/es >.
Bizkaiko Urtxintxa Eskola	1986an sortutako gizarte- eta kultura-arloko erakundea, aisia eta astia indartu eta entrenatu nahi ditu. Euskaran, kultura artekotasunean eta aukera berdintasunean oinarritutako Aisia eta Astia hezitzailearen aldeko apustua egin du. < www.urtxintxaeskola.org >

Emagin	2007az geroztik emakumeen inguruko ikerketa sustatzen duen zentroa. Dokumentazio feministaren zentroari ekarpena egin nahi dio ikerketaren eta formazioaren bidez. < www.bilgunefeminista.org >
GITE-IPES	1976az geroztik herri-geruzen formazioa sustatzen du gizarte-zientzien alorrean. Gizarte bidezkoago eta askeago baten alde lanean aritzeko heziketa eskaintzen du, eta horrela herri-mugimenduak eta subjektu eraldatzaileak sustatzen ditu. < www.gite-ip.es >
UEU	1973az geroztik euskal unibertsitate bat sortzeko lanean ari den erakundea. Unibertsitatearen eta euskararen artean zubiak eraikitzen ari da, euskal komunitate zientifiko-intelektuala taldekatzen du eta unibertsitateko gaiak ekoizten ditu gizartearen esku jartzeko. Bere gizarte-oinarria ezagutzaren eremu desberdinen arabera antolatzen da. < www.ueu.es >
Ipar Hegoa Fundazioa	LAB sindikatuaren inguruko fundazioa, sindikalismorako eta sindikalismotik lantzen du formazioa eta hausnarketa. < www.iparhegoa.org/index.php/es >
Robles Arangiz Fundazioa	ELA sindikatuaren inguruko fundazioa, sindikalismorako eta sindikalismotik lantzen du formazioa eta hausnarketa. < www.mrafundazioa.es/es >

Iturria: Geuk egina.

Talde bakoitzarekin bi bilera egin ditugu; lehenengoa informatzeko izan da, eta bigarrenagoa, lanerako saioa. Bi bileren xedeak hauek izan dira:

- Ahalik eta gertuenetik jakin zer eta nola egiten duten.
- Beren esperientziatik formazio politikoan hautemandako oztopoak, gabeziak, puntu indartsuak eta erronkak aztertu.
- Proiektuko hasierako ideia egokitu beren ekarpenekin, kezkekin, zalantzekin eta iruzkinekin.

1. Irudia. *Lapikoa Sutan da!* Donostian



Iturria: Argazki propioak.

2.1. EHko zazpi formazio-esperientzietan partekatutako abileziak eta ahultasunak

Hirugarren taulan ikusten den legez, mota askotako formazio politikorako proiektuekin jarri ginen harremanetan lehenengo kontrasterako: dela kokatzen diren borrokako esparruen ikuspegitik, dela antolakuntza-mailagatik (batzuk erakunde bateko formazio-tresnak dira eta beste batzuk berariazko proiektuak dira), dela izan duten ibilbide eta eboluzioagatik.

Horietako zenbait birdefinitzeko unean edo inflexio-unean daude, barneko edo kanpoko arrazoiengatik zein arrazoi sozio-politikoengatik.

Talde hauek beren ibilbideei buruz adierazitako hausnarketak islatzen saiatuko gara jarraian. Horrela, gabezia, muga eta zailtasunik nagusienetako batzuk adieraziko ditugu eta abileziak/puntu indartsuak eta etorkizuneko erronkak ere bai. Aniztasun handia dagoen arren, gako komun ugari dituzte.

Zerk biziartzten gaitu ?

Sendo finkatzea lortu duten zazpi proiektu dira, beren espazioa trinkotzea lortu dute eta berariazko formazio beharrari erantzuten diote. Hori dela eta, oso garrantzitsutzat jo dute beren lana zein sektoreri zuzentzen dioten ongi

identifikatuta izatea eta horren ondorioz hartutako erreferentzialtasuna. Ibilbide horretan beste eragile eta pertsona batzuekin interakzioa eta lotura egiteari funtsezkoa deritzote, hori guztia pilatutako kapital politikotzazt joz hain zuzen ere.

Duten lanerako sektoreaz harantzagoko sareak ezartzea oso positiboa da euren iritziz, proiektua birdefinitzerakoan edo aldaketa handiekiko garaietan funtsezkoa, sektoreak berak erabateko bira egin baitu horrelakoetan, edo normalean zuzendu ohi zen subjektuengana zuzendu ordez, beste batzuek zuzendu baita. Zentzu horretan, EHNE Bizkaia nabarmentzen da, bere formazioa soilik nekazariarentzat izatetik ekoizpen agroekologikoa interesatzen zitzaizen hiriko belaunaldiei ikastaroak ematera igaro baitzen.

Horren ondorioz, belaunaldi arteko erreleboa eta aniztasuna oso garrantzitsuak direla aitortzen dute, lanerako taldeak sortzerakoan. Hori dela eta, aldatzen ari diren testuinguruekiko entzumen eta enpatia ahalmena izan beharra nabarmendu dute, birdefinitzeko, birkontzeptualizatzeko eta berrantolatzeko irekiera izan ahal izateko. Hau da, aldaketei egokitzeko gaitasunaz aritu dira. Urrats ausart hauek dira gerora baikorki baloratu dituztenak, etengabeko esperimentazio logika horretan sartuta baitaude prozesu horiek guztiak modu batera ala bestera.

Amaitzeko, nagusitu den erritmoa su txikian egitearena izan dela dirudi. Oinarizko ekimenetatik abiatuta, adarrak eta sustraiak luzatu zaizkie, proiektu anitzagoak osatuz, eta ibilian konplexutasun, formatu eta bolumenean urrats berriak emanez.

Txin txin diruaren hotsa. Dirua...

Diruaren gaia arazoan iturburu izan dela dirudi, ikuspegi desberdinetatik gainera. Batetik, proiektuen bideragarritasuna dago, beharrezkoa eta erabakigarria. Zentzu horretan, kanpoko finantzaketaren mende egonda energia xahutzen da eta baliabide asko horretara bideratu behar dira. Gainera, talde askok nabarmendu zuten mendekotasun ekonomikoak formazio-prozesuen autonomia jan egiten duela eta erakundearen beraren autonomia ere bai, dela ideologikoki dela prozesuen jarraipenari dagokionez. Bestalde, talde batzuek formazioaren doako izaera bermatu nahi izan dute, eta estrategia desberdinen bila ibili dira horretarako. Besteak beste formazioaren gune formalean sartzea (hezkuntzakoa eta laborala), diru-laguntzak bilatzea, finantzazio-iturri berriak, etab.

Talde gehienek eskaintzen dituzten formazio-eskaintzak doakoak diren arren, denak ez daude horrekin ados. Gainera, militantzia lan-arlo edo arlo profesionala bihurtzeak duen arriskua aipatu dute; horrek boluntario izate horretan eta proiektuen ezaugarrietan kontraesanak eta mutazioak sortzen baititu.

“Titulitisa” eta “erratz-auto” artean³

Bizi garen eta erreproduzitzen dugun gizarteko ezaugarrien eragina ere badago espazio hauetan. Formazioa oro har araupetu eta profesionalizatu egin dela aipatzen dute, hau da, tituluak pilatzeko logika gailendu dela, baztertzen duen sistema honentzako baliogarriak diren ezagutzak akreditatu ahal izateko joera alegia. Hori berori kontraesanean bizi dute: horren eskaria dagoen gizarte honetan estimulu gehigarria izan liteke batetik, baina eztabaidarako alorra ere bada, bestetik: Suntsitu beharreko eremua da ala beste jakintza batzuk akreditatuz konpentsatzeko beharra dago?

Kontsumo-gizartearen ondorioz, ahalik eta ahaleginik txikiena eginaz bizitzeko logikaren eragina ere aipatzen dute. Hau da, inertzia honek (ez da ustekabekoa eta neutroa) ez du saiatzeko, irauteko eta gauzak sakon aztertze bultzadarik ematen, eta beraz eragina izango du formazioa edo formaziorik eza bizitzeko moduan. Horrekin batera, formazioa eta adituen jakituria lotzeko joera ere badago; horren ondorioz, antolakundeetatik kanpo dagoen jendearen esku uzten da formazioa, eta taldeetako jendea eremu horretatik kanpo geratzen da, nahiz eta formazioa prestatzeko eta garatzeko beharrezko baliabideak eta denbora izanez gero hori egiteko gai izango zirela uste. Hartara, ezagutza “adituek” monopolizatzeko joera hori, mugimenduen barnean ere gertatzen dela esango dute.

Bestalde, jasotako hausnarketen eta lekukotzen artean, gure militantziei eta antolakundeiei ezartzen dizkiegun abiadura azkarrei egindako aipamenak ere

3 “Titulitisa” hitzak esan nahi du askotan rol batzuk esleitzeko eta jakintza batzuk aitortzeko ziurtagiri edo balorazio akademiko behar izaten dela; horrek, asimetriak sortzeaz gain, askotan zailtasunak ekartzen ditu formazioan aritzen diren edo formaziorako tresnak izan arren sistemak ezarritako araupetze edota aitortza formaleko prozesuetatik pasa ez diren talde eta pertsonentzat (batzuk nahita edo beste batzuk ezin izan dutelako). Bestalde, “erratz-auto” ideiarekin txirringularitzari egin nahi izan diogu erreferentzia (EHn zaletu asko duen kirola), hau da, lasterketan zehar bidean geratu diren horiek guztiak jasotzen dituen autoaren ikurrari erreferentzia eginez. Beraz, bi irudi horien erdian jarri eta kontsultatutako taldeek formazio politikoa nola hauteman/bizi izan duten adierazten digu metaforak. Logika pilatzaileak eta kuantitatiboak formazioko dinamiketan nola sartzen diren ikusteko eta formazioa ulertzeko eta formazioari heltzeko modua mugimenduen barnean nola ematen den ikusteko erabili dugu.

jaso dira. Horrek esan nahi du formazio politikoaren itzelezko garrantzia azpimarratuko dela maila teorikoan, baina praktikan, berehalako ekintza izango dela nagusi. Ondorioz horrek gure praktika politikoak aztertu eta autokritikoki hausnartzeko une eta guneetatik aldentzen gaitu pixkanaka.

Esaten eta egiten denaren artean dagoen tarte handi horren ondorioz, sarri formazioa lehentasunez lantzen ez dela esango dute, berriro ere eskema bera errepikatuz: “premiazkoak atzean uzten du garrantzizkoa”. Fenomeno hau ez da berria, baina areagotu egiten da denbora/k kentzen eta zatitzen dituen gizarte honetan pertsona konprometituek egun dituzten arazoekin.

Amaitzeko, esan beharra dago 7 talde/erakundeekin egindako lan-saioen amaieran JMZk antolatutako tailer bat egin zela UEUn⁴ eta 4. taulan jasotako ekarpenak bateratu genituen bertan. Tailer horretan Mugimenduetako partaideak egon ziren, eta gabeziez, puntu indartsuez eta erronkez hitz egin genuen.

4 Udako Euskal Unibertsitateak hainbat gairi buruzko ikastaroak ematen ditu udaro Eibar, Iruñea eta Baionan. Joxemi Zumalabe Fundazioak (JMZ) ikastaro bat ematen du urtero. Oraingo honetan prozesuaren lehenengo fasea ixteko baliatu zen ikastaroa.

4. taula. Borbor (K) proiektuari hasieran egindako ekarpenak	
<p>EHNE- Bizkaia</p>	<p>Balorzio positiboa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Parteideez erabakitzeke beharra: Soilik mugimenduetan antolatutakoentzako izango al da? Parte-hartzea pertsonala izango da ala antolakundeen ordezkari gisakoa? 2. Antolakundeek proiekturik egin beharko dute? 3. Formazioa eraldaketa eta eraldaketarako tresna denez, teorikoa eta praktikoa izan behar da. 4. Beren esperientziatik egindako gomendioak: <ol style="list-style-type: none"> a. Administrazioa eta burokratikoak karga legez. b. Mugikortasuna, malgutasuna eta eskusibotasuna lagungarriak dira. d. Logika-aldaketa: Formazioa jendearengana gerturatu behar da eta ez jendea formaziora erakarri. e. Informazio gardena. Ezkutuko informazioak saihestu. f. Prozesuaren garrantzia. Beharrezko denborak hartu.
<p>UEU</p>	<p>Balorzio positiboa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Herri Mugimenduen eta profesionalizazioaren arteko lehia eztabaidatu. 2. Komunikazio-hizkuntza euskara izateko zer egin eztabaidatu. 3. Titulazioen gaia eztabaidatzeko beharra. Titulazio ofizialeko atal bat eta beste zabalago batekin osagarritzeko aukera. 4. Formazio programa jasoko duen komunitatea definitzeko beharra. Pixkanaka parte-hartzea txikitzeko arriskua, hasieran komunitatea mugatuegi definitzearen ondorioz. 5. Begirada nazionala bermatzeko, programaren transhumentzia txalotzen da. 6. Bertatik bertarako eta on-line atalak konbinatu arren, formatu bati lehentasuna eman beharra. Bertatik bertarakoaren garrantzia, taldea osatzeko eta parte-hartzea sustatzeko. 7. Kontuan izan gizarte-sareak oso iturri ona direla, gaiak eta partaideak aurkitzeko. Adibidez, INGUMA sarea.

<p>Robles Arangiz Fundazioa</p>	<p>Balorazio positiboa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Prozesua bera interesgarria iruditzen zaie: zehatz esateko, edukiak definitzeko modua, prozesua ikaskuntza-saio bihurtzen baita. 2. Interesgarria urtebete irautea, taldea sortzeko. 3. Interesgarria mugimendu arteko erlazioak elikatzeko. 4. Ikaskuntzak konfiantzazko giroan eta erritmo lasaian garatzeko beharra.
<p>GITE-IPES</p>	<p>Balorazio positiboa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Anbiziotsuegia? 2. Proiektuak IPESen izango duen eraginagatik kezka. Nola erlazionatu da Borbor (k) egungo formazio-proiektuekin? 3. Mugimenduen artean sinergiak eraikitzeko proiektu egokia.
<p>Emagin</p>	<p>Balorazio positiboa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Baina zalantza ugari: <ol style="list-style-type: none"> a. Ez al da hobe, egungo proiektuak indartzea atomizazioak eta inkomunikazioak gaindituta, beste berri batean sartu beharrean? b. Berekin duen lan-karga handia kezkarria da: Izan prozesuan zehar zein gerora militanteek parte hartzeko izan dezaketen zailtasunak: denbora, mugikortasun geografikoa... 2. JMZk bere webgunearen bidez formazio politikoan dagoen eskaintzaren agenda komuna egiteko proposamena. 3. Webgunearen bidez banatu ikastaroetan erabilitako edo ikastaroen ondoriozko materialak. 4. Ardatza euskara izan arren, hau ez dadila nazioartean konektatzeko muga izan.

<p>Bizkaiko Urtxintxa Eskola</p>	<p>Balorzio positiboa. Falta diren eremuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Herritik eta herriarentzat izan behar da. Dakigunetik abiatuta, zer erakutsi nahi dugun, zer ikasi nahi dugun eta nola egin nahi dugun aztertu. 2. Parte-hartzailea izan behar da, baita proiektua sortzeko prozesua bera ere. 3. Inklusiboa izan behar da eta aniztasun funtzionala kontuan izan behar du. 4. Nerabeei eta haurrei zabalitzeak zer nolako interesa lukeen aztertu.
<p>Ipar Hegoa Fundazioa</p>	<p>Balorzio positiboa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Proiektu honen oinarri komuna eztabaidatu beharra. 2. Edukiak behar komunetatik abiatuta definitu beharra: <ol style="list-style-type: none"> a. Zein dira behar horiek? b. Zeri erantzun nahi diote? c. Zer ertronkari erantzuten diote? d. Zertarako formazio-ekimen hau? e. Bakoitzak bere aldeak ezin du. Zein da ekimen honek egingo duen ekarpen osagarria?

Iturria: Geuk egina.

5. taulan adierazten den legez, eremu metodologikora eta epistemologikora jo da behin eta berriro. Era berean, etengabeak ziren mugimenduetako kultura politiko nagusiarekin dituen interrelazioen erreferentziak. Bere formazio-biografiak eta orain arte antolatutako formazio-esperientziak aztertu ondoren, bereziki azpimarratu dira: ezagutzen eta borrokan hierarkizazioa, gaitasun kritikoaren eta auto-kritikoaren gabezia, arrazoia eta diskurtsoaren nagusitasuna, mugimenduen daramaten abiadura ez hausnarkorra, norabide bakarreko metodologia eta mugimenduen arteko artikulazio gabezia.

5. taula. Hasierako diagnostikoa: Borbor (k)ren abiapuntua
Metodologikoa eta epistemologikoa
Egia absolutuetan formatu gara. Eztabaida gutxi, gatazkek eta kontraesanek beldurra ematen digute.
Galdetzeko eta ezagutza gabezia adierazteko erresistentziak. Nork dakien eta nork ez hierarkizatu egiten dugu. Formazio bertikal eta ortodoxoa nagusitu zaigu.
Taldeko hausnarketen eta esperientzia praktikoen garrantzi txikia; oro har, ez da sistematizatzen sortutako ezagutza: ordenatu, aztertu, ondorioak atera... horren beharra dago.
Formazioa planifikatzean, ez diogu behar adinako garrantzia ematen: nork erabakitzen du zertan trebatu? nola, zertarako eta noiz trebatu? Nondik hartzen dira erabaki horiek?
Taldeen funtzionamenduei buruzko formazio txikia. Kanpora gehiago begiratzen da barrura baino.
Metodologiari ez zaio garrantzirik ematen.
Formazioa oso intelektuala da. Oro har, ongi pasatzea eta asebeteta sentitzea ahazten zaigu.
Mugimenduei eta beren praktikei balioa emateko beharra.
Euskaraz sortzeko eta bertatik pentsamendua eraiki beharra.
Herri mugimenduen arteko sareak
Sareak falta dira, bakoitza berean trebatzen da, eta horrela endogamia elikatzen da eta ez da egiten azterketa orokorrik, osokorrik.
Delegazionismoa elikatzen duten Kultura, funtzionatzeko modu eta egiturak.
Toki eta denbora gutxi formazio kritikorako. Ez zaio lehentasunik ematen.
Militantzia eta formazio-ereduek, denbora antolatzeko moduan eragina dute.

Ez zaio formazioari lehentasuna ematen, praktikan ez bederen (berriro denborak...). Teoria eta praktikaren arteko oreka gabezia. Penduluak bezala gabiltza, batzuetan pasa egiten gara eta beste batzuetan ez gara iristen.
Herri mugimenduen eta gizartearen arteko lotura-elkarrizketa falta. Gure terminologia oso geurea da eta ez dugu igortzen. Batzuetan eguneroko opresioetatik urruntzen gara.
Gaiak
hierarkizatu egiten dira, batzuek prestigio handiagoa dute.
Opresio dinamikak ez ditugu behar adina lantzen (bere eguneroko mekanismoak). Gaiak
Profesionalizazioa
Lehen formazio autodidakta eta amateurra zen. Orain eremu batzuetan instituzionalizatu eta formalizatu egin da. Oreka egon behar du.
Akademiarekin konexioa eta deskonexioa. Gune batzuk profesionalizatu egin dira. Akademia mugimenduetatik urrun jartzen da.
Baliabideak
Dirua oztopo da: ez dago baliabide ekonomikorik.
Informazio asko dago, baina iragazteko gidarik gabe.
Paprraideak
Garrantzitsua da norengana zuzendu: Antolakundeengana, militanteengana, pertsonengana...
Prekarietate ekonomikoa eta bizitza prekarioa formaziorako oztopoak dira.
Neskato eta nerabeentzako behar adinako formaziorik ez da egon.
Formazioak konpromisoa eta diziplina esan nahi du: esfortzua. Kontraesanak sortzen zaizkigu.
Ez dago irekiera ideologikorik, ideiak konfrontatu behar dira, gaitasun kritikoa...

Iturria: Geuk egina.

Lan-saiotetan sortutako gai hauek guztiek JMZren hasierako intuizioa indartu egin zuten, eta proiektuaren helburuak eta oinarri politiko-pedagogikoak aberastu zituzten. Are gehiago, formazio politikoari emandako izaera instrumentala aipatzen zen, hau da, erakunde batzuek formazioko gaiak edo alorrak unean abian jarritako estrategien beharren arabera eraiki dituztela. Alor horietan militantzia hein batean gaitu nahian, eta militanteen prozesu

integralei eta ahalduntze-prozesuei lagun egiteko beharretik urrunduz. Gai honek ikustarazten digu *banku-heziketa*⁵ ereduarekin erreproduzitzen dela, Freirek esango lukeen bezala. Horrekin batera, hausnarketa batzuetan formazioaren fragmentazioa ere aipatzen da, hausnarketak, gaitasunak, tresnak eta gai praktikoak elkarren artean bananduz.

6. taula. Formazio politikoa eta eguneroko bizitza. Gazte euskaldun baten bizipenak eta susmoak

Zurriolan egin genuen “Bor Bor (k) herri jakintzen laborategiak jardunaldietan” gure formazio politikoaren gainean hausnartzeko galdetu ziguten, ea zein den oroitzen dugun lehen esperientzia.

Segituan, gogoratu nuen gazte mugimenduan militatzen hasi nintzeneko mintegi eta koaderniloak. Baina ez zen hori, noski, nire lehen formakuntza politikoa izan. Atzerago begiratu beharra zegoenaren susmoarekin, hasieraren batetara iritsi nahi izan nuen, nire formazioan lau mugarri aipatzeko.

Baga. 98a izan zitekeen, agian lehenago. Nik 8 urte eskas izango nituen eta Euskal Preso Politikoak gose greban zeuden. Oroitzen ditut gure auzoko kale bazter guztietan ur botilak zeudela, eta pankartak, eta kartelak, eta margoketak. Itogarria zen giroa, larria. Eta haur nintzenez zerbait gertatzen ari zela jakin nuen. Amarekin kaletik nindoan eta galdetu nion zer ote ziren ur botila horiek. Hor hasiko ziren gure mundua ulertzeko lehen saiakerak.

Euskadi goxo, jator eta punta huntan, ezin bestela bizi, barrikadak aukeratu behar izan ditugu txikitatik. Koadrilako haur batzuk hileta batzuetara joaten ginean. Besteak besteetara. Nork bere hiletak ditu herri honetan, nork bere mundua ulertzeko era.

Baina aurrera egin genuen koadrilako lagunok, barrikadek banatzen ez gintuztelarik oraino. Eta gure nerabe garaian, gure bigarren sozializazio handia eraikitzearekin geunden. Dena egin nahi genuen, lehenak izan denetan, eta hor heldu zen gure musikaren afizioa.

Biga. Cassetten trantsizio aroan bizi ginen, irratian nobedadeen zain egoten ginen REC eta play aldi berean sakatzeko cassette birjinen gainean, biharamuneari trapezio kulturalari ekiteko. Eta gure arreba zaharrak tartean gure hornitzaile gustukoena bihurtu ziren. Iritsi ziren beraz Piperrak, Kortatu, Hertzainak, Eskorbuto eta Negu Gorriak. Aurreko hamarkadetako aldarrikapenak hasi ginen abesten eta gure egiten, hipokresia zer eta borrareruak nor ote ziren jakin gabe.

5 Paulo Freire-rena dugun kontzeptu honek, irakaslea irakaskuntza subjektu bakar gisa eta ikaslea eduki zein jakintza jasole den edukiontzi soil gisa darabilen hezkuntza ereduari egiten dio erreferentzia.

Nerabe sozializazio honetan, nor bere bidea egiten hasi behar zen jada. Barrikadak estuagoak izan ziren eta batzuk ikasle zein gazte mugimenduan hasi ginen kuxkuxeatzen aurrena, militatzen ondoren.

Higa. Ez dut oroitzen egia esan militantzia hasiera modu protokolario eta ofizialik. Ez dakit zer den, inertzia ala urjentzia, baina gure belaunaldian aurre-militantzia bezalako tarterik ez da izan ohi. Horrek ez du esan nahi, formaziorik ez zegoenik, noski ezetz!

Nire ustez mugimendu politikoen Formakuntza ez da bakarrik mundua ulertzeko garatu beharreko jakintza. Formakuntza pertsonak “sortzeko” prozesuak dira. Pertsonen kontzientzia eta autokontzientzia prozesu historiko batean kokatzea, subjektibitate kolektibo batean norbanakoaren subjektibitatea garatzea. Sozializazio modu berri eta zehatz bat bilatuko da formazio prozesuen bidez.

Eta beraz, ez genituen ikasi feminismoaren eta sozialismo zientifikoaren oinarri teorikoak. Gauza legal eta ilegalen arteko bereizketa ikasi genuen, eta hauen lanketa berezitua ere. Azkar pentsatzen eta etsaiak identifikatzen ikasi genuen ere. Txakurrak despistatzen eta azkar korrika egiten, nekea barneratu gabe. Kaligrafia pixka bat ere hobetu genuen graffiti artean. Eta pazientzia itzela asanblada amaigabeei aurre egiteko ere. Zuzendariekin negoziaketak grebak zirela eta. Ikasle anarkista eta yuppies artean kontsentsuak lortzen, eta ekintzak aurrera ateratzen PNVko gazteekin. Bolognaren bilakaera memoriaz ikasi genuen baita Okupazio bat egin aurretik pasa beharreko neurri guztiak ere. Nor ginen ikasi genuen. Eta nor ez zen gu.

Baina antza, ez genuen horren ondo ikasi txakurrada despistatzen, eta 2010 urrian ni atxilotzera etorri ziren, 20 urte eskas nituela. Lau hilabete ezkutuan egon ostean, 16 hilabete eman nituen Espainia eta Frantziaren kartzelatan. Barroteek baimentzen duten zero zati horiei aurre egiteko liburuak ditugu lagun hoberenak sarri. Eta ez naiz ondo oroitzen nola, baina lehen marxismoari buruzko liburua heldu zitzaidan esku artera.

Beti esan izan dit lagun batek, poliziari aurre egitea baino beldur gehiago ematen zigula liburuak irakurtzea. Eta hor hasi nintzen liburu bat bestearen atzetik, ordura arte nire buruan emandako galderei erantzunak topatu asmoz, konturatzen galderak garrantzi gehiago dutela maiz, erantzunek baino. Eta ulertu nuen Sarrik zioen hura “17 urte nituenean orain dakidana baina askoz gehiago nekien”. Gure belaunaldia zurrumbilo militante horren zurrunean geunden itota, kanpoko mundu horri buruzko galdera gutxi behar genituela egin. Nor gara gu eta nor ez, askotan aski.

Kartzelak ematen dizun STOP hori behar izan nuen nik, Teoriara salto egiteko, teoriatik ikasteko. Orain artekoa kuestionatu eta berriari ekiteko. Teoria-praktika kate berriari bide emateko.

Lau mugarrak aipatu ditut jada. Baina nahiago nuke errepasatu lau puntuok nire biografiaz haraindi. Lau eremu, edo ardatz bereiz ditzakegu formakuntza politikoan: soziala, praktikoa, teorikoa eta artistikoa.

Soziala:

Gure harreman sozialetan sortzen ditugun sareetan, eraikitzen ditugu gure jakintza eta ikuspegiak munduaren gainean, gure gainean. Beste modu batean esateko, gure sozializazioan ematen da gure ideologizazio edo subjektibitatearen eraldaketen gehiengoa. Beraz, harreman sozialetara eraman behar ditugu aldarrikapen eta eztabaida politikoak.

Praktika:

Paulo Freirek argi asko adierazten digu, praktikaren gainean soilik eraiki dezakegula teoria. Teoria, bera, praktikaren gainekoa delako, edo ez da izango. Praktika eta teoriaren baturari praxi deitzen zion berak: biak batera, bana ezin. Praktikarik gabeko teorika= berbalismo hutsa. Teoriarik gabeko praktika = aktibismo hutsa. Bien uztarketa, hitza eta ekintzarena, burua eta eskuarena da benetako praxia.

Teoria :

Baina jakin behar dugu ere abstrakzio puntu batzuetara iristen. Inteligentzia kolektiborako urrats ezinbestekoa da askapen prozesuetarako teorien sorrera. Eta gu baino askoz argiagoa den jendearen lana gure egitea ez da dogmakeria, ezta postureo intelektuala: jakintza den ondare komuna aprobetxatzea baizik. Jakintzaren eraikuntza kolektiboan .

Artea:

Baina zer ginateke gizakiak, sorkuntzarik gabe? Zer hitzetatik harago dagoen jakintza hori gabe? Esan ezin diren gauzak dira sarri garrantzitsuenak. Esan ezin ez den hori, arteak eta sorkuntzak betetzen dute, jakintza emozionalak kudeatzeko beste hizkuntza horri ere, herri mugimenduok kontenplatu beharko genuke.

Beraz, Formakuntza etikoa eta poetikoa gehitu behar zaizkio politikoari. Edo beste modu batean esanda, hiru alderdi hauek barnebildu behar ditu formakuntzak. Dogmakeriak eta sinplekeriak alde batera utzi, intelektualismo eta akademizismorik gabeko teoriak eduki ditzagun.

Kide batek beti esaten zuen: “gu ez gara oso azkarrak, baina denborarekin emaitza oinak ematen ditugu”. Zerbait badakigulako izango da.

Xalba Ramírez Cruzen lekukotza

2.2. Jardunaldietan identifikatutako puntu indartsuak

Bertan indargune hauek aipatu ziren, eta zazpi esperientziek jada planteatutakoei gehitzeaz gain, oso garrantzitsuak direla uste dugu, lehen begi kolpean identifikatutako zailtasunak eta erronkak handiagoak direla diruditen arren.

Ongi etorriak garai interesgarriotara. Une politikoa

Mundu osoan eta herri bezela bizi dugun uneak indarra eta ahalmena duela dirudi. Sormenari eta begirada zabalagoari ateak gehiago ireki zaizkio. Zentzu horretan, mugimendu askatzaileak berrikuspen eta hausnarketa kritikoaren garaian sartuta gaudela dirudi. Eta kosta egiten da batzuetan, ez baita zeregin erraza.

Dena dela, praktika berriak eta inertzia gainditzeko gogo nabari dira, inertzia horiek agortutako bideak direla gero eta argiago ikusten baita. Ez horrenbeste akatsen ikuspegitik, baizik eta etengabeko ikaskuntzaren ikuspegitik, mundua eta koiunturak oso azkar aldatzen ari baitira. Geure burua ber-asmatzeko eta etengabe birkokatzeko erronkaren aurrean gaude. Hasiz doan gure gizarteko konplexutasun honi heltzeko eta ulertzeko prestutasuna dago.

Paradigma desberdinen arteko presentziak eta tira-birak jada gure errealitatea dira, eta horrek azterketa sakonagoak egin zein anitza den horrekin etengabeko elkarrizketan egotera garamatza. Amaitzeko, bide emantzipatzaileen aldeko borrokan une bereziki garrantzitsua bizitzen gaudeneko ustea dagoela dirudi, arriskuz betea baina baita aukerez ere, urteetan urratzen aritu garen arrakala bat ireki izan bailiran.

Saretze lanean nahas-mahasean aritzeko garaia.

Elkar konektatzeko, nahasteko eta artikulatzeko gogo

Dirudenez, autosufizientziaren nozio moderno eta faltsua zalantzan jartzen hasia da. Geure burua interdependiente jakitearen eta onartzearen norabidean ibili nahi dela dirudi. Feminismo eta ekologismo radikalek hau berau eremu askotan gogorarazten diguten bezala, mugimenduekin ere paralelismo bat egin dezakegu. Hau da, taldeok elkar behar dugu, batez ere aurrera egiteko desberdintasuna behar dugulako. Hartara ikuspegi ilustratutik, sormen kolektiboaren ikuspegira jauzi eginez.

Aniztasuna oztopo bezala baino, behar eta aukera modura ulertzen dugu; izan ere, elkartzean, hitz egitean, anitzak elkarrekin lanean aritzean jazo ohi den gatazka edo tentsioan aukera ugari sortzen da aurrera egiteko, ikasteko zein aniztasunean batasuna eraikitzen ikasteko.

Azken urteetan *josten*, *saretuz* eta antzeko hitzak errepikatzen dira jardunaldi edo bilera desberdinen lelo gisa, eta euskal panoraman lankidetzarako esperientzia berriak sortuz doaz. Are gehiago, formazio politikoa aipatzean, eskaintzaren atomizazioa atzean uztea landu beharreko erronkatzat hartu da.

Testu honen hasieran esan bezala, Borbor (k) Herri Jakintzen Laborategia sortzeko talde-prozesu parte-hartzailearen sistematizazioa egitea da xedea.

Prozesuaz hitz egitean, ibilbide dinamiko, konplexu eta aldakorren osotasuna eta zati bakoitza azpimarratu nahi dira. Prozesu honen hastapena hasierako ideia sortu zenekoa dugu eta gaurdainoko ibilbidea, proiektu zehatz-identifikazioan forma hartu eta gauzatu denekoa. Bestalde, proiektua, prozesu sortzaile horren produktua dugu. Beronek gehituz joan diren dimentsio eta osagai askotarikoak ditu, bakoitza bere ezaugarri eta berezitasunekin, eta Borbor (k)ko lehenengo edizioan entsegetzeko diseinatu dira denak.

Proiektua hasi eta abian jarrita ez da amaitzen, ordea, prozesua. Lehentasunak, zeregin nagusiak eta unea baino aldatzen ez direla esan dezakegu. Diseinatzetik, konfiguratzetik, proiektatzetik... ezartzera, burutzera, egitera, ibiltzen hastera... igaroko dela besterik ez.

Prozesua eta proiektua ez dira nahitaez gauza bera; izan ere, elkar eratzen dute. Bestela, arazoak egoten dira.

Hemen ez ditugu proiektu eta prozesu ideiak elementu dikotomiko bezala planteatu nahi, ezta mugitu ezin diren gune bezala ere. Jarraian proiektuaren ezaugarriak aurkeztuko ditugun arren, eta horrek lehen begi kolpean estatikoki egituraturutako kontua dela eman balezake ere, bereziki azpimarratu nahi genukeena, honaino iristeko eta forma hau eta eduki hauek emateko hainbat dinamismo, eztatbaida eta zalantza egon direla (eta egongo direla) da. Prozesuaren eta proiektuaren artean etengabeko elkarriketa egotea da egokiena gure aburuz. Baina beti ez da hala izaten. Ez bederen tentsio eta zailtasunik gabe, baina hala ere ekimen honi forma eta zentzua ematen diona bidea bera izatea izan da, gure hautu politikoa. Hau da, prozesuak proiektua moldatu dezala. Borbor (k)ren ezaugarri eta dimentsio asko berriro pentsatu

eta konfiguratu izan ditugu, prozesuak nabarmendu dituen arrastoak oinarri hartuta.

Ñabardura hori egin eta gero, proiektu honi eman dizkiogun eta bere egin dituen ezaugarri nagusiak leudeke; ez da zerbait itxia, lehenengo edizioan probatzeko eta ikasteko zerbait baizik. Ondorengo atalean proiektua egiteko sormen-prozesuko unerik, korapilorik eta aldaketarik garrantzitsuenetako batzuk aipatuko ditugu, proiektua beraz azaltzearekin batera. Izan ere Proiektua, entitate eta identitate gisa, esanahi eta eduki ezberdinak sortuaz joan baita hilabete hauetako ibilbidean zehar.

3. Proiektuaren Ezaugarriak



Iturria: Argazki propioak.

Aurreko atalean azaldutako diagnostikoa, indargune eta ahulguneei buruzko ariketa osoa zein adieraziko erronkak izan dira Borbor (k)ren elikagai. Hor hasi ginen ordura arte Borbor (k)ri buruz genuen zirriborroa pentsatzen eta birformulatzen.

Ariketa aberatsa eta beharrezkoa izan da, pixkanaka eta mailaz maila egindakoa. Hori oinarri hartuta osatu genuen proiektuaren bizkarrezurra eta 2015-2016ko lehenengo ediziorako proposamen zehatza.

3.1. Printzipio politiko-pedagogikoak eta helburuak

Proiektu honen abiapuntua eta etengabeko erreferentzia pedagogia emantzipatzailea da. Honek (trans)formazio sozial eta politikorako haziak ereitea ahalbideratuko digu: herri-heziketaren bidez, elkarrekin ikasiaz, jakintzak sozializatuaz eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboan arituz.

Herri-mugimenduetako jendea izango da Borbor (k)ko protagonista; subjektu aktiboak, kritikoak, ko-arduradunak eta konprometituak. Beraien hainbat praktika, eguneroko zein kokatutako borroka eta jakintzak, beraien iragan-oraineko eta etorkizuneko ametsak dira ekimen honen elikagaiak, eta Borbor k-ren izatea-nortasuna nekez pentsatu ahal izango dugu horietatik kanpo.

Intersekzio anitzen ikuspegia da ekimen honen beste euskarri politiko-metodologikoetako bat. Tresna indartsu horri esker, zapalkuntza desberdinei helduz (generokoa, klase soziala, sexu-aniztasuna, aniztasun funtzionala, kulturala, hizkuntza-arlokoa, etnia edo adina nabarmentzen dira), interpretatu eta problematizatu egin daitezke, elkar eratzten dutela eta elkarrekin konbinatzen direla ikus daiteke, pertsonen eta taldeen ezaugarri aldagarrien arabera eragina desberdina dela ikustaraztearekin batera.

Sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonial honen aurrean, Borbor (k) tik interseksionalitate hauek taldean ikusgarri bihurtu, aitortu eta landu nahi ditugu, geure buruak ikusgarri bihurtu, aitortu eta lantzearekin batera. Hierarkizatu eta zatitu ordez, partekatutako ibilbide hau konplizitateak indartzeko, ahalduntzeko eta saretzeko zubiak eraikitzeke aukera emaile izan dadin. Horreetarako:

- Borroken, mugimenduen eta esperientzien antzekotasunak eta aldeak ezagutu eta aitortu behar dira, sormenerako espazio-sare bat konfiguratzeko eta aliantzen, ikaskuntzen eta artikulazioen berrikuntza politikorako.
- Formazioko eredu bertikal eta dogmatikoetatik aldendu, eta urratsak egin behar dira praktika pedagogiko askatzaileagoetara, Herri Mugimenduen praktika eta jakintzetatik eta praktika eta jakintzetara.
- Hezteko moduari garrantzia emango dion formazio proiektua eraiki, prozesu eta metodologiak zainduko dituena.

3.2. Edukiak

LBorbor (k)ren edukiak herri-jakintzetatik eta Euskal Herriko herrimugimenduetako pertsonen eta taldeen eguneroko praktiketarik abiatzen dira eta horietara itzuliko dira, abiapuntu eta helmuga herri mugimenduak izango ditu. Gizarte-eraldaketaren marko orokorra begibistatik galdu gabe, talde eta sektore bakoitzak bere aberastasuna eta balioa du, eta proiektu/prozesu kolektiborako ekarpen handia dira.

Ekimen horren funtsezko edukietako bi diziplinartekotasuna eta dimentsio anitzekoa izatea dira; horiek elkar trukerako espazio-denborak eskainiko dituzte, eta jakintza eta esperientzia desberdinen arteko elkarrizketa ere bai. Dikotomia zurrunetatik baino, dinamismotik ulertzen ditugun honako hauek konbinatuko ditugu: teoria eta praktika, gorputza eta ideiak, publikoa eta pribatua, emozioak eta erlazioak, banakoa eta taldekoa, afektiboa eta politikoa, subjektuak eta egiturak/sistemak, objektiboa eta subjektiboa, formak eta edukiak, zergatiak eta ondorioak, testuak eta testuinguruak, abstraktua eta zehatza, tokikoa eta globala.

Modu xumean eta eskuragarrian, baina sakontzeko eta konplexuago izateko aukerekin, gaiak hierarkizatu gabe eta sektorializazioa gainditzeko saiakera eginez, gai hauekiko gogoeta, modu kritiko eta integralean landuko dira. Izan ere, egoera zehatzei lotutako errealitate desberdinetatik egunero birsortzen diren gako teorikoak eta praktikoak; herri honen memoria aktiboan birsortu diren horiek alegia, aitortu, baloratu eta ber-hartu nahi ditugu.

Zentzu horretan, hausnarketa/teorizazioa eta praktika/aplikazioa konbinatuko ditugu. Bi alderdiei beren baitan emango zaie garrantzia, baita elkar eratzen duten elementu/dimentsio diren heinean ere. Praktika teorizatzea eta teoria politizatzea da kontua, Txilen borrokan dabiltzan kide *pobladoreak* esaten duten bezala. Zentzu horretan, erronka garrantzitsua izango da denen artean proiektuaren sistematizazio kolektiboa sustatzea. Zeregin horrek lotura estua du edukiak lantzearekin eta jakintzen eraikuntza kolektiboarekin, eta funtsezkoa da egin beharreko ibilbideak erregistratu eta sozializatu ahal izateko.

Amaitzeko, esan beharra dago aniztasun ideologikoa eta politikoa bermatzen saiatuko garela, eta ikuspegi kritiko desberdinen arteko eztabaida sustatuko dela. Aniztasun hori bera izango dute gaiek ere, eta pentsamendu kritiko pertsonala eta kolektiboa indartuko dira.

3.3. Partaideak

Arlo sozial eta herritarrean konprometitutako militante eta aktibistak, zein hauen aliatuak dira, herri-jakintzen laborategi honetako partaide gisa irudikatu ditugunak. Subjektu aktibotzat hartzen ditugu eta bakoitzaren erritmoak eta berezitasunak errespetatuz; horiek oinarri hartuta osatuko dira helburuak, elikatuko taldeko eta banako hausnarketak. Funtsean ahalduntze prozesua (kontzientzia hartzen, barneratzen, aldaketa sustatzen) bultzatu asmo duten baliabideak eskainiko dira.

Euskara izango da ardatz eta hizkuntza nagusia. “Euskaraz eta euskarazko pentsamendua sortzea”, oso garrantzitsua da herri-mugimenduetako kideen tzat. Beharbada hizkuntza eta lengoia izan dira eta dira dominazio sozialaren erreprodukzioarako, naturalizazioarako eta kontrolerako sistema indartsuenetakoak. Euskal Herrian eztabaida material eta sinbolikorako eremua izan da Euskara, herri honetako elementu eratzailerik indartsuenetakoak. Gizarte-eraldaketaren erdian jartzea ez da soilik borroka historiko bat alde batera ez uzteko saiakera; mundu-ikuskerara euskalduna berreskuratzeko eta modu bizian etengabe ber-sortu eta asmatzeko saioa ere bada. Hori dela eta, taldean eraikitako herri-jakintza disruptiboak eta askatzaileak hizkuntza honetan egiteak garrantzi handia du, eta oinarritzko praktika izateaz gain aurre-figuratiboa ere bada.

Hasieran itzulpena egiteko planteamendu zentzuzko eta berritzailearen aukera aztertu zen arren, gaur egun ekimenak dituen aukera zein baliabideetatik at dago. Beraz, oraingoz euskaldun aktibo edota pasiboen parte-hartzea aurreikusten da, hau da, euskara ulertzen dutenena, hitz egiteko erraztasunik ez izan arren. Formula hau pixkanaka aldatu egin daiteke. Etorkizunean mekanismoren bat lortu nahiko genuke denon artean, pentsamendua euskaraz sortzeko beharra, eta ahalik eta jende gehienek parte hartzeko xedea osagarriak izan daitezten.

Herrialde honetan eta herri honentzat, hizkuntzak mugimenduen artean historikoki egon den harresietako bat osatu du, eta tarteka dinamika endogamikoak sortu ditu hizkuntza-ibilbide bakoitzaren barnera. Kontua aldatzen ari da, azkeneko 30 urteetan mugimenduek euskalduntzeko hautua gero eta gehiagotan egin dute, baina bestalde, azkeneko 15 urtean migrazioaren ondorioz jatorri desberdineko jende berria etorri da eta gure herrialdean bizitzea erabaki dute. Oro har Euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko eskubidea beste behin ere ez denez errespetatzen, gure Herria osatzen duten pertsona etorri berriek beraien 150 hizkuntzak ekarrita ere,

zailtasun hori dute aurrez aurre. Honek Euskal Herria partekatu ahal izateko beharrezkoa dugun topaketa eta elkartrukea ez ditu errezten.

Modu berriak asmatzeko ahalegin handiak egiten diren arren, inposatutako norabidea hartu ordez bestea hartzeko saiakera egiten den arren, ez da tentsiorik gabeko bidea, beste opresio modu batzuen (eta beren jendearen) artean gertatzen den legez. Opresioen aniztasunak eta ikuspegi intersektionalak lantzeko zailtasunak interpelatu egiten gaituzte beren tentsio eta kontraesanekin.

Bidean izan da bada beste gai konplexurik ere: laborategi honen lehenengo edizioan parte hartu beharreko taldearen osaera alegia. Proiektua egiteko prozesuan izan dugun eztabaidarik gogorrenetako bat parte-hartzaileen “profilaren” ingurukoa izan da. Izan ere, errealitate konplexua dugu abiapuntuan, mugimenduetan hainbat eta hainbat profil baitaude. Horietako batzuei balio gehiegi ematen zaie eta beste batzuk, berriz, ikusezinak dira. Jakintza eta trebezia desberdinak balioesteko modua orekatu eta parekatzeko asmoz, kontu handia izan dugu taldearen eraketan aniztasuna bermatzeko.

Espazio mikro-klimatiko bihurtu zitekeenaren beldur izan gara, *beti-betikoak* gauden espazio bihurtzeko beldur hain zuzen ere. BorBor (k) Euskal Herriko sektore, praktika eta borroka anitzen ordezkaria izatea nahi dugu. Hori lortzea aldiz, ez da ariketa erraza, eta ez dugu argi izan Borbor (k)-ko talde sustatzailetik guk mugatu beharko ote genituzkeen gai hauek ala ez.

Oro har taldeetako militante batzuk formazio politikoarekin zerikusia duten guneekiko interes handia izaten dutela ikusten genuen. Hor agertu zen tentsioa. Batetik, ez baitiegu prozesu honekin beren buruak eta espazioak aberasten jarraitzeko aukera kendu nahi. Baina bestetik, gure iritziz garrantzitsua da Borbor (k)n parte hartzeko gogoia eta ilusioa duten orok ere tokia eta ahotsa izatea, nahiz eta orain arte arrazoi edota errealitate desberdinen ondorioz buru-belarri ez aritu izan formazio politikoaren eremuan.

Gai honen inguruan ikuspegi desberdinak sortu ziren. Batetik, ez genekien ziur ekimen honetatik unibertsitateetako aktibisten asmoei erantzun behar genien ala ez. Zalantza horrek proiektuaren printzipio politiko-metodologikoei lehentasuna emateko beharra adierazi zigun, hau da, askatzailea, taldekoa, kritikoa, eraldatzailea... izateko gogoari. Aldiz profil akademikoa dutenek espazioa monopolizatuz gero, proiektu honekin horiek apurtu nahi diren arren, ohiko dinamika eta praktika hegemonikoak errepikatzeke arriskuaren beldurra sortu zitzaigun.

Baina, bestalde, egia da asimetriak edo jakintzen eta praktiken hierarkizazioak ekidin nahi ditugun arren, ezin ditugula izkutatu edo ez ikusiarenak egin. Horregatik kontu pixka bat izanez gero parte hartzeko gogoia eta ilusioa duten guztiei tokia egin behar zaiela ikusi genuen. Zentzu horretan, ezagutza akademikoak edota unibertsitarioak proiektu honetako jakintzetako, trebezieta eta gaitasunetako bat baino ez dira izango.

Izan dugun beste eztabaida eta erronketako bat, prozesu hau partekatzen dutenak, prozesuan zehar zein ondoren beraien erreferentziazko gune eta inguruetan esperientzia eta ikaskuntza horien biderkatzaile nola bilakatu izan da. Izan ere pazientziaz eta denborarekin, Borbor (k) herritar sektore eta talde desberdinek hartu, aldatu, problematizatu eta harantzago eramanez dezaketen proiektua izatea nahi dugu. Hartara beste espazio konplizeetako kideek ere proiektua ezagutu eta ondorengo edizioetan parte hartzeko gogoia izan dezaten.

3.4. Ezaugarritzea - formatua

Proiektu honen ezaugarri nagusien artean Borbor (k)k izaera irekia eta malgua izateko nahiarena dago. Ez da herri-mugimenduen definizio itxiekin lotu nahi, horregatik kideak eroso sentitzeko dinamikak proposatuko ditu. Izan ditugun eztabaidetan, proiektu hau topaketarako eta sozializatorako espazio bateratu bezala ulertzen da, artikulazio-sare bat osatzeko pasabidea izan nahi duena. Funtsean, jakintzei eta erlazionatzeko moduei dagokienez aurre-figuratiboa, sortzailea eta berritzailea izan daitekeen ernaltze esperientzia gisa ikusten da.

Aniztasunaren, pluraltasunaren eta inklusioaren aldeko apustua ere bada, sentsibilitate ideologiko, linguistiko eta borrokarako espazio oso heterogeneoei leku egin nahi diena. Horrez gain, pertsonen eta taldeen baldintza partikularrak eta egoera zehatzak kontuan hartu dira proposamen hau diseinatzerakoan. Hala nola, mugikortasun geografikoa, aniztasun funtzionalak, denbora aurrekontuak... Hori guztia, taldeen lan zama are gehiago ez kargatzeko asmoz.

Proposamen honen diseinuan, parte hartzeko aukera eta intentsitate desberdinak ere proposatu dira. Une presentzialak eta online plataforma bat konbinatzen dituenak besteak beste. Aurrez aurreko lau asteburuez gain (ostiral arratsaldetik igande arratsalderarte elkarrekin egongo gara), espazio birtual bat egongo da iritziak trukatzeko, informazioa sozializatzeko edota edukiak sakontzeko, izan modu jarraituan edota puntualean. Hasieran formatu hau aurreikusi den arren, partaide guztien artean ebaluatuz joango gara, eta irekia eta malgua izango da beraz. Hori dela eta, datozen ikastaroetan aldaketak

egon daitezke. Gauzak pixkanaka egiteko asmoa dugu, urrats txikiak egin, baina sostengarriak izan daitezela, aukeren arabera txikitik handira joateko sendotasuna eman diezaguten.

Era berean, ekimen ibiltaria izango da, ez da espazio itxi eta estatiko bakar batera mugatuko; toki batetik bestera joango baita. Horrela, bada, prozesua mugimenduen gertuko toki desberdinetara bertaratuko da, herrialdeak txandakatzeari esker parte-hartzea errazagoa izango da, eta aukera izango da Euskal Herria margotzen duten makina bat espazio autogestionatu ezagutzeko.

Kokapenari dagokionez, hasieratik saihestu nahi izan dugu hiriburu handietan kokatzea; ez genuen zentralizatutako zerbait nahi. Garrantzitsua da ibiltaria izatea, hiriguneetatik irten eta beste lurralde eta talde batzuetara iristea, urrunago daudenengana. Horri dagokionez, zenbait zalantza izan ziren eta geure buruari galdera hauek egin genizkion: ibiltaria izateak tokiko parte-hartzea eta aniztasuna bermatuko ote ditu? tokikoan kokatzeak ekimena nazionala izatea bermatzen ote du?, tokikoaren eta partaideen arteko harremana berdina ote da maila desberdinetan?. Nazionala esatean zer esan nahi dugun ere galdetu genion geure buruei: Nazionalak hegemonikoa indartzea esan nahi du praktikan? Homogenizaziora garamatza, justu toki/lurralde/borroka bakoitzeko aniztasuna jaso nahi dugun honetan?

Bestalde, proiektu honek izaera kolektiboa du, lankidetzan oinarritua dago. Hortaz txandakako lan-taldeetan antolatzea proposatzen dugu: lan-talde horietan partaideak egongo lirатеke, eta horrela ikastaroaren funtzionamendua beharrian komunitatik kudeatuko dela bermatu nahi da. Zereginak, funtzioak, zein materialak horizontalki adostu eta erabakiko dira modu hitzartuan.

Eztabaida askoren ondoren bi Batzorde Politiko Pedagogiko (bat txikia eta bestea zabala) egotea adostu genuen. BPP txikiari dagokionez, berau koordinazio politiko-pedagogikorako taldea litzateke, sarean beste hiru lantalderekin batera antolatuko dena. Lantalde hauen ardurak honakoak izango da: metodologia, edukiak eta sistematizazioa; azpiegiturak eta jatorduak prestatzea, garbiketa egitea eta jarduera ludikoak prestatzea. Horrela, zereginak txandaka eginez gero, lan guztiak baloratuko ditugu, eta prozesuarekin modu aktiboan inplikatu gara.

Lankidetzarako beste aukeretako bat, Donostian 2015ko otsailean egindako jardunaldietako lantalde batean planteatutakoa izan zitekeen: Mugimendu edo eragile bakoitzak horrela balioetsiz gero, Borbor (k)-n parte hartuko duen

bere kidearen beharrezko baldintzak bermatu eta babes/ laguntza ematea, eragile horren esku geratuko da. Modu horretan motibatutako kideak saio desberdinetara joan ahal izateko izan ditzazkeen oztupoak (ekonomiko edo beste ardura batzuei lotutakoak) leunduz. Hala ere dimentsio hau hautazko egoera gisa proposatu da.

Eskaintzari dagokionez, hainbat gai sortu ziren bereziki dibertsifikazioari lotuta: ikastaro bakarra edo/eta formatu bakarrekoarekin hasi? Berez ikastaro bakarrarekin hastea baino, eskaintza dibertsifikatzea hobe zela ikusi zen. Horrela, bada, gaikako bloke bat baino gehiago paraleloan egiteko aukera planteatu zen, hauek sarean antolatuz, eta modu horretan uneko eta koiunturako beharrei hobeto erantzun. Izan ere formatuen eta gaien dibertsifikazioaren beharra sarri aipatu zen: ikastaro desberdinak egin, bai iraupenari bai partaideei dagokienez (partaideen interesetan eta eztabaidetan oinarrituta beti ere). Adibidez, urte osoko ikastaroaz gain, ikastaro laburragoak egiteko aukera landu zen: gai desberdinei buruzkoak eta propio jardunaldi tematikoetan eskeintzea. Modu horretan politikoki lokalizatutako jakintzak sustatzea eta aldi berean interseksionalitatea lantzea bateragarri egitea lortuko ote genuen eztabaidatu zen. Ez baikenuen argi ikusten jakintzak lekuan lekuakoak, generizatuak, arrazializatuak eta hizkuntzazkoak izatea, eta aldi berean interseksionalitatea eta zeharlerrotasuna bermatzea zelan lortu ahal genuen.

Amaitzeko, esan beharra dago ekimen honek ez dituela beste taldeen formazio dinamikak ordezkatu nahi. Aitzitik, kolektiboki definitutako hutsuneak eta gabeziak landu nahi ditu. Proiektu autonomoa da, baina Euskal Herrian eta kanpoan dauden antzeko proiektu eta esperientziekin harremanak ezarri eta sarean lan egin asmo du. Maila ekonomikoari dagokionez, geure finantzazioa eta iturri publikoak erabiliko dira, baina autonomia eta erabakitzeko ahalmena mantenduz beti ere.

Aurrez aipatutako hori guztia; Borbor(k)ren ezaugarriak, formatua eta eskaintza alegia, printzipio politiko-pedagogikoei, edukiei eta taldeko partaideen ezaugarriei lotuta dago. Eta lehen edizion horrela nabarmendu eta agertzea bilatzen dugu. Gai hauek badute loturarik jakintza hauek sortzen dituzten pertsonen borroka, genero, esperientzia eta abarreko alorrekin: Nola kudeatu Euskal Herrian dugun aberastasun hori lurraldera eramanda? Zeintzuk dira batasunaren, homogeneousazioaren, dibertsitatearen eta interseksionalitatearen arteko balizko loturak? Zeintzuk dira ezaugarri, formatu eta balizko eskaintza ezberdinen abantaila eta desabantaila edo arriskuak? Den-denak bere irekian, errez erantzutekoak ez diren galderak ditugu.

3.5. Metodologia

Gure abiapuntua metodologia politikoa denaren ideia da; formak, moduak, ez direla neutralak alegia. Egiten duguna garrantzitsua da, baina baita nola egiten dugun hori ere. Moduak berak egiten denaren izaera aldatzen baitu. Dinamika askatzaileak eta parte-hartzaileak lagungarriak dira ahalduntze-prozesuetan. Eta horizontalitateak eragina du autonomia eraikitzeko prozesuetan, izan ere botere eta dominazio harremana lantzen laguntzen baitigu.

Metodologiak, formazio-prozesuaren parte den heinean proiektu osoan esku hartzen du. Dena zeharkatzen du eta oinarri politiko-metodologikoei, formatuari, partaide-taldearen eraketari, edukiak hautatu eta lantzeari espezifikotasunez ekinez, materializatzen dela ulertzen dugu.

Borbor (k)n partaide orok ikasi eta irakatsiko duela ahalbidetuko duten dinamikak erabiliko dira. Probatzeko eta esperimentatzeko ausardia izatea eta berrikuntza izango dira metodologia horren parte ere. Hausnarketa, kritika eta autokritika landuko dira; gaien eta iritzien aberastasunean oinarritutako eztabaida eta azterketa sustatzearekin batera. Kontraesanak eta gatazkak formazioaren parte izateaz gain, modu aiproposean erabiliz gero baliagarriak dira akats komunak identifikatzeko, gaitzetzeko eta borrorak indartzeko.

Laburbilduz, prozesuko ezaugarrien artean proiektu honen metodologia honelakoa izango dela azpimarratzen da:

- Dinamikoa, irekia, horizontala eta parte-hartzailea. Hasieratik eta fase bakoitzean.
- Demokratikoa eta aldakorra. Etapa bakoitza; jazotako ekarpen eta iruzkinak ezagutu eta martxan ipini ahal izateko, ebaluazio iraunkorraz eta etengabeko kontraste ariketez osatua egongo da.
- Pixkanakakoa eta prozesuala, txikitik handira. Ez da helburu handi-mandirik ipini, ezta denbora luzerakorik ere. Bidean probatuko dira, berau helmuga bezain garrantzitsua baita. Errealak eta balizkoak den zerbait bilatu nahi da.
- Kritikoa eta emantzipatzailea, gauzak izendatzeko eta egiteko modu berriak nahi ditugu. Taldeen egiazko beharrak dira prozesuari zentzua eta edukia ematen dioten motorrak.
- Disruptiboa eta aurre-figuratiboa. Prozesu kolektiboa da, herri-jakintzak eraiki eta konplizitateak finkatzeko, hemen eta orain esperientzia honekin

hasi eta beste eszenatoki, praktika, sentimendu eta erlazionatzeko forma batzuk aurreratzeko.

- Sortzailea eta berritzailea, interpretazioko erregistro zein adierazteko modu eta lengoia ezberdinak konbinatuko ditu. Hitzak, isiluneak, keinuak, gorputza, mugimenduak, geldotasuna, zentzumenak, ahotsak, begiradak, artistikoa, ludikoa, jaia, emozioa... komunikatzeko modu berriak eratuko dituzte, eta taldean problematizatutakoari zentzua eta esanahiak emateko modu berriak ere bai.
- Interseksionala, opresio desberdinak artatutuko dituelako elkarrekin erlazionatuz, hierarkiarik ezarri gabe.
- Multidimentsionala, teoria eta praktika banatu ordez, konbinatu egiten baititu, gorputza eta praktika, afektuak eta kontzeptuak, publikoa eta pribatua, emozioak eta arazoia...
- Kolaboratzailea eta errotatiboa, egiazko parte-hartzea, kudeaketa kolektiboa eta prozesu-proiektuan parte hartzen duten pertsonen/taldeen arteko erantzunkidetasuna ezarriko ditu. Lanak, zereginak eta rolak sozializatu egingo ditu, eta batetik bestera txandakatuko dira. Erantzukizunen/agintaritzen naturalizazioa saihestu nahi dira, eta afekzioa eta egiazko inplikazioa sustatu. Prozesukideak: kide aktiboak, proiektuaren protagonistak diseinuan/planifikazioan, antolakuntzan//kudeaketan, balorazioan/ebaluazioan, proiektzioan/sistematizazioan eta erantzuleak. Ez kontsumitzaile pasiboak, delegatzaileak eta eskale hutsak.
- Ibiltaria eta deszentralizatua, saioak espazio eta lurralde desberdinetan planteatuko dira, zirkulazioa eta sarbidea sustatzeko.
- Heterogeneoa, anitza eta konplexua. Borbor (k)ren barnean hainbat talde, pertsona, errealitate, ibilbide, begirada, historia, proiektzio, errepresentazio... daudelako.
- Hausnarkorra eta ulerkorra, sintetizatzailea, utopikoa eta aldi berean nahi eta beharrekiko pragmatikoa.
- Bizi beharrekia eta elkarbizitazkoa: intersubjektiboa. Prozesua bizi, ideiak gorputz-emozioetatik pasa; hori guztia funtsezkoa da jakintza emantzipatzaileen eraikuntza kolektiboa egiteko. Hartu-emonak (formalak eta informalak) izateko espazio-uneak, elkar aitortzekoak garrantzitsuak izango dira metodologia honetan. Partekatze, elkarrekin


erlazionatzeko, konfiantzak eraikitzeko, taldea egiteko, zubiak egiteko, enpatia sortzeko beharrezkoa. Horren ondorioz, pertsonak proiektu honen parte izan eta barruan pozez lotzea bilatu nahi dugu.

Osagai guzti hauekin Borbor (k)ko metodologia harakatzeko bide berri baten modukoa ikusten dugu, bere korapiloak eta zailtasunak dituen arren, erreferentziala izateko ahalmena duela sinisten dugu, eta arrasto zehatzak eta sinbolikoak ereitekoa ere bai.

Eztabaidatutako eta adostutako guztia lehenengo ediziorako egindako proposamen honetan zehaztuko da.

7. taula. 2015-2016 ikasturterako proposamen zehatza <i>BORBOR (K). Herri-jakintzen laborategia 2015-2016 edizioa</i>	
Maiztasuna	
<ul style="list-style-type: none"> - Hasierako saioa: urriak 3, 4 eta 5, Garaion, Ozaeta, Araba. - Azaroak 27, 28 eta 29; Dorrekoa, Euskal Udalekuak, Goñi, Nafarroa. - Urtarrilak 29, 30 eta 31; Urtxintxa, Tertanga, Araba. - Martxoak 13, 14 eta 15; Astra, Gernika, Bizkaia. - Balorazio-saioa: maiatzak 7 (eguna baieztatzeko dago). - Online plataforma, materialak banatzeko, eztabaidarako, irakurketak sozializatzeko. 	
Gaiak	
Irizpideak: Dibertsitatea, unean unekoak izatea, interdependentzia anizkoitzak, integralitatea, osagarriak eta praktikoak zein Mugimenduen gaitasunen biderkatzaile izatea	
Metodologia	
Tresna desberdinak konbinatuko dira (hizlariak, irakurgaiak, bideoak, ariketak...), hausnarketa kritikoa eta kolektiboa sustatzeko.	
Partaide kopurua	
25-30 lagun.	

Iturria: Geuk egina.



Iturria: Geuk egina.

Lehenengo fasearen ezaugarria informazioa jasotzea, hausnartzea eta diagnostikoa egitea izan zen.

Bigarren fasean proiektua eta prozesua definitu ziren. Hau da, lehenengo zirriborroa idazten hasi zen, helburuak, oinarri politiko pedagogikoak, ezaugarriak eta formatua bertan jaso. Formatu hori pixkanaka aldatuz joan da irekiera faseetan, mugimenduak beraien ekarpenak egin ahala. Apurka-apurka aberastuz joan da, otsailaren 28ko jardunaldietan itxi arte; hor lortu baitzen Borbor (k)ren lehenengo edizioa ahalik eta gehien zehaztea. Fase honetan hasi zen nortasuna eta gorputza hartzen, izena eta logotipoa ere bilatu baitzitzaizkion ekimenari.


Hirugarren fasean mugimenduek proposatutako gaitegia garatu da batez ere, baita azpiegiturari lotutako alderdiak ere, dirua eta izen-emate kanpainaz gain.

Esan bezala, lehenengo bi faseak izan dira sistematizazioaren xede. Egindako planifikazioa ia erabat bete dela esan daitekeen arren, egia da, halaber, bigarrenak lehenak baino birdefinizio eta gorabehera gehiago izan dituela.

Prozesuaren zedarrak eta antolatzeko moduak dezente aldatu dira, hasieran bisualizatu zirenetik, beste modu batera garatu baitira. Horren isla da

gaitegiarekin gertatutakoa. Lantalde bat baino gehiago sortzeko asmoa zegoen, gai multzo bakoitzerako bana alegia. Hor sartuko ziren mugimenduetako kideak eta talde sustatzaileko pertsonak. Baina proposamen honek ez du funtzionatu, eta talde sustatzaileak egin behar izan du lan hori. Bileretara jende gutxi joaten zelako gertatu da hori, batez ere. Are gehiago, gaitegiko lan taldea eta bilerak praktikan desagertzen hasiko dira zedarri gisa. Ongi islatu du hori Borbor (k) taldeak bere Sistematizazio bileran egindako pertzepzioak, oharrak eta ñabardurak kontatzen dituen sugeak.

4. Irudia. Prozesua sistematizatu osteko eskema



Iturria: Geuk egina.

Prozesuaren hasierako diseinuaren eta egiazko gauzaren arteko aldeak argi uzten du Borbor (k) eraikitzekeo prozesua gorabeheraz betetakoa izan dela. Borbor (k)ren talde sustatzailearen irekiera, etengabeko ebaluazioa eta gaitasun autokritikoak horri bide eman diolako ere.

Sugeak erakusten dizkigu prozesuan egindako hausnarketetako batzuk eta ondoren egindako azterketak.

Egindako bidea ikasgai handia izan da eta ezagutza berrien iturri ere bai; eskuartean duzun lan honen bidez etorkizuneko bideak egiteko baliagarri

izatea espero dugu. Ikaskuntza hauek bizitako esperientziaren fruitu izan dira, beraz, gure gorputzak, ilusioak eta sentimenduak zeharkatu dituzte.

Modu autokritikoan aritu gara, diagnostikoan hautemandako gako batzuk, gutxi barneratu genituelako prozesuaren diseinu ariketan. 2014ko udan beste mugimendu batzuekin batera egindako hasierako diagnostikoan, formazio politikoarekin zerikusi estua zuten alderdi asko aipatu ziren. Guzti horietatik, hiru azpimarratu nahi ditugu, ikusi dugunez ez baitugu horiek praktikan aintzat hartzen asmatu, ez eta orain arte behar adinako garrantzirik ematen ere.

4.1. Kultura politikoaren eragina formazioan

Atal honetan egiteko eta erabakitzeko gaitasuna eta indarra demokratizatuko dituen militantzia eta antolakuntza eredu horizontaletara bidean ibiltzear ditugun urrtsetaz mintza gaitezke. Rol eta funtzioen etengabeko bereizketan oinarritutako molde iherarkikoen oinerdeko garelara dirudi. Horren ondorioz, delegaziorako joerak eta prozesuak geure egiteko zailtasunak nagusitu dira.

Alegia, ahalduntze prozesu osoak, jarrera kritikoak eta hausnarkorrak elikatu ez dituzten antolatze eta militatzeko logiketaz dihardugu. Ez behintzat duten potentzial osoan. Hain zuzen ere, landu beharreko hainbat asimetria eta dinamika hermetiko igarri dira. Beraz, malgutasuna eta irekiera zerumugan ditugu oraindik. Horren ondorioz ohituta gaude hasiera eta amaiera itxiak planifikatzen; zurruntasunez aritzera arlo honetan eta beraz ez gara zalantzetara irekitzen eta errealitatea mugitzen ari den arren, prozesuak berak eskatzen dizkigun beharretara ez gara irekitzen. Prozesua etengabe irakurri beharko genuke eta etengabe egokitu beharko genuke, baina gehienetan aurrez markatutako planifikazioetara eta helburuetara egokitzen saiatzen gara gure kultura politikoaren ondorioz. Zalantzak, galdera irekiak eta segurtasun ezak saihesten dituen kultura politikotik gatozela dirudi hortaz. Prozesuaren kontrola eduki nahi da etengabe eta horregatik gutxi batzuen esku geratu ohi da prozesuaren kontrol hori, partaide guztien esku geratu orde. Horrek subjektuen artikulazioa, gaitasunen batura eta elkar ezagutzea ere zailtzen ditu; bestalde, frustrazioa dakar askotan, desilusioa eta prozesuekiko eta eragileekiko loturarik eza.

Hau guztia oso presente egon da Borbor (k)ren prozesuan. Irekian planteatutako prozesua izan da, lortutako emaitza partaide guztien ekarpen eta helburuen altzoan jarri nahi izan da. Hori dela eta, hasiera batean zehaztapen

eta definizio handiagoa eskatu zuten taldeek. Hau da, prozesuaren logikari lehenetsua eman beharrean proiektuari emateko. Indefinizio honek ematen duen irekitasunak eta jabetzeko aukerak deserosotasuna eta beldurra sortu dituzte.

Gure ustez, bideratutakoa denaren eta bidean irtenaz doanaren arteko oreka mantendu beharra dago. Hau da, prozesuak eta proiektuak gutxieneko oinarri batzuk behar dituzte, eta pertsonak eta erakundeek horiei heltzeko aukera izan behar dute; aldi berean ordea, zertidunbre gabeko espazioak sortu nahi genituen, sormenari lehioak zabaldu, mugimenduetako ikuspegi zehatzei tokia egin. Baina ez da erraza; izan ere, non dago oreka hori? Non ikusten dugu bakoitzak? Prozesuan zehar ikusi ahal izan dugunez, puntu honetan sentimendu eta iritzi desberdinak egon dira, Borbor (k)ko talde sustatzailean bertan ere eztabaida hori baitzegoen. Izan ere, gutako bakoitzak toki ezberdinean ikusten genuen suntsitu eta gauzak egiteko modu berria eraikitzeko oreka puntu hori.

Hori zela eta, JMZk prozesuan zuen funtzioa aldatu egin behar izan genuen. Proposamenak egiteko, eta are erabakitze gaitasuna areagotu egin behar izan genuen. Oso esanguratsua izan da eragileek zer erreakzio izan dituzten ikustea, behar adinakoa ez omen zen definizio horrekiko alegia. Batetik, batzuk zain geratu ziren, hau da, jarrera pasiboa izan zuten, delegatzeko logiken arabera. Beste batzuk ordea, indefinizio horretan ekarpenen bat egiten saiatu ziren, baina ez mugimenduen ikuspegi kolektibotik, baizik eta beren eragilearen ikuspegi soiletik. Gure iritzi bigarren jarrera hori ere gure kultura politikoan nagusi diren logiken emaitza da. Hau da, mugimenduen eta borroken arteko hegemonia lortzeko logika lehiakorraren emaitza, enpatia gabeziarena... lankidetzan oinarritutako begirada sortzeko izan ohi den zailtasunaren isla.

Zentzu horretan, gu geu ere kultura politiko horretako partaide izan arren, kultura hori ezagutu arren, honek ekarri zezakeen ondorioen aurreikuspena ez genuen behar adina sartu prozesua definitzerakoan. Ideal batetik abiatu garelako uste dugu (nahiko genukeenetik), eta ez gara horrenbeste abiatu nabarduraz betetako eta testuinguratua den oinarri batetik. Oinarri horrek funtzionatzeko beste modu batzuk ekarriko lituzke, prozesuko beste logika batzuk, baina jada ezagutzen ditugun erresistentzietatik abiatuko litzateke. Hau da, beharbada gu geu izan gara aldatu nahi dugun kultura politiko horren biktimak, horren inguruan egindako diagnostikoa gogoan izan arren, ez baitugu prozesatu eta ezta prozesua diseinatzerakoan erabili.

4.2. Premiazkoak garrantzizkoari leku/denbora kentzen dio. Formazioa ezin da betiko atzeratu

Hasierako diagnostikoan azpimarratu zen beste elementuetako bat, formazio politikoa lehenengo mailakoa izan arren (behin eta berriro esaten den bezala idatziz eta ahoz, hitzaldi formal eta informaletan), gero gure moduen abiadurak beste lehentasun batzuk ezartzen ditu. Ekintza izan ohi da nagusi, proiektuaren logikak eta kanpora begirako lana. Beste erritmo batzuk lantzeko, begirada hausnarkorrak eta autokritikoak izateko zailtasuna izaten dela, eta beraz gure praktiken inguruko azterketa gabezia nagusitzen dela. Ondorioz, gure praktika politikoak egunero ematen dizkigun ikaskuntza aberatsek ez dutela behar besteko tokirik hartzen mugimenduetan.

Gauza bera sentitu da gure prozesuan. Eremu estrategiko honetan erabilitako indarrak ez dira koherenteak izan. Eragileen barnean prozesu honetan igarotako denborak, bileretan parte hartzeko prestutasuna... batzuetan beste norabide batera begira egon dira. Are gehiago, mugimenduak kexu dira banaketa eta delegazioaren logikaz; esaten dute erakunde bakoitzeko formazio arduradunen gauza ematen duela formazioak, eta hori ere jazo zaigu geuri ere prozesuan. Batzuetan formazioan aritzen diren militanteek hartu dute parte, baina beti ez dute lortu eragile osoa “bustitzea”, eta formazioaren kargu egiten direnen bakardadea sentitu dute.

“Guk inozentzia eta ausardiatik aurrera egin genuen... horiek inkorporatu gabe prozesuan. Eta ondoren gertatu diren gauzak, adibidez parte hartzeko ia modu bakarria ipintzea, deialdiak egiteko erak... guzti hori ez genuen kontenplatu eta orain akats bezela identifikatu ditugun gako batzuk horrekin zerikusirik izan badute”. (Persona miembro del grupo Borbor (k)).

Berriro ere diagnostikoan hauteman bai, baina prozesuan sartu gabeko zerbait. Erronkak atea irekita jarraitzen du. Nola ireki beste erritmo batzuetara? Nola bihurtu formazioa zehar-lerro?

4.3. Indar eta artikulazio gabezia

Azkenik, mugimenduen osasunari eta indarrari dagokion alorra aipatu behar da, beren artean elkar-aritzeko edo erlazionatzeko moduari dagokiona. Alderdi hau aurreko bieie oso lotuta dago.

Zer indar ditugu? Zer lan bolumenari egiten diete aurre mugimenduek? Egiatzko indarrak baino zenbatez handiagoak dira nahiak?

Zer harreman du horrek jarritako lehentasunekin eta formazioa inoiz ere lehentasuna ez izateko joerarekin? Zer distantzia dago interes eta gaitasunaren artean?

Prozesu osoan behin eta berriro entzun da “nahi eta ezin” esaldia. Dela parte hartzen zuten mugimenduek esan dutelako, dela Borbor (k)ko talde sustatzailearen barneko bileretan esan delako. Horren ondorioz, eztabaida oso interesgarria sortu zen. Zer dago nahi eta ezin horren azpian? Zenbateraino dira mugimenduen indarrak mugatuak, eta zenbateraino formaziori lehentasunik eman ez, eta horren ordeztu borrokatzeko modu produktibistan erortzen den kultura politikoaren arrastoak? Zenbateraino ez gara abiatu mugimenduen idealizaziotik? Zenbateraino galarazten digu multi-militantziak formatzeko denbora izatea? Oso garrantzitsua da gogoan izatea mugimenduen oinarrian ehunka lagun borondatezko lana dagoela; militante lanaren eta beste askoren artean dabilzala, eta horrek berak ekarpena aldakor bihurtzen duela

Identifikatutako (itxuraz bagenekien) baina integratu gabeko elementuekin topo egin dugu, eta sortu zitzaigun eztabaidetako batean, prozesu honekin inertziak zenbateraino gainditu nahi ditugun eta inertziak gainditzeko borondate hutsa ez dela nahikoa ohartu behar garenaren galdera/interpelazioa egin genion geure buruari. Hau da, inertziak zergatik eta nola ibiltzen diren pentsatu behar dugu, sakonago ulertu ditzagun, eta horiek gainditzeko edo eraldatzeko egiatzko mekanismoak abian jartzen asmatu dezagun.

“Gainditzea zen gure asmoa. Ekimenaren prozesua hiru fasetan pentsatu genuenean, gure bileretan esaten genuen gauzarik gehienak ez genituela guk definituko. Adibidez, Gaitegirekin gertatu zitzaiguna izan zen horren adibiderik garbienetakoa; talde desberdinak egin nahi genituen eta bakoitzak bere gaiak definituko zituen. Hala irudikatu genuen, eta prozesuan ikusi genuenez, parte-hartze horrekin ezin zen hori egin, beraz, guk gehiago egin beharra geneukan, irekita eta kontrasteekin, baina guk geuk. Gauza bera gertatu da formatuaren gaiarekin. Guk horrela pentsatzen genuen, baina jendeak galdera oso zehatzak egiten zituen, eta hortik hasi ginen zehazten; hau da, prozesua horrela irudikatzen genuela. Horregatik aipatzen genuen umiltasunean eta errealitatean murgiltzea izan dela prozesu hau. Denak gu bezain gartsuak izango zirela uste genuen, beren gauzak utzi eta... buru-belarri

sartuko zirela, eta indar heterogeneo kolektiboa sortuko zela... baina ez da hala izan. Hau da, nahitik/ametsetatik lan gehiago egin dugu errealitatetik baino. Eta honek zer esaten digu datorren ikasturteari begira? Hori pentsatu beharra daukagu”. (Borbor (k) taldeko kidea).

Prozesuan identifikatutako beste alderdietako bat hau da: mugimenduek taldeko prozesuak eta proiektuak nola sentitzen eta bizitzen dituzten. Elkar ezagutzeko, lankidetzan aritzeko, artikulatzeko... beharra gero eta nabariagoa den arren, horretarako zailtasun asko dago. Proiektua aldebakarra edo anitza izatea eztabaidatu da. Egia esan, JMZk mugimenduei helarazi dien lehenengo ekimena da. Izan ere, orain arte mugimenduek eskatutakoan oinarrituta egin dugu lan JMZn. Zentzu horretan, proiektuaren alde anitzeko definizioa sortzeko zailtasunak izan ditugu, esan bezala. Horregatik ondorioztatzen dugu, mugimenduen funtzionamenduan oso finkatuta dauden logikak erakutsi dizkigula gure esperientziak.

“Oraindik gogoan dut prozesukideen bileran zer aurpegi jarri zuen jendeak hitz hori entzun zuenean. Nola deitzen genien esan genienean. Implikazio aktiboagoa esan nahi zuen horrek, eta beharbada zera adierazten digu jarrera horrek (ez dakit oro har edo soilik kasu honetan) bakoitzak bere gauzak eta bere proiektuak egiten dituela bere. Beste eragile edo prozesu batzuetako deialdietara joan daiteke, baina bestearen prozesua da, ni partaide hutsa naiz, prozesua ez da nirea. Ez naiz erabateko partaidea”. (Borbor (k) taldeko partaidea).

Horrela, bada... taldeko prozesu sortzaileak ez dira berehalakoak eta errazak izaten. Inertziak traizionatu egiten gaitu, eta batzuetan proiektu honen ahalmenei balio handiegia ematen diegu, mugimenduen egungo-egiazko baldintzekin ez dugu gehiegi parekatzen, ezta Euskal Herrian historikoki egon den kultura politikoarekin ere.

Formazio kritikoa, teoriaren politizazioa, praktikaren hausnarketa-teorizazioa egin ahal izango lirakeke, etengabeko elkarlotura-artikulazio-konexio dinamikoa kontuan izanez gero; hau da, herri-mugimenduen testuinguru sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalaren eta beren praktiken edukietako teorizazio eta hausnarketaren arteko harreman dialektikoa kontuan izanez gero.

Batzuetan inertzien, errutinen, koiunturaren, rolen naturalizazioaren edota egoeren ondorioz, erlazio hau galdu egiten zaigu, ez dugu ikusten. Eta dimentsio bati lehentasuna ematea edo ahaztea ere eman ohi den joera dugu.

Borbor (k)k buelta asko eman ditu zentzu horretan. Mugimenduak idealizatu izanak, gogoak, ilusioak eta nahiak berak itsutu gaituzte. Mugimenduen tes-tuinguruetatik eta funtsezko egoeretatik eta egoera pertsonaletatik deskonektatu gara batzuetan. Prozesu-proiektu emantzipatzaile honen potentzialitateak gairimentsionatu egin ditugu beharbada, herri honen egiazko behar eta baldintzei gehiegi so egin gabe.

Ez gu, ez mugimenduetako kide gehienak ez gaude praktika pedagogiko berri hauekin erabat “blaituta”. Nahi, nahi ditugu eta horietan sinesten dugu, baina gure imaginarioetako, sinbolismoetako, adierazpenetako, antolakuntza kulturetako, narratibetako... aldaketek eta eraldaketa kontzienteez denbora, pazientzia, elkarrizketa... behar dute.

Jendeak baietz esaten zigunez, “aurrera!” esaten zigunez, guk uste genuen gaitegirako lau lan talde egingo genituela, arazo gabe bilduko ginela guztiok, eta agendak eta edukiak bat-batean eta horizontalean osatuko genituela. Berehalako afekzio eta konfiantza egongo zela... eta denon artean hilabete gutxian edo urtebetean egingo zela Borbor (k). Edo okerrago, jendea ahaztuko zela materialtasunaren beharraz, zehaztasun beharraz, horrek eskatuko zuena kalkulatzear... eta proiektu eder eta tentagarri bat ikusiko zuela, bertan kokatuko zela, orduak sartu eta energiak xahutuko zituela bertan. Maitasun eta ez-maitasun horrek, ilusio eta amorru horrek hutsegiteetatik ikasgarri digu. Eta hutsegite horiek ongi kudeatu eta mahai gainean jarritz gero, baliagarriak izan zaizkigu egiazko baldintzez eta egoerez berriro pentsatzeko, inertziak eta errutinak ez daitezela izan amets honetatik aldentzeko gaituztenak.

Aurrez esan bezala, hausnarketa autokritikoko ariketa horren ondorioz diseinatzen ari zena berriro definitu behar izan genuen. Ez zen lan erraza izan; nolabait esan daiteke hemen hasi ginela identifikatzen hasiera-hasieratik proiektuaren eta prozesuaren artean zegoen tentsioa zein garrantzitsua zen. Prozesuak argi erakutsi zigun proiektua berriro formulatu beharra zegoela; pertsona eta talde partaideen beharrik kontuan izan behar zituela, baita horien nahiak eta gabeziak ere. Ikaskuntza handia izan zen hori, prozesua entzuten eta irakurtzen ikastea, hori guztia gehiago entzutea, eta isiluneak eta ez-egiteak ere entzuten ikastea.

Gainera, talde sustatzaileko kideon inertziak eta bizi-egoerak ere hortxe egon dira. Bizitza prekarizatuak, militantzia bikoitza edota hirukoitza, zerbait handia egiten ari gineneko sentsazioa, erantzukizun politikoaren sentimendua, gure denboren kudeaketa, biltzeko zailtasunak, etengabeko zalantzak: noiz ireki eta itxi, nola... zer rol hartu talde sustatzailetik, zer erabaki hartu?

5. Irudia. Prozesuaren sistematizaziori buruzko tailerra



Iturria: Argazki propioak.

Taldea eraiki eta elkarrekin ibiltzen ikastea, proiektu-prozesua abian jartzearekin batera, paraleloan egin behar izan dugun gauza izan da. Segurtasun ezak, politika egiteko ikuspegi desberdinak, erritmo eta modu anitzak kudeatu behar izan ditugu. Beste mota bateko inertziak edota erresistentziak taldean negoziatzen aritu gara, eta, pixkanaka, banakako “ni” horretatik Borbor (k)ren taldeko “gu”-ra goaz oraindik ere. Modu horretan, komunaren potentzialitatea eta beharra indartzen duten, ideia, begirada eta praktikak batuz eta biderkatuz joan dira.

Izan ere, berehalako eskakizunetik, epe laburreko begiradatik, aniztasunak sortutako zalantzetatik, ohiko subjektuaren nozio hau zabaltzeko beldurretik, piskanaka jada sentzibilitatea, entzutea, irekiera aipatzen dira. Den denok zer ekarri eta eman badugula onartzen hasten da, borroka desberdinek beren balioa izan badutela, eta beraz ez direla hierarkizatu behar. Egoera komunak zein partekatutako bideak identifikatzen hasi dira.

Denboraren beste nozio bat sartu da, ziklikoa, prozesuala, espirala; pilatzen duen linealtasun espekulatzailaren aurkakoa: askok naturalizatua izan dugun progreso (eta militantzia) ereduan zegoen nozioaren aurkakoa alegia. Hortaz haustura-aurrerapen interesgarria izan da. Galdera berriei ireki gaituzte, beste gai batzuk ikusteko gaitasunari... hemen eta orainak berekin duen larritasun horretatik ateraz. Eragile ezberdinetako kide batzuek jada badakite denbora mantoak zein garrantzitsuak diren, hain zuzen ere proiektu hau su txikian egitea oso garrantzitsua dela.

Desberdintasuna aberasgarria dela ere ikusi dugu, eztabaidak eta trukeak sustatu beharra dagoela. Horrela, proiektua hobetu egiten dela, errealagoa bihurtu, pertsonak inplikarazten dituela, eta hortaz bertan isladatuta ikusten direla. Entzuketak eta ber-planteamendu ariketak erakutsi digute erresistentzietatik ikaspenak atara daitezkeela eta hauek, proiektu-prozesua hobetu egin dezaketela.

Ildo horretan, autokritikarako gaitasuna izateaz gain, talde sustatzailearentzat oso garrantzitsua izan da, gaitasun hori talde zein prozesuarentzat modu eraikitzailean erabiltzen jakitea, eta beti ere prozesutik aldendu gabe. Ez dugu uste hau bezalako prozesu ireki eta moldaketarako halako prestutasuneko asko dagoenik, horren zabalara eta harkorra. Gure ustez honek lotura izan dezake, marra gorriak ezarri arren, oro har, aurrez finkatutako helburu itxirik ez izatearekin. Zintzotasun handia aipatzen da. Bide hau baliagarria izan da ideario batzuk apurtu eta zerumuga berriak marrazteko. Marrazte horretan aipatu da “adituak” izatetik “arituak” izatera igaro nahi dugula. Jauzi hori eman.

“Guk eman nahi dugun aldaketa da adituen garrantzirik, arituen garrantzira. Eta klaro aldaketa hori ez da urtebeteko kontua, agian gure baitan ere ez”. (Borbor (k) taldeko kidea).

Beraz, hausturak eman diren arren, epe laburrean egiteko bideak ez direnarekiko kontzientzia ere ageri da. Eta bide horietan ibiltzeak ez du apurketarik sortzen, baizik eta sinergiak, artikulazioak, antzeko pertsona eta erakundeekiko topaketak. Formazioa eta jakintzak ulertzeko eta antolatzeke modu honen era eta dimentsio guztiak ulertzea eta barneratzea ez da horren erraza. Egiteko bide luzea dago, baita guk geuk talde eta kide gisa. Baina hau ez da zerbait negatiboa, baizik eta ezezagunean ibiltzeko abentura honetan aurrera jarraitzeko bultzada.

Era berean, taldeak zeregin eta lan-karga handia hartu du, eta formazio politikoaren beste modu horiek berriro pentsatzeko eta sakontzeko ilusioa alde batera geratu dira, ezin izan zaie behar adinako denborarik eskaini. Baina horrek ere ez du kezka handiegirik sortzen, oihartzen baikara lehenengo edizioa abian jarritakoan, praktika eta bizipen horiek, gure gorputzak zeharkatuko dituen gertakari horiek... izango direla ulertzen joateko modurik onenak eta toki berriak aurkitzeko modurik egokienak ere bai. Orain arte egin dugun ibilbidean ikusi dugu taldeko kideok orain arte egin gabeko gauzak egin ditugula, taldeko prozesuak hazi egin gaituela.

Bakoitzak taldearekin izan duen bizipena ona izan dela dirudi. Kideak gehituz joan dira eta ia ez dugu inor galdu bidean. Boterean asimetria handirik gabeko taldea da, giro ona dago, harremanen alderdia zaintzen da eta hori nabari egiten dela nabarmendu behar dugu. Hori are garrantzitsuagoa da, kontuan izanez gero lan-karga handia hartu dela eta hartutako talde-konpromisoa betetzeko epeak bete beharra egon dela. Ongi dakigu nekea eta presa izaten direla askotan taldeak desorekatzeko osagai nagusiak, eta tira-birak sortzen direla horien ondorioz. Elkarren babesa, elkartasuna eta errespetua izan ditugu beti, eta prozesua atsegina eta eraikitzaileagoa da horrela.



Iturria: Geuk egina.

Amaitzeko, lauki honetan zenbait gomendio laburtu ditugu korapiloei, ikaskuntzei eta lortutako eraldaketei (edo ez) buruz. Kontuan izateko eta (geure burua) lantzeko gida gisa:

8. Taula. Gomendioak

1. Proposamen politiko pedagogikoaren ardatzak sakonago definitzeko eta lantzeko beharra. Zazpi formazio-proiektuetako esperientzien sistematizazioa ez zen sakon egin ardatz hauetatik. Beraz, formazio-prozesu integralak garatzeko egiazko zailtasunei buruzko informazio ugari falta zaigu.

Lehenengo edizioan gai honek garrantzi handia hartu duela uste dugu. Egokia litzateke lerro gorriak eta eremu eta jakintza desberdinak ehuntzeko moduak zehatzago definitzea. Dela gure gidari izateko, dela sistematizatzeko eta ebaluatuz joateko. Adibidez, izena emateko fitxan hainbat jakintzari buruz galdetu zaie partaideei, nola integratu horiek ikastaroa antolatzeke orduan?

2. Sakonago aztertu gure kultura politiko eta antolatzailean dauden inertiak gudan nola eragiten duten, horietan ez erortzeko gaitasuna izan dezagun. Borbor (k)-ko BPP txikiarentzat gai garrantzitsua izan behar du honek, baita ikastaroan parte hartuko duten mugimenduetzat ere.

3. Ariketa bat egin honako oreka-dosi hauek identifikatzeko: batetik, mugimenduek gaur egun duten indarra eta formazioari horrenbesteko tokirik ez ematea, eta, bestetik, Borbor (k)-ren garapena planteatuta dagoen premisa multzoa. Beraz eskatuko diren ekarpenak gainkarga ez bilakatzeko moduak eta epe laburertainean mugimenduekiko itzulera eredu ezberdinak aztertu beharko ditugu (Borbor (k)-ren jarraipena sustatzeko). Identifikazio-azterketa hau modu orokorrean egin ordez, edizio bakoitzeko pertsona eta mugimenduetako kideak hartu oinarritzat. Urtero pertsona eta talde partaideen eta parte hartu ez dutenen aukera eta ahalmen zehatzak identifikatu. Zein pertsona eta mugimendu geratu dira kanpoan eta zergatik?

4. Ibilbide-orri bat egin egungo egiazko baldintzetan oinarrituta, baina edizio bakoitzean pixkanaka zertan eta nola aurrera egin nahi dugun markatuz. Jauzi handiegiak egiteko joeratik ihes egin nahi dugu, horietarako baldintzarik ez baitago. Frustrazioak, loturarik ezak, hustuketak eta desafekzioak saihestu.

5. Zehatzago definitu JMZk erakundean izango duen zeregina, “pendulu mugimenduak” saihesteko eta horrela JMZ gehiegi ez kargatzeko, pisu eta kontrol handiegia ez hartzeko, eta partaide guztiak izan daitezen prozesu/proiektuaren kide, behar adinako finkapen eta baldintzarekin.

6. Mekanismoak jarri eta denborak planifikatu, baita espazioak ere, konpondu gabeko korapiloek hausnartzen jarraitzeko, partaideekin eta parte hartu nahi duten gainerako mugimenduekin batera. Aldi berean, parte hartzeko bide gehiago jarri, ikastaroan izena emandakoak horretara ez mugatzeko.

7. Aniztasuna jaso eta bermatzeko mekanismoez pentsatu. Ibilbidea luzea izango den arren, sustatzen saiatu eta ez utzi auzaren eskuetan. Hau da, bai abian denean bai itxitakoan, oraindik urrun dauden pertsonen eta mugimenduen ekimena jakinarazten saiatu. Bide horretan JMZ-k duen zailtasun batetik abiatuz: JMZk ez duela lurralde osoko sarerik eta egiturarik, ezta herri-ehunik ere. Nola landu ahotsen aniztasuna?

Iturria: Geuk egina.

5. Behin-behineko ondorioak. Ikaskuntzez eta (trans)formazioez

Testu honek azaltzen duen errezeta ez da “magikoa”. Bidea sozializatzea da kontua, geure buruari eta besteei galderak eginez, denon artean Euskal Herritik eta Euskal Herriarentzat egindako Herri Jakintzen Laborategira eramango gaituzten urratsak finkatzea.

Horregatik Borbor (k)ko osagai asko eta asko partekatu ditugu. Su txikian, bere historia ikusi dugu. Ibilbide honen aurrekariak edo abiapuntuak: herri honetako kultura politikoen ukitu batzuk, formazio politikoari dagokionez egindako lana eta utzitako oinordetza, testuinguru historikoak, politikoak, kulturalak... egungo unea bere muga eta gaitasunekin.

Proiektuan bertan ere sartu gara. Hainbat dinamismoren ondoren konfiguratu-tako ezaugarri nagusi eta dimentsioak ikusi ditugu; gutxienez lehenengo edizio baterako.

Proiektua aurkeztu ondoren, sorkuntza kolektiboaren prozesu honetan jarri nahi izan dugu arreta. Izan ditugun urrats, une, mugimendu, eztabaida, tentsio... horiek guztietatik ikasi baitugu, eta kudeatu ere bai, Borbor (k) proiektua Borbor (k) izatea ahalbidetu baitu horrek guztiak.

Atal honetan behin-behineko hausnarketa batzuk egin aurretik, oso garrantzitsua iruditu zaigu gure buruaz apur bat hitz egitea, nor garen, nola sentitu garen, nola bizi izan dugun, zer ikasi dugun... Horretarako, eta sistematizazio lan gisa, barne denbora eta espazio bat hartu dugu gai horietaz elkarrekin hausnartzeko. Sistematizazioari buruz egindako tailerraren fruituak dira atal honetako ondorio nagusiak.

5.1. Nor gara? Nor ez gara?

Proiektu eta prozesuaren artean, mugimenduen ondoan, pentsatzen, amesten eta Borbor-k n sinesten talde bat egon da. Esan beharra dago hasiera batean, hiru lagun hasi zirela ekimen honen “zer, nola eta zertarako”ei buruz amesten-pentsatzen-egiten. Denborak aurrera egin ahala, eta proiektua egingarri bihurtzen ari zen heinean, hasierako taldea handitu eta sei/zazpi lagun izatera iritsi ziren.

Ez gara oso talde handia. Ez ginen asko, baina barne mailan antolatzeko eta lana modu operatiboan banatzeko bezain burugorrrak bai. Horiek horrela, hiru lan-taldetan banatu ginen, eta bakoitza bere gai zehatzez arduratu arren, informazio, aurrerapen eta proiektuaren helburu, estrategia eta lehentasunak taldean kontrastatu eta sozializatu ditugu.

Modu honetan ari gara komunikazioa, gaitetia eta sistematizazioa lantzen. Elkarrekin kontrastatu, aztertu, aldatu eta hobetu ditugu horiek guztiak. Prozesua pixkanaka abiatu da, forma hartu du, ideietatik zehaztasunera igaro gara.

Izenak berak dioen bezala, prozesuan parte hartzen duten pertsonekin eta taldeekin eta horien artean izandako komunikazioa-elkarrizketa izan dira eta dira lehenengo lantalde honen zeregin nagusiak. Etengabeko harremanetan egon da parte-hartze aktibo izan dutenekin, eta loturak eta urbiltze estrategiak ezarri ditu oraindik parte hartu ez dutenekin. Balizko hutsuneak, mugak eta distantziak ordezkatzeko da Taldea egiteko oinarrizko egiteko bat, eta denekin gertutasun, konfiantzatik... inplikatu behar gara.

Ekimenaren berri emateko helburuarekin martxan jarri zen komunikazio estrategiak, informazioa etengabe sozializatu behar du, egiten ari garen urratsak etengabe jakinarazi behar ditu, eta partaideen erreakzioak, iruzkinak, kritikak eta oharrak jaso eta hauteman behar ditu. Elkar harreman hau animatu beharra dago, inurri lan asko egin behar da, eta lan horretako asko lantalde honek egiten du.

Horretarako, zenbait komunikazio-euskarri egin ziren, besteak beste: jendearengana hobeto iristeko, prozesuan parte hartzera gonbidatzeko eta proiektuaren nondik norakoak azaltzen zituen bideo labur eta xume bat; triptiko bat, hiru hizkuntzatan, bideoaren antzeko edukikoa, baina material grafikoarekin; etengabeko hedapen-lana prentsa-oharren bidez, herri-komunikabide edo mugimenduek kontsumitzen hedabideetan elkarrizketa eta erreportaiak eginez; eta prozesuaren faseetako une jakinetan mailnak bidaliz informazio eguneratuarekin, aurrerapenekin, hurrengo hitzorduekin...

Prozesuan zehar gaitegia izan dira dinamismorik handiena izan duena, behin baino gehiagotan birformulatu baitura gaitegiaren planteamendu eta edukiak. Hasieran uste zenetik gero egin denera, aldaketa ugari egon dira, esan bezala, proiektua zehazteko beharra baitzegoen. Zentzu horretan, bilera eta jardueretan sortzen joan diren gai, eduki eta problematikak taldekatzea lantalde honen zereginik nagusienetakoa izan da. Taldekatu, ordenatu, erlazionatu eta horiekin guztiekin gai zerrenda koherente, eskuragarri, erakargarria... egiteko zenbat aukera zeuden pentsatu behar izan da... gaiak aukeratzeko irizpide batzuk ere mugatu dira, eta edukien zentzua finkatu eta gaiak Borbor (k)ren printzipio politiko-metodologikoekin bat egiteko oso garrantzitsuak izan dira. Ez zen erraza izan egokiena zer zen erabakitzea eta adostea. Gaitegia lantzeko moduari buruz zalantza garrantzitsuak genituen, itxia ala irekia izan behar zen: Norekin? Gaitegia lanerako zer metodologia, marko eta jenderekin landu?

Amaitzeko, sistematizazio taldeak erregistratu (ahoz eta ikus-entzunezkoen bidez) eta idatzi egin ditu egindako jarduera, eztabaida, topaketa, bilera, tailerrak... Eta horrela dokumentatu dira Borbor (k) sortzeko prozesuaren fase desberdinak.


Horri dagokionez, esan beharra dago, beste sistematizazio batzuk ez bezala, lantalde hau proiektu baten erregistroa egiten ari dela, proiektu hori oraindik abian ez dagoen arren. Ekimena oraindik ez denez abiatu, erregistratzeko orduan konplexuagoa eta zailagoa da, oraindik ere zerbait abstraktua baita eta beraz, garapen bat ezartzea kosta egiten da. Formazio politikoak mugimenduetan lehentasunik ez duela dakigun arren, praktiken eta prozesuen sistematizazioak are eta gutxiago duela azpimarratu nahiko genuke. Gure praktikak eta proiektuak sistematizatzeko prozesuak hasi ahal izateko beharrezko baldintzak gutxitan ditugu. Hori dela eta, Borbor (k) proiektua sortu zenetik sistematizazioa burutzeko sortu den abagune hau aukera paregabea da, proiektua aberastu, hobetu eta sustatu egin baitezake horrek.

Azken batean, Talde honek horrela funtzionatu du. Etorkizunari begira, irekiera une bat zabaltzen da berrit. Borbor (k)ren lehenengo edizioari begira, talde handituz jende gehiago sartzea espero dugu eta hori sustatuko dugu.

5.2. Entzutea eta iragazkortasuna: sugeak eta azal aldaketak

Taldean egin da bidea. Prozesu-proiektuan zehar elkar ezagutzen eta aitortzen joan gara. Ekimen honi buruzko irakurketa eta begiradak, gure rolak, funtzio

eta zereginak... aldatuz joan dira, elkarrizketaren, eztabaidaren eta hausnarketa kritikoaren bidez ñabardurak agertu dira. Talde sustatzaile gisa, oso anitzak gara, mota askotako ibilbide, historia, jakintza eta praktikak ditugu. Bidetxo horretan eraldatuz joan gara. Hori dela eta, sistematizazio tailerrean Borbor (k)rekiko genituen ilusioek eta sentimenduek toki berezia izan zuten. Eta bat-batean eta ezer planifikatu gabe marraztu genuen “Borbor (k)rekiko sentimenduen kardiograma” polita.



Iturria: Geuk egina.

Hainbat sentimendu, baina sinergia argiak. Abiapuntu bera, Borbor (k) prozesuaren lehenengo garapen edo ezagutzera eman zen unean euforia puntu bat ere bai. Izan ere, batzuek lehenengo harrikada hartan parte hartu zuten eta beste batzuek ez.

Mugimenduek egindako harrera onaren ondorioz, lehenengo fasean eutsitako ilusioa nabari da. Kide batek esaten zuen bezala, “soinua zuen teklaren bat jo genuen”.

Bigarren fasearen hasieran izan zen tsunamia. Parte hartze baxuak, ulertarazteko zailtasunek eta mugimenduen partetik zehazteko eskariak orduan astindu gintuzten. Hori guztia onartzeko gaitasunari esker, berriro ere ilusioak sortzen ari zirela zirudien pixkanaka, ikasturtearen nekea ere pilatzen ari zen arren. Kezka eta zorabio puntu bat izan arren, lehenengo ediziotik hain gertu sentitzeak, ekimena gorpuztu dela sentitzeak, energiaren eta ilusioz betetzen gaitu, nahiz eta hasierako unean genuen beste ez izan. Baina hori derrigorrezkoa al da?

9. Taula. Hasieran Borbor (k) ez zen Borbor (k)...

Borbor (k)ren hasieran oraindik ez zen Borbor (k), ez zeukan izenik, eta ez zeukan gorputzik, baina gure buruetan eta barrenetan sentitzen genuen indarra zen. Nire kasuan, aspaldi eztabaidatu eta martxan jarri nahi nuen proiektua zen; hainbat herrialdetako esperientziak ikusi ostean, Euskal Herriratu nahi nuen ideia eta erronka bezala sentitzen nuen formakuntza politikoaren ber-asmatze hau.

Militantzia krisia somatzen nuen puntu batetan heldu zen gainera nire bizitzara, garai bat amaituta eta hurrengoari nondik ekin ez nekiela; gogoz heldu nion beraz, ideia berriari eta aktibismo eredu berriak frogatzeari, ilusio eta esperantzaz betea.

Lehenengo hilabetetan jaso genituen erantzunak eta jendearen animoak ikusita, geldiezin sentitu ginen, euforia momentuak bizi izan genituen; egiten ari ginenaren garrantzia eta arrakasta sobredimentsionatu genituen. Talde txikia izanik, kohesio handia geneukan eta aurrerapausoak handiak izan ziren. Are gehiago, egi guztiak genekizkiela sentitu nuen, formakuntza politikoaren diagnostikoa, guk aurreikusitakoaren oso antzekoa zen!

Heldu zen ordea, animoen beherakada garaia... hainbat faktore, hainbat ikaspen fase honetan. Alde batetik taldea handitu genuen, eta horrek aniztasunarekinn batera, eztabaida gehiago eta prozesuaren mantsotzea ekarri zuen. Irakaspen garrantzitsuak negoziatzearena, kontsentzua bilatzearena, erritmo ezberdinetara egokitzearena, jakintzat-ulertutzat gauzak ezin ematearena. Momentu gogorak neure buruari egin behar izan nizkion kritikengatik, gogorak ere gaizki ulertzeak eta eztabaida tentsioak sentitu nituelako. Baina aniztasunean ikasi nuen, ikasi genuen, eta trabak apurka gaintuz, proiektua sendotuz joan zitzaigun.

Bestetik errealitateaz topo egin genuen, hasierako atxikimendu eta indarrak baldintzatuta zirela konturatu ginen. Guk geuk egindako diagnostikoaren gainetik gure errealitate eta erritmoak inposatze lanetan ari ginela onartu behar izan genuen. Klonk! Berriz ere autokritika, berriz ere lurreratzea tokatzen zen... Apaltasuna eta bajoia ezin ukatu! Teoria eta praktikaren arteko aldea izugarria da batzuetan, izugarria izua ematen duelako, nola da posible zerbaiten inguruan teorizatzen gauden bitartean gure praktiketan ez islatzea? Bizitza kontraesana omen da...

Ikasi genuen besteen erritmoak ere errespetatu behar genituela, ezin genuela gehiegi eskatu, bakoitzaren denboraren kudeaketari errespetua izaten... eta era berean, garrantzitsua dela ere gure denborak hartzea, eta batzuetan distantzia hartzea ere. Borbor (k) hiru hilabetez kongelatuta izan nuen nire buruan, beste hainbat gauzetan murgildu bainintzen negu gordinean. Urruntasunetik bizi izan nuen eta kuriositatea izan arren, bere horretan utzi nuen. Hara sorpresa bueltan aurrerapauso eta finkapen handiak topatu nituenean. Taldean konfiantza izateak eman zidan bolada batez ez egoteko aukera eta askatasuna; hau ere, ikaspen handia. Ni gabe egindako bideak ilusioa berpiztu zidan, gogoak berreskuratu nituen.

Errealitatearekin topo egin ostean, nire denbora eta espazioa behar izan nituen benetan onartzeko-hausnartzeko eta aurrera jo ahal izateko.

Orain Borbor (k)ren lehenengo esperimentua erditzear gaude, eta atzera begiratuta idaztea tokatu zaidanean, burura eta bihotzera etorri zaizkidan lehenengo sententzioak prozesua pila disfrutatu izanarena dira. Prozesuan indartu naiz, akatsetatik-bertuteetatik ikasteko era ez dramatiko izan da, formazio politikoaren beharra azpimarratu dit eta hurrengo kurtsoari hasiera emateko irrika sortu dit.

Esti Redondoren lankidetzaz, Borbor (k)ko talde sustatzaileko kidea

Iturria: Geuk egina.

5.3. Sentimenduez, ikaskuntzez eta (trans)formazioez

Borbor (k) sortzeko urtebete baino gehiago eman ahal izatea opari polita izan da geure buruntzako. Eta zentzu horretan, ibilbide hau sistematizatzeko eta berari buruz hausnartzeko, aukera izatea gehigarri garrantzitsua da. Hasieran esan bezala, jada badu forma, eta ez zaio ezer falta abian jartzeko.

Prozesuan zehar une konplexuak identifikatu ditugu, mantsoak, zalantzak eta kezak, korapiloak, tentsioak eta zailtasunak. Gai horietako batzuk modu egokian kudeatu ditugu; zailtasunak prozesua indartzeko aukera bihurtu ditugula uste dugu, prozesua errealego eta urbilagoa bihurtzeko aukera. Beste batzuk, ordea, dira. Hautemanda ditugu, adi egongo gara eta etorkizunean ez errepikatzen saiatuko gara.

Ikusi denez, zaila da prozesua eta proiektua banatzea. Etengabeko erlazioan egon dira, elkar eraldatu dute. Proiektua eginez eta berreginez joan da. Ibilbide konplexua izan du, aurrerapen asko eta atzerapenen bat edo beste ere bai eta ez da lineala izan. Pentsatutakoa eta egin zitekeena, nahi zena eta erreala zena, etengabeko elkar ekintzan jardun dira, nahiz eta batzuetan kosta egin zaigun hortaz ohartzea.

Aurrerantzean irekiera eta entzutea bikoizten saiatuko gara, hori da gure ikaskuntza edo hausnarketa irekia. Beheraldiak ere egon dira, ilusioa galtzen ari zela ziruditen uneak. Horrelakoetan umiltasuna eta oreka bilatzea izan dira gakoa. Ez soilik proiektuaren eta prozesuaren artean; nahien, beharren eta egiazko baldintzen artean ere bai. Baita gure artean ere. Horren adibide txiki bat proiektua birbideratzea da: mugimenduek proiektua zehaztea eta mugatzea eskatu izan digutean, zintzoak izan gara. Nahiko zehaztu dugu, baina mahai gainean zalantza ugari jarri ditugu ere. Une horretan pertsonen

eta eragile partaideetan aldaketa politak sumatu genituen; arrazoi batengatik edo besteagatik izan zen ez dakigu, edota arrazoi guztien konbinazioaren ondorio. Hor hasi ziren prozesuaz hitz egiten, denboren garrantziaz, Borbor (k)ren parte egiteaz eta sentitzeaz.

Eskakizun eta baldintzen errealean irakurketa kritikoa zein gai/dimentsio hauen arteko orekak ez ditugu beti modu egokian egin. Baina orain nolabaiteko perspektiba badugu eta asko ikasi dugula esan dezakegu. Are gehiago, hori guztia datorren ikasturtean nabarmenduko dela uste dugu. Ez gain-baloraziorik, ezta gehiegizko eskakizunik... hori mugimenduei eta geure buruei begira. Koherenteak eta errealistak izan behar dugu beti, testuinguruekiko sentiberak, biziak... Baina ezin dugu ilusioa galdu, harritzeko gaitasuna, goxotasuna, amets egiteko eskubidea...

Orain arte, prozesu-proiektu honek guzti horretatik apur bat izan du. Eta hori, oraindik hoberena ez dela hasi. Eta ez gaituela eraldatu, eraldatu gaitzakeen guztia.

Jakintzak eta mugimenduen arteko elkar-hizketak Perun: ehuntzearen antzeko esperientziari buruzko apunteak

Mar Daza, Raphael Hoetmer, Nicola Foroni, Gina Vargas eta Luna Contreras (Demokrazia eta Eraldatze Globala Programa -PDTG-)

“Ehuntzerakoan...

“... mataza bat hartzen duzu, beste bat hartzen duzu, eta beste bat, hariaren koloreak, lodiera eta ehundura balioztatzen dituzu, batzuekin maitemindu egiten zara, hartu egiten dituzu. Gero, orratzak aukeratzen dituzu, puntuak imajinatu, jantziaren forma, hura jantzitakoan sentituko den beroa sentitzera iristen zara, hasperen egiten duzu. Zure eskuak laztantzen dituzu, itzalean edo eguzkitan kokatzen zara, hari, txirikorda, afektu, irudimen, korapilo, mugimendu eta aldaketen mundu horretan sartuko zarenean zainduko zaituen txokoan. Orratzak eskuetan moldatzen dituzu, zure pentsamenduak aztoratu egiten dira, hariak dantzan hasten dira, zure bihotzaren taupadak puntu bakoitzaren erritmorik egokitzen dira, koloreak forma bihurtzen... aurrera zoaz. Bat-batean, zure behatzak hamar baino gehiago dira, zure begirada inguruan lagun dituzun aurpegiak galtzen da, gogoratu egiten zara, lotu egiten duzu, hausnartu. Zalantza batzuk azaltzen dira, ehuna errepasatzen duzu, korapiloak edo hari solteak ote dauden begiratzen duzu, bildu egiten dituzu. Zure eskuen mugimenduak jantzia hartzen ari den forma ezkututzen dute. Harritu egiten zara nolatan joan den hain azkar. Orduan orratzak estu hartu, mugimendu bat egin, eta azken puntua jaiotzen da. Bidaia amaitu denean, bizitza puntu bakoitzean nola ehundu den sentitzen duzu. Ikasi egiten duzu, sendatu, sortu, aldatu”. Jakintzak Ehunduz prestakuntza-materialaren sarrera, euren gorputza-lurraldeak defenditzen dituzten emakumeengandik eta emakumeentzako prestakuntza-materiala.

“Orduan, abiapuntu bezala planteatzen ari garen pedagogia gorputzena da, lurraldeena eta eguneroko bizitzarena; abiapuntu bezala, ez helmuga bezala, egunerokoan bizi dugunari buruz pentsatzea baino gehiago planteatzen digun abiapuntua. Eguneroko bizipen horietatik abiatzen gara, bai, baina pentsatu behar dugu gure gorputzek kolonizazioaren eta emantzipazioen memoria dutela; eta memoria horrek modu berria planteatzen digula sentitzeko, jakiteko eta uztartzeko, teoria eta praktikan, oinarriko giza harremanak eraikitzen diren lekuez pentsatzeko eta eztabaidatzeko ideia”. Claudia Korol

Sarrera

Azkeneko sei urteetan, elkartu izan gara emakumeen mugimenduetako pertsonak, feministak, gazteak, ikasleak, Afrikako jatorrikoak, indigenak, sexu-aniztasunekoak, nekazariak, erauzketa-jarduerek kaltetutako lurralde eta komunitateetakoak, hiri-auzoetako erakunde, sindikatu eta erakunde politikoetakoak, besteak beste, gure errealitateaz eta mugimendu sozialetatik eratzen ari ginen eraldatze-prozesuez elkarrekin hitz egiteko. Ibilbide horrek eraman gintuen antzekotasunak, ezberdintasunak eta bat egiteko aukerak aztertzeraz; elkarrengandik ikastera; era kolektiboan jakintza sortzeraz; eta, bereziki, gaur egungo gure kulturetako eta sistema politikoetako desafio batzuei erantzutera.

Testu honek Jakintza eta mugimenduen elkar-hizketak deitzen dugun esperientzia horren berri emanten du. Bertan sortutako gogoeta, ikaskuntza eta galdera nagusiak izan daitezkeenak sintetizatu ditugu hemen; horien artean daude Elkar-hizketak zergatik ez diren prestakuntza politikoko proposamen klasikoa, ez eta mugimendu sozialen arteko artikulazirako espazio edo prozesua ere, nahiz eta bientzako nabarmen onuragarria izan. Edo Elkar-hizketak zergatik bihurtu ziren prozesu, zeinetan, elkar topatzeko eta elkarrengandik ikasteko espazioen bitartez, lokarri politiko zein afektiboak eta aldaketa sozialerako jakintza zein estrategia kolektiboak ehundu diren. Eta, azkenik, elkarrizketak zergatik iritsi diren proposamen pedagogikoa eta epistemikoa izatera; afiliazioa aitortuz bai herri-hezkuntza eta pedagogia feministako tradizioarekiko, eta baita pentsamendu kritiko eta dekolonialekiko ere, gaur egungo Perun mugimendu sozialetatik eta mugimendu sozialentzako ezagutzak eraikitze eta politika egiteko forma propioak iradokitzen dituena.

Elkar-hizketak Peruko prozesu sozial eta politiko nagusietatik bereizita jaio ziren. Gure asmoa ez da izan eraldaketa handiak eragitea, bai baina, diktadurarekin eta birmoldaketa neoliberalarekin burutu zen barne-indarkeriako aro luze eta mingarriaren ondoren, ehun kolektibo berriaren ekarpenak egitea. Horren baitan, eraldatzearen oinarritzako aditzak nabarmentzen dira, hala nola, elkar ezagutzea eta aitortzea, harremanetan jartzea, eztabaidatzea, gogoeta egitea, ulertzea, elkarrekin ikastea, eustea, iraultzea, sortzea, maitatzea, oroitzea, kolektiboan egitea... orobat bizitza, aniztasuna eta askatasuna baieztatzea. Gauzatu nahi dugun emantzipazio dekoloniala, feminista, ekologikoa eta komunalari dagozkion ehun propioak dira, orain dela hamar urte Perun presentzia txikia zutenak.

Testu honetan badago Elkar-hizketen sustraien eta aurrekariaren zerrenda; prozesu eta proposamen politiko pedagogiko moduan daukan azalpena; funtsezko aldaketaren zerrenda; eta bere sistematizazioan zehar identifikatu ditugun eragin, kontraesan eta desafioen hasierako ebaluazioa. Hemen aurkeztutako ideiak guk egindako sintesi- eta hautatze-prozesu baten emaitza badira ere, era kolektiboan eraikitako ideia, begirada eta praktika askotarikoen emaitza dira¹. Oinarri nagusia esperientzia bera da, bertan eta bertatik ehundutako hamarnaka lagunengoko gogoetak eta ekintzak. Zor horretaz jabeturik, prozesuko uneak, dilemak eta ikaskuntzak irudikatzen dira, zenbait aipu eta egoera-multzo ere sartu ditugu testuan bertan.

Azkenik, garrantzitsua da azaltzea sistematizazio hau, hiru eztabaida unetatik garatu egin dugula, PDTGeko kideen artean, gure lan-ikuspegia finkatzeko eta sendotzeko. Alde batetik, jendartearen eraldatzeko prozesu bideratzaile-eskola eta 2014an zehar lankidetzan bideratu genituen prestakuntza eskolak; bestetik, Peruko Herri Hezkuntzari buruzko Elkarriketa tailerraren bizipena eta ebaluaketa, non gure esperientzia beste esperientzia historikoekin eta gaur egungoekin kontrastatu genuen, eta azkenik, testu honen lanketa kolektiboa. Bestalde, alde aurretik Elkar-hizketen sistematizazio-prozesuek ere elikatu dute gure lan-ikuspegia: Emakumeen Elkar-hizketak sistematizatzea 2009-2010ean; Jakintza eta mugimenduen Elkar-hizketak Euskal Herrian sistematizatzea; eta elkarriketetako partaideekin berariaz sistematizatzen bi tailer 2012 eta 2013 artean.

I. Elkar-hizketak ehuntzen hasiz

Elkar-hizketak Peruko eta Demokrazia eta Eraldatze Globala Programako -PDTG- testuinguru, historia eta egoera partikularretatik abiatutakoak dira. Alde batetik, XXI. mendeko Peru, indarkeria politikoaren eta diktaduraren ondoren, neoliberalismo harrapakaria eta erazlea finkatzearen baitan administratutako demokraziarantz doan trantsizioan. Joan den mendeko

1 Bereziki eskertu eta aitortu nahi diegu bide hau eraikitzen lagundu izana ondorengo hauei: Tempora Pintado, Maria Sankama, Alejandra Tunco, Rosa Ojeda, Lourdes Huanca, Rodrigo Carpio, Mario Palacios, Juan Carlos Giles, Elna Abad, Agustina Daguerre, Edmundo Murrugarra, Alfredo Ortiz, Selene Lopez, Maria Ysabel Cedano, Ela Perez, Miryam Cordova, Camila Alvarez, Marfil Francke, Milton Sanchez, Blanca Llamocanta, Diana Tika Puka Flores, Jorge Miyagui, Martin Gomez, Esteban Escalante, Xochitl Leyva, Raul Zibechi, Claudia Korol, Horacio Machado eta urte hauetan guztietan Elkarriketetan antolatzen eta parte hartzen lagundu izan duten kide guztiei.

hirurogeita hamar eta laurogeigarren hamarkadetako urteetan Gure Amerikan ezkerreko jendarte-mugimendu eta erakunde politiko indartsuenetakoak izan ziren ahultze, zatitze eta desartikulatzeko egoeran zeuden une hartan. Bien bitartean, borroka berri edo eraberrituek lekua bereganatu zuten, lurraldea defendatzeko tokiko borroka moduan, sexu-subiranotasunagatik, erakunde politiko klasikoen zuzendaritza eta kontroletik bereizita.

Testuinguru horretan, Demokrazia eta Eraldatze Globala Programa -PDTG-, San Marcoseko Unibertsitate Nazional Nagusiko programa bezala sortuzen hasieran, elkarrizketarako zubiak eraikitze asmoarekin akademia eta jendarte zibilaren artean, eta Peruko prozesua eta aldaketa-prozesu globalen artean. Hori foro, mintegi eta argitalpenen bitartez sustatu zen, eta horietan herri-hezkuntzak, arte kritikoak eta memoria historikoak eginkizun handia bete zuten. Prozesu hori ekitaldietan gauzatu zen, eta Demokratizazio Globaleko Foroak horien artean izan ziren; bertan, Peruko eta munduko beste leku batzuetako buruzagi sozialek, intelektual kritikoek, arte eta kulturako langileek elkarrekin hitz egin zuten, jarrerak, agendak eta borroka-estrategiak partekatuz. Hurrengo urteetan, ekimena prozesua bilakatu egin zen, tailer eta jakintzak elkarrekin trukatzeko dinamika gehiago txertatuz; 2008an jo zuen gailurra, Eraldatze Sozialerako Kulturen Foroa zela eta.

Aldi berean, PDTGek berezko eragile moduan antolatze eta artikulatze sozial eta politikoko zenbait prozesutan parte hartu zuen. Horietako bat izan zen Peru Foro Soziala, eta haren bukaeran “Tambograndeko Topaketa handia”², Kultura Solidarioko Foroa Lima hegoaldeko Villa el Salvador herri-auzo autokudeatuan, eta mugimendu feministako artikulazio espazioak mamitu ziren. Beste desafioa eta aukera handia aurkeztu ziren 2008an Liman Herrien Biltzarra - Alternatibak Uztartuz ekitaldia antolatzen parte hartu genuenean; Europa, Latinoamerika eta Karibeko presidenteen Biltzar ofizialarekiko topaketa alternatiboa izan zen. Prozesu horretan, PDTGek lehenik ekimen-batzordea osatu zuen, eta batzorde antolatzailea gero, hainbat eragileren parte hartzea erraztea eta euren artean artikulazio berriak izaten laguntzea nahi zuelako (erakunde indigena eta nekazariak, GKEak, emakumeen erakundeak, sindikatuak, ezkerreko kolektibo eta erakundeak). Asmo on -baina xalo samarhorrek aurrez aurre jo zuen prozesuan buru izatearen bila zebiltzan eragileen arteko etengabeko liskarrekin; borroka horiek herrialdeko ezker tradizionalako kultura politikoaren ezaugarri dira. Horren aurrean, eta estrategia kolektibo moduan, Biltzarraren barruan bertan baztertutako prozesuei euskarria

2 Herrialdean egin zen lehenengo herri-kontsultaren bitartez Manhattan meatzaritza enpresa sartzea ekidin zuen iparraldeko herria.

eskaintzeko aukeraren alde egin genuen. Horrela antolatu genituen zenbait ekimen eta haietan parte hartu genuen: Emakumeen karpa, gazteen topaketa, herrien auzitegia eta arteetatik abiatuta arte-langileek elkarrekin topo egiteko gunea. Gune horretan, eztabaida interesgarriak eta artikulatzeko eta topaketarako esperientzia berritzaileak bultzatzeaz gain, elkarrekin lan egiteko beste forma batzuekin eta praktika politiko alternatiboekin esperimentatu ere egin genuen.

Beste bide batzuen bila genbiltzan, bai akademiaren arloan -akademia kritikoan izanik ere-, eta bai gune politikoetan eta erakunde sozialen arteko artikulazio-guneetan aurkitutako mugen aurrean. Izan ere, bi espazio mota horietan askotan eraikuntza kolektiboko esperientzia demokratikoki erradikalak eragozten dituzten egitura eta baloreak agertzen dira alderik alde. Biltzarreko esperientzian oinarrituta, konturatu ginen bazter-espazioetan politika egiteko, elkarrekin bizitzeko eta jakintzak eragiteko beste baldintza batzuk sortzen zirela. Era horretan, hurrengo urteetarako ibilbidea gidatuko zioten hiru bilaketa ireki zizkion Biltzarra antolatzeko prozesuak PDTGerⁱ: i) ezagutza emantzipatzaileak eraikitzeke beste forma batzuk bilatzea, espazio akademiko, heteroarautu eta etnozentrakoen erdigunetik atereaz; ii) lan egiteko beste forma batzuk bilatzea, mugimenduekin, haietatik eta haien barrutik; erakunde senideekin batera eta euren prestakuntza- eta artikulatze-prozesuak indartzeko; iii) mugimenduen artean elkarrekin topo egiteko, hitz egiteko eta lotzeko beste forma batzuk bilatzea.

Hegemoniaren aurkakotasunetik, aniztasunetik eta mugimenduetako erresistentzia eta eraikitze -berreraikitze- prozesuetatik abiatuta. Horregatik, eta Biltzarraren ondoren, loturak estutzen hasi ginen, aldeko eragile giltzarriei laguntzen: CONACAMI³ eta FENMUCARINAP⁴. Gero, tokiko erresistentzia prozesuetan bertaratzen: Ayabaca eta Cajamarca. Lortu nahi genituen aldakuntzak erdiesteko elkarlanean lagunduko luketen ikuspegi, metodologia eta hizkuntzen auto-esplorazioko eremu bihurtu genuen gure antolakuntza-bizitza. Eztabaida estrategikoetarako espazioak garatu genituen agertoki eta egoera politikoei buruz, mugimenduetatik abiatuta, horiekin eta horientzako eztabaida teorikoetarako.

3 Meatzaritzak Erasandako Komunitateen Koordinakunde Nazionala <www.alainet.org/es/active/30470>.

4 Peruko Emakume Nekazari, Artisau, Indigena, Sorterriko eta Soldatoko langileen Federazio Nazionala <www.fenmucarina.org>.

Era horretan, arian-arian, mugimendu eta borroken artean harremanak izatearen beharraz eta garrantziaz konbentzitzen joan ginen. Eta mugimenduen barruan, belaunaldiak berritzeko beharraz; kultura, praktika politiko eta antolakuntza formatuak berritzeko beharraz; eta jakintza emantzipatzailea eraikitzearen garrantziaz. Horrekin batera, ikuspegiak, estrategiak eta tresnak aldatzea, tokian tokiko errealitate praktikoak kritikoki aztertzearen emaitza bezala ulertzea. Horrekin batera etorri zen herri-hezkuntza emantzipatzailea egitearen alde gero eta apustu kontzienteagoa izatea, lan egiten dugun antolakuntza prozesuetako buruzagiekin eta baita ezagutzen duguna auzitan jarri eta herri-hezkuntza berrasmatea ere. Aldi horretan, garrantzitsuak izan ziren erabili genituen berrelikatze-espazioak. Mugimendu Sozialen Herri Unibertsitatean -UPMS- eta herri-hezkuntzako hainbat espaziotan txertatuta geundela baliatuta, mugimendu sozialetan suspertzen ari diren epistemologia, pedagogia eta metodologiaren inguruan eztabaidatu genuen⁵.

Horrela jaio ziren Jakintza eta Mugimenduen *Elkar-hizketak*, bilatzeko prozesu bezala, *eguneroko egin-jakin-sentitu-ikasi-sortu kolektiboan geure burua eraldatzen eta ingurua eraldatzen joan gineneko* esperientzia gisa. Bilaketa horietatik eratorri ziren ibilbideen eraginez, *Elkar-hizketak* nork beretik ehuntzen hasi ginen,

Elkar-hizketak prozesu eta proposamen politiko pedagogiko bezala

“Eta tailer honetatik, zer espero dugu? Espero dugu era kolektiboan planteatutako galdera pare bat sortzea edo haiek buruan ditugula hemendik irtetea. Beste emakume eta gizon batzuekin ongi artikulatzea. Gure eguneroko borrokek indartzeko beharrezko indarrak handitzea. Sareetako sareak osatzen laguntzea. Horrekin batera, jakin nahiko genuke hemen dauden erakunde eta mugimendu guztietako gizon-emakumeek metodologia hau nola ikusten duten, eta beharbada euren erakunde eta borroketan nola erreplikatu ahal izango luketen”.

5 Giltzarriak izan ziren bereziki bi tailer, Liman Reflex Action ikuspegiaren Nicola Foronik eman zituenak, hain zuzen; gero PDTG prozesuarekin bat egin zuen. Iruditzen zaigu *Elkar-hizketak* nork bere eraikitze eta bilatze prozesu diren aldetik sartzen direla UPMSaren esparru barruan. Modu horretan parte hartu ahal izan genuen UPMSeko espazio batzuetan Kenyako Munduko Gizarte Foroan -2008- eta Gaikako Gizarte Foroan Porto Alegren -2010. Jakintzen eta Mugimendu Sozialen V. *Elkar-hizketa* UPMSerekin elkarlanean gauzatu zen, eta biziak prozesuari buruzko barne-gogoeta tailer batekin bukatu zen. Ikusi hemen: <www.universidadepopular.org/site/pages/es/en-destaque.php?lang=ES>.

(Ikerlari-militantea, Jakintza eta Mugimendu Sozialen I. Elkarrizketa. 2010eko maiatza).

Elkar-hizketak Latinoamerikako herri-hezkuntzaren tradizio aberatsean hartzen dute parte. Pedagogia kritikoeekin eta *reflect action* bezalako hainbat eratako ikuspegiekin elikatzen dira; hala nola, pedagogia feministak, indigenak eta dekolonialak, jakintzen ekologia, zapalduaren antzerkia, herri-arte eta komunikazio komunitarioa, eta abar. Horrez gain, gaur egun ere eraikitzen ari den prozesua garatzen lagun izan ditugu nekazari, indigena, feminista, afro, ekologista, sexu-aniztasuneko, komunikatzaile, artista eta hezitzaileen mugimenduetako praktikak eta jakintzak.

Elkarrizketetako ardatz-uneak Emakumeen Mugimenduen arteko Elkar-hizketak (2009-2010) eta 2010etik aurrera Liman egindako Mugimenduen eta Jakintzen sei Elkar-hizketak izan dira.

1. koadroa. Elkarriketa nagusien eta eztabaida nagusien laburpena			
Zb	Prozesua/jarduera	Eguna eta lekua	Eztabaida nagusiak
1	Emakumeen Mugimenduen arteko Elkarriketa: 2 mugimenduen arteko topaketa, sistematizazio bat eta 7 tailer mugimenduko.	Lima, 2009/2010.	Partekatutako agendak eta bereizitakoak aztertzea, mugimenduen arteko botere korapiloak, hainbat kultura- eta antolakuntza-testuingurutan gorputza, lurraldea, eskubideak eta generoaren esanahi politikoaren analisi kolektiboa. Emakumeen mugimenduko barne-desafioak.
2	I. Elkar-hizketak: Krisien eta beste mundu posibleen artean (gaiari buruzko hiru eguneko foro publikoarekin).	Ñaña, 2010eko maiatzaren 26tik ekainaren 2ra.	Askotariko krisien eszenatokiak mugimenduetan dauzkan eraginak analizatzea; horrez gain, mugimendu bakoitzak historiak, errealitateak, aldatzeko proposamenak eta estrategiak sakonki esploratzea.
3	II. Elkar-hizketak: Batasunak indarra egiten al du? (arratsalde bateko foro publikoarekin)	Lima, 2010eko abenduaren 15etik 17ra.	Analizatzea hauteskondeetako desfioak, batasun politikoaren esanahia eta estrategiak, eta mugimenduen eginkizuna balizko ezkerreko gobernu baten mende.
4	III. Elkar-hizketak: Peru eraldatzeko pistak (arratsalde bateko foro publikoarekin).	Lima, 2011ko uztailearen 12tik 23ra.	Analizatzea gobernu nazionalista berriak eskaintzen zituen aukerak eta mehatxuak, eta mugimenduetatik abiatutako aldakuntza-proposamena era kolektiboan eraikitzea.
5	IV. Elkar-hizketak: Antolakuntza-esperientziak: Erresistentziatik eraldatzera.	Lima, 2011ko azaroaren 10etik 11ra.	Gobernu nazionalista analizatzea, herrialdeko alde guztietan antolakuntza prozesuei buruz gauzatutako jarrera, elkartruke eta eztabaiden inguruan. Mugimenduen artean barne demokratizazio eta botere-harremanen aurreko desfioa.

6	Sexu Aniztasuneko Mugimenduaren Elkar-hizketak (4 tailer).	Lima eta Chiclayo, 2012.	Analizatzea sexu-aniztasuneko mugimenduaren historia, ikaskuntzak eta bide horretako tentsioak. Borroka-subjektua eraldatu izana aztertzea. Mugimenduaren barruan, identitateak, belaunaldien arteko harremanak eta boterea.
7	Euskal Herriko Jakintza eta mugimenduen Elkar-hizketak (2 topaketa).	2012-2013.	Euskal Herriko mugimendu sozialen egoera eta une historikoaren analisi kolektiboa, mugimenduen artean kultura politikoa berritzeko eta lotura indartsuagoak sortzeko aurrerapauso eta oztopoetara bideratuta.
8	V. Elkar-hizketak: Desafioak eta alternatibak Gure Amerikako agertokietan: Estraktibismoa, patriarkatua eta mugimendu sozialak (foro publiko bat eta Unibertsitatean elkartruckerako espazioa) ⁶ .	Barranco, 2014ko irailaren 23tik 25era.	Kontinentearen inguruan lurraldearen aldeko borroken memoria eta aurrerapausoak. Estraktibismoa, patriarkatua eta kolonialitatearen arteko bame-harremanak.
9	VI. Elkar-hizketak: Herri-hezkuntza emantzipatzaileko topaketa (nazionala eta nazioartekoa) ⁷ .	Barranco, 2015eko maiatzaren 14tik 16ra.	Herrialdean herri hezkuntza emantzipatzailearen historia: herrialdeko herri-hezkuntzaren mugimenduko alderdi guztien artean eta belaunaldi-arteko elkarriketatik abiatuta, orainaldia eta etorkizunari buruzko analisi eta elkartrukea.

Iurria: Geuk egina.

6 Ikusi: <www.youtube.com/watch?v=PngVAbUe-qw>.

7 Ikusi: <www.youtube.com/watch?v=1dnnRnhTA6A> y: <https://www.youtube.com/watch?v=SaD1-linxAA>>.

Emakumeen Mugimenduen arteko Elkar-hizketak mugimenduen barruan eta mugimenduen artean elkarriketarako topaketa-prozesuak izan ziren, eta urtebetean zehar egin zituzten Lima hirian. Emakumeen mugimenduko hainbat adierazpenek hartu zuen parte (indigenak, nekazariak, afroperutarrak, feministak, lesbianak, trans eta hiritar-herrikoiak). Adierazpen guztien arteko lehenengo topaketa baten ondoren, tailer batzuk egin ziren parte hartu zuten erakunde eta mugimendu bakoitzarekin, eta bukaeran mugimenduen arteko bi topaketa egin ziren; horietako bat esperientziaren sistematizaziokoa. Elkar-hizketarako ibilbidea diseinatzea eta horren helburu politikoak finkatzeko lana, lehenengo topaketan eta metodologia zehaztu zuten bideratze-taldean partetik gauzatu zen. Elkar-hizketetan zehar, itxura batean iragazgaitzak diren gaiak eta agendak malgutzen joan ziren, hala nola, gorputza, sexualitatea, lurraldeen kontrola eta estruktibismoa, arrazakeria eta boterearekin lotutakoak. Generoagatik guztiek jasandako zapalkuntza esperientzia aztertu zen, nahiz eta testuinguruaren arabera desberdina izan; horrez gain, baita emakumeen beraien artean klase eta etniagatik desberdintasunak izatea ere. Horrekin ateak zabaltzeko zitzazkion elkar ulertzeari, bidegabekeriak aldatzeko borrokan bakoitzaren esperientziak balio zuela aitortzeari; eta loturak egiterari edota berrelikatzeari. Irekitze horrek emakume mugimenduen egoeraren inguruko ezagutza-esparru berria eraikitzea eraman zuen. Eta baita erakunde mistoetan, emakumeen erakundeetan eta eguneroko bizitzan identifikatu ziren desafioen aurrean, konpromisoak hartzera ere.

Azken Topaketan, nola emakume hiritar herrikoiek hala indigena eta afroperutarrek slogan hau jaso zuten: *“Gure ahotsa berreskuratu dugu. Orain geure berezko historia egingo dugu”*. Horrela, lehenengo esperientzia horretatik abiatuta joan ziren finkatzen gure ikuspegiak, tresnak eta jomugak. Elkar-hizketetarako lehenengo esperientzia honek honako hau utzi zigun: emakume horien bitartez ulertu genuen gure gorputzen autonomia eta guztion lurraldea den natura lotuta joan behar direla, ulertu genuen zapalkuntza-sistema askotarikoek emakumea eta natura, biak, menderatzeko subjektu parekagarri moduan ikusten dituela. Ikasi genuen ere, alternatiba demokratikoak eraiki ahal izateko, nolako garrantzia duen konpondu gabeko gatazkak eta korapiloak aztertzea eta bideratzea, bai mugimenduen baitan eta baita mugimenduen artean ere. Azkenik, beste espazio gutxitan bezala sortu zen hemen elkarriketa prozesu bat diseinatzeak eta era kolektiboan bideratzeak duen garrantziaren kontzientzia. Horri dagokionean, buruzagi eta aktibistek osatutako talde misto batek eraiki zuen gutzia.

Jakintza eta Mugimenduen lehenengo Elkar-hizketa mistoa -hainbat mugimendutako parte-hartzaileekin- Lima kanpoaldean egin zen -Ñañañ-

2010eko maiatzean. Aparteko espazio aberats eta intimoa izan zen, prestaketa lan luzearen ondoren sortua, eta komunitate-bizitzako lau egunetan gauzatu zen “jakintzen mistikarekin” –Kokama Maria Sangama Amazonaseko herriburuzagiak gero egindako tailerretan izendatu zuen legez–. Esplorazio funtsezkoak egin genituen tailerrarekin, norberaren esperientziak eta bizipenak ekarri genituen gogoeta kolektiborako hainbat dimentsio kontuan harturik, hala nola, historia eta territoria, identitate pertsonala eta politikoa, eta baita alderdi artistiko eta espiritual ere. Horiek denak elkarri lotuz iritsi ginen tailerraren bukaerako sintesi unera. Mugimenduek euren burua identifikatzeko jarduerak; identitateen arteko elkarriketarako uneak; lurralde-mapak egiteko ariketak; borroken birpaso historikoa; horma-irudiak, kantuak, errituak eta beste adierazpen artistiko eta espiritual batzuk, etab. Horiek guzriak Elkar-hizketen proposamen pedagogikoa osatzen joan ziren. Tailer horretan oso eztabaida indartsua sortu zen hezitzaile, ikerlari, komunikatzaile eta artista militanteen eginkizun politikoari buruz; uko egin zioten berezko agendarik gabeko “fazitadore” edo bideratzaile izateari, eta auto-baiezatzeko eta beste identitate batzuekin elkarriketa kritikoa izateko ariketa egin zuten.

Bi prozesu horiek Elkar-hizketen proposamena osatzeko fase eratzailea dira, urteetan zehar iraun duten praktikak eta uste sendoak eragin zituzten: tailerrak era kolektiboan bideratzea, mugimendu sozialak artikulatu, berrelikatu eta indartu egiten diren prozesuak bezala ulertze, eta osagarritasunetik abiatuta jendartean eraldatzeak sortu ahal dituzten praktikak, jakintzak eta subjektibotasunak sortzea.

II., III. eta IV. Elkar-hizketek bigarren une bat osatzen dute Elkar-hizketen prozesuaren baitan. Topaketetan horietan, subjektu ezberdinen arteko analisi kolektiborako espazioak osatu ziren, Peruko testuinguru soziopolitiko berriaren joera, aukera eta mehatxuen inguruko analisi kolektiboa; izan ere, presidentzialetan ordura arte ezkerari lotutako hautagai bat irabazi zuen. Tokiko koiuntura gogoetatzeko espazioak izan ziren, egoera nazionalari zuzenago lotuta. Hiru tailerretan, gure kultura politikoa, praktikak eta aldakuntza-estrategiak aztertu genituen. “Batasunak indarra egiten al du?” izeneko II. Elkar-hizketan geure buruari galdetu genion herrialdea eraldatzeko behar ditugun harreman eta artikulazio politiko moten inguruan, eta ohiko batasun-ikuskerak horretan laguntzen ote digun. “Eraldatzeko jarraibideak” izeneko III. Elkar-hizketan mugimendu sozialen proposamen eta eskaeren gutxieneko agenda garatu genuen, Ollanta Humalaren ezker nazionalistako balizko gobernuak gogoan har zezakeena. IV. Elkar-hizketa, “Eraldatze Handia eztabaidan: gizarteratzea, estraktibismoa eta garapenaren eta garapenarekiko alternatibak”, foro-tailer erako dinamikarekin, gobernu

nazionalistak bost hilabete bete ondoren egin genuen. Hori zela eta, Elkar-hizketako galdera ardatzak Estatuak egitura-aldaketak bultzatzeko aukeren ingurukoak; politika estraktibistaren eta gizarteratze sozialerako gobernu-programaren kontraesanen ingurukoak; eta garapenaz baino garapenari alternatibak bilatzearen ingurukoak izan ziren. Horrekin batera, Elkar-hizketa bakoitzarekin hainbat metodologia esploratu genituen gai eta testuinguruetara egokituz; FENMUCARINAP eta CONACAMI herri mugimenduen laguntze-prozesuetan aplikatu ziren berberak, baina esperientzia horiekin aberasturik.

Hurrengo urteetan (2012-2013) Elkar-hizketen prozesuak norabide berria hartu zuen, eta dinamika berriak txertatu ziren hobeto definitutako proposamen pedagogiko, epistemologiko eta politikoa diseinatzea lortuz. Dinamika berrien barruan daude sexu-aniztasuneko mugimenduarekin lotutako ikerkuntza-ekintza eta Euskal Herrian gauzatutako Elkar-hizketen prozesua. Bi kasuetan, Elkar-hizketen proposamena bestelako testuinguruetan aplikatu zen (Euskal Herrian eta Peruko Sexu-aniztasun mugimenduan); hori zela eta, bere erabilgarritasuna eta baita bere mugak ikusi ahal izan genituen. Proposamena beste prozesu batzuetan aplikatzea etorri zen ondoren: generoa eta meatzaritzari buruzko ikerkuntza-ekintza⁸, Conga meatzaritza-proiektuaren aurkako erresistentziaren sistematizazioa Cajamarcan⁹, eta FENMUCARINAPi emandako laguntza; esperientzia horiek peoposamenaren printzipioak, ikuspegiak eta metodologiak aberastu zituzten, Elkar-hizketak hobeto moldatuz. Esate baterako, Conga proiektuaren aurkako borroka sistematizatzean indar handiagoz landu zen memoria historikoa; herri-arteetatik abiatuta eta koplak (Andeetako kantuak) zein horma-irudi kolektiboen bitartez, konprobatu eta aitortu ahal izan genuen gogoeta historikoak eta sormen artistiko kolektiboak abian den borroka batean daukaten indar bateratzailea eta estrategikoa.

Azkenik, 2014an eta 2015ean Elkar-hizketen proposamena berreskuratu zen, baina oraingoan gure lanaren eta testuinguru politikoaren ardatzeko eztabaida batzuk sendotuz. V. Elkarriketa gaur egun bizi dugun aroak ezaugarri duen zapalkuntza askotarikoen sistema arteko harremanari buruzko analisisan sakontzen ahalegindu zen; kapitalismoa, patriarkatua eta kolonialitatea, eta harreman horrek nola egituratzen dituen lurralde-erresistentziak eta alternatibak eraikitzeke erresistentziak, tokiko eskalan eta eskala globalean. VI. Elkarriketan herri-hezkuntza emantzipatzailearen inguruko eztabaidak miatu ziren gehienbat. Herri hezkuntza ezagutza eta ekintza politiko

8 Ikusi: <<https://generoymineriaperu.wordpress.com/>>.

9 Ikusi: <www.youtube.com/watch?v=_nAXhoY-NOI>.

eraldatzaileko esparru bezala; ekarpenak egiten dituen jakintza subjektu eta forma hegemonikoak auzitan jarritz, eta emantzipazio sozialeko prozesuak sostengatzeko metodoak eta tresnak sortuz. Peruko testuingurutik hasita, azken Elkar-hizketa honetan ere helburuetako bat herri hezkuntzako esperientzia ezberdinak berriz topatzea izan zen, diktaduraren ondorengo geldiene historikoaren ostean. Beste helburua gaur eguneko herri hezkuntzaren izaera emantzipatzaileari buruzko eztabaida egiteko espazio bat irekitzea izan zen.

Aldi berean, Elkar-hizketetako proposamen politiko pedagogikoa partekatu eta aplikatzen joan ginen. Proposamena beste metodologia eta espazio batzuetara eratorri zen, beste eragile sozial eta instituzio batzuek eskatuta edo haiekin elkarlanean. Horixe gertatu zen Klima Aldaketaren aurkako Herrien Biltzarrean (2014ko urria), Ongi Bizitzeko Emakumeen Biltzarrean (2014ko urria) Celendinen, eta zatikide eta aliatuen Broederlijk Deleneko Topaketan (2013ko abuztua)¹⁰. Proposamen metodologikoa VI. Topaketetako eta emakumeen eta LGTBen arteko elkarrizketetako prozesuan moldatu zen. Azkenik, Prozesu Eraldatzaileak Bideratzeko Herri Eskola egin genuen, eta bertan gure ikuspegiak eta lan-tresnak partekatu genituen herrialdean hainbat prestakuntza-esperientzia bizitako 40 bideratzaileko taldearekin¹¹.

Badirudi logika bikoitz honetan datzala Elkar-hizketen etorkizuna: mugimenduen artean elkar topatzeko eta elkarrekin ikasteko kokatuta, izaera mugatuagoa duen prozesu jarraia izatea, alde batetik; eta bestetik, printzipio eta aplikazio metodologikoekin hornituta, aurreko prozesutik jaiotzen den proposamen politiko pedagogikoa izatea, baina beste espazio zabalagoetan era independentean txertatuta.

10 Ikusi: <www.youtube.com/watch?v=c9a4ZMTqk4U>.

11 Ikusi: <www.democraciaglobal.org/noticias/888-1era-escuela-popular-para-la-facilitacion-de-procesos-transformadore>.

2. koadroa. I. egoera: Elkarrekiko aitortza, zaintza eta afektuetatik abiatuz, praktika berria sortzea. Elkar-hizketak emakume mugimenduen baitan eta emakume mugimenduen artean

Emakume mugimenduekin Elkar-hizketetako lehenengo prozesua ez ezik, gauzatu genuen prozesurik zainduena eta, seguru asko, koherenteena ere izan zen. Alde batetik, bagenekien konplexutasun handiko lursail batean sartzen ari ginela hainbeste eratako identitateak eta hainbesteko ulermen-zailtasunak elkarrekin hizketan jartzeko asmotan ibiltzearekin. Eta beste alde batetik, modu eraikitzailean eta politikoki koherentean egin ahal izatea bideratu zuen praktika eta metodo bat asmatu beharra izan genuen. Hura bermatu eta gidatzeko, i) talde metodologikoa osatu genuen prozesuan parte hartzea hautatu zuten erakundeetako aktibista, buruzagi eta militanteekin; ii) bizitza, borroka eta antolakuntzako esperientzietatik abiatuz lan egitea erabaki genuen, agenda eta ideologietatik abiatu beharrez; eta iii) tailerrak orientatu zituen helburu nagusia antolakuntza-ehunak indartzea izan zenez, prozesu bakoitza bere testuinguruan jartzeko ahalegin handia egin zen, lanean buruzagiek eta aktibistek metatutako jakintza guztia berreskuratuz eta zegokion balioa emanez.

Prozesuak erakutsi zigun borroka politikoen eta jakintzen ehun politikoa eraikitzeak afektuak eta harremanak sortzea eta zaintzea eskatzen duela, eta baita logika kolektiboarekiko jokabide koherentea izatea ere. Hasi eta berehala nabaritu zen sentitzeak eta subjektibotasunak ezagutzaren funtsezko dimentsioa osatzen zutela. Gure esperientziak partekatzeak abiatuta sortu ziren afektu horiek ahalbidetu zuten lesbiana eta buruzagi indigenen artean, esate baterako, elkarriketa sakona eta zintzoa. Eta ardura handiz landu genituen afektu horiei esker sartu ahal izan ginen bazterkeria esperientzietan geure erakundeetan, haien jatorriak eta aterabideak bilatzeko, identifikatzeko.

*“Zaila zen Topaketa honetan eta emakumeen elkarriketan gu integratzea”.
“Feministak bihurtuko dira, esaten ziguten, bidali egingo gaituzte”.
(Buruzagi indigena, Emakumeen II Topaketa Elkarriketa, 2010).*

“Konplexua da aldaketa pertsonalak eta sozialak eragitea: oraindik ere zaila izango litzateke Andeetako emakumeen printzipioak sexu-aniztasunarekin eta feministekin uztartzea. Balore edota kultura arteko talkak daude: gu ez gara gorputzetik abiatzen, jendartetik baizik. Baina nor bere gain leun eta poliki hartzen joango den prozesua da”. (Buruzagi indigena. III. Topaketa. Emakumeen Elkarriketa, 2010).

“Eta arazo hori genuen bakarrak ginela uste genuen” “kontatzeak... ahaldundu egiten du”. (III. Topaketa. Emakumeen Elkarriketa, 2010).

Guztion zapalkuntza eta aberasten gaituzten desberdintasunak ezagutzea abiapuntua izan zen. Horrek aldi berean berdintasun eta bidezotasun dinamikak birstortera

eraman gintuen, eta haietan guztien ahotsak eta mundu- ikuskerak baliozkotzat jotzen ziren. Jokabide horretatik eraiki zen “bestearengan” ezberdintasuna ezagutzea, baieztatuz borrokako guztiontzako lurra sortzea egiteko modukoa ez ezik, beharrezkoa ere badela; zapalkuntza-sistema kapitalista, heteropatriarkala, arrazista eta kolonialari aurre egingo dioten loturak sortzea.

“Oso ahalegin politik egiten ari gara, geure burua emakumeengandik eraikitzeke ahaleaginean ari gara, identitateak bidezketasunez, harmoniaz eta errespetuz gobernatu ahal izateko irizpideak nola harmonizatu behar diren erakutsiz, herrialde osoarentzat eredu izan ahal gaitezen. Guk nazio anitzeko gobernuak deitzen dugun hori, ongi bizitzea ardatz nagusitzat izango duen herrialde baterako”. (Burusagi indigena, II. Topaketa. Emakumeen Elkarrizketa, 2010).

Prozesu horrek jarrera berriak eragin zituela eta, horrekin batera, ikuskerak eta praktikak ikutu zituela mezu batek erakusten du; hain zuzen, genero kontzeptuarekiko berarekiko eta lan-estrategia feministarekiko kritikoenetakoa zen buruzagi indigena batek harrotasun gayaren martxara birbidali zuen mezua. Azken Elkar- hizketaren ondoren izan zen hori, mugimendu guztietako ekintzetan era kolektiboan parte hartzea erabaki zenean. Gerora, Emakumeen Elkar-hizketek eragina izan zuten mugimendu feministetan eta emakumeen mugimenduetan; antzeko prozesuak erreplikatzeko ziren, espazio berriak sortuz, helburu berdinekin.

Iturria: Geuk egina.

1. irudia. Emakumeen Elkarrizketak, hainbat erakundeetako emakume buruzagiekin aritzeko bideratzaileen taldea. 2010eko apirila



Iturria: Argazki propioak.

II. Elkarrizketak ehuntzeko hariak

Hari politiko kontzeptualak

Jarduera multzo hori Elkar-hizketen bitartez berrelikatuz eta eraldatuz joan diren apustu eta jarrera politiko-teoriko batzuetatik abiatuta jaio zen. Latinoamerikako historia partikularretik, bertako gaur egungo borroka sozialetatik eta haiekin lotutako eztabaidetatik abiatuta, hainbat mugimendutako ordezkariak, ekonomia, elikadura, energia, zainketak eta ingurugiroaren krisi esplizitua salatu zuten. Areago, ez ezik, horiek prozesu historiko luzeagoen zati bezala ulertzeko beharra ere planteatu zuten. Hugo Blanco, Juan Tiney eta Teresita Antazu buruzagi indigenek baieztatu zuten krisiak gainditzeko modu bakarra jendartea eta estatua antolatzeke erroitik desberdinak diren formak bultzatzea dela; horrekin batera, gure errealitatea ezagutzeko formak ere aldatu egin behar dira.

Lourdes Huanca eta Mafalda Galdames bezalako lider nekazariak euren ekarpenetan lotu egin zituzten guztion ondasunak esplotatu eta bizitza merkatu bihurtu izanaren ondorioz gertatutako elikadura-krisia eta emakumeen esplotazioa eta bazterkeria; lotura horren bitartez, nabarmendu egin zituzten lurraldeen eta gorputzen aldeko borroken arteko baliokidetasunak. Beste alde batetik, Rocio Muñoz, Wilder Gamarza eta Belissa Andia, hurrenez hurren, mugimendu afroperutarreko eta sexu-aniztasuneko ordezkari direnek ere planteatu zuten genero-, klase- eta arraza-zapalkuntzen arteko lotura. Horrenbestean, askatzearen aldeko borroka guztiak ehuntzeko beharra aurkeztu zuten, horretan azaleratzen diren zailtasunak arazo izan daitezkeela ohartaraziz. Gainera, euren analisisetan adierazi zuten zapalkuntza jendarteko eta bizitzako dimentsio guztietan ezartzen dela. Hori dela eta, aldaketarako funtsezkoa da berdintasunaren alde eta identitatetzat aitortutako eskubidea izatearen aldeko eguneroko borroka.

Gaur egun, egoera historiko jakin batekiko erantzun gisa ulertzen ditugu Elkar-hizketak: egoera horrek oraingo zibilizazioaren gainbeherara eraman gaituen krisi-multzoa du ezaugarri, sakonki epistemologikoa -jendarte bezala ez dugu eraldatze soziala eraikitzea lortzen edo ez ditugu ezagutzen horretarako beharrezko jakintzak eta ezagutzak-, kulturala -iraun ezinezko balore eta bizimoduak, bidegabekeria soziala eta ekologikoa areagotzen dutenak- eta politikoa den zibilizazio mailako krisia -politika egiteko ohiko formek galdu egin dute zilegitasuna eta deskribatutako egoerari aurre egiteko gaitasuna-. Zibilizazio-krisiaren ideiak azaltzen duenez, munduan zehar tokiko errealitateak eraldatuz Europatik abiatuta hedatu den modernitatea boterea,

ezagutza eta gizakia-natura harremanaren arrazionaltasunean oinarritzen da, eta arrazionaltasun horrek zapalkuntzak normalizatzen ditu emakumeekiko, sexu-disidenteeekiko, herri indigena eta nekazariekiko, Hegoalde globaleko lurraldeekiko, gazte eta hurrekiko, beste espeziekiko eta orobat naturarekiko. Horren guztiaren helburua bizitzari eusten dioten baliabideen eta lanaren gainean kontrol handiagoa izatea da, eta horren bitartez kapitala pilatzeko modua egitea.

Elkar-hizketetan identifikatu genuenez, krisi hau tokiko bereizgarriak dituen munduko prozesu historikoaren emaitza da, eta kolonizazioak eta kolonizazio horrek botere kolonialaren patroien menpean jarraitzeak markatuta dago. Horrez gain, identifikatu genuen menderatze-sistema antropozentriko eta merkantilista horri kolonialismoa baino are zaharragoa den botere-eredu batek eusten diola: patriarkatuak. **Kapitalismo-kolonial-patriarkal deitzen diogun txirikordatzeko sistemiko hori**¹², krisi ideia bera bezalaxe, Elkar-hizketen gorputz teorikoa eskuz lantzeko hari garrantzitsuetako bat da. Landutako kontzeptuen errepasoa partekatuko dugu hemen.

Kapitalismoa bizitzako gero eta espazio eta dimentsio gehiago merkaturatzea sustatzen duen gizartea antolatzeko proiektua da, kapitala metatzearen eta biltze infinituaren bila dabilena. Horretarako, guztion ondasun eta lurraldeak esplotatzea sustatzen du, eta baita gizon-emakumeen gorputzak eta bizitzak esplotatzea ere. Bere ustea da zenbat eta aberastasun material handiagoa izan, orduan eta ongizate sozial handiagoa izango dela -garapena eta aurrerabidearen mitoa-. Horretarako, guztiona pribatizatu egiten da, eta bi hierarkia eta esplotazio-harreman mota ezartzen dira: kapitalarena laneko indarrarekiko eta kapitalarena naturarekiko; horrela, naturaren gainean gizakiak duen nagusitasuna (“gizonaren” genero-figurarekin) eta dirudun klaseek (ekoizpen-bitartekoen jabeek) klase herrikoien gainean daukatena normalizatzen da.

Patriarkatua emakumeen eta sexu-disidenteen laneko indarra, gorputzak, desirak eta identitateak kontrolatzen dituen jendartea antolatzeko proiektua da. Horretarako, genero-harremanen eredu asimetrikoak eta heteroarautuak ezartzen ditu, eta haietan era positiboan baloratutako eginkizun publikoak eta produktiboak aitaren figurarekin irudikatutako gizontasuna, indarra eta arrazoiaren iruditerian oinarritutako genero “maskulinoari” izendatzen zaizkio; “femeninotasunaren” ordezkari diren figuren gainean nagusi izateko

12 Horren inguruko analisi zorrotzagoa dago hemen: Mar Daza, Raphael Hoetmer eta Gina Vargas. *Krisiak eta mugimendu sozialak Gure Amerikan* (Lima 2011: Democracia y Transformación Global Programa).

boterearekin batera. Hori dela eta, izaki femeninoak naturalak, senezkoak, ahulak, irrazionalak direla adierazten da, eta, beraz, arduradun bat behar dutela. Ikusmolde horren azpian dauden estereotipo eta balorazio horiek dira lana sexuaren arabera zatitzearen oinarria. Horregatik, emakumeei jendartean eta ekonomian aitortu gabeko eginkizunak bideratzen zaizkie; hala nola, erreprodukzioa eta zaintza lanak. Horrez gain, aipatutako lan-egituraketak heteroaraua hausten duten subjektuak pertsona zitaltzat hartzea dakar.

Kolonialitateak arraza-ideia historikoki eraikitzetik abiatuta antolatzen du gizartea, kolonizatzailea eta kolonizatuaren arteko desberdintasuna kodetzean oinarrituta.¹³ Horren baitakoa da gizakien artean, euren fenotipo edo kulturen arabera hierarkiak ezarri ez ezik, jakintza, kultura-ekoizpen, praktika sozial eta politiko eta garapena ulertzeko formen hierarkiak inposatzea ere. Inposatze hori mendebaldeko arrazoiak sortutakoa gainerako herri eta kulturek sortutakoa baino hobea dela sinestearen ideiatik dator.

Hemen deskribatutako menderatze sistemek euren denboratasun eta berezitasun geo-historiko berezkoak dituzte. Prozesu historiko globalen bitartez gauzatu izan dira. Prozesu horien artean dira kolonizazioa bera, kristau ebanjelizazioa, industrializazioa, nazioarteko merkataritza, gerra irekiak eta beste borroka inperialista batzuk, iraultza informatikoa, eta abar. Horiei esker, gero eta lurralde eta harreman sozial gehiagotan sartu dira munduan zehar, eta bidegurutze berriak eragin dituzte. Gaur egungo gizarteetako antolamendua egituratzen duten guztiontzako botere-ereduak ezagutu arren, prozesu horiek historia eta testuinguru partikularrekin elkarrekintzan aritzen dira, eta sistema propio zinez konplexuak sorrarazten dituzte.

Hala eta guztiz ere, Hego Globaleko herriek koloniaren garaitik hona, Estatu eta merkatu kapitalistarekin batzutan erresistentziazkoak eta bestetan elkarlanekoak diren hartu-emanen bitartez, ikasi egin dute sistema horrekin maneiatzen. Hori dela eta, euren bizitzetarako funtsezkoak diren beharrak asetzeko auto-antolamendu eta auto-gobernu formak mantendu edo sortu dituzte; esate baterako, herri indigena batzuk, lurrik gabeko nekazariak, emakume hiritar-herrikoiak, pikete-kideak. Horiek erresistentzia eta autodeterminazio praktiketan gauzatzen dira, paradigma hegemonikoei desafio egiten dieten etikak erabiliz. Prozesu horiek “beste” jakintzak sortuz doaz, “beste” subjektibotasun, elkarbizitza- eta eraldatze-praktikak, gaur egungo krisietarako irtenbide sistemikoak marratzeko erabilgarri direnak.

13 Ikusi Anibal Quijano eta Kolonialitate/Modernitate taldearen lana.

Lehenengo Elkarrizketatik, interpretazio-esparru antikapitalista, antikolonial, antipatriarkal eta biozentrikoaren diseinua gauzatu egin zen, bertaratutako hainbat mugimenduren ekarpenei esker:

“Komunitateak zerbitzatu behar dituzten sendagileek uste dute jendea ‘espainolez ez jakiteagatik’ gaixotzen dela, eta eurak dira kitxua ikasi beharko luketenak, han bertakoak ez direnak beraiek baitira... Justizia-sistemarekin ere beste hainbeste gertatzen da: ulertzen ez duzun hizkuntza batean epaitzen zaituzte, eta zer leporatzen dizuten zure hizkuntzan esango lizukeen abokatu bat ere ukatu egiten dizute. Landa-eremuetan, gizon batzuek ikasi egiten dute espainola, hezkuntza jaso ahal dutelako, baina emakume gehienek ez, eta emakumeak jipoitzen dituztenean, justiziaren aurrean ikusezin bihurtzen dituzte beti. Ez dute ikasteko, lana egiteko, ezertarako aukerarik. Munduko elikagai nagusiak lur hauetan erne ziren. Zer gertatu da orain gu horrela egoteko? Andeetako herria ez da inoiz ere behartsua izan, aberatsa izan da beti. Diruak ez zuen garrantzirik. Emakumeei ez zitzaien hezkuntzarik eman, espainiarrak iritsi zirenean guk ez genuela balio esan zutelako, eta ez gintuzten hezi. Maileguan hartutako hitza erabiliz, urratu egin gintuzten”. (Andeetako buruzagi indigena. I. Elkarrizketak).

“Batzen gaituena botere politiko eta ekonomikoaren kontrako borroka da, horixe sentitzen dut. Horretan bateratzeko puntu bat izan dezakegu. Pachamama defendatzen dugunean, guztion bizitza defendatzen dugu; hor egin nahi dugu zuekin bat. Eta horrek ekarri behar du elkarrekiko laguntza emango diguten agendak sortzea”. (Buruzagi indigena, I. Elkarrizketak, 2009).

Elkar-hizketekin ulertu genuenaren arabera, modernitatean indartsu artikulatu eta sendotutako menderatze-sistema horrek zatitu egiten gaitu. Lokarriak hausten ditu, isolatu egiten gaitu eta gu geu gauza bilakatu, guztia merkatu-gai bihurtzeko. Identitate-mugak eta jarrera dikotomikoak sortzen ditu pertsonen bizitzaren ganean kontrol handiagoa ezartzeko. Hierarkizatu egiten gaitu. Gure errealitateak, gure gizatasuna eta natura modu integratu eta historikoan -aldakorra- ikusten uzten ez dizkigun jakintza-sistemak eratzen ditu, abiapuntu horiexen arabera. Ez digu utilitarioak diren horietatik haratagoko harremanik ikusten uzten. Horregatik, loturak eta elkarrekikotasunak eraikitzeo ahalmena iraultzailea da alderik alde. Eta mugimendu sozialak ahalmen hori daukaten subjektu politikoak dira, Elkar-hizketek ziurtasun hori utzi ziguten. Euren jakintza eta subjektibotasunetatik abiatuta, aurre egiten dietela gure mundua

ulertu ahal izateko inposatutako diskurtso eta kontzeptuei. Eta, artikulatuago dauden neurrian, gai direla eraldatze sakonak egiteko.

“... hainbesteko genero, jatorri eta hizkuntza aniztasunaren erdian, guztiontzako pasio bat aurkituz joan ginen beste guztiontzako pasio askoren artean: borroka egiteko pasioa zen, (...) eta jabetu ginen elkarrekin indartsu komunikatzeko modu bat gure borroken historia askotarikoak partekatzea zela, guztiok zanpatzaile sentitzen genuen ordenaren aurka: kapitalismoaren aurka. Eta gure borrokak kontaktzen hasi ginen, gure borroken historiak. Eta borroka horien historiak kontaktu ahal izateko erabili genituen alde batetik mapak, (...) gure ahaleginak non dauden, zeren aurka eta noren aurka egiten genuen borroka, (...) denbora-lerro bat ere egin zen, txirikorda baten forma hartu zuena, eta ehundura, kolorea, tamainarekin jolas egin genuen, eta mugarren denbora-ildoak osatuz joan ginen borroken historian; sarean nahastuz joan ginen, eta konturaturaz gertaerak nahasten ez ezik, gu geu ere sarean nahasten ginela, borroka bat agertzen zen lekuan, bata bestearekin lotzen zelako hantxe”. (Herri-hezitzailea, Jakintza eta Mugimenduen II. Elkarrizketak, 2010).

**2. irudia. “Jakintzen eta Mugimenduen I. Elkarrizketak”.
Herri-borroken berreraikuntza historikoa eta mapa egiteko dinamika.
2010eko maiatza**



Iturria: Argazki propioak.

Hari pedagogikoak

“Eta prozesuaren alde apustu egiten dugula ere adierazi nahi dugu, ez emaitzen alde bakarrik. Han azaldutako beste ideietako bat arlo subjektiboaren zentralitatea baieztatzea izan zen, ezagutzaren dimentsio arrazionala eta positibistaren aurrean subjektibotasuna birkokatzea. Eta honako hau esatea: hori ere bada gure borroka-bandera, hori da prozesuen barruan baieztatu nahi duguna, baina, aldi berean, ez erortzea defentsa-jarreran tradizional deitutako guztiarekin, akademiko deitutako guztiarekin edo arrazional deitutako guztiarekin. Ez, baizik eta kontziente izan kontua dela bi dimentsio eta esperientziak ikasteko baliagarri eta erreferente izango zaizkigun espazio bat proposatzea”. (Emakume aktibista gaztea, Jakintza eta Mugimendu Sozialen I. Elkarriketa, 2009).

“Subjektibotasuna, izaera sinbolikoa, sentimenduak eta espiritualtasunari berrekitea [izango litzateke mugimenduetako desafioetako bat]. Orain dela ordu gutxi izan dugun esperientzia gogoratu nola-bait, bazterkeriak onartzeak berak eragin zigun gogoeta egitea. Horrek ere laguntzen digu elkar ulertzen eta bestearen lekuan jartzen; esperientziak elkarrekin izateak lagundu egiten digu beste aldea ikusten eta hari buruz hitz egiten”. (Antolatze-esperientziei buruzko IV. Elkarriketak, 2011).

Ekosistema eta prozesua

Gure arteko barne-etzabaidetan bolo-bolo ibiltzera iritsitako erdi mantra erdi txantxa izan zen esaldi hau: “dena prozesua da”. Izan ere, beste ezer baino gehiago, Elkar-hizketak prozesua dira, elkarri lotutako egoeren sekuentzia (bizipenak, elkarriketak, analisiak, ulertzeak), mailaz maila espero diren birkokatze edo ikaskuntzak eskuratu ahal izateko, eta horrekin arazoak jotako errealitatea aldatzeko ekarpena egin dadin. Horren harira, Elkar-hizketak banaka zein era kolektiboan bizi ahal izango lirateke, eta prozesu moduan ulertu, prozesu:

... **bizipenezkoak eta pedagogikoak**, ikaskuntzak esperientziatik sortzea bilatzen duelako, bizi izandako esperientzia pertsonala eta kolektibo (bir)bizitzea eta norberaren ibilian emandako urratsak berraztertzea. Hori dela eta, ezagutza emantzipatzailea eta subjektuen arteko harremana, zein ikasteko bideak eta bere jomugak, etengabe

berraztertzen ari dira; jarduera kolektiboan eta gerta daitekeenaren kontingentzian birsortzen dira.

... **historikoak**, testuinguru historiko askotarikoak ez ezik artikulatuak ere badiren horietatik abiatzen direlako. Elkarri lotutako lurraldetasunak baieztatzea bilatzen du. Memoriak berreskuratzen ditu, eta geure berezko historia idazteko gaitasuna indartzen du. Gorputza-lurraldea harremana subjektuak osatzen dituen harreman gisa hartzen du, kokatu egiten gaituena; eta hor daude eta aitortu behar ditugu botere harremanak, eta baita haiek aldatzeko estrategiak eta aukerak ere.

... **ekologikoak**, errealitate sozialak eta esperientzia pedagogikoak, biak ala biak, pertsonak eta haien inguruan duten guztiaren arteko elkarrekintza multzo bezala ikusten dituelako. Elkarrekiko eragina duten elkarrekintzak. Bizitzako dimentsio guztiak (soziala-naturala) adostearen bila dabil, pertsonen eta natura osatzen duten beste izaki eta elementu guztien artean elkarren mendekoak izatearen kontzientzia eragiten du.

... **erradikalak**, zapalkuntza-egoeretara zuzenean jotzearen bila dabilelako, haiek aldatzeko asmoarekin. Ildo horretan, historiak berregiten ditu, kontzeptuak birdefinitzen, praktikak eta jarrerak birplanteatzen, zabaldu eta biderkatu egiten ditu espazioa-denbora dimentsioak, iruditeriak, baloreak eta ideologiak.

Ikuspegi horri beste ikuspegi bat batu zitzaion sistematizazioan zehar: prozesu horiek, tailer, topaketa edo formazio-jarduera baten testuinguruan, ekosistema bat osatzen dutela; elkarri eragiten dioten askotariko komunitate eta lagunez osatutako sistema konplexua, elkarrekintzan ari direla bizitza sostengatzeko behar den energia sortu ahal izateko. Horregatik, Elkar-hizketak finkatzeko funtsezkoa da zer baldintzarekin abiatzen garen ulertzea orobat: parte-hartzaileek zer-nolako jakintzak, esperientziak, baloreak, ideologiak, sentimenduak, desioak dakartzaten. Horrekin batera, baita elkarbizitzan zehar euren arteko elkarrekintzek josten dituzten dinamikak ulertzea ere. Ekosistema guztiek bezala, Elkar-hizketak etengabe aldatzen ari diren prozesu biziak dira, eta osagarri duten elementu bakoitzeko zikloak badoaz eratzen prozesua bere osotasunean -konfiantza eta afektuen zikloa, jakintza banakakoa eta kolektiboa eraikitzearen zikloa, kokatzearen eta birkokatzearen zikloak-. Ziklo horiek jarduera osoa duen bizitzaren ziklo orokorrari batzen zaizkio.

Ekosistema orientatua baldin bada ere, ez dago erabat kontrola daitekeen ekosistemarik, aldi berean elkarrekintza gehiegi garatzen direlako eta lagun edo antolakuntza bakoitza erritmo eta logika desberdinekin egokitzen delako aldaketetara -ikasten duelako-. Bizitako guztiak osatzen du energia. Hau da, sentitutakoak, maitatutakoak, desiratutakoak, beldurrek, estutasunek, bakardadeek, ikasitakoak... Bizitakoa prozesatzeko gaitasunaren araberakoa izaten da fluxua, bizitakoa metabolizatu eta prozesu orokorrean kateatzeko gaitasunaren araberakoa. Baldin eta banakako prozesu edo zikloetako batean korapilo bat azalduko balitz, fluxua jaitsi egingo litzateke edo gelditu, eta horrek, jakina, eragin egingo lioke prozesu orokorrari. Horregatik, garrantzitsua da orekak mantentzea, uneak irekitzen eta ixten jakitea, gaitasunak garatzea, loturak finkatzea, afektuak, sortze-askatasuna, fedea eta motibazio sakonenak zaintzea, energia banakakoa eta kolektiboa ez dadin gehiegi kargatu eta higatu.

Elkarrizketetako ekosistemek gorpuztutako geografia honako hauxe da: gorpuzta, lurraldea, boterea, memoria, subjektibotasuna, espiritualtasuna, jakintza eta adierazpen-moduak. Ekosistema pedagogikoetan, premisa garrantzitsua da ikasten duen subjektuaren osotasuna, pentsatzeak, gogoeta egiteak, sentitzeak, egiteak, sortzeak, gogoratzeak, desiratzeak, amets egiteak eta abarrek artikulatzen duen jakintzaren dialektika, eta dena aldi berean norbanakoaren izatearen baitan. Eta azkenik, ekosistema handiago batean integratuta egotearen kontzientzia: jendartea eraldatzeko prozesu historikoen parte izatearen kontzientzia, eta ziklo naturalen parte izatearen kontzientzia. Horren inguruan, honako hau azaldu zuen buruzagi indigena batek:

“Ayacuchotik nator; han tratu txarrak ematen dizkigute emakumeoi. Pozik nago zuekin egoteaz; bost hatz izatea bezalakoa da. Eskuko bost hatzak elkarrekiko desberdinak dira, baina guztiak esku bakarrekokoak dira. Orain ikusten dut guk eraikuntza kolektiboei ere egiten diegula ekarpena, nahiz eta elkarren artean desberdinak izan. Baina kolonizazioak orain arte pentsarazi izan digu guk ez dugula hori egiten”. (Emakumeen Elkarrizketak).

3. irudia. Emakumeen Elkarrizketak, elkarrizketa-prozesuaren (ekosistemaren) sistematizazioa irudikatzen duen papertzarra- 2010eko apirila



Iturria: Argazki propioak.

Orientazioak

Esandakoan sakontzeko, Elkar-hizketetako ekosistema ondorengo elementu eta orientazio hauekin osatuta dago:

- 1) **Gogoeta eraldatzailerako** abiapuntua **bizitako esperientzia da**. Kontua ez da era abstraktuan hitz egitea. Alderantziz, norbera bere esperientzia konkretuaz gogoeta egiteak interpelatu egiten digu subjektuei. Esperientzia baldintzaile, hartu-eman eta subjektuen sentitze-pentsatzearen arabera kokatuta eta hartatuta dago. Esperientzia aipatzeak eta harekin lotuta analisia eta eraikuntza mantentzeak gogoeta-fluxu indartsu eta konplexua eragiten du. Are gehiago, balizko tentsioak eta gatazkak sor ditzake, afektuak, sentsazioak eta elkartasunak mugiarazten dituen hein berean. Bizitako historia, une eta egoera esanguratsuak berreskuratzea da bidea; berez daukaten konplexutasun eta aberastasun osoan agertzea ahalbidetuko duten moduak eta ibilbideak aurkitzea, problematizatzea eta subjektuak elkarrengandik ikasteko elkarrizketa-espazioak sortzea. Argitu beharra dago ez direla edozein esperientzia, baizik eta *jakintzaren eremu guztiak, arlo sentsitiboa, afektibitatea, memoria eta bere dimentsio politikoak*

mugiarazten dituzten esperientzia pertsonalak direla. Hain zuzen ere, bizitako esperientziatik abiatzeak berak ahalbidetzen du historiek eta subjektibotasun politiko kolektiboek elkarrekin topo egitea eta berriz aurkitzea beste era batera.

- 2) **Gure ezagutzaren izaera mugatua aitortzen dugu.** Gutako bakoitzaren jakintza bere historia, lurralde eta afektuen araberakoa da. Horrenbestean, elkarren beharra dugu mundua bere konplexutasunean ulertzeko, artikulatutako botere-sistemak analizatzeko eta baita haiengandik askatetzeko ere. Orduan apustu egiten dugu jakintzen ekologiarren alde -jakintza kontzeptualak, espiritualak, emozionalak, harremanetakoak, afektiboak, komunitarioak, herrikoiak, eta abar-, eta jendartea eraldatzeko prozesuen alde, askotariko jakintzen arteko parekotasunetik abiatuta. Jakitun izanik horietako bakoitzak rol jakin eta funtsezkoa jokaten duela sistema horren funtzionamenduan, eta haietako edozein baliogabetzeak, txikiena izanda ere, sistema osoa desorekatzen duela. Ekologia hori isuri ahal izan dadin, mugiarazi egin behar ditugu hainbat hizkuntza (sentimenduak-gorputza-pentsamendua), ezagutza edo hizkuntza batek besteen gaineko lehentasunik gabeko elkarrizketa lortu ahal izateko, horizontaltasunetik abiatuta garatutako elkarrizketa.
- 3) Hain zuzen ere, printzipio kontua delako, edozein prozesuk ditu **borondateak** eta **intentzionalitateak**; gure egiteko formak bideratuta daude subjektuengan eta subjektuen artean identifikazioa, elkarren aitortza, harremanak, motibazioak, gaitasunak, jarrerak, portaerak eta identitateak problemarizatzen -eta ez kontrolatu edo aurrez definitzen-. **Gure arreta nagusia botere-harremanetan eta kulturen arteko topaketetan sortzen diren harremanetan dago** (genero, etnia, antolakuntza, belaunaldi eta abarren artekoak). Horretan, beharrezkoa da gure zapalkuntzetatik abiatuta pentsatzea, sentitzea, ekitea, geu askatzea eragin ahal izan dezagun; Freirek zioen moduan, ez baikara bakarrik askatzen, beti elkarren artean baizik. Funtsezkoa da konturatzea horrela izan dadin eragin handiagoa duela errealtateari buruz geuk dugun ikuspuntuak errealtateak berak baino. Hau da, zapalkuntza, pobrezia edo bazterkeria beti hor daude, baina kontua da zer modutara jasotzen ditugun eta haien aurrean zer ekintza mota inspiratzen duten. Pertzepzio horien inguruan lan egitea bilatzen dugu.
- 4) Elkar-hizketak eraiki nahi dugunaren **aurrerapena eraikitzeko espazio** bezala ere ikusten ditugu, eta horietan status quo-arekiko desberdinak diren praktikak eta harremanak bizi eta eraiki nahi ditugu. **Ezagutzen eta bizi**

ditugun botere-harremanak agerian jarri, ulertu, desnaturalizatu eta des-ikastea da helburua, eta era kolektiboan beste botere-forma batzuk esploratzea. Aldi berean, horrek bizitzako espazio guztietan pedagogia hori bizitzea eskatzen du.

- 5) Horregatik, Elkar-hizketak **afektuak sortzeko eta harremanak eraldatzeko espazioak** izateko antolatuta daude. Esparru horretan, erabateko garrantzia du elkar zaintzeak, bihotzetik hitz egiteak, konfiantza sortzeak, elkar baloratu eta aitortzeak, elkar maitatzeak... maitasuna botere-iturria delako. Horrekin batera, ezinbestekoa da gure gorputzari entzuten, onartzen eta emozioekin bidea egiten jakitea; etsipen eta heriotz-asmoen gainetik matxinada alaiari eusten jakitea; harrokeriaren eta zinismoaren gainetik apaltasun gozoa sostengatzen jakitea.
- 6) Elkar-hizketak, sormen prozesua ez ezik, prozesu artistikoa ere badira. **Gure iritziz, artearen ahalmena guztion sortzeko gaitasunean sustraituta dago, geure burua eraldatzeko, geure burua behin eta berriz aurkitzeko eta askatzeko gaitasunean.** Gure sentimendupentsamenduko adierazpenari egiten diogu dei, hainbat hizkuntza eta konposizio artistikoren bitartez, bai banakako eran, eta baita, batik bat, era kolektiboan ere. Formak, alegoriak, metaforak, ñabardurak, ehundurak, polifoniak, mugimenduak, narrazioak, erritualak eta abar sortzea esploratzen ari gara, irudikatze sinbolikoekin osatutako iruditerien alde borroka egitearen bila. Sarritan, era horretan esan nahi duguna hobeto artikulatzea eta komunikatzea lortzen dugu; hainbat esanahirekin kargatutako hitzak dira ia beti, arrazoia baino gehiago emozioak, oroitzapenak eta sentsazioak daukate barruan.
- 7) Aurreko pintuetan esandakoaren arabera, **Elkar-hizketetako prozesuek sortzaileak eta kontingenteak behar dute izan.** Ezin dute alde z aurretik finkatutako ibilbide edo ubide bakar bat izan; alde z aurretik diseinatzen baditugu ere, neurri batean bidean berrasmatzen ditugun prozesuak dira. Horrenbestean, **bat-batekotasun kolektibo etengabe**an eraikitzen dira; eraikuntza-lana bideratzaile talde batek kudeatzen badu ere, parte-hartzaileek euren esku hartzera irekita dago. Modu horretan bakarrik jar daiteke harremanetan bizitzak berez duen izaerarekin: aldakorra, kontraesankorra eta konplexua. Horrek eskatzen du tailerrean zehar talde bideratzaileak berak birkokatze-prozesu bat bizi beharra ezinbestean, eta hezitzailea eta ikaslearen arteko banaketa klasikoa eraistea.

- 8) **Gatazkak leku garrantzitsua betetzen du Elkar-hizketetan;** izan ere, gatazkaren baitan azaleratzen dira mundua ikusteko era desberdinak, finkatzen eta malgutzen dira identitateak, kokatzeak eta birkokatzeak lortzen dira, garbiago nabarmentzen dira botere-harremanak eta beste dinamika sozial batzuk. Gatazkak giza bizitzaren zati bat dira, eta ez dira berez txarrak; alderantziz, hurbiltze biziagoak eragin ditzakete eta ikaskuntzak sendotzea ere bai. Gatazkak ikasteko aukera bihurtzea da desafio handia. Horregatik baldintzak sortu genituen Elkar-hizketetan gatazkak eta tentsioak aurkeztu eta prozesatu ahal izateko. Hori egin daiteke, esaterako, gure harreman, praktika edo diskurtsoetan ditugun ahulguneak edo kontraesanak nabarmentzeko balio duten dinamiken bitartez. Edo gure burua interpelatzea sustatzen duten dinamiken bidez. Egoera horietarako giltzarriak dira euste afektiboa, konfiantza eta asertibitatea komunikazioan.

3. koadroa. II. Egoera: Gatazka – Sexu aniztasuna vs. Borrokak lurraldeagatik

Tailerretako batean eztabaida gogorra sortu zen genero-justiziaren aldeko borroken jatorriari buruz, lurraldeagatik egiten diren borrokekin alderatuz -eta borrokak hierarkizatuz-. Ondoko bereizketa hau planteatu zen: alde batetik, feministen eta sexu-aniztasuneko aktibisten helburuak, eskubideak eta berdintasuna lortzera bideratutako helburuak; eta, bestetik, botereei aurre egitera bideratutako lurralde- borroken helburuak. Azken borroka horiek indarkeriari eta bizitzaren aurkako atentatuei egin behar diete aurre.

“Noren aurka egiten du borroka [genero-borroka bati dagokionean]? Eskubideak, berdintasunak, eta abar, baina beste kasuari dagokionean [lurralde-erresistentzia], konplexuagoa da lege espezializatuak dituen botere baten aurka ari garelako borrokan, botere ekonomiko bat gudukatzen ari gara, eta ez du atzera egiten familia ikaratzerakoan, ez du atzera egiten zuri kalte egiterakoan, ahal duenean ezta zu hiltzerakoan ere. Borroka mota horiek oso desberdinak dira, ezin dira berdin epaitu, erabat bestelako kontuak dira. Meatzaritzak horrelako praktika latzak jasan izan ditu: leku askotan ezagutu izan dugu nola hil dituzten buruzagiak, pertsonak bortxatu, toki batzuk suntsitu”. (Gizonezko buruzagia, Defentsa Frontea. “Batasunak indarra egiten al du?”. II. tailerra 2010eko abendua).

Hala ere guztiz ere, horren aurrean erantzun zen bereizketa horrek ez lukeela zentzurik izango, izan ere genero-justiziaren aldeko borrokek elkarren artean lotutako botere-sistemei egiten dietelako aurre. Halaber, azpimarratu egin zen aurre egiten zaion botere-motak ere, nahiz eta itxura batean beste era batera funtzionatu, ondorio hilgarri zuzenak dituela:

“Eta zuk esaten duzunean (...) guk eskubideen alde egiten dugula borroka eta zuek boterearen kontra, nabarmena da gu egiten ari garen borrokaren ezer ere ez zarela ulertzen ari. Izan ere, nik uste dut borroka funtsezkoa lotuta dagoela beste ikuspegi horietatik artikulatutako sistemen aurkakoekin. Sistema kapitalista da, inolako zalantzarik gabe, baina baita bizirik dagoen sistema arrazista, sistema patriarkala ere.”

“Orduan, botere kontuekin lotutakoan haratago joanda, homosexualak eta lesbianak, era horretan bortxatu bakarrrik ez, hil ere egiten dituzte. Latinoamerikan bada feminizidioa deitzen den fenomeno berri bat, eta emakume izate hutsagatik hiltzen dituzten emakumeekiko gorrotoaren krimenak dira” (Aktibista lesbiana eta feminista, “Batasunak indarra egiten al du?”. II. tailerra. 2010eko abendua).

Elkarrizketa bera baino oraindik ere interesgarriagoa izan zen aktibista lesbiana hamaiketakoan meatzaritzaren aurkako buruzagiarekin eseri zela, eta euren desberdintasunak eta ikuspegiak eztabaidatu izana.

- 9) Azkenik, horrek guztiak geure rola eta eginkizuna gardentasunez onartzea dakar berekin, eta baita herri-hezitzaile bezala daukagun gure identitate partikularra ere. Elkar-hizketetan **jarrera eta intentzionalitate propioak dituen subjektu moduan** hartzen dugu parte, eta ez kanpoko kolaboratzaile edota prozesuen dinamizatzaile bezala. Mugimendu sozialekin praktikan ikasten duten hezitzaileak gara, aldi berean mugimendu izanez eta mugimenduak indartzeko nahiarekin.

4. Koadroa. III. egoera – Hezitzaileak subjektu politiko bezala: “ikastearen garrantzia azaleratzea”

Jakintza eta Mugimenduen I. Elkarrizketan dilema bat agertu zen bertaratu ziren artista, hezitzaile, komunikatzaile eta ikerlari bakoitzarentzat euren identitatea nola formulatzen zutenaren inguruan eta subjektu politiko bezala jarrera hartu nahi zuten ala ez argitzerakoan (identitateen koadroa ikusi). Ikerlariek hori ez egitea hautatu zuten, baina hezitzaile, komunikatzaile eta artistek euren taldeak hornitzea erabaki zuten, eta bertatik beste mugimenduekin elkarrizketan parte hartzea. Dinamiketan eta hurrengo egunetan talde bakar bezala finkatzen joan ziren, eta talde horrek orduko egun hartatik gaur arte argi mantentzen dugun jarrera baieztatu zuen: mugimenduen barruan dagoen mugimendua gara. Aipatutako jarrera hitz hauekin eman zuten:

“Eraldatzean pentsatzea zapaltzen gaituen sistemaren aurkako prozesu iraunkor banakako eta sozial bezala; sistema hori geuk erreproduzitzen dugu”. (Artista, hezitzaile eta komunikatzaileen agenda. «Jakintza eta Mugimendu Sozialen Elkarrizketa» I. tailerra. 2010eko maiatza).

Beste elkarrizketa eta topaketetan hezitzaile, komunikatzaile eta artisten eginkizun partikularrak eta ekarpenak azpimarratu ziren: “analfabetismo politiko, emozional eta gorputzekoaren aurka borroka egitea”; “ikastearen garrantzia azaleratzea”, «jendearentzat», «jendeagatik», «jendearen artean», «jendearekin» eta “harreman pertsonal eta sozial guztiak deshierarkizatzea”. Batasuna eta artikulatzeari buruzko eztabaidetan, «aldaketa sozialeko prozesuetako komunikatzaile eta bideratzaileek» -horrela identifikatu zuten euren burua espazio horretan- hau aurkeztu zuten:

“Zer ematen diogu unitateari? Lehenik, prozesuen garrantziari buruzko kontzientziazioa eta bizitzako forma eta praktikak bere baitan dauzkan metodologia alternatiboa. Bigarrenik, identitateak eta subjektibotasunak lantzeko epistemologia erradikala. Hirugarrenik, norbanakoa eta norbanakotasunak baloratzea. Hori ekarpenei zegokionez zen; era bateko laguntzailetza ideologikorik batere ez, baizik eta besteekin batera ikastea.

Zer behar dugu aldatzeko? Etengabeko autokritika izatea eta testuinguruen kritika-gaitasuna. Autoebaluazio-praktikak atontzea eta elkarrengandik ikasteari buruzko gogoeta. Aldakuntza-subjektu bezala geure burua txertatzea. Eta azkenik, elkarrekin hobeto sintonizatzea, testuinguruak eta dinamikak irakurtzeko gure gaitasuna hobetu ahal izateko.

Zer behar dugu besteengandik? Lagun diezagutela eta guri azal diezazkigutela euren beharrak eta testuinguruak Euren prozesuetan eskaintzeko irekiera eta kritika-gaitasuna. Eta bukatzeko, euren askotariko esperientziak partekatu eta ezagutzea”. (Laneko taldearen ondorioak, hemen: «Batasunak indarra egiten al du?» II. tailerra 2010eko abendua).

Hari metodologikoak

“Izan ere, komunikazio-taldeko kideek ulertzen zaila zaidan adierazpen bat egin zuten: auskalo zeren epistemologia baten moduko zerbait. Bide batez, esan nahi diet batasunaren prozesuan hizkuntza dela parte bat eta gure adierazpenetan erabili behar ditugun moduak, bestela baztertu egiten baitugu”. (Emakume militantea, alderdi politikoa. “Batasunak indarra egiten al du?” II. tailerra. 2010eko abendua).

“Nik uste dut gaur eramaten dudala kontu handiagoa izatea benetan sentitzen dudana adierazten ikasteko. Iruditzen zait hori dela dezente falta zaiguna, sentitzen duguna egiaz adieraztea, askotan kontu ugari pentsatzen ditugulako baina ez baititugu esaten, ez ditugu adierazten beldurragatik, edo iseka egin diezaguketelako edo zerbait esan”. (Buruzagi nekazaria, “Jakintza eta Mugimendu Sozialen Elkarrizketa” I. tailerra. 2010eko maiatza).

“Barre egin dezakegu gure gorputz hauek arimaren espetxeak direla esaterakoan, baina kontua da pedagogia bat dagoela gorputza eta arima bereizten dituena, oraindik ere sentimenduen arrazoia eta pentsamenduen arrazoia banantzen dituena, oraindik ere bereizi egiten direla gizakiak eta natura, publikoa eta pribatua. Oraindik ere ezagutza hegemonikoa arrazen eta sexuen arabera ekoizten da, botereak zilegiztat jotako teoriak lantzerakoan funtsean hutsune handi bat izan da, lan horretan ez baitute parte hartu ez emakumeek, ez herri beltz eta indigenek, ez eta disidentzia sexualek ere”. (Herri-hezitzaile argentinarra, Jakintza eta Mugimenduen Elkar-hizketetako V. tailerra, 2014).

Hari pedagogikoetatik garatzen dira Elkar-hizketa bakoitzari egokitutako metodologiak. Hau da, elkarrekin ikastea bideratuko duten ikuspegiak, tresnak eta beste baliabide batzuekin hornitutako ibilbidea finkatzen da. Horregatik sortzen dira egoera erreflexiboak esperientzia pertsonal, antolakuntza-esperientzia edota borroka-esperientzietatik abiatuta, eta, gehiago edo gutxiago egituratuta, autoritate partekatuko prozesuak diseinatzen dira. Proposamen metodologikoa adierazten duen egoera baten adibidea izan daiteke honako hau:

“Hiru pertsonak hegaztien gripea dute, eta gainerako lagun guztiak kutsa ditzakete baldin eta haien gorputzeko zati bat ukitzen badute. Kutsatutakoek esaten dute zer gorputzeko zati den kutsagarria, eta gainontzekoek euren gorputzeko atal horiek elkartzen saiatzen dira elkarri babesteko (ipurmasaila ipurmasailarekin, zilborra zilborrarekin, sudurra sudurrarekin). Bikote horietan oroitzapenak partekatzen dira: euren lehenengo amodioa, euren familiako oroitzapen bat, borroka batean lehenengo parte hartzea, jaiotzearen lekuko oroitzapena, gustatzen zaien euren kulturako zerbait, borroka nagusia”.

Ikuspegiak eta analisiak une politikora eta lurraldera egokitzen diren bezalaxe, ehunaren koloreak ere egokitu eta desberdinak dira tailer edo topaketa

bakoitzean. Tailerretako metodologiaren ezaugarri orokorrak partekatzen diren arren, ezaugarri horiek aldatu egiten dira, esate baterako, parte-hartzaileen kopuruagatik; normalean 40 eta 70 lagun bitartekoa izan da. Malgutasun handia izan daiteke, baina egokiena 30 lagun baino gehiago eta 60 baino gutxiago izatea da.

Orduan, beste funtsezkoa irizpide metodologiko taldeko aniztasuna da, kideen ezberdintasun eta osagarritasunetik ikasten baitugu. Kultura arteko Elkarrizketak direnez, parte-hartzaileen jatorria hartu behar da aintzakotzat, herrialdeko hainbat lurraldetatik etortzen baitira -Cajamarca, Cusco, Puno, Arequipa, eta abar-, eta ahal izan denean, baita Peru kanpoko herrialdeetatik ere. Era horretan, urte hauetan zehar hainbat lagunek parte hartu izan dute Argentina, Brasil, Uruguai, Txile, Bolivia, Ekuador, Kolonbia, Guatemala, Mexiko, Amerikako Estatu Batuak, Alemania, Suedia, Holanda, Espainia, Euskal Herria eta are baita Mozambiketik etorrira ere. Parte-hartzaile izan dira kitxuak, aimarak, borikuak, shipibooak, kokamak, nasak, maiak, afrikar jatorrikoak, nekazari taldeak eta beste zenbait herri.

4. irudia. Emantzipaziorako Herri Hezkuntzari buruzko VI. Elkarrizketak, lantaldeak. 2015eko maiatza




Iturria: Argazki propioak.

5. koadroa. IV. Egoera: Identitateak interpelazio eta eraikitze moduan – Identitateei buruzko lana I. Elkar-hizketan

Elkar-hizketetan aniztasuna, jakintzaren partzialtasuna eta zapalkuntza zein askapenen anitzkoitasun artikulatua funtsezkoak direnez, logikoki identitatearen nozioa ehundutako zati handi baten oinarria da. Geure buruari honelako galderak eginarazten dizkiguten ariketekin: Nola identifikatzen dugu gure burua? Zerk definitzen gaitu, zer dugu ezaugarri? Zein da gure borroka nagusia? Norekin identifikatzen gara, eta norekin batera egin nahi dugu lan?

Litekeena da Jakintzen eta Mugimenduen Elkar-hizketetako I. tailerra izatea arduraldirik luzeeneko lana egin genueneko, gure identitateen mapa bat sorrarazi zuen identifikazio, jarrera eta birkokatzeen sekuentziarekin. Zukumakinarena bezalako dinamikak erabili genituen; bertan identitate-ezaugarri desberdineko hainbat talde - begien kolorea, neurria, eta abar- osatu genituen, eta borroka-identitatearen araberako taldeekin bukatu genuen, elkarrengana bilduz. Beste ariketa erreflexibo batzuetan identitate horiek osatzen zituzten agenda, ezaugarri, egoera, estrategia eta esperientziei buruzko eztabaidan sakondu zuten. Aldi berean, gogoeta ireki zen guztiontzako kontuei eta beste talde batzuekiko desberdintasunei buruz; eta berregokitzeak sortu ziren. Gero, alde biko elkarrizketak izan ziren hainbat talderen artean: feministak eta emakumeen mugimenduak, hezitzaileak, komunikatzaileak eta artistak, eta eskubide kolektiboetako taldea eta sexu-aniztasuneko taldea. Elkarrizketa horiek azkeneko berregokitze bat eragin zutelarik, tailerra lau identitate-talderekin bukatu zen: emakumeen eta feministen mugimendua, sexu-aniztasuneko mugimendua, eskubide kolektiboak eta meatzaritzako mugimendua, hezitzaile, komunikatzaile eta artisten mugimendua. Bakoitzak bere agenda landu zuen eta bere estrategiak aztertu zituen, aldi berean nor bere buruaren pertzepzioa berregokituz. Zenbait lagun taldez aldatu ziren bidean, eta tailerrean zehar hainbat unetan pertsona- eta talde-identitateen definizioak aztertu, afinatu eta birformulatu egin zituzten.

Elkar xaxatzearen bila ibili ginen, gure identitatearen elementurik sendoenei buruzko gogoeta eraginez, baina baita geu garenaren ugaritasunari eta dauzkagun identitate ugariei buruz ere, identitate arteko muga lausoei buruz, eta muga horiek zeharkatu, horietan barneratu edo horien indarra gutxitzeko aukerari buruz, lokarriak, zubiak eta bilguneak sortuz. Alegia, identitate-bilguneen prozesuak sor daitezkeela, baina beti abiapuntu bezala biluztea eta mahai gainean desberdintasunak jartzea hartuta. Elkartu gabe behar teorikoengatik, onkeriagatik, edota autonomia faltagatik homogeneizatuz. Benetako batasun sakona eraikitzea -partekatutako identitatea- bestea ezagutzetik abiatzen da, bestearengan geure burua berraurkitzetik, harreman horizontaletan orpo orpo kokatzen gaituen arlo esentziala identifikatetik, guztiontzako zapalkuntza-sistemak direnen aurka partekatutako borrokan.



Mugimenduen arteko elkar-hizketa tailerra denean, beti ibiltzen gara bila, hainbat mugimendutako pertsonak parte hartzeaz gain, euren mugimenduetan zenbait eginkizun dauzkaten pertsonak izan daitezen -buruzagi nagusiak, buruzagi ertainak, hezitzaileak, artistak, komunikatzaileak, ikerlari militanteak-. Elkarrizketak ez dira ordezkaritza espazioak, ez eta negoziazio edota koordinazio organikoko espazioak ere eta, horrenbestean, gehienbat elkarrekin hitz egiteko eta egun batzuetan zehar bestelako era batean lan egiteko gogoia eta irekitasuna duten pertsonak nahi izaten dira haietan.

Nahiz eta elkar-hizketak herrialdeko probintzia guztietan zehar egitea gustatuko litzaigukeen, oro har Liman egin izan dira, eskaintzen dituen erraztasunagatik¹⁴. Gehienetan erabiltzen den **espazioa** lasaia da, gune ireki eta argitsuekin, talde-lan eta osoko bilkuretarako nahikoa lekurekin, naturarekin harreman zuzenean, banderatxoak, horma-paperak eta txartelak itsatsi ahal izateko moduko hormekin. Elkarrizketan zehar parte-hartzaileak komunitatean lo egin eta bizitzea nahi izan dugu, hori da ideala baina, jakina, ez da beti posible izan.

Elkar-hizketa tailer bateko gutxieneko **denbora** egun batekoa da, baina bi edo hiru egunez lan egitea nahiago dugu, prozesu osoagoa egin ahal izateko. Horri dagokionean, gauetan zehar partekatzea ere funtsezkoa da.


Tailer bakoitzean desberdina da **segida metodologikoa**, kontu hauen arabera: eskura dagoen denbora, parte-hartzaileen taldeko kultura-, politika- eta belaunaldi-aniztasuna, eta aukeratutako gaiak eta helburuak. Beti ageri diren elementuak honako hauek dira:

- i) inguruarekiko konexioa mota ezberdinetako mistiken bitartez; natura-Pachamamarekin, arbasoekin, etorkizuneko belaunaldiekin, edota besterik gabe elkarrekin biziko dugun espazioa-errealitatearekin lotu gaitzakeen mistika;
- ii) taldean konfiantza eraikitzea, eta geure burua eta besteak beste era batera ikusteko irekitasuna; horren baitan han izan ginenok zein garen adierazteko hasierako aurkezpen holistikoa dago. Gure ardatza ez da formaltasuna, pertsona moduan geure burua aurkitzea baizik, gure konplexutasun, indargune, desafio, amets, min eta borrokekin;

14 Lima herrialdearen erdian dagoenez, bertaratzea errazagoa da guztientzat.

- iii) parte-hartzaileek bizi izandako esperientzia esanguratsuak aztertzea. Parte-hartzaileak eraldatzen saiatzen diren errealitate, harreman eta testuinguruaren inguruko begirada aberatsa eta konplexua eskaintzen digute esperientziak. Une historikoan, errealitate soziokulturalean eta lurraldean kokatzea ahalbidetzen digute, jendartea eraldatzeko desafioak ulertu ahal izateko;
- iv) tailerreko gai eta helburuen inguruan sakontzea. Alde batetik, gure subjektibitateen eta gorputzen arteko konexio-uneetatik abiatuta, lan egiten dugu askotariko dinamika, elkartruke eta hizkuntzen bitartez, gaiak ulertzeko eta ulertutakoarekiko jarrera bat hartzeko, eta ekarpen esanguratsuak sortu ahal izateko; eta, beste alde batetik, gai horien inguruko ikuspegi eta esperientzia kontrajarrien arteko elkarrizketatik abiatuta, gaiak sakontzea eta deskodetzeko espazioa irekitzea bilatzen dugu;
- v) ondorioak, begiradak, ikaskuntzak eta galdera berriak tailerraren emaitza bezala. Horretan premia-ekoena subjektuek, prozesuan parte hartu zuten lagunek jarrera berria hartzea da. Izan ere, espero baita gu ekosisteman sartu ginenarekin alderatuta, aldatuta irtetea, bien bitartean sentitu, dantzatu, burua joaten utzi, hitz egin eta pentsatu egin dugulako. Birkokatze horrek gogoeta-ekintza ziklo berria irekitzen du, eta berekin dakar geure buruari galderak egitea eta beste saiakera batzuk egiteko baldintzak eraikitzea; topaketan identifikatu ditugun desfioei aurre egiteko eraldatze-ekimenak praktikan jartzen ahalegintzea;
- vi) itxiera, inguruari agur egitea bere baitan duena, baita egindako eta ikasitakoaren kontzientzia izatea eta Elkar-hizketan sortutako afektu eta harreman berriak adierazteko espazioa izatea ere;
- vii) tailerreko produktuak sistematizatu eta eraikitzeke lana dator gero. Horiek ere askotarikoak dira, horien artean daude, hitzez hitz egindako memoriez gain, libretak, mapak eta bideoak ere. Ahal den neurrian, sistematizazio-prozesu hau ere parte-hartzailea da.

5. irudia. Peru Matxinoaren Mapa, parte-hartzaileen lankidetzaz prestatua 2008an eta 2010ean izandako bi elkarrizketetan



Iturria: Argazki propioak.

III. Prozesuan zehar ehundutako irakaspenak eta jakintzak

“... politika ere esperientzia pedagogiko moduan pentsatzea, eta (...) aipatzea Elkar-hizketarako espazio hauek ere prestakuntza-espazioak direla, eta bertaratutako askotariko subjektu politikoek lagunduko egingo lukete, eztabaidak konplexuago bihurtzen ez ezik, baita erakunde bakar batentzat lantzen oso zailak diren eztabaida batzuei heltzen ere”. (Gizonezko militantea. “Antolakuntza-esperientziak” IV. tailerra. 2011ko azarara).

Elkar-hizketak proposamen politiko, pedagogiko eta epistemologikoa direla esaten dugunean, horrekin batera ezagutza eraikitzeko espazioa eta proposamena ere badirela adierazten dugu; mugimendu sozialek jakintza, teoria eta mundua ikusi eta bizitzeko jarrera berriak eraikitzen dituztela aitortuz. Akademiak jakintza horiek biltzen eta formalizatzen ditu sarritan. Jakintzak desjabetzen eta banakako bihurtzen dituen akademia estraktibista bat badagoela esaten dugu; akademia, ustez, jakintza ekoizteko leku pribilegiozko

edo bakar bezala historikoki eraiki delako. Horretan, jakintza ofizialtzea jakintza sortzearekin nahasten da gizarte-hierarkietan.

Horren aurrean, Elkar-hizketetako proposamen epistemologikoaren arabera, edozein jakintza prozesu kolektiboen emaitza da. Ezagutza eraikitzea ehuntzea bezalakoa da: kolore desberdinak batzen badira konbinazio berriak eskuratzen dira, baina horrekin batera ehuntzeko prozesu bera eraldatzeko prozesua da, zerbait berria lortzeko prozesua. Beraz, baieztatu egiten dugu subjektu eta borroka sozialetan sustraitutako hizkuntza eta jakintza guztien arteko Elkar-hizketetan, elkarren arteko subjektibitate berriak eta jakintza berriak sortzea ahalbidetzen dela. Eta ideien “berritasuna” baina haratago, funtsezkoa da subjektuek barneratzea eta beraien ekintzetara eramatea. Hau da, ezagutza ez dugu ikusten berau sortu den errealitatearekin loturarik ez duen zerbait bezala; ez eta, geure jarreraren ber-kokapenetik abiatuta, gauzatzen dugun ekintza eraldatzailearekin lotu gabeko zerbait bezala ere.

Jarraian, Elkar-hizketetan iradokitzen diren jakintza-ehunetako batzuk berreskuratu nahi ditugu modu sintetikoan. Aukeratu ditugun ikuspegi, ideia eta kontzeptuen bitartez, topaketa bat baino gehiagotan agertu ziren eztabaida errepikakor batzuk azpimarratu nahi ditugu. Parte-hartzaileei utziko diegu hitz egiten gehienbat, euren aipuen bitartez:

Eraldatze pertsonala, kolektiboa eta soziala

Elkar-hizketetan eztabaida ugari izan zen etika eta politikaren arteko harremanari buruz, partaide garen borroka emantzipatzaileen eta gure ideal eta apustuekin koherenteak izateko darabilgun borroka pertsonalen artean:

“Uste dut egin genuen sketchak ere egiaztatu zuela gutako bakoitzarengan mamitzen dela gatazka bateratu hori; une batean demokratikoak gara, eta beste une batzuetan gure etxeetan jaso dugun 15 edo 18 urteetako formazioa irteten zaigu, patriarkatua eta hori guztia erreproduzitu egiten dugu seguruenik. Orduan, nola moldatu gatazka horrekin?”. (Aktibista kulturala, gizonezkoa. “Batasunak indarra egiten al du?” II. tailerra 2010eko abendua).

“Herri-mugimenduetako kideekin bidean ikasten joan nintzen printzipioetako baten arabera, nik sentitzen nuen nolabait jabetu egin zarela zapalkuntza askotarikoak dituen sistema baten menpean zaudela, eta espazio bat ez dela emantzipatuko zapalkuntza horiez jabetzen

ez garen bitartean, sekula ez duzu espazio erabat emantzipatzailea tindatuko, beti izango da eraikitzen ari den prozesua, baina garrantzitsua da zapalkuntzei aurre egitea eta haiek azaleratzea. Nik batzuetan sentitzen nuenaren arabera, herri-hezitzaileok egin baino gehiago zalantzan ibili beharra dugu; izan ere, era matxistan hezi gaituztela onartzen baldin badugu, ezin al dugu geure gain hartu jarrera horiek erreplikatuko ditugun arriskuaren ardura? Eta hor desikaste hitzean jarri nahi nuke arreta. Nire iritziz, ikaskuntza emantzipatzailearen prozesu batean sentimendurik garrantzitsuena uste osoz berez onak eta jatorriz positiboak direla iruditzen zaizkigun kontu batzuei buruz zalantza egiteko gaitasuna da. Horrekin zalantzarik izango ez bagenu, ezingo genuke homofobiko eta matxista izateari utzi, ezingo genuke balore libertarioagorik eraiki”. (Herri-hezitzailearen identitateko osoko bilkura, Jakintza eta Mugimenduen Elkar-hizketetako I. tailerra, 2009).

Orduan, menderatze-sistemek zeharkatzen gaituzte alderik alde –geu bideratzaileak barne jakina–, eta erreproduzitu egiten ditugu geuk ere. Horretaz jabetzea funtsezko pausoa da edozein eraldatze-prozesutan. Hori dela eta, eraldatzea beti aldi berean pertsonala, kolektiboa eta soziala dela baieztatzen dugu, abiadura desberdinetan, harreman konplexuekin egin daitekeena, baina, eraldatze sistemikoak sorrarazi ahal izateko, ezinbestean dimentsio horietan guztietan gauzatu behar dela. Horrekin batera, behin eta berriz agertu zen Elkar-hizketetan hain zuzen ere itxura batean hain bereizita dauden arlo horien artean desafiorik handienak koherentziaren baitan daudela. Izan ere, esate baterako, badira alde batetik buruzagi onak direnak, eta beste alde batetik aita arduragabeak edo euren emazteei tratu txarrak eman ahal dizkietenak.

Horrez gain, eztabaida ugari izan ziren gure antolatze formak eraldatzeko zailtasunei buruz, eta hori unearen eta estrategien arabera gertatzen dela konturatu ginen:

“Ulertzen baldin badugu munduko krisiak eta arazoak ez direla konpontzen ari, beharbada gero eta larriago eta zailago jartzen ari direla ulertzen badugu, horrek botere-sistemei beste menderatze-mekanismo batzuk sortzeko ahalmena eskuratzeko premia handia eragiten die, subjektibitatea ekoiztearen bitartez gu kontrolatzeko”. (Gizonezko militantea. “Jakintza eta Mugimendu Sozialen Elkar-hizketa” I. tailerra. 2010eko maiatza).

Iruditzen zaigu garrantzitsua dela pedagogia askatzaile hori gure etxeetan bizitzea, gure erakundeetan, maila pertsonalean eta maila kolektiboan, kontsigna feministak dioen bezala, politikoa pertsonala delako eta pertsonala politikoa delako:

“Gure iritziz pedagogia emantzipatzailea gorputzetatik abiatzen da orduan, zapalkuntzak azaleratzen zaizkigun gorputz horietatik, gure gorputzetatik; gorputz horietan hainbat zapalkuntza azaleratzen zaizkigu; izan ere hemen, esate baterako, Horaciok zioen, alegia, badagoela gizonezko jabedun zuri bat desjabetutako emakumeak zapaltzen dituenak, baina badira gizon desjabetuak emakume desjabetuak zapaltzen dituztenak ere, ezta? Eta badira emakumeak beste emakume batzuk zapaltzen dituztenak. Hau da, zapalkuntzen korapiloa hasieran uste dena baino konplexuagoa da”. (Herri-hezitzailea, V. Elkarrizketa, 2014).

“Topaketako mahai batean esan zenez, ez da mundu-ikuskeretan pentsatu behar, mundu-bizipenetan baizik, komunitateetan gertatzen diren kontuak direlako, ez direlako imajinatu bakarrik egiten diren kontuak, baizik eta horietako askotan horrelaxe praktikatzen direlako. Eta horrez gain osagarritasunaren kontu horretan lineala bakarrik den kontu bezala pentsatu beharrez, joan eta etorrikoa soilik, kiribilean balantzan dabilen kontua bezala pentsatu behar da; osagarritasuna gizon-emakume harreman moduan defini daitekeelako, baina baita gizona nola dabilen bere feminitatearen bila eta emakumea bere maskulinitatearen bila ere, eta bilaketa horiek elkarri nola interpelatzen diren”. (Gizonezko militantea).

Horren aurrean, ustekabeko irrupzio politizatzaile txiki bat dira Elkarrizketak, eta bertako parte-hartzaileen ikuspegi eta esperientzia guztietatik abiatuta ahalbidetu digu geure burua ikustea, geure buruari azalpenak eskatzea, geure buruari galdetuz gure borroketan nola konektatzen ditugun eraldatze pertsonala eta jendarte-erlaketak, eta baita identifikatu ditugun menderatze-sistemak zer erataro ageri diren guran ere.

Gainera, egin nahi ditugun aldaketen dimentsio guztiei buruzko eztabaida horiek korrelazio garrantzitsua dute gure kultura politikoa aztertzerakoan, geure erakundeetan antolatzeke, desberdintasunak eta gatazkak prozesatzeko, erabakiak hartzeko eta abarrerako forma eta praktikei dagokienean:

[Une emantzipatzailea bizi izan nuen konturatu nintzenean:] “nik bezalako diskurtsua zutela beste mugimendu sozial batzuk, baina gerritik gora bakarrik. [Orduan] sentitu nintzen ezker ‘chevere’ horrek maite ez duen ezkerreko militante (...) Uste nuen nire burua gay bezala kokatzea bat zettorrela hegemoniaren aurkako borrokarekin. Auzitan ikusi nuen nire burua (...) baina mugimendu sozialetako sakralizatetik aske sentitu nintzen. Horrela artikulatzea erraza izango nuela konturatu nintzen, horrek kritiko eta kuestionatzaile izaten uzten zidalako”. (LGTBI militantea, gaztea, Jakintzen eta Mugimenduen I. Elkar-hizketak, 2010).

“... uste dut badagoela beharra mugimendua nola eraikitzen ari garen barrurantz planteatzeko ere (...) eta horrek botere-harremanen inguruko gogoetak egitea eskatzen du; esaterako, hemengo afrikar jatorriko emakumeen errealitatek abiatutako agenda bat eraikitzea eragozten duten botere-harremanak. Izan ere, eztabaida horrek eraman gaitzake konturatzerara, mugimendua eraikitzeko nahiak bultzatuta, eraiki baino gehiago, mugimendua zatitzen ari garela”. (Emakume aktibista afroa. “Garapenarekiko alternatibak”. VII. foroa. 2010eko abendua).

Tailer guztietan aurkeztu zenez, gure jendartea aldatzeko daukagun gaitasuna politika berritzeko eta gure erakundeen barruan bestelako kultura politikoak sortzeko daukagun gaitasunaren arabera da. Autonomia, autokudeaketa, horizontaltasuna, demokrazia erradikala bezalako hitzak isuri ziren han. Horrekin batera, behin baino gehiagotan argi gelditu zen hitz horiek konplexuak eta zailak direla praktika errealean zehazteko.

Identitatea(k), batasuna eta artikulazioa: borroka nagusien eta elkarrekin ibiltzearen bitartean

IV. egoeran erakutsi genuen moduan, Elkar-hizketetan subjektibotasunetik egindako lanari esker gure identitateak eraikuntza politikoaren eta elkarrizketa beraren erdian ezarri ziren. Ulertu genuen identitateak jendartea antolatzeke eta eraldatzeko edozein prozesutako lehengaia direla, eta baita artikulatzeko edozein prozesutakoak ere. Dena dela, konplexutasun batzuk aurkitu genituen prozesu horietan:

“Nolanahi ere, egia da gutako bakoitzak izan dezakeela, uste dut, gure identitatea berresteko behar iraunkor hori zenbaitetan, eta horrek ez duela uzten geure burua subjektu bezala aitortzen, ez dakit ba, sistema

neoliberalak edo beste kontu batzuek menderatuta edo. (...) Niri identitatea positiboa iruditzen zait, baina horrekin batera batzuetan uste dut ez digula uzten bat egite hori gauzatzen. Horrek etengabe kezkatzen nau: aldarrikapen bateratu hori ez ote den geure buruaren alde baino gehiago beste batzuen alde egindakoa”. (Emakumezko militantea, Gazteen kolektiboa. “Batasunak indarra egiten al du?”. II. tailerra 2010eko abendua).

Elkar-hizketek helburutzat dute bertaratutako identitateak iragazkorrak izan daitezen eragitea, maila banakakoan eta kolektiboan, subjektuengan benetan eta sakontasunez jarrera berria eragiteko aukera irekiz. Gure identitateen ugaritasuna ezagutzea ere ahalbidetu digu horrek, eta, areago dena, beste pertsona batzuekin izandako topaketen bitartez baita geure burua ezagutzeko ere:

“Ez zen kontu intelektuala bakarrik, ez zen kontu kulturala soilik, baizik eta bizipenen kontua zen. Eskerrak eman beharra izan nuen, harremanetan jartzeagatik Perun mugimendu indigenaren gaia orain urte batzuetatik ordezkatzeko ari diren aktibistekin, gizon-emakume kideekin, anai-arrebekin. Gai hori dugu barneraturik, ez dugu erabat mamitzera iristen, horretan bat nator zurekin. Eta hala ere, nire alde indigena esploratzeko jakin-mina sortzen hasi zitzaidan. Esaterako, aitaren aldeko nire abizena nondik zetorren ikertzen hasi nintzen Perun zehar egindako nire bidaietan. Orduan dena da etengabeko ikaskuntza”. (Militantea eta artista, gizonezkoa. “Jakintza eta Mugimendu Sozialen Elkar-hizketa” I. tailerra. 2010eko maiatza).

Jarrera berrietan kokatzeko aukera, aitortza, konfiantza eta afektuen lanketarekin abiatzen da. Erresistentzia artifizialak indargabetu eta gure gizatasunetatik interpelatzeko eta elkartrukatzeko baldintzak sortzen ditugun neurrian; horrek azkenik, maila pertsonal zein kolektiboan, desafioak eta konpromisoak identifikatzea eragiten du.

Horretan guztian, erdiguneko eginkizuna du kulturak, eta kultura arteko elkarrekintzak eta elkarriketek orobat aukera bat gauzatzen dute haietako bakoitzeko elementu emantzipatzaileenak berreskuratzeko. Ezagutu dugu jakintzen ekologiatik ulertzen den kultura-artekotasun kritikoa; kulturak eraikuntza historikoak direla, etengabeko aldaketan daudenak, sarritan borroka sozial eta erresistentzien bitartez. Borroka eta erresistentzia horiek elementu askatzaileak eta zapaltzaileak izaten dituzte euren baitan. Jakintzen eta kulturen arteko elkarriketak elementu emantzipatzaileak eta askatzaileak lehenestea du helburu, eta elkarrekin bidea egiteko aukera irekitzea:

“Nik sentitzen dudanaren arabera, batzeko prozesu batean beti besteak eragin egingo dizu, ezingo duzu ekidin; kontua da eragin horrekin nola lan egin dezakezun eta nola uzten duzun zeure burua bustitzen, bestearen agendan oinarrituta zeure agenda zalantzan jarritz”. (Emakumezko militantea, gazteen kolektiboa. “Batasunak indarra egiten al du?”. II. tailerra 2010eko abendua).

“Elkartzeko estrategia zehatzak aurkitzearen eginkizun politikoa eta pedagogikoak elkartasun kanpaina, martxa edo eserialdien bitartez aldarrikatutako estrategien gainetik egon behar dute. Guri gero eta gehiago interpelatu behar dizkigute geure buruaz pentsatzeko, eta “bestearen” agenda gure gain hartzeko aukeraz pentsatzen jartzeko”. (“Batasunak indarra egiten al du?” V. foroa. 2010eko abendua).

Baina geure buruari hau galdetu ere egiten diogu:

“Orduan guztiontzako nire galdera da, uste dut dagoeneko abstraktuan, teorikoan, oso argi dugula denok batera lan egin behar dugula (...) Galdera hau izango litzateke: zeintzuk dira identitateen artean eta borroken artean elkarrekin lantzeko errazak ez diren kontuak?”. (Gizonezko militantea, “Jakintza eta Mugimendu Sozialen Elkarrizketa” I. tailerra. 2010eko maiatza).

Zailtasun batzuk aztertu ziren. Egiaz, elkarrekin bidean ibiltzeko eraldatze eta interpelazio prozesu pertsonal sakonak eskatzen ditu, eta ez dira errazak; areago dena, gu partaide gaituzten kulturak kritikoki analizatu behar dira, haiek eraldatu ahal izateko. Prozesu sozial eta politikoetan norgehiagokak izaten dira lidertza, ordezkariak, estrategiak eta diskurtsoengatik, eta desberdintasuna taktikoki erabili ahal da norberaren interesak gailendu daitezela. Horrez gain, izan ziren eztabaidak gai honen inguruan: borroka emantzipatzaile guztiek borroka nagusi bat ezagututa gehiago aurrera dezaketen unerik bada ala ez? Borroka nagusi bat identifikatzea izan al daiteke artikulatzeko estrategia? Edo borroka guztiek berdin balio al dute eta aldi berean gauzatu behar al dira? Horrenbestean, batzuek uste dute hierarkizatzea batasuna eraikitzekeko modu operatiboagoa dela; beste batzuek, aldiz, sentitzen dute hierarkizatzeak horien artean elkartasuna eta osagarritasuna zailago bihur dezakeela:

“Orain dela hamar urte Latinoamerikako herrialde batzuetan, hala nola, Argentinan zein Mexikon zapatismoaren eraginez, eztabaidatu eta hitz egin zen zer eratako eraikuntza politiko egin zitekeen alde zurretik finkatutako subjektibotasunak eta identitateak errespetatuko

zituena, haiek xurgatu gabe, proiektu hegemoniko baten arabera haiek homogeneizatu gabe. Hegemonia hitza nolabait ezkerreko alderdietan tradizio handia duen gure kategoria politiko eta ideologikoan dago, baina (...) gaizki egokituta egiaz. (...) koordinazio hitza intentsitate baxukoa da, adierazten du ekintzak koordinatzea baina espazioa galdu gabe, identitatea galdu gabe, beste ezer galdu gabe. Estrategikoa baino gehiago taktikoa den zerbait da. Artikulatzearen ideia askoz ere indartsuagoa da, askoz ere sendagoa, Antonio Gramsci historiko marxista handiaren hegemoniaren ideia bera berrikusten duena; artikulatzeak bere baitan badarama identitate bat osatzea praktika baten bitartez, ez diot maila handiagokoa, baina bai norberak daukanaz bestelako identitatea eraikitzea praktika politikoaren bitartez”. (Argentinako intelektual militantea, “Batasunak indarra egiten al du?” II. tailerra. 2010eko abendua).


Elkarrekin ibilian joateak identitate berriak, aukera gehiagokoak eta askatzaileagoak, sortzea dakarrela ezagutzeak ahalbidetu egin zuen “batasun” ideiarekiko jarrera kritikoagoa. Ezkerreko eztabaida politikoa oro har, eta Perukoan bereziki, sarritan agertzen da “batasun” ideia, ideia ezinbesteko edo ukiezin moduan. Elkar-hizketetan aurkeztu zenaren arabera, ideia hori hain zuzen “deserosoak” diren agenda jakin batzuk alboratzeko edo geroko uzteko erabili izan da; esate baterako, sexu- eta ugalketa-eskubideekin lotutako agendak daude deserosoen artean.

“(...) ni sinetsita nago zehar-ildoko ikuspegiarekin agenda feministak alhora uztea mugatze politiko antidemokratikoa dela. Hala ere, ez dut nire agenda elkarrekin landuko dugun agenda bakarra izateko inolako guraririk. Eta horrenbestean aitortza partziala da, ezagutza eta esperientzia partziala, zinez garrantzitsua baina batzuek bakarrik partekatzen dutena, ez multzo osoak. (Intelektuala eta aktibista feminista, emakumezkoa. “Batasunak indarra egiten al du?”. Politika, kultura, aniztasuna eta demokraziari buruzko elkarriketa. Hizki etzanak geuk eginak dira).

“Nola irten da espazio hauetatik agenda bateratu batekin? Gogoeta asko eskaini genion horri: mugimendu guztietako berariazko agendak ilunduko ez dituzten guztiontzako agenden kontua; hori desafio bezala. Agenda horiek lantzeko forma bat aurkitzea, geure agendetan langainkarga baldin badugu ere. Guztiontzako agenda hori bilatzea, esan bezala, gainerako sarrerak ez iluntzeko gai izango den puntu edo dimentsio batetik abiatuta. Gure lurraldeetatik elkarriketako

espazioak osatzea, horrek estrategiei konkrezio, errealtate eta aukera maila bat ematen zielako". (Latinoamerikako taldearen hitz-txanda. V. Elkarrizketa, 2014).

6. irudia. Jakintzen eta Mugimenduen V. Elkarrizketak, Peruko Cajamarcako buruzagia bere borrokaren mugarrira seinalatzen Conga meatzaritza-proiektuaren aurrean. 2014ko iraila



Iturria: Argazki propioak.

Gorputza-lurraldea

Elkarrekin egiten ditugun prozesu hauetan, gorputza zein lurraldearen ideiak eta bien arteko baliokidetzeta indar handiz agertu zaigu.

“Hemen Margaritaren hizketaldia entzun nuen; Cusco ingurutik zetorren nekazaria zen, eta hark esaten zuen “nire lurraldea kentzea nire gorputzeko atal bat ebakitzea da”. Nik ikasi egin nuen, grabatuta gelditu zitzaizkidan hitz horiek, eta horixe gertatu zen zehazki. Iruditzen zait gobernu aurrerakoien ziklo hau ondo azal daitekeela metafora kirurgiko batekin: fluxu kontsumistak anestesiatu egin gaitu, baina ebakuntza-gelara sartu gara, eta gorputzeko atal bat moztzen ari zaizkigu. Zorionez, herri askok bizirik diraute. Nolanahi ere, lurraldeak hondatzearen samina euren hezur-mamietan sentitzen jarraitzen dute. Zorionez, badira kontsumoaren anestesiak eta salgaien fetitxismoak

kalterik egin ez dien herriak, haien eraginik jasan ez dutenak. Erne eta esna daude. Nire iritziz, hori albiste onetako bat da". (Ikerlari militantea, V. Elkarrizketa, 2014).

Pertsona bezala, gorputza gure lehenengo lurraldea dela ulertzetik abiatzen gara, eta bertan bilduta daude gure ametsak, oroitzapenak, minak eta indarguneak. Gure gorputzetik sentitu, jakin, pentsatu, erabaki eta jokatzeko dugu. Lurraldea gorputz kolektibo bezala azaleratu zaigu, gizakien artean eta naturarekin bizitza kolektiboko espazio bezala, kultura, ekonomia, politika eta espiritualtasuna ugal dadin. Lurraldean ematen diogu forma gure etorkizuna eta gure egunerokoari, hortxe osatzen dugu gure identitate kolektiboaren zati bat.

Emakumeen Elkar-hizketako hainbat Topaketatan poliki-poliki bide eman zitzaion, konplexutasun handiago batetik abiatuta, gorputza lurralde bezala kokatzeko ahalegin zabalago eta biltzaileagoa egiteari. Horrekin, plazera eskubide bezala finkatzea berreskuratu zen, eta aldi berean azaleratu gorputzak jasaten dituen beste bazterkeria sakon eta ugariak, heteroarau, arrazakeria, elikadura, bortxaketa eta abarren eraginez. Horrela, gorputza erresistentzia-berrikuntzaren lurralde bezala kokatu zen:

"Gorputza, sexualitatea, ugaltzea (ugaltze-osasuna). Guk antzinako ezagutzak sendabelarrak bezala batzen ditugu gure produktuak patentatzen dituzten transnationalei aurre egiteko". (Indigena).

"Gure historiak kontatzea garrantzitsua da, desberdintasunak jasoz; ez uko egitetik hasi, baizik eta aniztasuna aitortu... Adibide bat feminismoak hitz egiten duen gorputza eta plazeraren kategoria da, eta alderik alde zeharkatzen du arraza-etnia (arrazakeria), gosea (neoliberalismoaren aurkako borroka), osasuna (sendagaien patenteak), patriarkatua (sexu-aniztasuna), eta abarren kategoria. Gorputza neoliberalismoaren eraginpeko aniztasuna, arraza eta etniaren adierazpen bezala. Guztiak ere kaltetu eta bortxatutako gorputzaren dimentsioak dira". (Feminista, Emakumeen Elkarrizketetako Topaketan, 2010).

Gogoeta eta elkartrukeko metatze-prozesuan, emakume indigenak ere mugitzen hasi dira desberdintasuna baieztatze erradikaletik abiatu eta aitortza adieraztera. Aitortza hori ez da onartzea ezinbestean, eta hizkuntza poetikoa, fina erabiltzen du.

“Paisaia baten grafikoa egin dugu gure ekarpenak, gure iradokizunak, sistematizatu genuena kokatzeko. Daukagun paisaia naturala da, landako ikuspegi bat, eta gure sexualitatea bertako muinoetan kokatu dugu. Zergatik? Sexualitatea oso kontu hauskorra da, eta elikatu, zaindu beharrekoa; izan ere, gaizki tratatzen baldin badute, tratu txarrak ematen badizkiote, lore bat bezala, hil egiten da, harenak egin du. Guretzat sexualitatea bizitza da, fintasuna, eta beharbada gure borroken barruan horren bila gabiltza beti, besteek gu lore bat bezala errespetatu eta gogoan hartzearen bila”. (Indigena osoko bilkuran talde-lanaren berri ematen, Emakumeen Elkar-hizketak, 2009).

“Emakumeen mugimendutik geure burua eraikitzen jarraitu behar dugu, kontu bakoitzean gure kontzeptuei buruz gogoeta egiten jarraitu; izan ere, batzuetan elkartzen gaituen hizkuntza, tamalez gaztelania dena, ez baita eraikitzen duen hizkuntza, baizik eta zenbaitetan zatitzeko joera izaten du, hitz batek hainbat esanahi dituelako. Elkarrizketaren bitartez, gainditu egingo dugu hori, eta lehenengo batu egingo gara bakoitzarentzat zer esanahi duen ikusiz. Esate baterako, orain guk sexu-askatasunari buruz ikuspegi bat daukagu, eta bat-batean gure ahizpa lesbianek duten ikuspegiaren desberdina da; hala ere, berehala pentsatzen dut badirela adostu ditzakegun puntuak eta batu gaitzaketenak. Horiek gai giltzarriak dira guretzat elkarrekin hitz egin ahal izateko eta jakin ahal izateko elkar errespetatu behar dugula eta ulertuko dugula zer irizpide erabiltzen ari garen. Funtsezkoena da hau Andeetako gure mundu-ikuskeratik abiatuta, bizitzaren gure ikuspuntua hedatu ahal izateko eskaintzen diguten espazioa dela”. (CONACAMI liderrarekin elkarrizketa Emakumeen Elkar-hizketei buruz).

Estrategia politikoak: Estatua eta autonomia

2010 eta 2011 urteetan bereziki, Elkar-hizketak agertoki politikoaren estrategia-analisirako espazioak izan ziren oro har, eta hauteskunde politikoena era partikularrean, tokiko eta eskualdeetako hauteskundeak (2010) eta hauteskunde nazionalak (2011) izan baitziren herrialdean. Geure buruari hauteskunde-estrategiei buruz galdetu baino gehiago, prozesu horiek egiaz emantzipazioko borroketan jartzen zizkiguten muga, mehatxu, desafio eta aukerei buruz galdetu genuen. Hori are interesgarriagoa izan zen, bi prozesuetan *status quo*arekiko kritikoak ziren hautagaiek hainbat garaipen lortu zituztelako. Humalaren gobernutik itxaron genezakeen aldaketa-agenda gutxienekoa elkarrizketaren bitartez eraiki genuen, aldaketarako eztabaida-eremu giltzarri

moduan hauteskunde-prozesua aitortuz lehenik, eta gero gobernu. Hala ere, askoz ikuspegi kritikoagoak ere baziren bertan, eta emantzipazioko bide garrantzitsuena bezala autonomia eta herri-boterea eraikitzea azpimarratu zuten behin eta berriz:

“... Akatsa izango litzateke Ollantak herrialde hau eraldatuko duela pentsatzea, ez, ahaztu ezazue hori; eginkizuna hementxe dago, sustraietan jarraitzen du, eskoletan egin behar da hezkuntza-erreproduktzioa orain ere, ekoizpen, lan, jostatze, sormen, gozamen zentroetan egin behar da orain ere, eraldatzeek hor jarraitzen dute. Eta hor desafioa dago: nola artikulatu zentralismo demokratikoa duen alderdi marxista leninista maoista zaharra izango ez den erakunde mota berria, aniztasuna artikulatzeko mugimendua izango dena”. (Kongresista ohia, gizonetzkoa. Peru eraldatzeko jarraibideak, VI. foroa. 2011ko uztaila).

“Komunitateak indartzeko ikuspegi horren barruan espero duguna bada geure historia propioak ezagutzea ere; Estatuaren beharrik gabe eskubideak erabiltzea, praktika: hortik dator autonomia eta autodeterminazioaren kontua. Eta azkenik, espero dugun ezagutza kolektiboaren esparru barruan ahaztutako eta baztertutako identitateak berrosatzea da”. (Dinamika: Nolakoa da beste mugimenduekin daukagun harremana? Autodeterminazio taldea. Jakintza eta Mugimendu Sozialen Elkar-hizketa I. tailerra. 2010eko maiatza).

Gogoeta konplexuago batetik, bi bideen artean izan litekeen osagarritasuna ere aldarrikatu zen, politika eta estatua eraberritzeko prozesu baten barruan. Hala eta guztiz ere, 2011ko Elkar-hizketetako IV. tailerrera, nabarmendu egin ziren mugak eta dilema berriak, artean ere aldaketak eragiteko interes handieneko fasean, gobernu nazionalistaren jardunetik egiazko eraldatzea sortzeko:

“Izan ere, negoziazioaren gaiak gogaitu egiten nau ni, horrek askotan txirikordatzea eskatzen duelako eta agenda galtzea. Horrenbestean, berariaz egindako nire galdera hau da: zer oinarriko puntu orokor eta bateratu nazionaletatik irits daiteke Ollantaren gobernu berri honekin negoziatzera. Hori azaltzeko, esan dezaket nire iritziz negoziatzeak txirikordatzea eskatzen duela, eta txirikordak egiteak askotan historikoki egindako borrokak eta eraikitakoa galtzea eskatzen duela. Hori da galdera bat”. (Emakumezko militantea eta feminista. Peru eraldatzeko jarraibideak, III. tailerra. 2011ko uztaila).

“Gero, bestea bigarren mailakoa da; negoziatzea, ez negoziatzea. Begira, gatazka negoziatzean datza, gatazkak ezin dezakeelako mila urte iraun, noizbait gelditu beharra dauka eta negoziatu beharra dagoela esan. Gertatzen dena da negoziatzea amore ematea izan daitekeela edo ez, eta askotan ez dut uste amore ematea denik eta beste askotan bai. Hots, negoziazioa zer hitzekin aurkezten da eta nola planteatzen da? Zer eratako ordenamendua daukagu?”. (Buruzagi nekazaria. Peru eraldatzeko jarraibideak, III. tailerra. 2011ko uztaila).

IV. Ehunak, korapiloak, diseinuak eta jomugak

“Nik hau esan dezaket: eginkizun batekin noa, Andeatako gure filosofiaren ikuspegitik, guk ukitu gabeko aspektu horietan sakontzeko eginkizunarekin; puntu horretaraino, fintasun horretara arte, samurtasun horretara arte sakondu ez duguna sakontzea”. (Buruzagi indigena. Emakumeen Elkarrizketetan, 2010).

“Gorputza zaintzeaz ere bai. Baina ez bakarrik gorputzaz, ez. Zaintzaz eta afektuaz baizik. Nik neure burua bestearekin batera maitatzea ardatz hartuta, bestearekin topo egitean elkarrizketa artikulatzea lortu ahal izateko. Gertatzen dena da askotan herri-hezkuntzako esperientziak metodologia akademikoetan trinkotuta egoten direla oso, eta berak zioen bezala, idatzitakoan, emaitzetan eta esperientziaren sistematizazioan. Eta funtsezkoak diren beste esperientziak ez ditu erdigunean kokatzen: dantza, musika, gorputz adierazpena, bestearekin harremanean mamitutako mistikak, esperientziak, dinamikak”. (Elkar-hizketako alternatibetarako Metodologia taldea. V. Elkarrizketa, 2014).

Ibilbide honen bukaeran, egindako ehuna aztertzea da egin beharrekoa, koloreak, nahaspilatzeak eta korapiloak. Gure ebaluazioa positiboa bada ere, ibilitako bidean badira akatsak, puntuitsuak, erantzunik gabeko galderak, aurreikusi eta hauteman daitezkeen arriskuak eta ustekabeko arriskuak... eta desafio ugari. Sakonegi jotzeko asmorik gabe, desafio horietako batzuk nabarmendu nahi ditugu azkeneko atal honetan. Prozesuaren aurrerapausoak ere fokuratuko ditugu, muga eta kontraesanak, eta etorkizuneko jomugak, bai espazio-prozesu bezala, eta baita ikuspuntu bezala ere.

Eraginak: lehen lerroak

Testua hasterakoan aurkeztu genuen Elkar-hizketak ez direla erakunde sozial edo politiko baten prestakuntza-prozesua, ez eta ordezkari eta artikulatze formaleko espazioa ere. Argi dago Elkar-hizketak ez direla izan masa-prozesua, baizik eta ehunka lagun batzuentzako topaketa-multzoa. Eta gainera helburu ezohikoak dituen prozesua da: eraldatze pertsonala eta soziala lotzea, kultura politikoak eraberritzearen alde apustu egitea eta borrokak elkarrekin lotzeko beharra aurkeztea. Apustu horietako bakoitza konplexua da, eta epe ertaineko jomuga bati erantzuten dio. Ezaugarri horiek guztiengatik, ez da erraza ondorio politiko zuzenak “neurtzea” edo “identifikatzea”. Beharbada lehen zirriborro bat egin dezakegu, parte-hartzaileekin egindako elkarriketetan, eta Elkar-hizketak eta parte hartzen dugun beste prozesu sozialen arteko harremanaren analisisian oinarrituta.

Lehenengo maila batean, Elkar-hizketek subjektibotasuna, identitateak eta jendearen arteko lokarrien alde egiten dute apustu. Proposamen pedagogikoaren bitartez, auto-gogoetarako espazioak irekitzen dira elkartasuna, apustuak eta konpromisoak berritzeko, bakardadeei aurre egin eta errealitateak eta esperientziak elkarrekin trukatzeko. Gure burua zein besteara esperientzia kognitiboan eramaile bezala aitortzea autoestimua indartu egiten du; kultura politiko, mugimendu eta antolakuntza ezberdineetatik abiatuta, elkarriketa eta negoziazio prozesuen bitartez, aurreiritziak, mesfidantzak eta botere-harremanak des-erakitzen joatea.

Parte-hartzaileekin egindako elkarriketetan argi gelditu zen dimentsio hori dela eurentzako balio handieneko dimentsioetako bat. Izan ere, uste baita Elkar-hizketak aukera bakana direla eguneroko praktikarekiko distantzia hartzeko, (auto-)gogoetarako, eraldatze pertsonala eta sozialaren arteko konexiotik, hain zuzen. Zenbait dinamikaren bitartez, hala nola, kalea zeharkatzea¹⁵ edo botere zirkulua¹⁶, geure buruari azalpenak eskatzera bideratu gintuzten, geure burua beste era batera ikustera, geure burua deseraiki eta berreraikitzen. Gainera, Elkar-hizketek balio izan dute elkarren artean sarritan tailerrak

15 Kalea zeharkatzean, parte-hartzaileek espazioa zeharkatzen dute hainbat zapalkuntza identifikatzen dituztenean, nabaritutuz nork noiz zeharkatzen duen. Esperientzia intentsitate handikoa da, isiltasunean eta errepikatuta egiten delako. Ondoren, horren inguruko elkarriketa kolektiboa irekitzen da.

16 Botere-zirkuluaren baitan, lagun batzuk daude barrukoak irtetea eragotzi nahi duten bi pertsona-zirkuluren barruan. Zaindari batzuek zaintzen dituzte zirkuluak eta bideratzaile batek koordinatzen du multzo osoa. Gure jendarteetan botereak nola jokatu duen irudikatzea eta sentiaraztea da dinamikaren asmoa.

beraiek baino iraupen luzeagoko loturak sortzeko, eta gerora tailerretatik soinean eramandakoari erakusten, laguntzen eta argitzen duten jakintza ugari azaleratu dituzte eta gu elikatu gaituzte. Horrela bada, Elkarrizketetan sartu ginen egoerarekin alderatuta, desberdin irten ginen.

Hain zuzen, mugimenduen arteko elkarrizketak eta artikulazioak osatzen laguntzeko lehenengo oinarria lokarri afektibo horiek izan ziren. Elkarrizketek dinamika bakan eta berriak eragin zituzten. Lehenengo aldiz, LGTBI aktibistek erakunde indigenekin eta Peruko mega-meatzaritzaren aurkako borrokalariekin hitz egin zuten. Herri-buruzagiek eta aktibista feministek, besteak beste, oso era zuzenean eskatu ahal izan zizkieten azalpenak elkarri. Eta handik ustekabeko kontuak sortu ziren; esate baterako, diskurtso oso gogorreko buruzagi baten mezua gay harrotasunaren aldeko martxara dei eginez. Urte hauetan, pixkanaka-pixkanaka mugimenduetako agendak eta diskurtsoak irekitzen joan dira, eta elkarrizketaren ideia lekua hartzen joan da mugimenduen artean eta barruan. Eta uste dugu Elkar-hizketak horretarako ekarpena izan direla, lortu zutelako hain zuzen aktibista eta buruzagi irekiagoak elkartzea, baldintza egokiak sortzearekin engaiatuak.

Elkar-hizketak izan dira ezagutzak eta diskurtsoak eraikitzeko espazioa ere, eta borrokak elkarrekin lotzera jo zuten, gure gorputz eta lurraldeei buruzko autonomiaren arteko baliokidetzak, gure erakundeen barruan beste praktika politiko batzuk sortzearen garrantzia, edozein eraldatze prozesutan mugimendu sozialak ardatz izatea eta garapen modernoaren promesak baino haratagoko alternatibak sortzea. Taldelanean sentitu-egin-jakin multzotik abiatu, ezagutza kolektiboak eraikitzen laguntzea da Elkar-hizketetako helburu eta lorpenetako bat. Diskurtso eta agenda horiek lekua hartzen joan dira herrialdean. Uste dugu Elkar-hizketak prozesu horren zati bat izan direla. Bestalde, ikusi dugu Elkar-hizketetan teoriak eta estrategiak ere sortzen joan direla, bai mugimenduen esparrua zein espazio akademiko eta politikoak busti egin dituztenak.

Elkar-hizketen izaera eta ikuspegia prozesuan bertan joan da sendotzen, eta PDTG-ek beste espazio eta zereginetan egiten duen lana aberasten eta hari eragiten joan da. Ikerketa militanteko prozesuak egiten ditugu, esperientziak sistematizatzea, eragile sozialek eskatuta prozesuak erraztea, prestakuntza prozesuak, eta aldi batean eraldatze sozialeko prozesuen erraztatzaileen eskola bat sortzekoak ere bai. Bereziki, erakunde eta mugimenduen indartze-prozesuetan buru belarri aritzearen ondorioz (FENMUCARINAPekin, CONACAMirekin edo Ayavaca eta Cajamarcan, besteak beste) prozesuak

laguntzeko eta errazteko metodologia bat sortzen joan da. Era berean, Elkar-hizketen bitartez, hitzarmenak sendotu ahal izan ziren herrialdean eta nazioarte mailan.

Azkenik, Elkar-hizketen bidez ikuspegi bat zabaltzen joan da, apustu metodologiko eta pedagogiko bat, eta beste leku askotan jaso, erreplikatu eta eraldatu egin izan dute. Batzuetan erabat zuzenean, Emakumeen Mugimenduen arteko Elkar-hizketetan bezala; haien bitartez, Flora Tristan GKE feministak jarraipena eman nahi izan zion PDTGek hasitako prozesuari. Beste hainbeste gertatu zen Belgikako Broederlijk Delen GKEarekin lankidetzeta programa eraikitzerakoan¹⁷, Elkar-hizketetan espazioak bideratu zituzten, hainbat pertsonak esku hartu baitzuen bertan. Elkar-hizketek Euskal Herria eta Kataluniara egin zuten bidaia, Andeetako Hegoaldean bertako moduan erreplikatu zituzten, Cajamarcan eta Piuran, sexu-aniztasuneko eta emakumeen mugimenduetan, eta eragina izan zuten CEAALen eta Gizarte Mugimenduetako Herri-Unibertsitatean. Hori bera gertatu izan da batzuetan gure bideratzeekin, geuk parte hartuta zenbaitetan eta hori gabe besteetan. Horren harira, eragina izan du herrialdean praktika metodologikoak aztertzerakoan.

Horiek ekarpen guztiak militante, hezitzaile eta buruzagiek osatutako korrante lauso baten sormen kolektiboak izan dira; horri ekarpenak egitea eta hori indartzea nahi izan dugu. Prozesu horretan, korapiloak ere identifikatu ditugu. Korapiloak ehunaren hariekin eurekin egindakoak dira beti, eta, ildo horretan, ehuntzeko prozesuak berezkoak dituen tentsio, kontraesan eta sormen-desafiotzat hartzen ditugu.

Apustu politikotik: artikulatzea, boterea eta sendotzea

Lehenengo kontua Elkar-hizketek prozesu politiko eta sozialetan izandako eraginarekin lotutakoa da, hain zuzen. Elkar-hizketetako autodefinizioa beti oso argia izan den arren, “Zertarako balio du?” galdera agertu izan da zenbait unetan (3. eta 4. Elkar-hizketetan), eta tokiko borroka eta espazio politiko nagusietako buruek garrantzi berezia eman izan diote. Azaltzeko argudioaren arabera, zenbait unetan Elkar-hizketek artikulatze bat edo sare bati bitzta eman beharko liokete. PDTGtik aukera hori irekita utzi dugu baina ez genuen nahi geu horren buru izaterik, erakunde bakar batek zuzendutako sarea izatea, eta erakunde horrek duen jendea biltzeko gaitasunak eta sarea gauzatzeko

17 Adibide moduan, ikusi hemen: <www.youtube.com/watch?v=yY1erj9SaWI>.

baliabideak sostengatutakoa izatea artifiziale iruditzen zitzaigulako. Horrez gain, uste genuen erakundeetatik artikulatzeko beste espazio batzuk izan zirela, horretarako balio behar izan zutenak. Jendearen ekimenetan oinarrituta sare bat osatzeko 3. eta 4. Elkar-hizketetan egindako ahaleginek ez zuten emaitza egokirik izan. Hori dela eta, Elkar-hizketen prozesua norantz bideratzeari buruzko galdera ere erne zitzaigun; gutxienez bi urte iraun zuen eztabaida horrek, eta emaitza gisa, besteak beste, Elkar-hizketetako ikuspegia antolakuntza sozial eta politikoko espazio zabalagoetan aplikatzeko apustua gauzatu zen. Espazio horien artean dago Ongi Bizitzearen aldeko Herrien Mugimendu hasiberriaren prozesua; jendarte-antolakuntza eta -mobilizazioko hainbat tokiko prozesuren arteko elkarrizketa bideratzen du.

Bigarren korapiloa parte-hartzaile bakoitzaren eta talde bakoitzaren identitatea adieraztea bizi prozesu substantziala dela egiaztatzen da. Garena ezagutzetik eta gure subjektibotasunetatik elikatzen dugu praktika eta eraikitzen dugu diskurtsoa. Hala eta guztiz ere, nola lortu identitate-adierazpenak fundamentalismoan erori gabe? Zalantzarik ez, horretan erabat funtsezkoa da autonomiara hurbiltzen garen modua. Autonomia, ikuskera eta praktika politiko bezala, errealitateari buruzko galderak egiteko gaitasunaren motor nagusia izan da, eragileen desberdintasunaren ikuspegitik; giltzarria izan da solaskide sozial eta politiko moduan mugimenduei balioa ematen dieten presentziak eta proposamenak bistartzeko. Hala ere, badakigu jendarteko gatazka-adierazpen guztiak etengabe lotuta daudela bazterkeria-kategoria askotarikoekin. Hori dela eta, diskurtso eta espazio berezkoaren defentsan bakarrik oinarritzen den autonomia -estrategia bat da oraindik ere- kanpoan uzten ditu gogoeta, borrokak eta proposamenak elkarrekin lotzea intersekzioko beste guneen baietatik. Bilgune horiek berreskuratu eta bistaratzen ez dituen autonomia bat oso isolatzailea izan daiteke. Bere konexioak eta artikulazioak bilatzen hasita, bere baitan dauzkan dimentsio guztiak berreskuratzen ez dituen autonomia -politikoa, fisikoa, ekonomikoa eta soziokulturala- maniobra egiteko eremua mugatu egiten du. Hau da, dimentsio bakarrean edo isolatuan zentratutako autonomiako praktikak, edo bere buruan solik zentratutako praktikak mugatu egiten dute; norbere defentsan aurreratzea denak, artikulatu gabe, ez baitu arnasa luzeko eraldatzerik sortzen. Baina orduan, nola lotu ditzakegu identitatea adieraztea eta aniztasuna artikulatzea? Zer une dagokio zer estrategiari? Elkarren artean elikatzen diren autonomia horiek, nolakoak dira eta nola eraikitzen dira?.

Politikako hirugarren korapiloa erakunde sozialak indartzearen aldeko apustuari dagokio. Antolakuntza indartzeko prozesuen barruko ikuspegi bezala, Elkar-hizketen bitartez bistaratu eta eztabaidan jartzen dira botere-harremanak,

kultura politikoa, antolakuntzen tentsioak eta gatazkak, antolakuntzako eguneroko bizitzan eraldatzeko oinarria sortuz. Honen inguruan forma desberdinetako galderak sortzen dira. Tailerren baitan dinamika ugari biltzen dira, ez era kolektiboan programatu eta garatutakoa betetzea bera bakarrik, ez funtsezko garrantzia daukaten mistika eta espazio ludikoak bakarrik. Tertulia informalek, espazio askeek, bi edo hiru pertsonako elkarrizketek ere esanahi politikoa daukate Elkar-hizketetan irekitako prozesuetan; izan ere, aniztasunaren barruko elkarbizitza intimoenetik abiatuta konplizitateak, elkartasunak, aitortzak bideratzen dituztelako eta ahaldundu egiten dutelako. Horren ondorioz, Elkar-hizketetako tailer eta prozesuek eragina daukate erakundeetako bizitza errealean.

Prozesu hauetan, ulertzen eta bistaratzen ahalegintzen garen zenbait botere maila daude elkarri lotuta. Hori egiteko modu bat boterera aurre egin eta aldatu beharreko errealtate bezala hurbiltzea da, eta bestea garatu eta partekatzeko kalitate bezala hautematea. Hautematen diren edo agertzen ari diren botere-dinamikak eta korapiloak esplizitateak; lidertzek dituzten botere-anibalentziak aztertzea, ez baitute beti, “obedituz agintzeko” prozesuan aurrera egiten -Marcos komandanteordea-; mugimenduen barruko botere-dinamikak analizatzea; euren erakundeekiko lidertzek hartu dezaketen autonomiaren arriskua; gardentasun eta kontu-emateko auziak, eta abar. Horiek guztiak eta beste elementu askok kokatzen dute prozesu demokratizatzailea orekatzeko desafioa, boterea argituz eta eztabaidan jarriz, autoritate partekatuekin antolamendua sendotuz eta aurrera eginez erakundea desegin gabe.

Nola eraiki beste botere-harreman batzuk, boterea banatzeko beste forma batzuk? Nola adostu hizkuntzak eta nola sendotu eraldaketak eragiteko estrategikotzat dauzkagun elementuak? Galdera hauek boterea deseraikitze prozesu hauen azpiko helburu bihurtzen dira. Erakunde sozial nazionaleri, eta batzuetan tokikoei, jarraipena egiterakoan Elkar-hizketen ikuspegia aplikatuz joan gara, gure erakundeetan kultura politikoa berritzea funtsezkoa dela sinestuta lidergo kolektiboak sortzeko, emakume eta gazteen parte hartzea areagotzeko eta artikulazioak aniztasunetik sortzeko. Gainera, berritzeko prozesu horiek antolakuntza prozesuaren barrutik datozela uste dugu, interpelazio, eztabaida eta batzuetan gatazketatik abiatuta. Praktikan ikusi dugunez, antolakuntzako jomugen inguruko gogoeta mota hori sarritan ikusezin bihurtzen da barne-gatazka, eguneroko exigentzia eta egoera politikoen testuinguruan. Antolakuntzan praktikak aztertu eta berritzea ezinezkoa da borondate politiko sendorik gabe, baita gurea bezalako ikuspegi batek horretarako nahikoa elementu sortuta ere.

Gure eginkizuna: elkarrekin ibiltzea

Elkar-hizketen eragina eta helburu politikoei buruzko eztabaidak erakunde bezala daukagun eginkizunaz galdetzeraz garrantzitsua automatikoki. Nortzuk gara talde, erakunde eta bideratzaile bezala ehundura sozialean? Dagoeneko adierazi izan dugu ez dugula sinesten parte-hartzaile eta bideratzaileen arteko bereizketa zurrun eta erabatekoan, era honetako prozesuan guztiok ikasten eta orientatzen dugulako. Horrek guztiak berekin dakar herri-hezitzaile bezala norik bere kontzientzia eta identitate oso konkretu eta mugatu bat onartzea ere: subjektu politikoak gara lehen pertsona, ez subjektu politikoaren kolaboratzaile edo aliatu hutsak. Subjektu politikotzat dugu geure burua, parte hartzen dugun prozesuetan eragiten dugun eta eragiten digutenak, eta prozesu horiek gureak ere badira. Herri-hezitzaileak mugimendu sozialekin eta haien barrutik abiatuta eta mugimendua egitean osatzen eta berrosatzen gara. Elkar-hizketak PDTGtik sortu dira, geuk sostengatu eta bideratu ditugu eta, subjektu-eraldutzaile bezala, mugimenduen parte gara. Emakumeen Mugimenduen arteko Elkar-hizketei dagokienez, prozesua parte hartu zuten emakumeen erakundeekin elkarlanean kudeatu genuen asmo osoarekin; baina beste batzuetan gaiak eta agendak geuk une politikoa nola irakurtzen genuenaren arabera izan dira, eta horren barruan gure kezka nagusiak izan dituzte arau. Horren harira, Elkar-hizketetan eragile politiko bezala agertu dugu gure burua, era bateko militantziarekin: lokarriak sortzea, eztabaidetarako ekarpenak egitea, ikuspegi berriak sortzea. Sinetsita gaude jokabide hori bidezkoa dela; jakin badakigu, halaber, horrek gure irismena eta jendea biltzeko gaitasuna murriztea eragin duela ere. Eginkizun hori bere horretan aitortu behar dute eragile sozialek -hezitzaileak, artistak eta komunikatzaileak batzuetan laguntzaile bezala eta ez berezko subjektu politiko bezala ikusteko joera daukaten horiek-. Hori dela eta, Elkar-hizketetan askoz ere parte hartze handiagoa izan zuten zenbait mugimenduk -beste espazio batzuetan ere sarritan lankide ditugun horiek-, baina parte hartze txikiagoa beste eragile batzuek. Horrez gain, eragin zuen mugimendu horietatik guztietatik buruzagi, aktibista edo militante mota jakin batek parte hartzeko joera izatea: prozesuak, artikulazioak eta gogoetengatik kezkatzen den jendea.

Horrek guztiak abangoardismo berrietan ez erortzea une oro zaindu beharra dakar. Ezin dugu uste erakundeak sendotzeko paradigma zuzena daukagunik; konturatu egin behar dugu ez garela "laguntzen" ari garen bakarrak. Eta guk ez daukagu erantzun guztiak, ezta hurrik eman ere. Esperientziarekin etorriko dira horiek, tentsio, gatazka eta eragileen praktiken emaitza bezala, eta ez dugu horren beldurrik izan behar.

Ezagutzaren filosofia eta metodologia

Elkar-hizketen oinarrian modernitateari eta jakintza espezializateari (intelektual “ez organiko” diren subjektuek -letratuek- egindakoa, edo akademia bezalako espazioetan gertatzen dena) egindako kritika sakona dago.

Gure ikuspegitik metodologia praktika politikoa da, eta proposamen pedagogikoaren funtsezko atala. Horixe dugu iparra, metodologismoan ez erortzea taldearentzako etengabeko kezka izan den bezalaxe. Kontua ez da *beste* ezagutza batzuk “adieraztea” bakarrik, baizik eta bistaratzea jakintzen askotariko izaera hori onartzeak aniztasunaren berreskurapenean eta desberdintasunaren aurkako borrokan dakarrena. Hortik eratortzen zaigu lur-hartze metodologiko-politiko bezala analisi interseksionala egitearen garrantzia. Aniztasuna aitortzetik eta aniztasunak espazio jakinetan dakarren zapalkuntzen arteko loturatik bakarrik elika daiteke “borroken ekologia” bat, eta izan litezkeen matxinaden eraikuntza historikoa. Horren harira, geure buruari galdetzen diogu ezin ote genukeen hitz egin ezagutza, prozesu, talde, zapalkuntza eta erresistentzien “Ekopedagogia erradikalaz”.

Begirada horren eskakizunak beste kategoria konplexu bati buruz hitz egiten dugunean ikusten dira: Ongi Bizitzea. Mundu-ikuskera indigenaren ekarpen moduan, mugimenduen euren baitan gatazka-eremu ere bihurtuta dago gaur egun -zer esanik ez politika formalean-, alde batetik inspirazio izugarria den neurrian eta beste alde batetik bukatu gabeko praktika eta kontzeptu- eta bizi-eraikuntza. Ongi bizitzeak desberdinak dira emakumeentzat eta gizonentzat, homo-trans eta heterosexualentzat, indigena eta hiritarrentzat, eta abar. Oraingo desafioetako bat ongi bizitzea definitzeko erabiltzen diren homogeneotasuna, hegemonismoa eta erakundetzea hautsiko duten ongi bizitzeen aniztasuna berreskuratzea da.

7. irudia. Emantzipaziorako Herri Hezkuntzari buruzko Elkarrizketak, gure lurraldeen babesari buruzko lantaldeak. 2015eko maiatza



Iturria: Argazki propioak.

Esperientziatik abiatuta sentitu-egin-pentsatzea da kolektiboa elikatzen duena; horretan gako bat dago, garrantzitsua dena berdefinitzen duena: kontzeptualizatzea ez da helmuga, prozesu osoaren dimentsio bakar bat da, eta prozesuan beste hizkuntza eta kode batzuk (egunerokoak, praktikoak) esku hartzen dute, beste begirada eta mundu-ikuskerara batzuen ekarpena egiten dutenak. Subjektibotasuna ardatza da ikuspegi horretan, memoria historikoa eta politikoarentzako espazioa irekitzen du, mugimenduak konplexuago bihurtzen ditu, historian kokatu eta desafio egiten die... Zerbaitegatik esaten zuen Freirek “...ezin da zorroztasunez ezagutu intuizioa, sentimenduak, ametsak edo desirak alboratuz, sozialki ezagutzen duena gorputz osoa delako”.

Horrek guztiak desafio bat dakar: Elkar-hizketen giroan sorturiko sentimendu eta loturetan oinarria duten jakintzak nola itzuli eta zabaltzea, teoria, estrategia eta komunikazio-tresna bihurtzea. Zenbait ahalegin egin genituen, mapa kritiko, bideo eta abarrekin, baina konturatu gara modu bakoitza partziala eta mugatua dela, eta beste eztabaida edo bide batzuk zabaltzen dituela. Artikulu hau bera da horren adibide egokia, kritikatu ohi ditugun muga askotan jausten delako. Aplikatzeko joan garen erantzunetako bat izan da partzialtasun horiek onartzea, jakinaren gainean izanik bakoitza jende eta eremu desberdinetara iristen dela, eta hobe dela ikasitakotik zerbait transmititzea.

Herri Hezkuntza Feministaren bila

Ikuspegi feminista sustraitik lotuta dago gure herri-hezkuntzaren ikuskerarekin, oso baliogarria dugu patriarkatua, kolonialitatea eta kapitalismoa sostengatzen eta betikotzen duten bazterkeria-adierazpen guztiak lantzeko.

Ez da prozesu erraza. Sarritan, generoa, botereagatik lehiatzeko dimentsio moduan, gehiegi mehatxatzen duen elementu bezala azaltzen da, eta egia da hori, horrela da. Hala eta guztiz ere, generoari profila desegin ere egin zaio. Nola berreskuratu generoaren dimentsio politikoa elkarrizketak elikatzeko, genero ikuspegi tekniko, despolitizatu batetik urruntzen garen aldi berean? ikuspegi teknikoak ez baitu adierazten kategoria horrek bere baitan dituen botere-harremanak. Generoa, pertsona/emakumeen bizitzan funtsezko dimentsioa izanik, bere konplexutasun osoan ulertu ahal izango dugu ikuspuntu interseksioanala indartzen badugu; beti bazterkeriaren eragile bakarra eta nagusi bezala planteatzen ez duen ikuspuntu interseksionala, eta loturak lantzen dituen beste era askotako bazterkeriekin, hala nola, arraza, etnia, klase, belaunaldi eta sexualitatearekin.

Prozesu hori errazagoa da baldin eta lehenezten baditugu emakume izatearen inguruko bizipen-prozesua sustatzen duten dinamikak, emakume izateak duen konplexutasun osoarekin. Hori lortzen hasi gara rola elkartrukatu eta emakume zein gizonei buruzko estereotipoak deseraikiz, baita genero-harreman, arraza, sexualitatea, eta ezgaitasunei buruzkoak ere.

Prozesuak dinamizatzeko eta errazteko eginkizunak beste kideekin batera partekatzea, desafio iraunkorra da ikaskuntza espazio bezala -ikaskuntza pertsonalak, politikoak, metodologikoak-. Erroka dugu pedagogia -feminista- emantzipatzailea bizitzea, bai norberaren arlo pertsonalean zein lana/bizitza garatzen dugun erakundearen baitan ere. Gure subjektibotasuna ezagutza eta eraikuntza politikorako leku bezala aitortzea. Pertsonala politikoa dela esatea ez da slogana, proposamen politikoa eta demokraziari egindako ekarpen teorikoa da, emakumeoi ahalduntzeko jomuga erreala ematen diguna. Horrexegatik da oso garrantzitsua metodologia emantzipatzaileek eguneroko bizi-esperientzia berreskuratzea.

Kategoria berriak barneratzea edo lehenagokoak politizatzea eta konplexuago bihurtzea, Elkar-hizketetako prozesuetan eraikitzen doan zentzu-jomugaren parte garrantzitsua da. Eraldatzeko ahalmena eta emantzipatzeko helburua daukaten kategoria, kontzeptualizazio eta bizipen horietatik, bi azpimarratu nahi ditugu.

Gorputza, kategoria politikoa den heinean, egunerokotasunean ainguratzen den kontzeptu horietako bat da, subjektibotasun bat adierazten eta elikatzen du; bere osotasun fisiko eta pentsalariari eragindako bazterkeri, gutxiespen, indarkeria eta bortxaketa guztiak susmatzen eta sentitzen ditu. Eta hortik sortzen dugu matxinatzeko grina. Gorputza lurralde bezala; jakintza, ikasketa eta eraldatzearen lurralde bezala. Esanahi ugari horietatik, gorputza sarrera bat da, gure egunerokotasuna politizatzeraz eta mugimenduen artean elkarren arteko loturak zabaltzeraz irekita dagoen sarrera. Nire gorputza neure lurralde bezala, eskubideen subjektu bezala, eta bertatik gauzatzen dut nire sexu-eskubideei eta nire ugaltze-eskubideei buruzko gaitasuna; azalaren koloreak diskriminatu gabeko gorputza izateko nire eskubidea, inork ni estigmatizatu gabe lesbiana edo gay edo trans izateko dudaren eskubidea... Eta nire gorputza bizitzen, elkarbizitzen, elikatzen eta borrokan aritzen den lurraldearen defentsa. Gorputzari eta lurraldeari egindako begirada horrek, mugimendu guztietako agendak elkarrekin hizketan jartzeaz gain, agenda feministak lurraldeen eta bizitzaren iraunkortasunaren aldeko konpromisoan lotu ere egiten ditu.

Gorputzaren esanahiarekiko hurbiltze indartsua Claudia Korolek eskaini zuen:

“... aurkezten ari garen pedagogia gorputzarena, lurraldeena eta eguneroko bizitzarena da, ez helmuga bezala, abiapuntu bezala baizik; abiapuntu horrek eguneroko bizipenetan pentsatzen jartzea eskatzen digu, bai, eta baita eguneroko bizipen horietatik abiatuta pentsatzea gure gorputzek kolonizazioaren memoria daukatela eta baita emantzipazioen memoria ere. Horrek, oinarritzko harreman sozialak eraikitzen diren eguneroko lekuez pentsatzeko eta haietaz eztabaidatzeko modu berria eskeintzen digu. Ideia teoriko eta praktikoko hori erlazionatzeko, ulertzeko eta sentitzeko beste modu bat”.

8. irudia. Limako herri-auzo bateko FEPOMUVES erakunde historikoko emakumeen arteko elkarriketak. 2010eko otsaila



Iturria: Argazki propioak.

Hori dela eta, etengabeko desafioa da honako hau: nola ekin metodologikoki eta politikoki gorputzari bere konplexutasunean? Nola eraiki intersekzio horiek aintzat hartzen dituzten diskurtso praktikoak? Nola eutsi gorputzen, lurraldeen, eguneroko bizitzaren dimentsio ugariako begirada horri prozesuetan zehar?

Eta orain zer? Azken gogoeta bezala

Hasi ginen bezala amaituko dugu, honako galdera honekin: eta orain zer? Ikasten eta sortzen emandako urte hauek apustu, finkatze, zalantza eta auto-gogoeta ugari eragin dizkigute, eta bide edo ehun hau osatzen nola jarraitu behar den pentsatzera garamatzate. Sistematizazioak begirada egituratzea ahalbidetu digu, gure esperientzia ideia multzo batean agertzea eta ordenatzea ondoren ideia eta apustuak berriz ere askatu, interpelatu eta eraldatzeko gai izan daitezten.

Azkeneko urteetan gero eta gehiago egin izan dugu apustu Elkar-hizketetako proposamen politiko-metodologikoa beste espazio eta logika batzuetara eramateko. Kasu bakoitzean, horrek eskatzen duena da prozesuaren

erradikaltasun metodologikoa eta politikoa aztertu, egokitu eta batzuetan negoziatzea. Izan ere, ez baita berdina hori 400 nekazaritza arloko buruzagien espazio batean aplikatzea eta 8 lagunen sistematizazioko tailer batean aplikatzea. Desberdin egiten da erakunde sozial bateko batzarrean eta elkartasun-erakunde bateko plangintza estrategikoko prozesu batean. Baiana, aldi berean, Elkar-hizketek beti bilatzen dute irekitzea, xaxatzea, bistaratzea eta elkarri lotzea. Horren forma eta arrakasta eragileen euren begiraden arabera ere badira. Desafio egiten digun ikaskuntza-prozesu interesgarria da hori, metodologiak egokitzea eta beraien eragina handitzea ahalbidetu beharko lukeena. Horretan giltzarria da buruzagi sozial aliatuengandik ikasteko aukera ere, gure espazioetan parte hartu dute buruzagi horiek; guk ikasi egiten dugu haiek euren espazioetan nola aplikatzen duten ikusiz.

9. irudia. Jakintzen eta Mugimenduen V. Elkarrizketak; kapitalismoaren, kolonialitatearen eta patriarkatuaren artean dagoen lotura eta mugimendu sozialek dituzten erronkak lantzen dituen biltzarra. 2014ko iraila



Iturria: Argazki propioak.

Badira beste bilaketa eta galderak ere: zer muturretaraino kuestionatzen dugu berba idatzia, kode idatziaren nagusitasuna? Zenbateko autoritatea daukagu ezagutzak eraikitzen ditugunean? Eguneroko eraldatze prozesuak nola sistematizatu eta ikaskuntzak bildu? Nola uztartu denboraren logika ezberdinak (lineala, modernoa, mendebaldarra eta beste mundu-ikuskerak

batzuetakoa)? Nola gainditu lan puntualeko logikak? Eta ardatzeko desafio nagusia: esaten dudana, egiten dudana eta sentitzen dudanaren arteko koherentzia bilatzea. Nola jokatu hori muga bihur ez dadin, zatiketak eragin beharrean ehunak sor ditzan eta gorputzak eta pentsamenduak emantzipatu. Osatutako ehunari begiratu, desafioak lehengo berberak direla ikusten dugu, eta erantzunak praktika kolektiboetan jarraituko ditugula sortzen, aurretik ditugun esperientzien bitartez.

Emantzipaziorako prestakuntzako prozesu politiko-feministak Guatemala 2010-2015

La Cuerda Elkartea Feminista, Petén Ixqik Emakumeen Elkartea eta Emakumeen Sektoreko Aliantza Politikoaren (prestakuntza-prozesuaren bultzatzaileen) eta Paula Irene del Cid Vargas eta María Dolores Marroquín (esperientzia sistematizatzekeko prozesuaren bideratzaileen) arteko ituna

Aurkezpena

Aliantza Politikoko emakumeen sektorea, Peten Ixqik-eko emakumeen elkarte eta La Cuerda elkarte feministako kideok 2010eko martxo eta 2015eko otsailera bitartean bizi izan genuen *Emantzipaziorako prestakuntza-prozesu politiko-feministak* izeneko esperientzia Guatemalako emakumeek osatutako hiru instantziaren arteko hitzarmen baten baitan sortu, diseinatu, bultzatu eta sistematizatu genuen.

Oinarrizko elementu eta printzipioak identifikatzeko helburuarekin egin genuen sistematizazioa, haiek gizarte-mugimenduetako errealitateei begira ahalmen emantzipatzailea duten prestakuntza politikoko prozesuak garatzen laguntzeko giltzarritzat hartuta.

Sistematizazioko ardatzei dagokienean, Aliantza Feministako interesak elkartu egin genituen Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko ikasketa institutua, Programa Democracia y Transformación Global -PDTG- eta Zumalaberen interesekin. Honako hauek dira bateratutako interesak: alde batetik, partaideengan eta haien erakundeetan pentsamendu eta ekintza emantzipatzaileak eraikitzeko eduki teoriko eta politiko feministak prestakuntza prozesuetan egindako ekarpenekin identifikatzeko helburua; eta beste alde batetik, berreskuratze historikoaren ildoan, prestakuntza-prozesuen gaur egungo ezaugarriei dagokienean, proposamen metodologikoan indarguneak/ikaskuntzak eta desafioak/mugak identifikatzean ardaztutako helburuak.

Sistematizazioa prestakuntza-prozesuetako parte-hartzaile eta bideratzaileekin egindako elkarrikeria banakako eta kolektiboetatik abiatuz osatu zen; horrez gain, diseinu metodologikoak, esperientzian zehar eraikitako topaketen memoria eta proposamen metodologikoak bildu eta analizatu ziren horretarako.

Jarraian, deskribatu egingo ditugu gure erakundeak, politika feministako prestakuntza hasi, sorrarazi eta diseinatu genuen testuingurua, berreraiki egingo ditugu esperientziako bi uneak, esperientziaren ezaugarri metodologikoekin eta sintesi bat egingo dugu lorpenak eta ekarpenak iruditzen zaizkigun aldeekin. Bukatzeko, ikasitako lezioen eta aurkitu gabe dauden bideen sintesia egingo dugu.

1. Nortzuk gara?

1. irudia. . La Cuerda Elkarte Feminista, Petén Ixqik Emakumeen Elkartea eta Emakumeen Sektoreko Aliantza Politikoa



Iturria: Argazki propioak.

Aliantza Politikoko emakumeen sektorea¹. 1994. urtean jaio zen Bake Hitzarmenetako negoziazio prozesuen testuinguruaren baitan², eta antolatutako gizarte zibilaren barruan landu ziren proposamenetan era aktiboan parte hartu zuen. Gaur egun, hogeita hamar emakume-erakunde, erakunde misto, sindikatu, kontseilu, fundazio eta talde komunitario eta

1 <www.sectordemujeres.org.gt>.

2 36 urtez iraun zuen matxinoen aurkako gerran zehar, antolamendu soziala estigmatizatu, jazarri eta zigortu zuten. Horren ondorioz, milaka lagun erail eta desagerrarazi zituzten, eta ehunka komunitate erabat desagerrarazi. Orain maia herriaren aurkako gerra genozidatzat hartzen da, eta emakumeen aurkako sexu-indarkeria gerra horretako estrategia izan zela azaleratzen. Hori dela eta, mugitu ezinik utzi zuten jende asko, eta, batik bat, gizarte-antolamenduarekiko izua txertatu zuten. Kronogramako Akordioa Bake-akordioetako bat izan zen, 1996ko abenduan Gobernuak eta Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalak (Unidad Revolucionaria Nacional Guatemalteca) bakea sinatu zuten. Akordio hartan proposatutako Emakumearen Foro Nazionala sortu zenean, emakume askok pentsatu zuen Estatuaren baimena zuela antolatzeko. Prozesu hura kultura eta hizkuntza arteko gune bihurtu zen, eta herrialde osoan hogeita hamabost mila emakume baino gehiago mobilizatzeraz iritsi zen: lehenengo aldiz, beharrak eta interesak aurkeztu ahal izan genituen. Esparru horren baitan sortu zen antolamendua elkarrengandik urrutiko lekuetan eta hainbat identitaterekin, betiere emakumeen eskubideen aldeko borrokarekin sintonian. Ekarpen horietako batzuk jaso egin ziren gero Emakumeen sustapen eta garapen integraleko politika nazionalan.

feminista baino gehiagoko artikulazioa gara. Era askotako emakumeak gara: nekazariak, lesbianak, langileak, ikasleak, gazteak, helduak, mestizoak, Xinka herrikoak eta Maia jatorriko beste hamabost herritakoak, K'iche', Tz'utujil, Mam, Poqomam, Achí, Kaqchikel, Q'eqchi', Poqomchi', Q'anjob'al, Jakalteka, Popti', Chuj, Ch'orti', Ixil eta Mopan herrietakoak, hain zuzen; herrialdeko hogeita bat departamentutan egiten dugu lan. Emakumeen bizitza aldatu nahi dugu, eta askatasunean gizarte zuzenagoak lortu nahi ditugu; horregatik, lurraldea berreskuratzea proposatzen dugu, gorputza, lurra, historia, memoria eta natura, alegia, eta hiru bide aurkezten ditugu: Ut'z kaslema kik'e ioxq'i proiektu politiko emantzipatzailea -Ongi Bizitzea emakumeengandik eta emakumeentzako- eraikitzea proposatzen dugu bizitza betea izateko, betiere lurra gurekin partekatzen duten beste izaki bizidunekin harmoniazko harremanean; mundua egoismoa, kontsumoa, indarkeria eta desberdintasunaren begietatik bakarrik ikusteko modua aldatzea lortu nahi dugu; 2) Emakumeek subjektu politikoa eraikitzea; horretarako, beharrezkoak dira pentsatzeko forma propioak, mugimendu politikoak edo indarra metatzea eta iristeko helburua edo emantzipatzeko proiektu politikoa; 3) Alternatiba ekonomikoak; hori esatean, forma berriak sortzeari eta ekoizteko, trukatzeko eta kontsumitzeko antzinako praktikak berreskuratzeari buruz ari gara. Diru-sarrerak praktika askatzaileen bitartez eskuratzea nahi dugu, neurrigabeko kontsumoa eta elikagaien salerosketa desorekatua desikasiz, eta ekoizpena, naturarekiko harremana eta zaintzako lana bidezko moduan birbanatu ahal izateko praktika-forma berriak osatzen ikasiz. Horretarako, beharrezkoa da gorputza berreskuratzea eta bizitzaren sarearekin artikulatzea; hau da, emakume bakoitzaren eta pertsona bakoitzaren bizitza norberak erabakitzea eskatzen da, eta eskura izatea bizitza duinerako aukerak eskuratzeko baldintza politiko, sozial eta ekonomiko guztiak. Ekintzak bultzatzen ditugu emakumeek eurek gauzatzen duten erreproduzioari buruzko erabakiak eurek har ditzaten, pertsona guztiak zaintzea komunitate osoaren konpromisoa izatera pasa dadin, eta baita aipatutako Biziaren sarea osa dezaten ere.

Peten Ixqik-eko emakumeen elkartea³. 1998an osatu genuen, Emakumearen Foro Nazionalean kokatu genituen proposamenei jarraipena emateko helburuarekin. Ordutik aurrera ekintzak gauzatu ditugu, Peten departamentuko emakume mestizo eta indigenak maila pertsonal eta kolektiboan ahaldundutzea helburu hartuta. Hori lortu ahal izateko, alfabetizatze eta kontzientziazteko kanpainak antolatzen ditugu emakumeen eskubideei dagozkien oroitzen egunetan; komunitate, udal eta departamentu mailan hezkuntza prozesuak bultzatzen ditugu; eta indarkeria jasandako emakumeentzako arretra integraleko

3 <<http://ixqikpeten.blogspot.com>>.

zentroaren bitartez (CAIMUS), indarkeria jasan izan duten emakumeei arreta psikologikoa, soziala eta juridikoa eman ere bai.

La Cuerda elkarte feminista⁴. 1997an hasi ginen bilerak egiten demokrazia indartzen lagunduko zuen argitalpen feminista bat ekoizteko proposamenarekin; eta 1998ko martxoan lehenengo edizioa banatu genuen, hamabost mila aleko tiradorekin. Gaur egun 11 zenbaki ekoizten ditugu urtean, hogeit hamar mila ale-kopuruarekin; gehienbat emakumeak diren bazkide, artista eta idazleen lankidetzari esker egiten dugu, eta departamentu guztietan banatzen da berrehun emakumeren antolamendu eta antolamendu misto, hezkuntza- eta kultura-zentro baino gehiagoren bitartez. Guatemalako gizarteari zuzendutako era horretako egunkari bat argitaratzeko ideiak erantzun egiten dio Guatemalan emakumeen eginkizunak, sentimenduak eta pentsamenduak ezagutzeko eta bistaratzeko premiari, eta aldi berean gizarterako proposamen politiko feministak hedatzen ditugu. 2006tik aurrera helburu bezala hartua dugu Subjektu politiko feminista eraikitzea, emakumeen aldeko kontzientziarazio eta ekintza politikoko prozesuak sortuz eta indartuz; izan ere, amets egiten baitugu lankidetzari, bizia zaintzea bezalako baloreen arabera zuzendutako gizarte bat eraikitzen lagunduko duen proiektu politiko emantzipatzailearekin, hura bultzatuko duen gizarte-indarrarekin eta planetarekiko harreman harmoniatsuak markatutako praktika kulturalekin. Amets hori lortzeko, hiru ekintza-ildotan ari gara lanean: ekimenezko komunikazioa, feministen eta beste erakunde eta gizarte-mugimenduetako emakumeen arteko artikulazio politiko eta pentsamendu feminista ekoiztea, prestakuntza-proiektu eta ikerkuntza feministaren bitartez.

Nortzuk gara aliantza bezala? Baldintza ekonomiko, kokapen politiko eta kultura-baldintza ezberdinetatik gatz: maiak, xinkak, ladinoak, mestizoak, gazteak, helduak, zaharrak gara; hainbat ama-hizkuntza hitz egiten ditugu, landa-eremuetan eta hiri-eremuetan bizi gara, hainbat eratara eskolatutakoak gara, gutako asko analfabetismoa atzean utzi berriak gara eta beste gutxi batzuk graduondoko ikasketak egiteko aukerak dituztenak. Oraindik ere desafio metodologikoa eta politikoa da aniztasun hori guztia aberastasun bihurtzea.

Diziplina askotako prozesu hori bultzatu eta bide hori diseinatzen esku hartu duen talde eragilea antropologia, psikologia, soziologia eta zuzenbidean egin ditugun ikasketetan bermatuta osatzen dugu, eta batzuek daukaten herri-hezkuntza feministako esperientziatik, nahiz eta ikasketaz horietako inor pedagogo izan ez.

4 <<http://lacuerdaguatemala.org>>.

Errealitateari eta gure ametsei buruzko interpretazioak partekatu arren, gure begirada ez da ez bateratua, ezta homogenea ere; zenbaitetan kontraesankorra ere izan daiteke. Gure errealitateak eraldatzeko borondatea daukagu, eta gure objektibotasuna gure arteko harremana eta bultzatzen ditugun prozesuak markatzen dituzten subjektibotasunak aitortzean sustraitzen da.

2. Subjektu Politiko Emantzipatzailea eraikitze prestakuntza politiko feminista

2008an egin zen Guatemalan America Foro Soziala, eta orduan gonbidatu gintuen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak subjektuak indartzeko estrategian parte hartzera. Une hartan, ekintza bateratuak definitzea erraztu zuten antolamendu-prozesu politikoetatik gendozen lehen aipaturako hiru instantziak:

Aliantza Politikoko Emakumeen Sektorean, Emakumeak Subjektu Politikoa eraikitzean aurrera egitea geneukan gure estrategien artean, nork bere subjektibotasun, sexualitate, etnikotasun eta klastik abiatuta, eta emakumeen mugimendu bat indartzea, emakumeen agenda politikoa instalatzean eragiteko negoziatzeko gai izatea; horretarako, ekintza politikoak eta hainbat hezkuntza-prozesu gauzatu genituen, Emakumeen Sektorearen Prestakuntza Politikoko Eskola, besteak beste.

La Cuerda Elkarte Feministan, 2007an ordurako bagenuen asmoa erakunde bezala subjektu politiko feminista eraikitze, herrialde osoko hainbat lekutako feministei deitu genien Agenda feminista deitzen diogunean parte har zezaten; Agendaren helburua modu kolektiboan herrialdean dagoen aniztasunari, desberdintasunei eta bidegabekeriei erantzungo liokeen agenda bat osatzea zen, eta, aurre egin behar izan genien zailtasunetako batzuk elkarrengandik urruti zeuden pentsamendu politikoek eragindakoak izan arren, gehienetan eragile nagusia prestakuntza politiko feminista gabeziatzat jotzen duguna izan zen.

Peten Ixqik-eko Emakumeen Elkartean, indarkeriaren aurka ekiteko departamentu horretan erakunde aitzindaria izanik, indarkeria jasan duten emakumeei arreta eskaintzeko gure lanagatik etxean indarrez sartu izan zaizkigu, eta mehatxuak jaso izan ditugu; hori dela eta, funtsezkoa iruditzen zitzaigun departamentu eta nazio mailan artikulatzeko prozesuak hastea eta gure prestakuntza prozesuak indartzea.

Hiru instantzietan identifikatu genuen gure pentsamendua, diskurtsua eta akordioak indartzea ahalbidetzeko prestakuntza politikoko prozesuetan sakontzeko premia. Elementu komun horiekin, Aliantzako helburutzat aurkeztu genuen Guatemalan Subjektu Politiko Feminista eraikitzea. Une horretan, honako hau definitu genuen:

“Subjektu Politikoa abstrakzio bat da, eta zapalkuntzaren kontzientzian oinarrituta, kultura, gizartea eta ekonomia eraldatzeko proposamen politiko propioa, autonomia, era kolektiboan eraikitzeko prozesu historikoari egiten dio erreferentzia. Emakume guztien desira eta sentimenduetatik, eskaera, premia eta nahietatik abiatutakoa da, era horretako ekintzak txertatzen eta euren jokabidearen eta haren ondorioen erantzukizuna, banaka eta taldean, euren gain hartzen duten emakumeen aniztasunak sustatu eta mamitutako ahalduntze prozesua da. Eragite hori euretako bakoitzaren egunerokoan gauzatzen da, esaten eta egiten dutenarekin kontsekuenteak izaten ahaleginduz; ekintza politikoetako protagonistak dira eta proposamen feministako erreferenteak, eta beste subjektuekin akordioak eraikitzean aitortutako mintzaide bihurtu dira.

Subjektu politiko bihurtzeko ahalmena dugunak zapalkuntzaz jabetzen garen emakume guztiok gara, egoera hori eraldatzeko ekintzak egiten ditugunok, indar politikoa osatzeko era esplizituan estrategia bateratuak artikulatzen eta garatzen diren erakunde bitartez”.

Subjektu politikoaren gure definizioarekin lotuta mugimendu osoaren analisia egiterakoan, iruditu zitzaigun mugimenduak bazituela indarguneak; hala nola, norbere pentsamendua garatzea, askotariko jarrerak, agendak, une batzuetan mugimenduaren eragite osoa indartu eta beste batzuetan mugimenduaren adierazpenak banandu dituzten antolamendu estrategiak eta gaien lehentasunak, sexualitatearen, emakumearen aurkako indarkeriaren eta emakumeen giza eskubideen kontzeptuaren inguruko diskurtsu argudiatua; instantzia batzuek subjektu politikoaren kontzeptua euren estrategiak sostengatzeko garatu zituzten; beste erakunde batzuek estrategikotzat definitzen zuten mugimendua eraikitzea; emakumeak eta euren erakundeak masa-hedabide batzuen iturri izatea; edo irratia eta *La Cuerda* bezalako idatzizko hedabideen bitartez mugimenduaren hedabide bihurtu izana, jarraipen eta iraupen handiarekin. Horrek guztiak jarri du bere alea emakumeak, euren arazoak eta proposamenak gizartearen iruditerian kokatzeko.

Mugimenduaren baitako ahultasunei dagokienean, haien artean identifikatu genuen sistema patriarkal neoliberalak sortutako arazoan aurrean gizarte zibil osoak modu antolatuan adierazitako iritzirik ez izatea. Erakunde batzuek emakumeei erasaten zien forma partikularra finkatu gabe eta esplotazio-eta txirotze-logika horiek mantentzeko generoen arteko botere-harreman bidegabeek nolako eginkizun garrantzitsua izaten duten ezagutu gabe analizatzen zuten; bien bitartean, beste instantzia batzuek, hain ikuspuntu partikularra mantentzen dutelarik, ez dute eurak kokatuta dauden testuinguru osoaren arabera jokutzen.

Aztertutakoaren arabera, gutxi dira euren burua feministatzat aurkezten duten erakundeak eta horiek hiriburuan zentralizatuta daude. Herrialdeko beste departamentuetan badira artikulatuta ez dauden feministak eta elkarren artean ekintzarik koordinatzen ez dutenak, ez baitaukate trukerako, elkartzeko eta koordinatzeko gune iraunkorrik; nolahi ere, badu bere garrantzia adierazteak une honetan abian dela txertatzen doan artikulatzeko apustu politiko bat.

Gutxi dira euren burua feministatzat izendatzen duten emakume gazte eta indigenak -maiak, xinkak eta garifunak-. Ikerkuntza feministan eta norbere pentsamendua eraikitzean egindako inbertsio txikiagatik da hori, eta prestakuntza ez delako mugimendua hazteko eta indartzeko estrategia politiko bezala jasotzen. Horrez gain, urruntze bat ere gertatzen da, pentsamendu feminista nagusiek ez dituztelako Jatorrizko Herrietako emakumeen errealitateak funtsezko moduan aintzat hartzen.

Mugimenduak bere desafiotsat hartu behar dituela pentsatu genuen borroka hierarkizatzeako asmorik gabe akordioen kontzientzia eta konkretzioa garatzea eta amets kolektibo batean askotariko zapalkuntzak errotik ateratzea.

Identifikatu genituen beste ahulgune batzuk honako hauek ziren: mugimenduaren barruan norbere pentsamendua sortzeari eta prestakuntza teoriko-politiko ahulari eskaintzen zaion denbora urria eta eztabaida gabezia; feminismoari buruz eta errealitatea ulertzeko kategoriei buruz alde aurretik erabakitako ideia bat badago, eta kategoria horiek era desegokian erabiltzen dira, eduki politikoz hustuta askotan.

Analisi horrek ekintzako hiru estrategia bateratu definitzera eramán gintuen: artikulazio politikoko prozesuak, prestakuntzako prozesuak eta gure proposamenak hedatzeko komunikazioko estrategiak.

3. Berreraikuntza historikoa

3.1. I. unea: Prestakuntza Politiko Feministako Eskola

Eskola diseinatzeko, mapan kokatu genituen prestakuntza-esperientzia feministak eta feministak ez zirenak, ikasitako lezioak identifikatzeko helburuarekin. Gero, hiru instantzietako ordezkariak zenbait bilera egin genituen kontzeptua, edukiak eta gai-ibilbidea eztabaidatzeko, eta mugimenduko bi kide kontratatu genituen, diseinu orokorra eraikitzea bidera zezaten eta eskolako alderdi logistikoak eta administratiboak koordinatzeko ardura euren gain hartzeko helburuarekin.

Sustatutako edukiak hauexek izan ziren: genealogia feminista, epistemologia feminista; patriarkatu kapitalista, neoliberal, arrazista eta lesbofobikoa, subjektibotasuna eta sexualitatea ardatz feministetan, subjektu politikoa eta prestakuntza feministako metodologiak. Modulu bakoitza tailer modalitatean landu zen, bakoitza bi eguneko iraupenarekin; Genealogia feministakoa izan ezik, hura lau egunekoa izan baitzen, beste moduluetan baino jorratu beharreko askoz gai gehiago zituelako.

Eskolako parte-hartzaileak hiru erakundeetako kideak ziren, eta itxaropen ezberdinak zituzten bertaratu zirenean. Aliantza Politikoko Emakumeen Sektoreak proposatu zituenetako batzuek, instantziako erakundeetako partaide izateaz gainera, soldatapean egiten zuten lan, eta, eurek Eskolan parte hartzea kontratuz jasotako erantzukizunen barruan zegoela adierazi zitzaenez, haiek ez ziren oso motibatuta ibili; Sektoreko beste zenbait kidek, aldiz, Eskolan parte hartzea kontzeptuak integratzeko, “korronte feministen buru-hausgarria osatzeko” aukera moduan ikusi zuten. Ixqik-etik parte hartu zutenak feminista bezala identifikatzeko beldurrez edo euren burua lesbianatzat zuten kideen aurrean jartzeko beldurrarekin etorri ziren. La Cuerdatik etorritakoen artean, gazteek harreman horizontalak garatu nahi zituzten erakundeetan; batek Eskola Lesbiko Feministan parte hartu zuen, eta iruditzen zitzaien Eskola antolatzeko horizontaltasun hori eraiki ahal izateko aukera izan zitekeela.

Prozesuan zehar identifikatu zenaren arabera, parte-hartzaileen ezaugarriak eta beren behar eta interesak aintzat hartuta, egokia zen Herri Hezkuntza Feministari buruzko topaketa bat egitea, hasieran lantzeko eduki bezala aurreikusitako Komunikaziokoaren ordeez jarriz.

3.1.1. Kontzeptualizazioa eta helburuak⁵

Honako hau da gure Eskola-kontzeptua: “emakume parte-hartzaileengan gaitasun kritiko eta eraldatzaileak indar daitezzen tresna politiko-metodologiko bat eskaintzea; emakume horiek, teoria filosofiko-politiko feministetan bermatu eta oinarrituta, euren kontzientzian eta ekimen estrategikoan sakontzen dute, errealitatearen analisi lotesle batetik, eta baita testuinguru tokiko, nazional eta globaletan emakumeen interes eta arazoetatik ere”⁶. Eskola gauzatzeko asmoen artean zeuden “mugimendu feministaren antolamendua eta ekimen estrategikoa sendotzea jendarteari begira, emakume parte-hartzaileek Guatemalan agenda politiko feministaren baitan dagoen proposamenari jarraipena emateko konpromisoa euren gain hartzetik abiatuta”. Ondorengo helburu espezifiko hauek aurkeztu genituen parte-hartzaileentzat:

- Historia eta bere ekintza-testuinguruak teorikoki, metodologikoki eta politikoki analizatu eta interpretatzeko gaitasunak garatzea, epistemologia feministaren ikuspegitik.
- Euren identitate feminista sendotzea, Subjektu politiko feminista eraikitzean parte hartze kolektiboak eta autonomia pertsonal eta kolektiboa indartzeak duten garrantzia bistaratu.
- Interpretazio eta analisi kritikoko gaitasunak garatzea, aplikatu daitezkeenak bai prestakuntza prozesuan eta bai ekimen politikoan eta antolamendukoan ere.
- Subjektu politiko feminista eraikitzearen esparruan, eguneroko ekimenean eta erakunde feministetan proposamen politiko feminista garatzen laguntzen duten buruzagitzak indartzea.

3.1.2. Edukiak

Eskolako gaien edukiak sei modulutan banatu ziren, eta haien deskribapena da ondorengo hau:

1. modulua. Genealogia Feminista. Parte-hartzaile eta bideratzaileek emakumeen borroka, matxinada eta iritzien historia bereganatzea bilatzen du, norbere bizitzan eta bizitza kolektiboetan bizi-errealitate bezala ager

5 Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Peten Ixqik, Alianza Política Sector de Mujeres. *Introducción. Diseño curricular y metodológico. Escuela Política Feminista*. Guatemala, La Otra Cooperativa/La Trilla argitaletxea, 2010.

6 Idem. 10. or.

dadin. Modulu honetan emakumeen memoria historikoa berreskuratu dugu, matxinatze, erresistentzia eta emantzipatzeko ahaleginetako borrokera, gu haien oinordeko baikara. Mundu mailako mugimendu historikoen partaide gisa aitortzen dugu gure burua, eta emakume matxinoen bizi-denbora historikoa bizi-denbora pertsonalarekin lotzen da txirikordan, hainbat bizi-etapako ibilbidean.

2. modulua. Epistemologia feminista. Helburutzat du gu geuregandik hasita, gure kokalekutik abiatuta ezagutzen eta ikasten dugunarekin, guztiok ezagutza eraikitzeke nozioa parte-hartzaileengan indartzea, gizartean, historian eta gure gorputzetik begiratuta kokatzen garen puntu horretatik ekinez. Gure jarreratik eta kokatuta gauden lekutik abiatuta, nola ezagutzen dugun konturatzea eragiten dugu. Ezagutza ekoiztea gure ahalmenen artean dagoela aurkitzen dugu. Ezagutzaren paradigma guztiak ulertzea lantzen dugu, eta azkenik eraikitzen ari diren epistemologia feministetako korrante guztiak bizitzen ari diren prozesuarekin ematen diogu bukaera.

3. modulua. Patriarkatu kapitalista, neoliberala, arrazista eta lesbofobikoa. Sistema honen alderdi sinboliko eta egiturazkoen arteko konexioa lortzea du helburu, gizartearen mikro- eta makro-analisiaren bitartez. Bizi izan ditugun zapalkuntza-esperientzietatik abiatzen da. Patriarkatua zapalkuntza historikoko sistema moduan ulertzea ahalbidetzen dugu; bertako garapen, mekanismo eta erakundeek emakumeen arteko harremanak eta gizon-emakumeen artekoak moldatu dituzte, eta gure bizitzari, gizateriaren bizitzari eta Naturaren bizitzari eragin diete. Estatuari egiten zaio erreferentzia erakunde patriarkal eta politiko moduan, hari egindako kritika feministak aztertuz. Boterea eta bere iturrien inguruko eztabaida sustatzen da, eta gure potentzia eta botereak aztertzen dira. Bizitako matxinada-aldiak, sistemaren ekintza eta eraginen ostean bizi-irauteko formak eta gerra edo egoera samingarrien aurrean emakumeen arteko elkartzuna berreskuratzen ditugu, bizitako horretatik guztiak bizi-alternatibak eraikitzea ahalbidetuko duen indar politikoko iturria osatzeko. Sistemak modu sinbolikoan sortzen dituen aginduak analizatzen dira, eta gogoeta egiten da haiek deseraikitzeke guk erabil ditzakegun laguntza-moduez eta emakume izateari buruzko iruditeria berria sortzeaz.

4. modulua. Subjektibotasuna eta sexualitatea ardatz feministetan. Modulu honetan asmoa parte-hartzaileek sexualitatea eta subjektibotasuna autonomia eta matxinadak eraikitzeke gune moduan ulertzea da. Desjabetu dizkiguten gure gorputzari eta sexualitateari buruz geuk dauzkagun sententzioen eta sentimenduen inguruan eztabaidak eta gogoetak sortzeke

bizipen-izaerako modulua da. Gero gure gorputzean sinbologia eta ideologia patriarkala desegituratzen da, eta hari buruzko gure pertzepzioa eraldatzen, matxinada, plazera, indarra eta askatasuna gauzatzeko gune moduan hartuz. Ibilbide metodologikoen konbinazio guztietan, honako hau ezagutzeko eta aztertzeko modulu bezala proposatzen da; baita osatzeko edo sendatzeko ere.

5. modulua. Subjektu politikoa. Parte-hartzaileek euren burua mugimendu feminista eraikitzeke subjektu gisa sentitzea nahi da, mugimendua subjektu politikotzat hartuta, eta prozesu horri euren ekarpenak egiteko bideak identifikatzea. Subjektu politiko feministaren ulermen kontzeptual-historiko batetik abiatuta, modu autokritikoan, gure ekintza politikoak kontzientziaz berreskuratzea eragiten da, gure lurraldeetan eta nazio mailan subjektua praktikan eraikitzeke bidean guk ongi eginak eta huts egindakoak identifikatzeke.

6. modulua. Herri Hezkuntza Feminista. Hezkuntza Herrikoiko prozesuetatik subjektibotasun patriarkala deseraikitzeke eta etika eta politika feminista eraikitzeke prozesuetan esperientzia pertsonal eta kolektiboak garatzen laguntzeko asmoa du. Gure prestakuntza-praktika hobetzeko ekarpen legez, modulu honetan Herri Hezkuntza Feministaren metodologiatik proposatzen diren printzipioak eta teknikak garatzen dira praktikan. Gure prestakuntza prozesuetan balioesten, deseraikitzen, aurkitzen eta ezagutza berria sortzen lagunduko dituzten elementuak, formak eta dimentsioak eranstea ahalbidetzen ditu.

3.2. II. unea: Topaketak

Prestakuntza Politiko Feministako Eskola amaitzerakoan, ondorioztatu genuen erakunde bateko kide bat edo birentzat oso zaila zela eskola horretan ikuspuntu teoriko eta politiko batetik ikasi eta hausnartutakoa helaraztea. Subjektu politiko bihurtzeko ideia erakundeetako kide gehiagok ulertzea eta bere egitea artean ere lortu gabeko abstrakzioa zela ikusi genuen; horrez gain, konturatu ginen eskolan egiturazko arrazakeria eta kolonizazioa ez genituela aztertu beharrezko sakontasunarekin, ikuspuntu historiko batetik eta herrialdean barneratutako harremanak izateko forma bezala; jabetu ginen behar hainbat analizatu gabe zegoela patriarkatuarekin eta kapitalismoarekin horrek duen lotura, eta, horrenbestean, deskolonizazioa gauzatzeko jarraitu beharreko bideak ere marratu gabe zeudela.

Elementu horiek izan ziren lurralde-topaketak gauzatea definitzeko aintzat hartu genituenak; topaketek gu geu mugimendu gisa indartzea zuten helburu,

eta erakunde guztietako kideei deialdi zabala luzatuz egin nahi ziren. Topaketa horiek parte-hartzaileen artean definitutako gaien inguruan norbere pentsamendua eta pentsamendu bateratua garatzeko mamitu zirela esan dezakegu. Egindako topaketak ondorengo gaien ingurukoak izan dira:

Subjektu Politikoa. Norbere mailan eta maila kolektiboan subjektu politikoari buruz guk daukagun ikusmoldeaz eta hori eraikitzeak dakarrenaz hausnartzea. Horretarako hiru gogoeta-gune osatu ziren: Puerto Barriosen, 55 emakumeren parte hartzearekin; 2) Totonicapan-en, 72 emakumerekin, eta 3) Hiriburuan, 74 emakumeren parte hartzearekin. Topaketa horien emaitza izan da gaur guk, aliantza bezala, Subjektu Politikoaren definizioa eskura izatea:

“Emakume/pertsonen osatutako askotariko kolektibitatea, jarrera hegemonikoaren aurrean bere burua iritzi eta proposamen politiko emantzipatzailearekin osatzen duena; bi horien artean boterea eskuratzeko borroka-estrategiak garatzen dira, baina zapalkuntza-estrategiarik ez. Izaera propioa du eta, akordioen bitartez, indarra metatzen du emantzipatzeko proiektu politiko bat definitu, eraiki, bultzatu, eredu eta osatzeko, erdigunean gizakiak eta natura sendotzea izango duena. Bere historia/memorian oinarritzen da, autonomia da, ahots eta pentsamendu propioa erreferente bihurtzen da -bere burua pentsatzen du-, eta gaitasunak garatzen ditu bere errealitatea irakurtzeko, bere helburu estrategikoan aurrera egiten jarraitzeko bideak sortzeko: emakumeentzat eta herrientzat bizitza bete eraikitzea”.

Kolonizazioa eta deskolonizazioa. Peten departamentuko Poptun eta Tikalen egin zen, 2012ko uztailaren 31tik abuztuaren 3ra bitartean, eta 93 emakumek hartu zuten parte. Helburu nagusia bertan parte hartu genuen erakundeen arteko aliantza politikoa sendotzea izan zen, kolonizazio prozesuei buruzko ezagutza sakontzearen eta deskolonizazioko estrategia politikoak bultzatzearen bitartez. Topaketa horretan definitu zen analisi-dimentsio moduan sexualitatean sakontzeko beharra, eta hori gauzatzea 2013ko apirilera planifikatu zen.

Proiektu politikoa, ametsetako gizartea eraikitzea. Guatemala hirian 2012ko urriaren 10ean eta 12an egin zen, eta 105 emakumek hartu zuten parte. Gogoeta egin zen, eta une hartara arte eraikitako aurrerapen teoriko eta kontzeptualak aberastu ziren, baita errealitatearen analisi konplexuagoa egitea ahalbidetzen diguten tresna metodologiko eta teknikoak ere; horrez gain, proposamen politikoari buruzko gogoetak ere partekatu ziren, hiru

dimentsiotan: sexualitatean, zaintza- eta afektibitate-sarean eta bizitzaren sarea zaintzeko esparruan.

Gure sexualitateari buruzko erabakiak hartuz. Gizartea eraldatzen dugu: Guatemala hirian egin zen 2013ko apirilaren 2an eta 3an, gure gorputzak eta sexualitateak sistema nola mantendu edo desegin dezaketen identifikatzeko helburuarekin. Parte-hartzaileok bi kontu ulertzea zen asmoa: sistema patriarkalak sexualitatea kontrolatzeko duen interesa, alde batetik, eta horren ondorioz bestelako gizarte bat eraikitzeko gorputzaren kontrola berreskuratzearen garrantzia, bestetik. Halaber, sexualitatea antolatzeko irizpide politiko eta sozial bezala erakustea ere nahi genuen.

Desmuntatuz eta sinbolismo askatzailea eraikiz. Guatemala hirian egin zen, 2013ko maiatzaren 6an eta 7an. Topaketa horren helburua herritarren gorputzak eta bizitza oro har eta emakumeena bereziki kontrolatzen dituzten mekanismoak, sinboloak, irudiak eta ideiak identifikatzea izan zen, sinbolismo bat eta mekanismo alternatibo eta askatzaileak eraikitzeko. Meditazio pertsonalari buruzko eztabaidak izan ziren; gure errealitatea, emakume izatearen iruditeria eraikitzerako garaian ideiak, irudiak eta sentimenduak identifikatzea, historikoki ideia horiek sortzen dituzten erakundeak identifikatzea, amets eginez, alternatibak eraikiz eta jarraitzeko bideak definituz.

Ongi Bizitzeari buruzko proposamenak. Guatemala hirian 2014ko apirilaren 1ean eta 2an egin zen. Proposamenen aniztasuna jasotzeko helburuarekin, geure burua aztertu eta elkarrekin egiteko ekintzak identifikatzeko, foro modalitatean aurkeztu ziren Ongi Bizitzeko hainbat proposamen: 1) Biziaren Sarea: Utz' Kaslemal kik'e ixoq'i; 2) Utz Kaslemal -Kaqchikel emakumeak; 3) Biziaren Betetasuna: Amismaxaj; 4) Amets feministak bizitza bete baterako – proposamen feminista; eta 5) Ongi Bizitza Nuevo Baq'tun Bateratzearekin bat eginda.

Patriarkatua gure gorputzen gaineko zapalkuntza historikoaren sistema bezala, 2014ko abuztuaren 20an eta 21ean egin zen, Aliantzan bat egiten duten feminismoetatik abiatuta, patriarkatuaz dauzkagun ikusmoldeez gogoeta egin, eztabaidatu eta ekarpenak egiteko helburuarekin. Eguneroko adierazpenak aztertzea, hainbat arlotan emakumeen gorputzaren inguruan akordio patriarkalak nola bizitzen diren; halaber, nola funtzio berriak ematen dizkiegun eta nola proposamen emantzipatzailearen baitan haien desmuntatzeko ekarpenak egiten ditugun. Eztabaidak izan ziren gai hauen

inguruan: adierazpen eta agerpen patriarkalak, emakumeei buruzko agindu patriarkalak, maitasun erromantikoa egunerokoan, denboraren izaera patriarkala eta gure proposamen emantzipatzaileak aztertuz.

Emantzipazioa. 2015eko otsailaren 25ean eta 26an egin zen. Topaketa horretan helburutzat hartu zen proiektu politiko emantzipatzaileari, Ongi Bizitzeari eta Ut'z kaslemal IX'oi proiektuei buruzko eztabaidetan ezagutu, eztabaidatu, argitu eta aurrera egitea. Hori guztia bizi garen sistema patriarkal, kolonialista, kapitalista neoliberalarekiko bizi-proiektu alternatibo bezala, eraikitzen ari garena hobeto ezagutzeko, emantzipazioak kontzeptu eta proposamen politiko moduan esan nahi duena hobeto ulertzetik abiatuta.

Aspaldiko jakintzak eta proposamenak aztertzearen inguruan eztabaidatu zen: gure historia-gorputza-bizitzan dagoen zapalkuntzaz eta emantzipazioaz, eta gure emantzipazioa/autonomia indartzeko proposamenetatik eta dagoeneko badauzkagun estrategietatik Ongi Bizitzea eraikitzeaz.

Baliabideak erauztean oinarritutako eredia indarrez ezartzeak, errepresioak eta gizarte-bizitza kriminalizatzeak markatutako topaketak izan ziren. Talde antikomunistak berragertu ziren publikoki, eta gizarte-mugimenduko kideen aurkako salaketak egin zituzten; departamentu batzuetan tokian-tokiko setio-egoera dekretatu zuten, horrek dakartzan eskubide zibil eta politikoen murrizketarekin, bilerak egiteko eskubidea esaterako; etxeratze-aginduak finkatu ziren: Huehuetenango 2012ko maiatzaren 4an eta 5ean izan zen, Jalapan 2013ko maiatzean; eta armadako kideek zenbait manifestari sarraskitu zituzten Tonicapanen 2012ko urriaren 4an eta 5ean.

Peten departamentuan setio-egoera bizi izana zuten 2011n Alvaro Colomen gobernu garaian, eta Otto Perez Molinaren administrazio-aldian indarkeria, narkoen jarduera eta destakamentu militarrek areagotu egin ziren.

Testuinguru horretan, topaketak hainbat lurraldetan eta jende askorekin egiteak geure burua ezagutzeko eta geure arteko loturak estutzeko balio izan ziren.

Topaketak ia ehun lagunekin eta herrialdeko hainbat lekutan egin izanak identitate kolektiboa garatu zuen parte hartu genuen guztion artean. Bere lurraldean hartu gintuen antolakundeak iritzia eman ziren; aurrean dauzkaten arazoak ezagutarazi zizkigun; eta, jarduera publikoak egin ziren kasuetan, Izabalen eta Tonicapanen bezala, hartzen gaituen kolektiboaren aurrean bere burua aurkezteko aukera izan du ekintza publikoak edo komunikaziokoak egin direnean.

4. Definizioa eta karakterizazioa

Eskola inplementatzeko prozesuan zehar, prestakuntza-prozesuei buruzko bilerak egin eta gogoetak jarri genituen eztabaidan, eta Herri Hezkuntza Feministaren gure definizioa landu genuen.

4.1. Zer da Herri Hezkuntza Feminista?

Herri Hezkuntza Feminista eraldaketa pertsonal eta kolektiboko prozesu moduan irudikatzen dugu, emakumeak eta euren erakundeak subjektu politiko bihurtzeko daitezela laguntzen duen tresna politiko gisa; trebetasunak garatzeko prozesua, ekintza politikorako ezagutzak eta hazkundera erakitzea. Proposamen horrek esku hartzen du pentsamendua, sentimenduak eta jarduera pertsonala eta kolektiboa eraldatzean. Beraz, Herri Hezkuntza Feminista ekintza politikoa da, pertsonak, euren kolektiboak eta errealitateak eraldatzea dakarrelako bere baitan. Askatzeko hezkuntza da, eta, eragiten denean, bizia kokatzen da erdigunean.

4.2. Herri Hezkuntza Feministaren iturriak

Herri Hezkuntza Feministaz eta bere aplikazio praktikoaz dugun ikusmoldea garatu ahal izateko, hainbat feminismoaren proposamenak eta edozein zapalkuntza abolitzea zein askatasuna aldarrikatzen duten beste proposamen eta esperientzia batzuk konbinatzen ditugu⁷.

4.2.1. Feminismoak

Hirurogeigarren hamarkadako feminismo erradikaletik iritsi zitzaigun aldiaren behin elkartzen diren emakumeek osatutako autokontzientzia taldeen metodologia. Bilera horietan bakoitzak zapalkuntza nola bizi eta sentitzen duen adierazten du. Lozorroan dagoen kontzientzia esnatzea da talde horien

⁷ Eraldatzeko prestakuntza-prozesuak izendatzea eztabaida-prozesuan dago, Liduvina Mendez, Amandine Fulchiron eta Sara Alvarezek, besteak beste, adierazi baitute Herri Hezkuntza Feminista izenak ez dituela eraldatzeko behar diren dimentsio guztiak jasotzen, eta izen hori oso lotuta dagoela klase-borrokaren zentratutako boterea eskuratzeko iraultza-planteamenduei. Garrantzitsua da aitortzea eraldaketa integralerako ekintza, teknika eta metodologiek proposamen feministak txertatuta dituztela, eta baita sendatzea bezalako beste batzuk ere. Liduvina Mendezek prestakuntza-sendatze prozesu deitzen die.

helburua, bizitakoan oinarrituta, guztiok bizi baitugu gure zapalkuntza, eta bizitzaren berrinterpretazio politikoa bideratzea. Mugimendu moduan geure buruaz pentsatzeko elkartzeko ideia, gure gogoetak eta gure estrategiak partekatzeko ideia Latinoamerikan 1981etik egiten ari diren Topaketa feministetatik jasotakoarekin ere elikatzen da.

Ikerkuntza feministaren gogoeta eta beharretatik ere elikatzen gara; Patricia Castañedak dioen moduan, ikerkuntza hori teoria feministan ainguratuta dago, eta helburu hauek ditu: emakumeen zapalkuntza-baldintzak analizatzea, batetik, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik ezari eusteko elkarri kateatzen zaizkien faktoreen ugaritasuna azaltzea, bestetik. Azken horren asmoa aipatutako desberdintasuna desagerrarazten laguntzea da, pentsamendu konplexu eta ilustratutik abiatuta, proiektu emantzipatzaileak gauzatu lituzketen ezagutzak sortuz⁸.

Arlo horietan, emakumeen jakintzak eta gure arbasoen erresistentziak berreskuratzeko beharra identifikatu dugu. Memoria historikoa izatea mugimendu bezala indartzen gaituen elementu bateratzaile bihurtzen da.

4.2.2. Herri Hezkuntza

Herri Hezkuntza Feministaren -HHF- baitan, Paulo Freirek planteatutako askatzeko hezkuntzaren planteamenduak beste batzuekin egiten du bat; beraz, epistemologia kritiko marxistan oinarritutako Ikusmolde Metodologiko Dialektikoaren -KMD- elementuak biltzen ditu. Ikusmolde horretatik, errealitatea prozesu historiko bezala ulertzen da, pentsamendu eta ekintzekin eralda daitekeen giza-sorkuntza. Errealitate hori osotasun integratu moduan ulertzen da; hau da, alderdi ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak estuki lotuta daude, eta baita alde pertsonala eta kolektiboa ere, objektiboa eta subjektiboa bezalaxe. Dimentsio horiek ezin dira ulertu osotasunarekin duten harremanik gabe.

4.2.3. Sendatzea

Eraldatzeko subjektuak osatzea lortu ahal izateko, Herri Hezkuntza Feminista moduan proposatzen dugun metodologiak sendatzea eraldatze pertsonal eta

8 Castañeda Salgado, Martha Patricia. Metodología de la investigación feminista. Mexiko D.F.ko unibertsitate autonomoko -UNAM- Centro de Investigaciones Interdisciplinarias en Ciencias y Humanidades -CEIHC- eta Fundación Guatemala. Guatemala, 2008.

sozialerako baldintza moduan planteatzen duten ikuspegi holistikoetatik eratorritako teknika eta metodologietatik hartzen ditu elementuak, eta horietan atzeraelikatzen da Guatemalan badira horrelako esperientziak bizitako kolektiboak: Emakume Maien Kaqla Kolektiboa, Actoras de Cambio eta Qanil zentroa, besteak beste. Ikuspegi holistiko horretatik, jakintzat ematen da gizakiok energiak eginak garela, eta energian oinarritzen garela; gure gorputza aldatzen ari den energia eremu dinamikoa dela, eta ez egitura fisiko eta estatikoa. Fisika kuantikoak erakutsi duenez, maila azpiatomikoan materia eta energia trukatu egin daitezke; bada jendea gertaera horri espiritu deitzen diona, eta burmuina eta eguneroko pentsamendua espiritu horren zati direla interpretatzen du. Hori dela eta, pentsa daiteke gorputza energia espiritualaren adierazpen bat dela. Faktore psikiko eta emozionalek eragina dute osasun fisikoan, gorputzean emozioak eta pentsamenduak erreakzio biokimikoekin batera agertzen direlako beti. Horregatik guztiagatik, sendatzeak geure gorputza baloratzea eskatzen du, hari aditzea, haren mezuak errespetatzea eta biktima ez sentitzea. Gorputzaren sintoma guztiak irakurtzen ikastea eskatzen du⁹.

4.2.4. Jatorrizko Herrien Kosmobisioak

Guatemalaren kasurako, epistemologia feminista eta herri-hezkuntzako proposamenaz gain Jatorrizko Herrien kosmobisioetatik iritsitako hitzak, kontzeptuak, kategoriak eta praktikak erabiltzen ari gara, hainbat kulturetan emakume eta gizon subjektuen artean eraikitako zubiak sortuz. Horren harira, ekarpen nagusiena maia eta xinka emakume indigenen erakunde batzuetako eta Mahai indigenako erakundeetako gogoetak dira; Nuevo B´aqʼun Bateratzea erakundeak dira, eta Aliantza Feminista erakunde horretako partaidea da. Bateratzeko gune horretan beste zapalkuntza mota batzuk ezagutzen ikasi dugu, arrazakeria bereziki, eta haiek herri indigenen kosmogoniatik izendatzen, herri horietako erakundeak berreskuratzen eta berrosatzen hasi diren jakinduriatik.

4.3. Oinarriak

HHFak oinarrian ezagutza berariazko baldintzetan mamitzen dela adierazten duen epistemologia feminista dauka; horregatik, ezagutzen duen subjektuak,

9 Northrup, Christiane. *Cuerpo de mujer, sabiduría de mujer. Una guía para la salud física y emocional*. España: Urano argitalpenak. 1999

ezagutza gauzatzen duenak, alegia, garrantzia bereganatzen du. Prozesu horietan parte hartzen duten emakumeek, euren esperientzia sistematizatu eta analizatzean, ezagutzak gauzatzen dituzte.

Ezagutza berriekin errealitateari buruz gogoeta egiteak errealitate intimoak, pribatuak eta kolektiboak eraldatzeko ahalmena izan dezaketen ekintzak identifikatzen laguntzen du.

Horiek horrela, pentsamendu feminista berria eraikitzeko iturri epistemologiko bihurtu da HHF, eta emakumeen eta herrien emantzipazioaren oinarria da. Horretatik abiatuta, historia eta errealitatea analizatzeko eta proposamenak eraikitzeko kategoriak eta forma partikularrak sortzen dira.

HHFk emakumeen mendekotasun baldintzak eta kokapena bistaratzen ditu, eta kanporatzea eta bazterkeria ezagutza askatzailea eraikitzeko eta bizi-alternatibak bilatzeko erabiltzen da. Kontzientziazio eta sentsibilizazio prozesu bat da, proposamen politiko propioa duena, autonomia, eraldaketa kultural eta sozioekonomikoa lortu nahi dituen; aldi berean, subjektu politiko feminista pentsamendu feministaz elikatzen da, eta bere gain hartzen ditu norbera eraldatzeko eta eraldatze kolektiboko prozesuaren baitako guztiak.

Errealitate eta historia propioetatik abiatuta, borrokatu beharreko arazoan aurrean eraikitako erresistentzia historikoan sustraitzen da proposamen hori, bizirik iraun ahal izateko emakumeek eta herriek garatu dituzten antzinako jakintzak eta ekintzak tresna politiko moduan berreskuratzen ditu, eta praktika politikoa bere mugimenduetan sistematizatzen du.

Zapalkuntza analizatzen baldin badu ere, erresistentziak eta estrategiak nabarmentzen ditu, biktima bihurtzean ez erortzeko. Alboratzea eta bazterkeria analizatzea jardura aproposa da emakumeentzat, gizartearentzat eta naturarentzat bizi-alternatibetako ezagutza askatzailea eraikitzeko.

Epistemologia feministaren ikuspuntutik, beste pentsamendu-korrante batzuentzako ikusezin edo neurri txikian gelditzen diren alderdiak behatu daitezke osorik. Identifikatu ahal izateko izendatu egin behar dira; batzuetan kontzeptu berriak finkatzen dira eta beste batzuetan dauden izenei beste esanahi bat ematen diegu. Horrela, eraldatu nahi dugun sistema osoa ulertzea eragin ahal da, eta bistaratu egin daiteke gizakien artean ezartzen den sailkapen hierarkikoa.

HHFak feminista akademikoek aplikatzen dituzten giltza epistemikoak erabiltzen ditu erreferente bezala: susmoaren filosofia garatzea, aurkikuntza, gure historia eta errealtateak ulertzea. Horregatik, giltza epistemologiko bezala deseraikitzea eta desmuntatzea proposatzen ditu, eta prozedura bezala, berriz, bistaratzea, desnaturalizatzea eta historizatzea; alternatiboa eraikitzea.

4.4. Ekarpen metodologikoak

4.4.1. Bertaratzeko uneak diseinatzeko ekarpenak

Eskola praktikan jartzeak eta ondoren hura aztertu eta baliozkotzat emateak zenbait gogoeta eragin zituen; tailer bat planifikatzen denean gogoan izan beharreko elementu batzuei buruzko gogoetak ziren: praktika, sarrerako puntua eta iritzi metodologiko batzuk.

Praktikaren dimentsioa ekintzek, ikuskerek eta testuinguruek osatzen dute. Dimentsio horiek guztiak konkrituak dira -ez dira abstrakzioak-, historikoak dira eta, beti denbora eta espazio jakin batzuetan -pertsonalak edo kolektiboak-gauzatzen direnez, kokatuta daude. Ikuskeren barruan koka ditzakegu bai pentsatzeko formak euren adierazpen guztiekin -pentsamendu magikoa, teknikoa, zientifikoa-, eta baita emozioak, pertzepzioak eta intuizioak ere.

Herri hezkuntzako metodologia darabilten emakumeen prestakuntza politikoko prozesuetan, parte-hartzaileen praktikatik abiatzen gara beti, eta igarotze metodologikoa hari lotuta mantentzen da etengabe. Hori da prozesu metodologikoan eta bere garapen pedagogikoetan zehar eraldatzen den lehengaia. Hiru une identifikatzen dira herri hezkuntzan: praktikatik abiatzea, hari buruz teorizatzea eta praktikara itzultzea. Pasuko horiek emateak zentzu instrumentala dauka funtsean.

Funtsezkoa da deseraiki, berreraiki edo indartu nahi den praktika pertsonala edota kolektiboaren esparrua edo dimentsioa identifikatzea. Herri hezkuntzak oro har, baina feministak bereziki, botere berriz -bizi boterez- eraldatu eta bete nahi du emakumeen bizitza bere integritasun osoan. Ez bakarrik adiera zorrotzean ulertutako bizitza politikoa.

Horiek horrela izanik, praktikatik abiatzeak herri-hezitzaile eta bideratzaileei eskatzen die norbere praktika pertsonala eta parte-hartzaileen praktika sakonki baneratu eta ulertzea; modu horretan, auzitan jarri, argitu edo eraldatu nahi

den dimentsioa “bistaratu” ahal izango da. Horretara iristeko, sakonera jo behar da, hezitzaileak beraiek euren praktikarekin “konektatzea”, gogoeta egitea eta bultzatzen ari den eraldatze-prozesuaren zati bezala bere egitea.

4.4.2. Sarrerako puntua: parte-hartzaileen arteko lotura pedagogiatik bilatuz

Sarrerako puntua funtsezkoa da dimentsio pertsonala dimentsio politikoa dela dioen Eskola Politiko Feministako zehar-ardatza sartzeko. Ikuspuntu horretatik, dimentsio pribatua eta intimoa deitzen dugun hori aztertzen du. Jakina, benetako errespetutik abiatuta, giza-samurtasun eta trebetasun metodologiko eta pedagogiko handiarekin. Langai bat kokatzen du sarrerako puntuak, diagnostiko izaerakoa oro har, eta aurrez-aurreko jarduera osoan zehar lantzen jarraitzen da.

Sarrerako puntuak parte-hartzaileak jardueran esperientzia pertsonaletatik abiatuta sartzea ahalbidetu behar du, baina, aldi berean, beste parte-hartzaileekin elkarrizketako guneak presta ditzaten bideratuz.

HHFan garrantzitsua da ezagutzak, emozioak eta intuizioak sedimentatzeko uneak aintzat hartzea. Sarrerako edo motibazioko une deitu ohi ditugunak aproposak dira landu nahi ditugun praktika-dimentsiora sartzeko puntua eraikitzeko. Orduan, jarduera hasterakoan subjektiboa dena sarrerako puntu moduan kokatzea gomendatzen da, jardueren esparruaren baitan taldea motibatze eta integratzeko.

5. Prestakuntza prozesuek emantzipaziorako lortu eta ekarritakoak

5.1. Pentsamendu politikoa azpimarratzen duen prozesua

Geure buruari jarri dizkiogun helburuetako bat proposamen feminista gure bizitzak, testuinguruak eta errealitateak interpretatzeko esparru moduan erabiltzea da. Sistematizazio honetan txertatuta dauden prestakuntza-prozesuetan parte hartzen dugun instantziok bultzatu dituzte prestakuntza politikoko hainbat ahalegin, eta haiek guztiek eman zuten beretik hainbat subjektu politikoa eta emantzipatzeko proiektu politikoa eraikitzearen esparruan elkarrekin bultzatzen ari garena definitzeko.

Prestakuntza-ekintza horiek arnasa luzeko prozesuan txertatzen direnez, errealitatearen interpretazio-esparru berri bat izateko beharraren baitan kokatzen dira; horrek politikoki emakumeok geure buruarekin beste era batera ekitea ahalbidetuko luke, geure artean, besteekin batean eta askotariko errealitateen aurrean. Prozesua oro har emantzipazioko ildoan sortua denez, bertako edukiak eta metodologiak ere emantzipaziora bideratutakoak dira. Gure ardatzak gure proposamen politikoaren eta subjektu pluralaren araberakoak dira, eta gure topaketa, eduki eta metodologiak proposamen politikoarekin eta herrialdean bizi diren egoera partikular guztien baitan aurkeztutako beharrekin artikulatuta daude. Hori da plangintza, prestakuntza eta ebaluazioa gidatzen dituen ildo.

Horren harira, hainbat ekimen gauzatu ditugu gure pentsamendua sendotzeko helburuarekin. Horien artean daude honako hauek: Komunitate Epistemikoak eraikitzea¹⁰; Análisi Zirkuluak bultzatzea, eta baita Prestakuntza Politiko Feministako prozesuak ere, Eskola lehenengo une batean eta Topaketak bigarren etapa batean¹¹. Prestakuntza prozesu horietan hainbat jarduera edota teknika bultzatu izan dira. Topaketak eta beste zenbait jarduera egin izana bera parte-hartzaileen pentsamendua eraikitzeko garrantzitsua izan da; horregatik, prozesuan parte hartu dutenek azpimarratu dituzten esperientziak partekatu nahi ditugu:

- Hainbat eratako lurraldeetan topaketak egiteak geure herrialdearen barruan bertan beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera ireki zигun. Testuinguru desberdinak eta emakume moduan desberdin bihurtzen gaituena zer den ulertu ahal izateko aberastasuna eskaini zигun. Gainera,

10 Komunitate epistemiko deitzen diegu ikuspegi epistemologiko partikular batetik errealitateak irakurtzeko eta analizatzeko konpromisoa hartzen duten berariazko feminista taldeei; era horretan pentsamendu feministan sakonduz, inork izendatu ez duena izendatzeko, eta komunikatzea ahalbidetuko digun guztiontzako gunea sortzeko. Komunitate horiek sortzea pentsatu dugu geuregandik abiatuta kosmobisioak eraikitzeko prestakuntza politikoko prozesuen eta aztertze eta ikertzeko zirkuluen bitartez. 2010eko Batzar Feministan hiru komunitate epistemiko posible azaldu ziren: feminismoa eta marxismoaren arteko loturan sakontzeko interesa zutenak, proposamen lesbikoa eta feminismo komunitarioa garatzea. 2014ko abenduan, ikusi genuen planteatutako hiruretatik Santa Maria Xalapaneko feminismo komunitarioak izan zirela talde epistemiko bihurtu zirenak, eta proposamen bat sistematizatu zutela. -Batzar Feministako Akordioak (Acuerdos de la Asamblea Feminista). Guatemala, 2010eko uztailaren 15etik 18ra.

11 Erreferentzia gehiago izateko, ikus: Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Peten Ixqik, Alianza Política Sector de Mujeres. *Educación Popular Feminista. Formación feminista para la transformación social emancipadora*. Guatemala, La Otra Cooperativa/La Trilla argitaletxea, 2013.

tabuak haustea ahalbidetu zuen; hala nola, mendi-inguruetan bizi diren emakumeek, itsas-ondoko topaketa batean parte hartzean, euren gorputzak ikusteko eta haietan bizitzeko beste modu bat probatu ahal izan zuten. Haietako batzuk ez zuten inoiz bainujantzirik jantzi, eta lotsa handiarekin bizi zituzten euren gorputzak. Lurralde horretan egoteak bizitza markatu zigun horri dagokionean. Beste alde batetik, topaketetan parte hartzean etxeko eta ohiko komunitateko egunerokotik irteten gara ezinbestean. Irtetea ikasketa-aldia da, familiarekin negoziatzea eta autonomia eraikitzea eskatzen duelako; izan ere, geuretzako denbora hartzen dugun heinean, guk etxean egiten ditugun lanak beste norbaitek hartu behar baititu bere gain.

- Topaketa eta tailerretan parte-hartzaileak euren identitateak adierazi ahal izateko aukera zabaldu zen. Hori zela eta, alde batetik, bestea zein den ulertzeko estereotipoak hautsi ziren eta nor bere beldur eta aurreiritziei aurre egitea. Aztertu ahal izan genituen gaien artean ondorengo hauek zeuden: lesbofobia eta lesbianek gu estu har gaitzaketen beldurra -hori zer jarduera edo teknikaren bidez ezabatu zen identifikatu beharko litzateke-. Beste alde batetik, feminista izendatzeko eskakizunen kontua zegoen, irakurketa eta ikasketa kopuru jakin bat egin ondoren lortzen zen estatus bezala ikusten baitzen, akademiarekin oso lotuta, eta ez jarrera politikoarekin.
- Gogoeta talde txikiak geure buruari buruz hitz egiteko aukera zabaldu zigutenez, konfiantzazko guneak sortu ziren nor bere esperientziak partekatzeke eta ideia batzuk besteekin aurrez aurre jarri ahal izateko.
- Partekatzeak nolabait errua eta beldurrak aitortzen eta lantzen lagundu zigun, beste kideek adierazten zuten horretan geure burua islatuta ikustetik abiatuta. Eztabaida horien bitartez, emakume moduan guk dugun identitatea argitu eta indartu ahal izan genuen. Kideak ez epaitzen ikastea, neure burua nik neuk aztertu eta ulertzen. Besteen aurrean nire sexualitateari buruzko estereotipoak haustea. Nire erabaki pertsonalen inguruan hobeto prestatuta egotea, erdigunean kokatzea, beti gauzak mugitu egiten diren arren eta beti inkoherentziak badaude ere.
- Gainera, eztabaida-talde txikiak nire matxino izaera, gure amonena, gure amatxorena aztertzeetik abiatuta gure emakume feminista identitatea finkatzen ere lagundu du. Gertatzen den guztian historia bat eta zergatik bat dagoela ulertzea, gure bizitzetan historia hori bera ez errepikatzea helburu hartuta.


Pentsamenduan aldaketa bat erakusten dute aldaketa pertsonal batzuek, eta ondorengo hauek dira guk identifikatu eta partekatu ditugunak:

- Talde txiki horien bitartez, arauak haustea partekatu ahal da, eta guk gehienbat gure sexualitatea bizitzearen inguruan eta zoriontsu bizitzeko gure artean elkarri baimena emateko moduaren inguruan egiten dugu, bekaturia auzitan jarriz eta gure bizitzeko zentzuetan askatasuna sortuz.
- Pentsamendua aldatzean eragina izan duen beste teknika zenbait film proiektatu eta analizatzea da; hala nola *Los civilizadores*, Guatemalako kolonizazio alemaniarraz eta *The color purple*, Estatu Batuetako esklabotzaz. Hainbat zapalkuntza nola artikulatzen diren bistaratzen dute pelikula horiek, eta gure gorputzen kontrola, kapitala metatzeko interesak eta menderatzen jarraitzeko sortutako instituzionaltasunaren -morrontza, familia, bikotea, monogamia femeninoa eta amatasuna- artean dagoen lotura ikusarazi ziguten. Hori guztiaren osagarri izan genituen beste teknika batzuk ere; esate baterako, lore batekin geure burua igurztea, masajeak egitea, meditazioa, gure minak identifikatzea eta mina dagoen lekuan sendabelarrak ipintzea. Horiek guztiak gure gorputzak askatzea gizarte-emantzipazioaren erdiguneko elementu bezala kokatzen dute.

5.2. Proposamen politikoa eraikitzea azpimarratzen duten metodologiak

Korrante feminista guztiak eskaintzen dizkiguten kategoriekin, aurrera pausoa eman dugu gero eta konplexuagoak diren analisiak egiten; nahi ez duguna esaten ikasi genuen, hala nola, indarkeria, ama hiltzea, sexu-bortxaketa, eta abar. Nolanahi ere, gure bizitza eta gizarte-ametsa nolakoa izatea nahi dugun izendatzea desafioa da, eta orain dela urte batzuek hartu genuen gure gain. Horren adibide gisa, ametsa marrazteko saiakerak egin ditugu, gero eta zehaztasun handiagoarekin.

2. irudia. Azterketa estrukturalerako tresna



Iturria: Argazki propioak.

Prestakuntzako topaketetan, askotariko emakumeok bizi dugun errealitatearen analisi hori beti agertu izan da, eta, bakoitzaren testuinguruak kontuan hartuta, bi teknika izan dira lehentasunezkoak proposamen politikoak eraikitzerakoan. Honako hauek dira bi teknikak:

- Arazoen edo egiturazko analisiaren zuhaitza. Kausak, mekanismoak eta efektuei buruz geure buruari galdetzea da kontua, eta barruan gauzkan

sistemak edo gizarte-ordenak zeini egiten dion mesede aztertzea. Ideia horiek sustraiak, enborra eta adarrak dauzkan zuhaitz baten irudian kokatzen dira, kausak, efektuak eta eragileen artean dagoen lotura bistara dadin. Aplikatzeko moldaeraza izanik, eta hainbat esparruren inguruan garatu genuen; sexualitate esparruan, esate baterako. Esparru horretan aipatutako teknika txertatzeak balioztatu ezinezko aberastasunak ekarri zizkigun; arlo ekonomikoa, politikoa, dimentsio makroa eta mikroa gure sexualitatea bizitzearekin lotzen dituzten hariak ezagutzea ahalbidetu zigulako. Horri esker, gure sexualitatea modu integralagoan ulertu ahal izan genuen.

- Bigarren teknika gure proposamen politiko sakontzeko topaketan bultzatutakoa izan zen: parte-hartzaile guztiok dena ezbaian jarri genuen metatze-eztabaida. Hasteko, aintzat hartu genuen hasiera batean hiru direla gure proposameneko edukiak: 1) Sexualitatea; 2) Erreproduzio biologikoa eta soziala: Zaintza- eta afektibitate-sareak; 3) Bizia zaintzeko ekoizpena eta trukea. Horiek horrela, hiru lantalde eta eztabaidak jasotzeko hiru mahai egituratzea erabaki genuen, proposamenaren ardatz bakoitzeko bat. Ordutegi bat finkatu genuen talde bakoitza zegokion wmaia koka zedin, eta zehaztutako denbora bukatutakoan taldeak hurrengo mahaira joan ziren. Bigarren txanda hori bukatutakoan, taldeak hirugarren mahaira pasa ziren.

Horrenbestean, talde guztiak igaro ziren hiru eztabaida-mahaietatik, eta parte hartu zuten gure proposamenak modu kolektiboan sakontzen eta lantzen aritzeaz ikuspegi atomizatua eta partziala izateko arriskua desagiteko jardunean.

5.2.1. Jarraitu beharreko bide konplexuagoak

Teknikak: askatasunak sortzea. Sistemak egiten uzten ez diguna egiteko esperientzia askatasunera zabaltzen da teknika honen bitartez, askatasuna hainbat dimentsio eta ekintzatan erabiliz. Iruditzen zaigu proposamena finkatzeko espazioa eta denbora eskaini behar diogula sormenari. Horrela, esate baterako, aginduak nola urra daitezkeen azaltzeko esperientzia pertsonalak erabil ditzakegu, marrazkiak, desira eta edozein gorputz-adierazpen, baldin eta nahi duguna zer den arrazoiz eta konkrezioz zehazten laguntzen badu. Hizkuntzen arabera antolatutako talde-espazioek beste modu batean pentsatzen laguntzen dutela uste dugu; elkar ezagutzea ahalbidetzen digute.

Memoria historikoa: desnaturalizatzea eta historizatzea. *Desnaturalizatzea* erabiliz, bistaratu egiten da sistemak bere burua sostengatu eta mantentzeko mekanismo politiko bezala erabiltzen duen naturalizatzea. Zapalkuntzak naturalak eta betikoak direnaren ideia nola inposatzen den ezagutzera ematearen bidez, gure erabakien arabera egiteko eta izateko askatasuna sortu ahal da. Hona hemen horretarako erabiltzen ditugun zenbait teknika: amatasuna, sexualitatea askatzeko estrategiei buruzko ideia-zaparrada (isiltasuna hautsi eta sexualitateaz hitz egiteko balio dezaketen adibideak). Sexualitatea kontrolatzen duten pentsamendu-iturriak kokatzea, eta haiek desmuntatzea.

Historizatzeak esan nahi duena, berriz, harreman sozial eta politikoen definizioa orientatu duten gizarte-egoera, mentalitate, balore eta arau-sistema berreraikitzea eta berrinterpretatzea da. Naturalizatzea eta ikusezin bihurtzeari dagozkion prozesu guztiak azaleratzea da, emakumeak mendeko pertsona bihurtzen dituzten mekanismo burutsu edo nabarmenak erakutsiz. Mendekotasuna justifikatzeko, historikoki sistemak itxura zientifiko, erlijioso edo kulturalako justifikazioak erabili izan ditu. Naturalizatzearen bitartez, ez da beharrezkotzat jotzen existentziari buruzko gogoeta egitea, eta mendekotasuna justifikatuz bukatzen duten identitate esentzialesan pentsatzera garamatza. Ikuspegi feminista batetik, ondorengoa eskatzen du historizatzeak: ez fidatzea zientzia, dogma erlijioso edo kultura-printzipio izenarekin mendekotasuna era batera edo bestera justifikatzen duen guztiarekin. Historizatzea errazten duten ariketetako batzuk dituzu hauek:

- Leku historikoak bisitatzea, bertako historian emakumeak eta herriak ikusarazteko.
- Denbora-lerroa: Partaide guztiak bilduta, herrien eta kolektibitateen historian ezagututako gertaera historikoak eraikitzen dira taldean txartel, argazki edo laminen bitartez, eta historia ofizialean agertzen ez diren ekintza, egoera eta pertsonekin osatzen dira.
- Film historikoei buruzko foroak: filmaren aurkezpena egin, bukaeran foroa osatu, eta galdetu. Zer eragin digu? Zer behatu dugu? Zer gelditu zaigu? Zer ikusarazten edo zer bistaratzen du? Zer eragin izan dute gertaera horiek gure bizitzan?
- Gure familiako emakumezko arbaso, irakasle, adiskide, profesional edo gu baino lehenagotik aldaketak eragin edo arauak hautsi dituzten pertsonen inguruko gogoetak.

Historizatu egiten dugu emakume maiek historian egin dituzten ekarpenak aztertu eta dokumentatzen ditugunean; gure begirada feminista, maia, xinka edo garifunatik gertaerak berreraikitzea ahalbidetzen diguten komunitate, familia edo herriei buruzko ikerketak egiten ditugunean.

Emakumeentzako esanguratsuak diren emakumezko arbasoak eta gertaera politiko historikoak aitortzeko irekiera sinbolikoetan egiten dugu hori; besteak beste, hiritar izaera, boto eskubidea, ikasteko eskubidea eta lanerako eskubidea lortutakoan. Guztiok elkartuta gaudenean, zirkulua osatuz lore, kandela, argazki eta elkarrekin lotutako elementu historikoekin, gertaeren erakusketa egiten da, emakumeen izenak adierazten dira, haiek egindako ekarpenak ikusgarri egiten dira eta gure mugimenduaren memoria historikoari egindako eskaintza moduan balioesten dira.

Arkeologia-guneak, leku sakratuak eta toki historikoak espazio-puntuetan, historian eta etorkizunean kokatzea ahalbidetzen digun informazioarekin bisitatzen ditugunean, gure historia kritikotasunez berreraikitzen dugu.

5.2.2. Eutsi egiten diogu

Bidegabea edo negatiboa iruditzen zaigunaren aurrean aktiboki aurka jartzea eta hura baztertzea da guretzat erresistentzia-ekintza. Gure lurralde-gorputzetatik abiatuta, emakumeokiko negoziazioetan, beste gizon-emakumeekin egindakoetan, arlo pertsonal eta kolektiboetan hasten den jarrera politiko bezala ulertzen da erresistentzia. Lurraldeetan erresistentziak antolatu diren testuinguruan, elkartasuna adierazten diegu eta laguntza eman.

Eraiki egiten dugu, gizarte-ametsari indarra ematen dioten praktika banakako eta kolektiboak *bistaratuz*, *zabalduz* eta *indartuz*, izendatuz ongi bizitzea, betetasunez bizitzea, elkarte autonomoak eta ongizatekoak.

5.2.3. Pentsamendu estrategikoz desmuntatzen dugu

Subjektua eta bere proiektu politikoa eraikitzen laguntzen duten ekintzak hautatzeko ordenatzea eta irizpideak izatea ahalbidetzen digun pentsamendua sortzen dugunean gertatzen da. Logika horretan, gure errealitateak eraikitzeko dimentsioak planteatu ditugu, desmuntatu nahi ditugun esparruak eta alderdiak definituz.

1. koadroa. Gure errealitateak eraikitzeko nahi ditugun dimentsioak eta desegiten ditugun alderdiak		
Eraikitzeko dimentsioak	Esparruak	Zer desmuntatzen du?
Ordena sinboliko-kulturala.	Pertsonen eta naturari buruzko iruditeria berria.	Emakume eta gizon izateari buruzko ideia hegemonikoak. Kolonialismoa eta kapitalismoaren ideia hegemonikoak: produkzioa eta erreproduzikoaren, pribatua eta publikoaren arteko banantze faltsua. Kapitala eta aberastasuna metatzea antolamendu sozial eta politikoaren helburutzat.
Antolamendu soziala eta politikoa.	Komunitate, lurralde, eskualde eta herrialdeko antolamendu politikoan eta sozialean erabakiak hartzea.	Kolonizazioa eta estatuaren gaur egungo eratzea desnaturalizatzen du, eta hain hierarkikoa eta patriarkala izango ez den beste forma bateko antolamendu soziala eraikitzeko aukera planteatzen du. Demokrazia eta ordezkariak irradikalizatzen ditu.
Sexualitatea.	Gorputza eta sexualitateari buruzko erabakiak hartzea.	Desmuntatu egiten du sistema patriarkalaren oinarria: emakumeen gorputza, sexualitatea eta erreproduzizio-gaitasunaren inguruko kontrola. Auzitan jartzen du sexualitate eredu patriarkal maskulinoa.
Erreproduzio biologikoa eta soziala.	Biziaren katea, biziaren produkzioa eta erreproduzioa definitu eta bultzatzea.	Desmuntatu egiten ditu organizitatea eta sistema sostengatzen eta erreproduzitzen duten instituzioak: bikotea, familia, elizak, hezkuntza, eta abar.
Zaintza eta afektibitate sareak.		
Bizia zaintzeko produktua eta truketzea.	Bidezko harremanak pertsonen artean eta naturarekin .	Desmuntatu egiten ditu gizakien sailkapen hierarkikoa eta bazterkeriazko mekanismoak; esate baterako, sexismoa eta arrazakeria.

Iturria: Geuk egina.

Desmuntatzeko sendatu egin behar da eta ahalmen erotikoa garatu

4. moduluaren diseinua: Subjektibotasuna eta sexualitatea ikuspegi feministatik. Eskola Politiko Feministaren Hetero-errealitatea: gorputza eta sexualitateari buruz arlo pertsonalean sustraitutako sinbologia patriarkalak desmuntatzeko pentsatu zen¹².

12 Aliantza Feministako prestakuntza-prozesuak sendatzea proposamen terapeutiko eta politiko moduan bultzatzeak markatutako testuinguruan gauzatu ziren. Eskolan eta topaketetan parte hartu genuenetako batzuek, jarrera lesbiko, autonomo eta holistikoen jabe, desmuntatzearen eta sendatzearen irizpide metodologikoez markatutako topaketa egin genuen 2012ko martxoaren 22tik 24ra bitartean. “Erotismoaren ahalmenak eta botere patriarkala desartikulatzea” deitu genion. Badira proposamen horren inguruko hainbat lanketa. Maia emakumeen Kaqla’ erakundeak planteatzen du garrantzitsua dela historia begi integralekin eta emakumeekiko eta historian izan duten eginkizunarekiko errespetu handiagorekin ikustea; horrela, gure autoestimua hobetu ahal izango dugu, gure baitan sartuta daukagun barne-zapaltzailea desagerrarazi, eta herrialde desberdina eraikitzen lagundu, paradigma berriak eta harrotasun etniko-kulturala berreskuratu eta finkatzea ahalbidetzeko paradigma berriekin eta adierazpen artistikoekin. Aldaketa-eragile izanik, “prestakuntza, sendatzea, ekintza” deitzen diote Estatu-terrorismoaren esparruan sexu-indarkeria jasandako emakumeekin hasitako prozesuari. Horretarako, autokontzientzia feminista talde, kosmobisio maia, hainbat sendatze-proposamen eta psikologia alternatiboa erabiltzen dituzte. Metodologia horrekin arlo pertsonala politikoarekin lotzen dute, pribatua publikoarekin, esparru horietan emakumeen zapalkuntza eta menderatzearen eta haren eraldatzeen errealitatea adierazten delako. Prestakuntza/sendatze tailerren bitartez, emakume maiei zapalkuntzaren inguruan analisiak eta gogoetak lotu egin zituzten eurek bizitakoarekin, zapalkuntza horiek euren gorputzean, bihotzean eta energian nolako saminezko arrastoa utzi zuten nabarmenduz. Metodologiak zapalkuntza hirukoitzaren kontzientzia hartzea konbinatu zuen, eta bereziki gorputzaren desjabetzea, emozioak deskargatzea eta izendatzea ahalbidetuko zuten teknikekin. Giza eskubideen ikuspuntua erabiliz, bazterkerien kausa historikoak eta sozialak landu ziren, euren eraginak eta emakumeen eskubideak. Gertaerak berrinterpretatzea eta oreka emozional energetikoa, emozionala eta mentala bakarkako eta taldekako teknikekin landu ziren, marrazkia, margolaritza, dantza eta txakrak deskargatzea erabiliz, hipnosia eta sua eta belarrekin egindako garbiketen bitartez. Energiak berreskuratutakoan, antolatutako lanaren esperientzia eta historian zehar egin dituen aldarrikapenak partekatzen dira, eta horren bidez ahalmenak eta ezagutzak adierazi eta berraurkitu daitezke eta haien artean elkar ezagutzeko, euren eskubideak balioztatzeko eta erakundearen ahalmena aitortzeko bultzatzen eta indartzen duten antzinako oinordetza moduan integratzeko. Horrekin, emakume bakoitzak bortxaketa sexuala gertaera soziopolitiko eta juridiko legez interpreta dezake, eta bere burua onartu gorputza nahiz pentsamendua, errurik gabeko sentimenduetatik abiatuta, emakumeon izaera historikoari dagozkion erabakiak eta ekintzak gauzatzeko bultzada emanez, gure autonomia eraikitzeko bidean, errespetua, baloratzea eta kontzientzia kritikoa indar dezagun. Qanil Sendatze Zentroak planteatzen duenez, prestakuntza/sendatze prozesuek geure burua aurkitzeko helburua dute, bizitzan aldatu beharreko guztiak iraunkortasuna eskatzen duela kontzientziazatzea, arazoan sustraira jotzea, patrio kulturalak hausteko konfiantza eta sosegua eta alaitasuna berreskuratuzeko ziurtasuna.

Arrakasta izan duen teknika bat taldeko lanean boluntario baten gorputzaren silueta marraztea edo banakako lana denean nork bere gorputzarena marraztearekin lotutakoa da. Sentimenduak -minak edo plazerak- kokatuta dauden atalean kokatzeak norberaren bizitzako korapilo batzuk askatu ahal izateko aukera ireki zuen.

Dinamika horrekin geure burua osotasunean ikustea lortzen da; batzuek lehen aldiz ikusi ahal izan zuten nolakoak diren, inoiz ere ez baitzuten euren burua dimentsio osoan bistaratu. Alde batetik, emakume guztiok era batera edo bestera indarkeria sexualaren biktima izan garela ikusteko ahalmena eman zigun, identifikatzeko nola sistemak arma horrekin agintzen dizkigun beste inposaketan aurrean guk indargabe jarraitzea nahi duen.

Deseraiki eta desmuntatu egiten dugu

Prestakuntza-prozesu, topaketa, tailer, guk era kolektiboan ekiteari egindako kritika eta sendatzeko espazioen bitartez egiten dugu. Deseraiki eta desmuntatu ahal izateko, alde aurretik bistaratu, desnaturalizatu, desikasi eta historizatu egin behar da.


Bistaratzea historian emakumeen ekintzak, ekarpenak eta bizitzak izan direla argitara eta ezagutzera ematea da, euren egunerokotasunetik, eta gure mugimenduentzat eta emakumeentzat erreferente historiko gabezia seinlatu eta konpontzeko balio du.

Feminismoak, teoria kritiko moduan, helburutzat du ikusgarri bihurtzea, “armairutik ateratzea”, eta susmoaren-zalantzaren printzipioan oinarritzen da. Horretarako, alboratzea eta bidegabekeria dokumentatzeaz baliatzen da; emakumeen ezagutzak, jakintzak, baloreak eta produkzio-formak ateratzen ditu argitara, eta baita produkzioan eta erreprodukzioan, estetikan, kontzeptu filosofikoetan duten parte hartzea nahiz euren gorputzei eta sexualitateei gertatzen zaiena ere; munduari buruz dituzten ikuskera eta iritzi politikoak; ezagutu gabe, alde batera utzita, isilarazita edo ezabatuta utzitako emakumeen ekarpen ekonomikoak, materialak eta sinbolikoak, sorkuntza artistikoak eta izatearen eta egitearen adierazpenak.

Emakume partikularren artean subjektu moduan dauden kontraesanak, desadostasunak eta hausturak eta emakumeei buruz eraikitzen diren estereotipoak erakustea.

Grafikoak dira beste tresna bat, askotariko menderakuntza-sistema deitu duguna bistaratzea da: sistemak hierarkizatu egiten ditu pertsonak, hainbat

markaren arabera, justifikatuz haietako batzuk menderatzea eta zapaltzea eta besteak nagusi izatea. Horrenbestean, hierarkiaren tontorrean daudenak dira produkzio-bitartekoen jabe.



Iturria: Geuk egina.

5.2.4. Gorputzaren memoria

Gorputzaren memoria eraikitzea maila pertsonaleko jardura politikoa da, eta sistema desmuntatzeko lanean lagun dezake. María Jose Rosalesek honako hau esan digu¹³:

“Gorputzaren memoria eraikitzea gure birramona, amona, ama, ahizpa eta alaben historiatik geure burua ikustea da, eta lotzen ditugun harreman-motak ulertzeko geure burua testuinguru politikoetan kokatzea. Gure gorputzak ebakiondo, min, sare eta sentimenduz marraztea da; beste forma batzuk eraikitzeko ulermena, erresistentzia eta gogoia duzun egoera batean sartzea da, beste interpretazio esparru batzuetan, beste harreman batzuetan, beste gorputz batzuetan. Ez da irakurtzen dena bezain sinplea, ekintzak gauzatu behar dira etengabe, nola banakakoak, hala kolektiboak, gogoeta, irakurketa

13 Rosales Solano, Maria Jose. “Reflexionar para sentir el cuerpo” hemen: *la Cuerda* 145. zk. *Memoria, construcción social del recuerdo*. Guatemala, 2011ko ekaina.

eta sormenezkoak; praktikan jartzeko atzera egin behar da, itzuli, aldamenetara jo eta berriz itzuli”.

Gorputzaz ari denean, “sexualitatea materia bihurtzeaz ari da, materia horrekin bizi baikara planeta honetan, horrekin bizi eta sentitzen dugulako”. Gorputza/sexualitatea emozio, sentimendu, jakintza, energia, funtzionatzeko egitura, kimika eta mugimenduz osatuta dago, eta gizartean eraikitzen da. Norberak bizitakoa eta norberaren inguruan daudenek bizitakoa ulertzea, interpretatzea, berrirakurtzea eta argitzea, bai komunitatean, bai nazioan, eta baita munduko beste leku batzuetan ere: historia ibiliz egitea da.

5.3. Indar politikoa metatzea

Beste feminista batzuekin eta beste gizarte-mugimendu batzuekin eraikitzen

Emakumeak subjektu politiko¹⁴ edo feminista¹⁵ moduan hezurramitzeko mugimendua eraiki edo indartzearen esparruan egiten da hori. Emakumeok gure artean, beste mugimenduekin eta iritzi publikoaren aurrean gure iritzi politikoa bistaratzea ahalbidetzen diguten ekintzak eransten dira hemen. Aliantza Politikoko emakumeen sektoreak egin dituen gogoetek dakarte indar politikoa metatzeak eskatzen duenaren definizioa: a) gu geu eraldatzea; b) beste emakume batzuekin aliantza prozesuak sortzea, arrazakeria, misoginia eta barneratutako zapalkuntza aztertuz eta besteak itunak egiteko subjektutzat hartuz; c) mugimenduaren barruan organikotasuna eta aliantzak sendotzea; d) organikotasun propioa izatea, eta aliantzen bitartez indarra metatzea, erdigunea gizakia natura-zati bezala indartzean jarriko duen emantzipazioko proiektu politikoa definitu, erein, bultza eta osatzea; e) pertsonala eta soziala politiko eta borroka-eremuko eduki bihurtzea da; eta f) gure artean itunak eta elkarren aitortzak eraikitzea, horrek beste gizarte-mugimendu batzuen erreferente bihurtzea bultzatzen baitu.

Sareak eraikitzen eta jokatzeko ari garen modua analizatu eta balioztatzeko, gure topaketetan eskuarki guneak eskaintzen ditugu, eginkizun hauetarako:

14 Aliantza Politikoko emakumeen sektoretik une honetan proposamen feministak sustatzen ari diren subjektu moduan izendatzen dira emakumeak, inspirazio politiko-ideologikoko jatorrien aniztasuna aitortuz, eta baita esperientzia, bizipen, historia eta proposamenen aniztasuna ere, sistemak bakoitza kokatu duen lekutik abiatuta.

15 La Cuerda elkarte feministarentzat, subjektua feminista da, proiektu-proposamenetik abiatuz izendatzea proposatzen duelako, eta ez proposamen hori sustatzen duenari sistemak eman dion izendapenetik.

- Emakumeen borrokak historikoki berreskuratzeko, gure aurrekoak identifikatu eta geure burua haien oinordekotzat aitortuz. Mugimendu baten partaidetzat kokatzen gaituen ekintza politikoa da, eta gure kontzientzian mugimenduaren dimentsio historikoa kokatzen laguntzen du.
- Egunerokoan garrantzitsua da gauzatutako eta testuinguruan kokatutako ekintzailera politikoa sistematizatzeko ariketa kolektiboak egitea. Gauzatutako ekintzak zenbatzea, horrek mugitzen gaituzten emantzipazio-ametsak lortzeko nola laguntzen digun balioztatuz.
- Beste alde batetik, mugimenduan eraikitakoaren bildumak egin ditugu balorazio kritiko bat egiteko eta prozesua jarraitu ahal izateko -proposamenak, tresnak, pentsamenduak- dagokiona doitzeko.
- Lortutako indarrak metatzearen -hainbat dimentsio dituzten aliantzak, emakumeon artean eta besteekin- eta haien jarraipena egiteko erabakiak hartzeari buruzko balorazio politikoa.
- Kokapen egokitik, testuingurua eta mugimenduan dauden indar politikoak etengabe analizatzea.

Kapitulu honen sarrerako atalean adierazi genuen legez, prestakuntza epe ertain eta luzeko eraikitze-prozesuan txertatzen da. Prozesu horretan, beste gizarte-mugimendu batzuekin batera pentsamendua eta proposamenak eraikitze topaketak tartekatu ditu. 2012ko azaroaren 20an eta 21ean egindako topaketa batean hasi zen prozesu bat, Aliantza Feministako partaideen eta Nekazarien Mahai Indigenako gizon-emakumeen parte hartzearekin, Ongi Bizitzearen kontzeptua taldean eraikitze hurbiltzeko helburuarekin, ekintza bateratuak egiten lagun dezakeelako ustean.

Denok elkartuta, lehenik eta behin gure proposamenetan bistaratzen ditugun helburuak, printzipioak, kontzeptuak eta subjektuak partekatu genituen instantzietako ordezkariok. Gero, antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatu genituen partekatutako elementu guztietan, eta bi instantziek aurkeztutako alderdietan sakontzeko eztabaida-agenda bat definitzera jo genuen.

Ideiak eztabaidatzen zentratzeko helburuarekin, joko-arauak eraiki genituen eztabaidan, ulertzen ez ziren ideiak argitzeko eskatuz, beste era batera adieraziz, pertsonak ez deskalifikatuz haiek egindako proposamenengatik eta izan zitzaketen zalantzengatik. Bereziki azpimarratu zen gizonen proposamen feministen zentzua eta garrantziaren inguruan guk haiek “ar

edo matxistatza” hartzeko beldurrik gabe galderak egin ahal izateko aukera; horrez gain, beste hainbestean nabarmendu zen emakume mestizoak garenok kosmobisio maiaren edukiak eta garrantzia ez ezagutzeagatik arrazistatza hartu gintzaten beldurrik jasan gabe gure gogoetak egin ahal izateko aukera ere.

Zenbait bilera egin ziren modalitate horren barruan, modu kolektiboan eraiki zenaren lehenengo zirriborroa esku artean izan bitartean.

Gogoeten eta pentsamendua elkarrekin eraikitzearen adibide bezala, Nuevo B´aktun Bateratzea esperientzia kokatu genuen, beste batzuekin batera: erakunde indigena mistoetako eta Aliantza feminista osatzen duten erakundeetako ordezkariak parte hartzen duten gune kolektiboa da. Espazio horren baitan, topaketak eta ekintza publikoak egin izan dira; ia bi urtez proposamen politikoari eta errealitatearen analisiari buruz dauzkagun ikuspuntu bateratuak eta desberdinak identifikatzeko espazioak ireki ditugu. Espazio horiek badituzte aurreiritzi eta ezagutzarik gabeko espazioak, sexismoak eta arrazakeriak alderik alde zeharkatzen dituela badakite, eta elkarrizketa eta konfiantza dira mahaiaren gainean zalantzak eta desadostasunak planteatzeko jarrira dauden elementuetako batzuk.

6. Ikasitako lezioak eta etorkizunean aurkitzeko bideak

Prozesua: bertaratzeko uneak eta eguneroko bizitza. Prestakuntza prozesu iraunkorra eta kontzientea da, eta lehenagoko kapituluetan planteatutako Herri Hezkuntza Feministaren ildoan bultzatzen dugu. Tailerra, topaketa edo bilera bertaratzeko uneak dira, kolektiboak, sintesikoak. Errealitateak aurrez aurre jartzen dira haietan, desafioak identifikatzen dira eta ideia berriak sortzen dira emantzipazioa, Ongi Bizitza eta ongizatea eskuratzeko bidean aurrera egiteko. Susmoa, aurkitzea, ulertzea, deseraikitzea, desmuntatzea eta eraikitzea konbinatzen dituzte praktikatu eta proposatzen diren bizi-metodologia praktikoa bezala. Oraindik orain indarraldian den gure proposamen politikoa lortu ahal izateko, identifikatutako ezagutza-beharrei erantzuten die pentsamendu politiko garatuak.

Metodologiari buruzko gogoeta laburrak beste herri hezkuntza posible honetan¹⁶. Herri hezkuntzak baieztatzen du ezagutzaren produkzio kolektiboko prozesuetan hiru une igaro behar izaten direla: praktikatik abiatzea, praktikari buruz teorizatzea eta praktikara itzultzea, hura eraldatzeko.

Ezinbestekoa iruditzen zaigu adieraztea Herri Hezkuntza Feministak “zertarako eta zerekin botereak” gauzatuz hazi ahal izan gaitezen eta “zeren gaineko botereak” adieraztean ere hazteko aukera izatearen alde egiten duela apustu. Horretarako, pentsamendu, sormen eta ekintza mailan autonomia piztu behar da parte-hartzaileen artean.

Parte hartzen dugun emakume guztion artean, baita herri-hezitzaileek ere, elkarri pentsatzeko gaitasuna eta ortodoxia baten formarekin aurkezten zaigun edozein baieztapen zalantzan jartzeko gaitasuna piztea da kontua.

Hori lortzeko, ezagutzaren askotariko paradigmatik analizatu eta ulertu behar ditugu, eta teoriak hautatu, teoria horiek errealitateak ikusteko, ulertzeko eta interpretatzeko formak baitira.

Gainera, garrantzitsua da adieraztea dagoeneko denbora asko joan dela konturatu ginenetik teorizazioak ez duela zerikusirik kausak eta efektuak bilatzearekin, ez baitigu lagunduko bizi ditugun egoeren artean dauden loturak hautematen eta, batik bat, aldatzen.

Bestalde, kontua ez da kontraesanak identifikatzea bakarrik, haiek areagotuz historia aldatzeko itxaropenarekin; izan ere, horrek ez du balio izan bere horretan gure munduan baztertutako gehiengo handientzat, eta are gutxiago balioko du emakumeontzat, sarritan ez baikaituzte hartzen ezta bestelako besteren moduan ere. Azkenik, esan beharra dago etengabe teorizatzen dugula, etengabe praktikatzen dugun bezalaxe.

Praktikara hura eraldatzeko itzultzea herri hezkuntzaren nahitasun politikoaren dimentsio oso garrantzitsu bat azpimarratzeko modua da, zapalkuntzak deseraikitze eta matxinatzeak eta askatzeak berreraikitze balio duelako. Herri hezkuntzako prozesuetan, gauza ditzakegun ekintza konketuak aurkitzeari eskaintzen diogu tarte bat, eraldatzea bideratzen hasteko. Horrez

16 Torres, Ana Felicia. Módulo 6: *Metodología de Educación Popular Feminista*. Escuela Política Feminista. Alianza entre Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Peten – Ixqik y Alianza Política Sector de Mujeres. La Otra Cooperativa/La Trilla argitaletxea, Guatemala, 2010.

gain, esan beharra dago kritikoki pentsatzen hasten garen unean egin daitezkeen aldaketak bistartzen hasten garela, egiten dugunean, pentsatzen dugunean eta egin eta pentsatzen dugun testuinguruetan. Horregatik, malgutasun pedagogikoa eta giza-sentsibilitatea izan beharra dago tunelaren bukaeran dauden argi horiek agertzen diren unean bertan ikusteko, eta ez diseinu metodologikoetan horretarako berariaz bideratutako aldietan bakarrik.

Begiradak barrutik. HHFko eskolaren azkeneko moduluan, bideratzaileek osatutako gida metodologikoak ikuskatu zituzten parte-hartzaileek, eta bizi izandako esperientziarekin kontrastatu zituzten gero. Euren burua eskolako moduluetakoa edukien etorkizuneko bideratzaile moduan agertuz, aldaketak proposatu zituzten diseinuetan eta gaien ibilbideetan. Kolektiboari egokiak iruditu zitzaizkion iradokizunak aintzat hartu ziren diseinu metodologikoen bukaerako bertsioan, eta proposatutako ibilbide guztiak erantsi ziren.

Eztabaida-agenda era kolektiboan eraikitzeak aliantzak uztartzeko inplikazioa eskaintzen du. Halaber, hainbat emakumek topaketaren diseinu metodologikoa definitzean parte hartu izana begirada desberdinak eranstea ahalbidetzen duen praktika da. Iruditzen zaigu prozesu horiek bideratzea mugimendua eraikitzearen aldeko apustua egiten dutenen ardura kolektiboa izan behar duela.

Topaketa, emantzipaziorako oasia. Garrantzitsua izan zen prestakuntza-prozesua zabaldu eta irekitzea. Elkarrekin topo egiteko metodologiak ikasteko aukera handiagoak ematen dituen bezala, egokia da joan nahi dutenei espazioa irekitzea eta haiek betebeharrak ez hartzea. Eskolako metodologiaren zurruntasuna ez zen emantzipazio-ildokoa izan, baina materialak eta edukiak bai. Topaketek hobeto funtzionatu zuten, askatasuna dutelako gakoetako bat.

Lau urtean zehar mantendutako prozesua izan da, eta informazio-agenda kolektibitatean erabakitzea eta sistematizazio hau egiten ari garen unera arte denboran hari jarraipena egitea izan du aipatzeko ezaugarri. Bakoitzak zegokion erantzukizuna onartu du hausturak eta egin beharreko eraldaketak identifikatzetik hasita.

Topatzeak hitz egiteko espazioa ematen digu, geure burua adierazi ahal izateko. Hazten lagundu digu, geure buruan segurtasuna gureganatzen. Motibazioa, testuingurua, erakundeetako erabakiak eta behar pertsonalak lotzen dizkio elkarri. Hitz egiteko denbora izan dugu, gogoeta pertsonalerako. Intentsitate handiko uneak prozesu iraunkorretan. Topaketetan gure artean hurbiltzea

sustatzen da. Besteak euren antolakuntza-alderdietan ezagutzea ahalbidetzen du; besteak ez zutela ulertuko pentsatzea aldarazi zigun guri.

“Bazterkeriazko bizi-esperientzia dugu, eta besteekin egoteko espazio batera zu gonbidatzea bera, zu balioestea, zuri janaria ematea, ostatua, ez epaitzea eta pertsona ezezagunak ezagutzea oso garrantzitsua da. Balorazio pertsonala eragiten du emakume kideengan, eragin positiboa du euren duintasuna eskuratzeko prozesuan. Horri esker, desberdin itzultzen dira, ideia berriekin eta desberdin sentituz. Horrek eragiten du guk elkar ezagutzea, eta horri esker garrantzitsua zarela sentitzen duzu”.

Beste alde batetik, elkarrekin lo egitea ere garrantzitsua izan da; bizitza eta sexu-esperientziak partekatzeko uneak dira, elkarri masajeak eginez, medikuntza naturaleko praktikak partekatuz, beste emakumeen ezagutzak balioztatzea eragiten duen ezagutza partekatzen da. Logeletan bukatzen da topaketa. Han ateratzen dira eguneko azken ondorioak.

Halaber, bultzatutako prestakuntzako topaketa eta prozesuek askotariko feminismoen aukera ireki zuten herrialde honetan, eta askotariko identitate politiko feministak sendotu zituen.

Markatu gintuzten edukiak. Sexualitatea eskolan eta topaketetan jorratzea eta zapalkuntza-sistemekin duen artikulazioa argigarriak izan ziren sistema ulertzeko eta gure bizitza pertsonala eraldatzeak gizartea eraldatzearekin duen loturarako. Antolakuntza sozial eta politiko berrirako gure proposamenak analizatzean, izendatutako funtzio soziala nahasten duen ezagutzara hurbildu ahal izan ginen. Ikusi ahal izan genuen esparru guztietan gertatutako hausturak bakarrik direla nahitaezkoak. Ekonomia eta bizitzako zaintza-sarea bizitzeko modu berri bat analizatzean aurrean jarri zitzaigun desafioak erakutsi zigun ez dela elikadura-soberaniarik izango baldin eta zaintza-lanak lagatzen ez baditugu.

Sendotzen gaituzten teknikak. Jarraian, gure ustez garrantzitsuak diren tailer eta topaketetan jorratutako edukiak errazago ulertzeko teknikak aipatuko ditugu:

- Taldeen barruan irakurtzea eta testuak taldean ulertzeak era askotako emakumeen artean partekatzeko aukera irekitzen du. Alde teorikoa bizitakoarekin konbinatzeak indartu egiten ditu era askotako emakumeen arteko harremanak eta akademiarekin lotutako emakumeen inguruko

aurreiritzia ezabatzen du; horrez gain, era askotako jakintzak elkarrekin trukatzea ahalbidetzen du, gure bizitzetako etapa eta esparru guztietan bultzatu dugun haustura-esperientzietatik abiatuta.

- Emakumeen eguneroko esperientziak berreskuratzeak, emakumeen hitza, historia eta esperientziak balioetsiz gure burua osotasun baten atal moduan ikus dezakegu, ereduari aurre egin dion antzinako borroka baten zati bezala.
- Testigantza tresna baliotsua da. Parte-hartzaileen beraien esperientziak analizatu ditugu eta aplikatzeko ikasgairik garrantzitsuenak identifikatu.
- Metatze-eztabaida izan zen teknika interesgarri bat: guztiok egin genuen prozesu osoa; horrek lagundu zigun begirada kolektiboak izaten, alde batetik, pentsamendua atomizatzen ez dutenak, eta bestetik, pentsamendu kolektiboa eraikitzen dutenak.
- Autolaguntza sustatzen duten dinamikekin, orain ikus dezakegu nola haietako asko desberdin janzten diren, norberak bere burua hobeto zaintzen duela ikusten da, beste aldarte bat daukatelako.
- Sormena itzultzeko dinamikak beste emakumeen artea, sormena ezagutzea ahalbidetu digu, eta emakume gazte gehiagok parte hartu ahal izateko aukera sortzen du.

Geure burua indartzeko bideak. Gure desafioetako bat da diseinu metodologikoetan fisikoki mugituko gaituzten dinamika gehiago eranstea, eta baita emozionalki mugiaraziko gaituen beste teknika mota bat sortzea ere. Gure topaketetan aplikatzeko teknika berrien proposamenak identifikatu ziren; hona hemen horietako batzuk:

- Jolasa eta atsedenaren arteko nahasketa indartu behar da, artea sustatuz, hala nola oihaletan margotzea edota beste sortze-jarduera batzuk.
- Topaketak alderdi emozionala, bizipena, alde subjektiboa lantzeko unea izan beharko lirakeke.
- Ezinbestekoa iruditzen zaigu metodologian elkarrizketa irekien aurrean itxiera emozionalak kontuan hartzea. Bultzatutako prozesuetan, bideratzaileak ez zeuden prestatuta begirada berri horiek sor zezaketen mina tratatzeko. Sendatu eta indarberritzeko pixkanakako prozesuak erantsi behar dira, izan ere, ondorioetako baten arabera, era batera edo bestera, emakume guztiok izan gara sexu indarkeriaren biktimak; landutako edozein analisi-esparru eta arazotan azaldu da, eta esparru horiekin lotuta dago.

- Emozioen hari subjektiboak indartzea sistematizatuak izateko esperientzia bezala; ezagutzak eta proposamenak atera ditzakegu haietatik.
- Metodologiak eta teknikak garatzea eta doitzea gure analisi eta proposamenetan sexualitatea, natura eta ekonomia gogoan sarriago izan ditzagun eta batak eta besteen artean dagoen lotura bistarazteko eta loturaren bitartekari izateko aukera eman diezaguten.
- Beharrezkoa da emakumeak agertzen diren lekuaren izena adieraztea ahalbidetzen duten teknikak eraikitzea, euren burua prozesuetako subjektu gisa agertzeko modu bezala.
- Zintzilik dagoen beste alderdi bat zentzua ematen diguten esaldiak sistematizatzea da, kontsigna bihurtzen direnak edo gure zentzunean edo sentimenduetan deseraikitzekeko elementu.
- Txertatzeko gelditu zen teknika bat “Emakumeen egunerokoa” da; topaketetatik irteten garenean geure buruari egiten dizkiogun galderen erregistroa egitea zuen helburu, eta baita geure buruari ematen dizkiogun erantzun posibleena ere, gainerako parte-hartzaileekin partekatu ahal izateko. Horrek jakintzak eta lurralde guztietan banaka eta antolamendu mailan osatzen dugun gogoeta-prozesua ikusarazteko zentzu politikoa du.

Desafio politiko-metodologikoak. Hain desberdinak diren emakumeen artean zubiak garatzeko beharra daukagu, aniztasunak eta desberdintasunak ikasteko iturri bezala kokatzeko eta iraunarazi, baztertu eta eraiki behar ditugun alderdiak identifikatzeko, bihur daitezen pentsamendua ekoizteko eta ekintzarako aberastasun.

Eguneroko bizitza, behar material eta konketuak oso presente daude gu guztiongan; horregatik, epe labur, ertain eta luzean jarraitzeko bideak eta horien eta gure gizarte proposamenaren arteko harremana pentsatu eta definitzea etengabeko desafio metodologikoa da guretzat.

Idea eta praktika patriarkalak, kolonizatzaileak eta arrazistak desikasteko formak aurkitu eta garatzea, alternatiboa den guztia modu sistematikoago eta sortzaileagoan bistaraztearekin batera, beharrezkoa da gizarte-mugimendu bezala gu indartzeko.

Garrantzitsua iruditzen zaigu gure prestakuntza prozesuen bitartez sendatzen gaituzten metodoak, jarduerak eta uneak elkarri lotzea, sistema patriarkalak esleitzen digun lekua gaindituta.

Formetan sakontzea falta da alternatiboa dena eredu ekonomiko berri, bideragarri eta eskuragarria bihur dadin gizarte osoarentzat. Mugimenduak ekintza egokiak, sendotu beharrekoak eta abar analizatzea ahalbidetuko dion tresna politiko bat nola eraikiko duen finkatu beharra dago.

Beharrezko eta atzeraezinezko eztabaidak. Mugimendu feminista osoari buruzko eztabaida zintzilik dagoela sumatzen da. Hainbat begirada daude mugimendua eraikitzeko feministek izan duten parte hartzearen inguruan; izan ere, kasurik gehienetan banan-banan egiten da, eta kolektibo feminista gutxi daude. Horrek nabarmendu egiten du prestakuntza prozesuek emakumeen mugimendua indartzen dutela, gutako askok feminismoa jarrera politikotzat hartzea ahalbidetuz.

Botereak nola zeharkatu gintuen hitz eginez aztertzea eskatzen da, norbait feministatzat izendatzeko eta guk geure burua halakotzat aitortu ahal izateko jarraitu beharreko ibilbideari buruzko ikuskera desberdinak daudelako. Feminismoari buruz emakumeen mugimenduan dagoen ezjakintasun horrek arbuioa eragiten du identitate politikoa aitortzean eta norbere burua feministatzat izendatzean.

Aliantzak eta proposamen politikoa sakontzeko eginkizunean zintzilik gelditzen da mestizajeari buruz sakontzea eta, halaber, gure prestakuntza prozesuetan antolatze-ereduetan finkatuta dauden hierarkiak desmuntatzeko gakoak aurkitzea. Horrek beste zerbait pentsatzera garamatza: zer egin dezakegu gutako beste batzuek hierarkiak desegiteko beldurra gainditzeko eta eginkizun hori gure gain hartzeko? Gure artean boterearen inguruko gaia sakon aztertzea eskatzen du horrek, bideratzaile edo lider gisa izendatutako figurak ezarritako hierarkiak haustera eramango gaituzten bideak identifikatzeko, batzuetan urratsak atzeraka emanez, eraikita dauden ziurtasun gabeziek eraginda.

Sexualitateari buruzko topaketak kezka asko utzi zituen zabalik; haietan sakondu beharra dago deseraikitze bideak eta sexualitate berri baterako proposamena doitzen jarraitu ahal izateko.

Sistematizazioa bukatzeko, garrantzitsua da adieraztea prestakuntza bukatu gabeko prozesua dela eta Aliantza osatzen duten instantzietarako lehentasunezko ekintza-ildoak; izan ere, gure pentsamendua, proposamen politikoa eta gure ekinbide politiko eraldatzailea elikatzen baitituzte.

Bibliografia

- Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Petén Ixqik, Alianza Política Sector de Mujeres. *Introducción. Diseño curricular y metodológico. Escuela Política Feminista*. Guatemala, La Otra Cooperativa/ Editorial La Trilla, 2010.
- Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Petén Ixqik, Alianza Política Sector de Mujeres. *Educación Popular Feminista. Formación feminista para la transformación social emancipadora*. Guatemala, La Otra Cooperativa/ Editorial La Trilla, 2013.
- Castañeda Salgado, Martha Patricia. *Metodología de la investigación feminista*. Centro de Investigaciones Interdisciplinarias en Ciencias y Humanidades – CEIIHC- de la Universidad Autónoma de México –UNAM- Mexiko Hiria, eta Fundación Guatemala. Guatemala, 2008.
- Northrup, Christiane. *Cuerpo de mujer, sabiduría de mujer. Una guía para la salud física y emocional*. España: Ediciones Urano. 1999.
- Rosales Solano, María José. “Reflexionar para sentir el cuerpo”, hemen: *La Cuerda* 145. zk.a *Memoria, construcción social del recuerdo*. Guatemala, 2011ko ekaina.
- Torres, Ana Felicia. *Módulo 6: Metodología de Educación Popular Feminista. Escuela Política Feminista*. Alianza entre Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Petén – Ixqik y Alianza Política. Guatemala, La Otra Cooperativa/Editorial La Trilla, 2010.

Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduaren Florestan Fernandes Eskola Nazionaleko ikastaro latinoamerikarrak

Beatriz Casado Baides*
Judite Stronzake**

* Antropologoa, Hegoa institutuko doktoretza programako ikaslea (UPV/EHU), partaide da Hegoa institutuko Kooperazio Kritikoaren eta Gizarte Mugimenduen ikerketa taldean eta Brasilen Brasiliako unibertsitateko Produkzio-Moduen eta Antagonismo Sozialen ikerketa taldean (MPAS).

** MST eta LVCeko militantea, Lurraren Pedagogian graduatua, Latinoamerikar Integrazioaren Zientzietan masterra eta Nekazaritzako Ikasketa Sozialetan doktoregai. Ikastaro Latinoamerikarrak eta ENFFeko Ikastaroak osatzen laguntzen aritu da 2000. urtetik eta MSTeren hainbat eskolatan Brasil osoan. Nazioarte mailan, LVC-Hegoamerikako Hezkuntza eta Prestakuntza Politikoko Batzordean parte hartu du, 2008tik gaur egunera arte nekazariak prestatzeko eskolak eraikitzeko prozesuetan lagunduz Argentina, Paraguai, Ekuador, Venezuela, Bolivia, Honduras eta Haitin. Hegoako Kooperazio Kritikoaren eta Gizarte Mugimenduen ikerketa taldean eta Brasiliako unibertsitateko (UnB) Produkzio-Moduen eta Antagonismo Sozialen ikerketa taldean (MPAS) parte hartzen du.

Sarrera

Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduaren (aurrerantzean, MST) Florestan Fernandes Eskola Nazionala (hemendik aurrera, ENFF) 2005ean inauguratu zuten, autonomia politikoa, pedagogikoa eta ekonomikoarekin auto-antolatutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuan lagun zezan. Sortu zenetik, laguntza handia eman du MSTko eta Latinoamerikako ehunka herri-mugimendu sozialetako militanteen prestakuntza politikoan; horretarako ikastaro propioak eskaini izan ditu eta baita Brasilgo hainbat unibertsitatekin lankidetzan antolatutako ikastaro formalak, mintegiak, hitzaldiak, jardunaldiak eta La Vía Campesinako (aurrerantzean, LVC) eta ALBAren aldeko (aurrerantzean, ALBA) Mugimendu Sozialen Artikulazio Kontinentaleko eskualde-batzarrak ere, besteak beste.

ENFFen garatzen diren ikastaro guztien artean, sistematizazio honetan haietako bi aztertuko ditugu: ENFFeko Ikastaro Latino izenez ezagutzen direnak, hain zuzen ere. Teoria Politiko Latinoamerikarreko Ikastaroa (aurrerantzean, TPL/ENFF) eta Trebatzaile Latinoamerikarren Prestakuntzako Ikastaroa (aurrerantzean, FF/ENFF) dira, biak ere Latinoamerikako herri-mugimendu sozialetako liderrentzat bideratutakoak. Eskolaren proposamen metodologikoak, bi Ikastaro horien bitartez, inspirazio pedagogikoa eta metodologikoa ekarri du, gehienbat LVC eta ALBA osatzen dituzten erakundeen prestakuntza politikoetarako.

Esperientzien sistematizazioa, guk ulertzen dugunaren arabera, “esperientziei buruz ikaskuntza kritikoak lortzea” ahalbidetzen duen ikerketa sozialeko metodologia da (Jara, 2006:3), haiek hobetu eta ikasitakoa partekatzeko aukera eskainiz, esperientzietako subjektuen jakintzak balioztatu ahal izateko. Premisa horretatik abiatuta, aurre egin diogu ENFFeko Ikastaro Latinoetako 8 urteko esperientzia sistematizatzeke erronkari, Eskolarentzat berarentzat eta sistematizazio prozesuan parte hartu duten guztientzat erabilgarri izan daitezkeen ikaskuntzak lortzeko -bai euren mugez eta baita euren aurrerapausoez ere-. Baina aipatutako ikaskuntzak beste leku batzuetan prestakuntza politikoko prozesuak eraikitzen dituzten herri-erakunde, mugimendu eta kolektiboekin ere partekatu nahi ditugu.

Horren harira, *turma*¹ bakoitzeko Sistematizazio eta Memoria taldeek urtero egin duten ahalegin kolektiboari balioa eta aitortza eman nahi diogu. Izan ere, lan kolektibo horri esker daukagu Ikastaroen edizio bakoitzeko esperientziaren idatzizko eta ikus-entzunezko erregistro zabala, bizi izandako prozesuari buruzko ebaluazio eta kritika kolektiboekin. Esperientziari buruzko erregistro horiek guztiak eskura izatea funtsezkoa izan da orain sistematizazio hau egin ahal izateko. Horrez gain, azpimarratu beharra dugu prozesua bizitzen ari ziren bitartean prozesuari berari buruz gogoeta kritikoko ariketak egitea onartu duen jende askoren inplikazioa, gogoia, konpromisoa, denbora eta energia; identifikatzen ahaleginduz nola mugak eta zailtasunak, hala ongi eginak eta indar-guneak, bai ENFFeko Koordinazio Politiko Pedagogikotik (KPP), eta baita elkarlanean aritu diren irakasle eta ikasleen aldetik ere. Aztertutako erregistroek eta egindako elkarrizketa eta taldeko saioek denbora tarte luzea hartu zuten, sistematizazio prozesu honek bat egiten duelako 2012tik² gutako bakoitza ordurako egiten ari ginen ENFFeko Ikastaro Latinoei buruzko bi ikerketa prozesurekin; ENFFeko Nukleo Latinoamerikarra Koordinatzeko Kolektiboaren beharrekin bat egin zuten eginkizun kolektiboak ziren³.

Zaila da ENFF eta Ikastaro Latinoen proposamen pedagogikoa ulertzea MSTeren borroka-esperientzia ezagutu gabe. Hori dela eta, ENFFeren eraikitze-prozesuari eta horrek mugimenduaren historian izan duen teilakatzeari buruzko elementu batzuk labur-laburrean aurkezteari eskaini diogu lehenengo atala; izan ere, printzipio, helburu, dimentsio eta denbora pedagogiko bakoitzaren atzean, ENFFeren proposamen pedagogikoa osatzen duen elementu bakoitzaren atzean, MSTeren historian eta borroka-esperientzian sustraitutako *zergatik* eta *zertarako* galdera bana baitago. Bigarren atalean, ENFFeko Ikastaro Latinoak aurkeztuko ditugu, euren aurrekari historikoak, gidatzen dituen egitura eta metodologia pedagogikoa, eta baita garatutako zortzi edizioen balantze labur bat ere. ENFFeko Ikastaro Latinoetako aurrerapausoen, mugen eta desfazioen balorazioarekin itxiko dugu kapitulua.

1 *Turma* ikasturte bateko promozioaren baliokidea da, baina nahiago dugu portugesezko hitza erabiltzea testu osoan.

2 Leku mugatua daukagunez, testu honetan sistematizazio-prozesuan zehar jasotako informazioaren eta gogoeten zati bat bakarrik aurkeztu dugu.

3 Sistematizazio prozesu hau batu egiten zaie MSTk eta ENFFek Eskolaren lehen hamarkadaren ondoren barne-azterketa baterako egiten ari diren ahalegin kolektiboak.

1. Florestan Fernandes Eskola Nazionala (ENFF)

“herri-pedagogia eta gizarte-mugimenduetako partaideen prestakuntzako esperientzia apartekoa da, auto-emantzipaziorako prestakuntza-espíritu kritikoarekin. Militante eta borrokalarien benetako hazitegia da Eskola”.

Michel Löwy

Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduak (MST), 30 urteko historian zehar, bere gain hartu izan ditu kideen hezkuntza eta prestakuntza politikoko prozesuak. Izan ere, iruditu izan zaio Lurra izateko eskubidearen alde borroka egitea bezain garrantzitsua dela maila guztietan hezkuntza izateko eskubidearen alde borrokatzea, haur hezkuntzatik hasi eta unibertsitatera bitartean⁴. Baina, aurretik izandako antolakuntza-prozesuak, prozesu politikoak eta herri-borrokak historian metatzeari esker, MSTek hasieratik jakin zuen bere antolamendua indartzeko eta zinez eraldatzailea izango zen borroka eraiki ahal izateko, maila guztietan hezkuntza publikoa izateko eskubidea aldarrikatzeaz gain, funtsezkoa zela militanteen prestakuntza politikoa eta giza-prestakuntzaren premietan arreta jartzea; betiere bere borrokaren errealitateari eta behar ideologiko eta antolakuntzakoei erantzungo liokeen prestakuntza politiko propioaren ikuskeratik. Honako hau adierazi zuen Mugimenduko Prestakuntza Sektoreko Adelar Pizetak⁵:

“MSTek prozesu iraunkor eta sistematiko moduan irudikatzen du prestakuntza, dinamikoa eta zabala, beti erakundearen estrategiari lotuta egon behar duena. Hau da, gizarteko indar multzo zabalagoarekin harremanak dituen Mugimenduaren estrategia eta helburuak argitzen eta finkatzen laguntzeko eginkizuna dagokio prestakuntzari. Ikuspuntu teoriko praktikotik epe motzeko desafioak eta helburuak epe luzeko desafio eta helburuetara hurbiltzearen bila aritzen da, modu artikulatuan, borroka politiko berberaren alderdi

4 Azken 30 urteetan MSTk eraiki izan ditu “kanpamentu eta kokalekuetan Lurrik gabeko 200.000 haur, gazte eta heldu baino gehiagok hezkuntza eskuratu ahal izatea bermatzen duten 2.000 eskola publiko baino gehiago. Eskola horietan erakusten duten hezitzaileetako asko Mugimenduak berak prestatu zituen, herrialde osoan alfabetatutako 50.000 gazte eta heldu inguru, eta gaur egun unibertsitate publikoekin lankidetzan antolatutako 100 graduazio-ikastaro baino gehiago daude”. (MST, 2014:4).

5 Testuan zehar, “Mugimendu” hitza erabili dugu MST adierazteko eta “mugimendu” hitza, hizki txikiz, errealitatearen mugimendua adierazteko.

bezala [...] pentsatzen dugu prestakuntza politikoa ez dela ekintza espontaneo eta borondatezko bat. Aitzitik, planifikatzea, prestatzea, nahi izatea eskatzen du, ez baita gertatzen baldin eta inork pentsatzen, antolatzen eta gauzatzen ez badu. Beharrezkoa da, beraz, erakundeek ekintza horiek bideratuko dituzten kolektiboak, espazioak eta egiturak sortzea”. (Pizetta, 2014:15-16).

Horrenbestean, Florestan Fernandes Eskola Nazionala⁶ MSTren egituraren eta prestakuntza politikoaren zatia da; Mugimenduko talde politikoak Prestatzeko Eskola da, hain zuzen. Mugimenduak lehenengo hamarkada bete zuenean (1994), “landako eta hiriko langileen erakundeen artean esperientziak aztertu, artikulatu eta trukatzeko prozesua indartzeko Eskola Nazionala eraikitzeko beharra agertzen hasi zen” (ENFF, 2005). 1996ko urtarrilean, Salvador de Bahian egindako MSTko VIII. Topaketa Nazionalean erabaki zen Eskola Nazionala eraikitzea. Ez da erraza ENFF adierazi edo definitzea, hori eraikitzeko prozesuak, bere izaerak, helburuek eta funtzioek hautsi egiten baitituzte orobat Eskolari buruzko ikuskera konbentzional eta hegemonikoak.

1. irudia. ENFFeko aireko bista



Iturria: ENFFeko artxiboa.

6 Eskolak Florestan Fernandes maisu eta soziologo brasildarraren izena dauka, MSTeren ustez hark langileen borrokarekiko koherentziaz osatu zuen bizi-ibilbide nekaezinak merezi duen miresmena eta aitortzagatik.

Sortu zenetik elkartasun internazionalistaren izaera indartsua eta dimentsio kolektibo kementsua izan ditu ezaugarri. Eraikitzeko prozesuari ekiteko dirufuntsak MSTren lagunek mundu osoan “Terra”⁷ liburua saltzearekin hasitako kanpainaren bitartez eskuratu ziren. Kanpaina horretako baliabideekin, Brasilgo eta nazioarteko GKEen donazio ugariekin eta milaka lagun-en elkartasunarekin lortu ziren Guarareman (Sao Paulotik 70 km-ra) lursaila erosteko beharrezko baliabide ekonomikoak, eta bertan eraiki zuten Eskola Nazionalaren lehenengo egitura fisikoa.

Eraikitzeko prozesua bost urtez luzatu zen (2000-2005), eta Lurrik Gabeko mila nekazari baino gehiagoren borondatezko lanari esker egin ahal izan zen, borondatez lan egiteko eta etengabe ikasteko 25 brigadatan antolatuta⁸. “Borondatezko langileekin osatutako 25 brigadatan antolatuta, 112 kokaleku eta 230 kanpamentu ordezkatzeko zituzten 1.115 lagunek (927 gizon eta 188 emakume) egindako 12 mila lanordu inguru” izan ziren (Pizetta, 2009:25). Gaur egun, Eskolak aldibereko prestakuntza-jardueretan 630 lagun artatzeko gaitasuna dauka.

2. eta 3. irudiak. Ostatu-eraikinak eta ikasteko kioskoa (ezkerrean); eta 2015eko urtarrilean inauguratutako “Frida Kahlo” Arte-etxea (eskuinean)



Iturria. Argazki propioak.

7 Terra liburu-CDa osatzeko Jose Saramagoren testuak, Chico Buarqueren musika eta Sebastiao Salgadoren argazkiak erabili zituzten; hiru sortzaile horiek liburuko euren egile eskubideak MSTeri utzi zizkioten, horrekin diru-funtsak bildu zitezten eta Sao Pauloko Guarareman ENFFeren gune fisikoa eraikitzen hasi ahal izan zedin.

8 “Borondatezko lan-brigada” kontzeptuaren bitartez, MSTek izena eman zien estatu bakoitzak ENFF eraikitzen laguntzeko antolatu zituen kokaleku eta kanpamentuetako langile taldeei. Brigadak 60 egunehar aritzen ziren eraikitzeko lekuan; militante ugari Eskolako lan-espazioetan bisitakoa abiapuntutzat hartuta lortu zuten euren prestakuntza (Pizetta, 2007).

<p>1. taula. ENFF-EREN gaur egungo azpiegitura</p>
<p>Sukalde industrialia duen jantokia, 400 lagunek eserita jateko edukierarekin.</p>
<p>4 ostatu-erailkin, 300 laguntzako edukierarekin (200 oheetan eta 100 koltxoietan). Ostatu bakoitzean elkarbizitzarako eta ikasketa kolektiborako aretoa dago eta bainugela kolektiboak geletan.</p>
<p>Irakasleentzako ostatu bat (berritze-lanetan gaur egun).</p>
<p>Paper-denda eta fotokopiagailu bat.</p>
<p>Bloke pedagogikoa, honela osatuta: 3 gela-areto, 210 laguntzako edukiera dutenak; “Rosa Luxemburgo” auditoriuma-osoko bilkura gela, 200 laguntzako edukierarekin; 2 auditorium, “Pagu” (Patricia Galvan) eta “Patativa do Assare”, bakoitza 110 laguntzako edukierarekin; 2006an inaurgututako liburutegia, dohaintzan emandako 40.000 ale baino gehiagorekin; Internetera konexioa duen 15 laguntzat ekipatutako informatika-gela; Eskolako harrera eta idazkaritza orokorra izateko gela; konputagailuz hornitutako Eskolaren Koordinazio Politiko Pedagogikorako gela; 3 bilera-gela; ikus-entzunezkoen laborategia eta auditoriumetako eta gela-aretoetarako soinu- eta proiektzio-ekipamenduak.</p>
<p>“<i>Saci Pereré</i>”¹¹, <i>Haurren cirandaren</i> etxea, Oitik 6 urtera bitarteko 15-20 neska-mutilentzako edukierarekin.</p>
<p>“Frida Kahlo” Arte-etxea.</p>
<p>Hondakinak eta estolderiako urak tratatzeko gunea</p>
<p>Eskolako autokontsumorako nekazaritza eredu ekologikoaren arabera barazkiak eta fruitak landatzeko sailak.</p>
<p>Kirol-instalazioak: Futbol zelai bat eta estalitako saskibaloiko kantxa bat; bertan egiten dira jarduerarik jendetsuenak.</p>
<p>“Apolonio de Carvalho” brigada iraunkorreko kideen etxebizitza izateko eraikitako etxe batzuk.</p>
<p>Garbitegi bat, urtean 300 parte hartzaile inguru artatzeko ekipamendu industrialarekin.</p>

Zurez eta lastoz egindako 5 kiosko, Eskola-eremuan zehar barreiatuta, ikasteko eta bilerak egiteko eserleku eta mahaitekin.

Denda bat liburu eta material pedagogikoekin, nekazaritza-erreformako produktuekin eta MST eta VCko dibulgazioko materialarekin.

Hori guztia 120.000 m²-tan barreiatuta, bertako landare eta fruta-arbolen erreserba-eremuarekin (*Agrofloresta*), eta ibaia igarotzen da eremuan zehar.

Iturria: ENFFeren artxiboko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.

9 *Haurren Ciranda* kontzeptua ezin da beste hizkuntzetara itzuli. MSTean Haurren zirandaren esperientzia eta ikuskera Lurrik Gabeko emakumeek ikastaro, mintegi, batzar eta topaketetan parte hartzea bideratzeko beharretik sortu zen, eta baita Mugimenduko kokaleku eta kanpamentuetan haurtzaroi buruz eztabaidatzeko beharretik ere.

4. irudia. ENFFeren 10. urteurreneko ospakizuna (2015/01/24)



Iturria: Argazki propioa.

ENFFek 10 urte bete ditu 2015eko urtarrilean, eta esan dezakegu 10 urte daramatzala “eraikitze-aldian”, ENFFeko Politika Pedagogikoko Djacirak elkarrizketa batean nabarmendu zuen bezala:

“Zenbait zentzutan eraikitzen ari den Eskola dela ulertzen eta esaten dugu guk [...] ikuspegi filosofiko eta pedagogikotik, ulertzen baitugu ezagutza, hezkuntza prozesuak eta gizarte-borroka etengabeko prozesuak direla. Ezagutza ez da gauzatutako zerbait, mugitzen ari den zerbait da, eta gure Eskola ere mugitzen ari da; Eskola irekia da, errealitatearekin eta mugimenduen esperientziekin ikasteko, eta baita mugimenduen praktika sozialarekin elkarrizketan aritzen lagunduko duten ezagutza ilustratuz jabetzeko ere [...] Badira ezagutza teknikoak, ezagutza zientifikoak, eta garrantzitsua da haiek gureganatzea, baina erabiltzen ditugunean, praktika errealean esango dugu egiaz ezagutza horiek garrantzitsuak diren ala ez, garapen iraunkorraren ikuspegitik aurrera egiteko helburuetarako laguntzen ote duten, ekonomian, politikan, gizartean, ekologian [...] Eraikitze-aldian gaude, beste arrazoi bategatik ere: mundu mailako nekazarien mugimenduetako borroka-testuinguruaren baitan, zein da ENFFek bere gain har dezakeen eginkizuna? Mugimenduetarako jendea prestatzen al dugun galdetzen du jendeak. Guri ezetz iruditzen zaigu, mugimenduak eurak direla hona etorri eta Eskolari prestakuntza ematen diotenak [...], laguntza ematen dugu esperientzia metodologikoa

daukagun Eskola garen heinean, baina printzipioak, curriculum eta beharrak hona ekartzen dituen mugimendu sozialen errealitatea da. Eta egituraren [fisikoaren] ikuspuntutik ere bada [eraikitzen ari den Eskola], izan ere, baldin eta jomugak, programak eta Ikastaroak zabaltzen hasten bagara, Eskolaren egitura ere zabaltzeko beharra baitugu”. (Djacira-KPP/ENFF, 2015:4).

Djaciraren gogoetan ENFFeren ikuskera eta jatorria transmititzeko ahalegintzen diren bi ezaugarri daude adierazita: alde batetik, Eskola ezin da ulertu ez bukatutako egitura fisiko bezala, ez eta mugatutako leku geografiko bezala ere; beste alde batetik, langile-klasearen borroka historikoen hainbat esperientziatik elikatuz etengabeko eraikitze kolektiboan gauzatzen ari den prozesu dinamiko eta dialektiko moduan ulertzen da Eskola. Horri esker, ENFF bertaratu egiten da, hainbat eratan eta leku desberdinetan adierazten da, Eskolako barne-dokumentuetan adierazita dagoen legez:

“[...] ENFF ekintza politiko eta hezitzaile-pedagogikoen multzoa da, eta ekintza horiek Mugimenduak antolatu eta gauzatutako jarduera-multzoan garatzen dira, gauzatzeko lekua eta unea edozein izanik ere. Jarduera horiek elkarlanean ere egin daitezke, Brasilen zein beste herrialdeetako hezkuntza eta prestakuntza zentroekin hitzarmenak eginda. [...] Une horretan prozesu dinamikoa da, dialektikoa, egunerokoa eraikitzen joaten dena, ulertuz prestakuntza dela Erakundeak garatu dezakeen ekintza bakarra”. (ENFF, 2012:1-2).

MSTk garatutako Prestakuntza Politikoko sistemaren baitan, Mugimendua non antolatu, hantxe eraikitzen dira prestakuntza eta hezkuntzako prozesuak. Gaur egun, estatu bakoitzean bada Mugimenduaren prestakuntza edo hezkuntza zentro bat, eta estatu batzuetan bat baino gehiago ere bai. Orain bertan, badira Guararemake egitura fisikora batutako hiru gune; Eskualdeko ENFF izenekoak dira¹⁰. ENFF Nazionala eta Eskualdeko ENFFeak dira sistema osoari orientazio metodologikoa emateko ardura dutenak. Koordinazio Politiko Pedagogikoa-ENFFeko Simone Pereirak honako hau adierazi zuen:

“Egitura horiek guztiak antolakuntza eta prestakuntza politikoa sendotzeko helburuarekin egindakoak dira, ideiak eztabaidatzearen bitartez desadostasunak berrikuntza eraikitzeko abagune bihurtuz.

10 Eskualdeko ENFFeak ipar-ekialdeko eskualdean kokatuta daude, Fortalezan (CE), erdialde-mendebaldeko eskualdean, Brasilian (DF) eta Amazonaseko eskualdean, Nekazaritza Ekologiko Latinoamerikarreko Institutuan (Amazonaseko IALA).

Eskualde mailan aritzen diren ENFFek jarduerak gauzatzeko eginkizuna ere badute, eskualde bakoitzean kapitalaren aurrerakadari ekinez, borroka eta erresistentzien historia erreskatatuz, programatutako Ikastaroak ildo estrategikoarekin, errealitate bakoitzeko dilema eta desafioekin elkarriketan aritu daitezzen [...]. Eskualdeetan eskolek euren eginkizuntzat hartzen dute oinarriko lana egitea, eta unibertsitateetako irakasleekin eta beste gizarte-erakundeekin artikulatzea". (Pereira, 2014:13).

ENFFek MSTren printzipioekiko koherentziaz funtzionatzen du, eta haien arabera kudeatzen dute; printzipio horietako bi borondatezko lana eta zuzendaritza kolektiboa dira. Bada MSTko militanteen brigada bat bi urteko epealdietan Eskolan modu iraunkorrean bizitzen dena; *Apolonio de Carvalho* izeneko brigada da. Brigada horrek bere gain hartzen du Eskolak ongi funtzionatu eta mantendu dadin beharrezkoak diren egitekoak antolatu, banatu eta betearaztea. Egitekoak brigadako militante gizon-emakumeek osatutako 4 lan-sektoretan banatzen dira (2. taula ikusi).

2. taula. Lan-sektoreak	
Pedagogia sektorea	Liburutegia, <i>haurren ciranda</i> , erreprografia, idazkaritza orokorra, Ikastaroetako idazkaritza, memoria, informatika, kultura eta komunikazioa.
Ekoiuzpen sektorea	Baratzea, fruta-ortua, mintegia, birziklatzea eta lorategiak.
Administrazio sektorea	Finantzak, erosketak, garrarioak eta giza-harremanak.
Zerbitzu sektorea	Harrera, elikadura, ostatuak, azpiegitura, mantentze-lana, garbitasuna eta eraberritzeak.

Iturria: ENFFeren artxiboko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.

Lan-sektore bakoitza brigadako militante batek koordinatzen du, eta sektoreetako bakoitzean ENFFetik pasatzen diren ikasleak txertatzen dira, eta Eskola mantentzeko beharrezko eginkizunetako bat hartzen dute euren gain; hurrengo atalean sakonago aztertuko dugu hori.

ENFFek Guarareman bere zuzendaritza politikoko kolektibo propioa dauka: Koordinazio Politiko Pedagogikoa (KPP), Apolonio de Carvalho brigadako kideek osatutakoa. Bere erantzukizuna dira honako eginkizun hauek: ENFFen egiten diren Ikastaro guztietan laguntza ematea; irakasle eta ikasleekin harremana izatea, eta baita gizartearekiko artikulazioan (unibertsitateak,

herri-mugimenduak, etab.) Eskolaren ordezkari izatea ere; Eskolako jarduera multzoa koordinatzea; eta MSTeko Prestakuntza eta Hezkuntzako Zuzendaritza Nazionalak eta Zuzendaritza Politikoak eztabaidatu eta bideratutako jarraibide eta ildoak txertatzea¹¹.

ENFFetik pasatzen den jende guztia harritzen duten gauza asko daude, eta hauek dira KPPeri sarrien egiten dizkioten galderetako batzuk: Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimendu bat nola izan da gai hau bezalako Eskola eraiki eta mantentzeko? Nola sostengatzen da ekonomikoki ezaugarri horiek dituen herri-eskola bat?

Lehen aipatu dugun moduan, Eskolaren lehenengo oinarri pedagogikoetako bat borondatezko lana eta nazioarteko klase-elkartasuna da, eta esan genezake horixe dela, hain zuzen, finantzaketa iturrietako bat, nahiz eta bakarra ez izan. Horren harira, Eskolak, Apolonio de Carvalho brigadaren eta Eskola bertako ikasleen borondatezko lana erabilgarri izateaz gain, hainbat ezagutza arlotako 500 irakasle boluntarioren laguntza jasotzen du (filosofia politikoa, ezagutzaren teoria, landa-eremuetako soziologia, ekonomia politikoa, nekazaritza-kontuak, historia, administrazioa eta gizarte zerbitzuak, antolamenduaren teoria, eta abar). Irakasle horiek (unibertsitateko irakasleak eta herri-hezitzaileak) Brasiletik bertatik, Latinoamerikatik eta munduko beste eskualde batzuetatik etorritakoak dira.

Beste finantzatzeko modu bat ENFFen jarduerak eta ekitaldiak egiten dituzten edo prestakuntza saioetan parte hartzen duten militanteak dauzkaten gizarte-mugimenduen beraien elkartasuna eta diru-ekarpenak dira. Eskola hornitzeko beharrezko elikagaietako batzuk han bertan ekoizten badituzte ere, elikagaiak landatzeko sailak txikiak dira. Hori dela eta, Eskolak ez du bere burua elikatzeke lain lortzen, eta egoki horni dadin elikagaiak ematen dizkion MSTeko gizarte-oinarriaren kontribuzioak jasotzen ditu.

Eskolaren mantenurako behar denaren zati bat erakunde publikoekin hitzartutako proiektuetatik iristen da; unibertsitate publikoekin lotutako

¹¹ Dituen ezaugarriengatik eta Eskola nazionala izateagatik, Zuzendaritza Nazionalaren (DN) orientazio politikoari zuzenean lotuta dago, eta ez sektore jakin bati. Bada kolektibo bat, Eskola Nazionalaren ekintzen batasun filosofikoa, politikoa eta pedagogikoa bermatu ahal izateko DNeri laguntza emateko instantzia dena, hain zuzen. Kolektibo horrek MSTren prestakuntza arloan jasotakoa biltzen du; Prestakuntzako Zuzendaritza Politikoa da (DPF), eta eginkizun horretarako izendatutako Nekazaritza Ikasketetako Taldeko (GEA) kideek eta Zuzendaritza Nazionalako (DN) kideek osatzen dute, estatuetan elkartzen zaizkien MSTko prestakuntzako sektore eta eskoletako ordezkariekin batera.

proiektuak dira gehienbat, ENFFen PRONERA- Nekazaritza Erreformako Hezkuntza Programa Nazionala¹² programaren bitartez garatutako Ikastaro formalak eginez gauzatzen direnak. Honela azaldu zuen Djacirak:

“Eskolatzea ez da Eskolaren oinarrietako bat, baina hori ere egiten du. Graduondoko, espezializazioko eta maisutzako Ikastaro batzuk dauzkagu, hezkuntzako erakunde publikoekin hitzarmenak eginda. Hitzarmen horiek lorpen handia dira, Brasilgo landa lurretako mugimenduen borroka sozial eta politikoaren fruitua; horiek lortu zuten PRONERA izeneko programa eratzea, eta Brasilgo Nekazaritza Ministerioaren -MDA- mendeko INCRA-Brasilgo Kolonizazio eta Nekazaritza Erreformako Institutu Nazionalaren bitartez, gizarte-mugimenduak lankide izanik, unibertsitateen artean hitzarmenak ahalbidetzen ditu. Orduan, Ikastaro horietako batzuk alternantzia sistemaren arabera egiten dira hemen, eta ikasleen kostuen zati bat unibertsitate horiekin finkatutako hitzarmenek hartzen dituzte euren gain”. (Djacira KPP/ENFF, 2015).

2009ko abenduan, ENFFeko irakasle, militante eta kolaboratzaile talde batek ENFFeren Lagunen Elkarte sortu zuen (AAENFF). 2008-2009 ikasturtean jarduera etetera behartu zuten erasoan aurrean, elkarte hori Eskolako proiektuari lagundu asmoz dohaintzen bitartez dirua biltzeko eta Eskolari eta MSTri gizarte-babesa erakusteko helburuarekin sortu zen. Elkarte horren bitartez lortutako finantza-laguntza funtsezkoa izan da azken urteetan Eskolak funtzionatzen jarraitu ahal izan dezan.

Ahalegin kolektibo horiei guztiei esker, ENFFek gaur egunera arte mantentzea lortu du, autonomia politikoa eta pedagogikoa mantenduz; nolana ere, kostu ekonomiko handia hartzen du bere gain eta Brasilgo eliteen etengabeko erasoari eusten die. Eliteek salatzen dutenez, ENFFek eta MSTk “izaera ideologiko” handiko ikastaroak eskaintzen dituzte; badirudi erakunde publikoen bitartez eskaintzen diren ikastaroak ideologikoki “neutroak” izango balira bezala ulertzen dituztela. ENFFeren Lagunen Elkarteko Jose Arbex JRk baieztatu zuenez, “eliteek ezin dute jasan besterik gabe langileek euren buruarentzat

12 1997an eratutako PRONERA Brasilgo landa-lurretako mugimenduen konkista da, hezkuntza jasotzea nekazaritza erreformako eremuen eskubide moduan bermatu ahal izateko. Pronerak maila guztietan garatzen ditu gazte eta helduentzako ikastaroak (alfabetatzea, oinarrikoa, tekniko-ertaina, goi mailakoa, gradua eta graduondokoa) landako gizarte mugimenduekin, nekazaritza-sindikatuarekin, hezkuntzako erakunde publiko eta komunitarioekin eta estatu- eta udal-gobernuekin elkarlanean. Informazio gehiagorako hona jo dezakezue: <www.incra.gov.br/pronera_historia>.

hezkuntza-sistema aurreratua, demokratikoa, pluralista eta alienatu gabea eraikitzeko eginkizuna euren gain hartzea” (Passos, 2010:1).

Baliabide ekonomikorik gabe, Eskola bere jarduerak bertan behera utzi behar izateko arriskuan denez, nazio eta nazioarte mailako kanpaina bat jarri da abian, eraikitzen ari den Eskola izaten jarraitzea bermatu ahal izan dadin, mundu zuzenago baten alde borroka egiten duten gizarte-mugimendu eta erakundeetako militanteen prestakuntza beharrak artatu ahal izateko. Eskolako barne-dokumentuetan hauxe dago adierazita horretaz:

“[...] ENFF MSTko militante eta buruzagien prestakuntza politikoa eta ideologikoaz pentsatu, hura programatu, planifikatu, antolatu eta gauzatzeko helburuarekin sortu zen. Horretarako, lehentasuna izan behar dute erakundearen eta bertako kideen politika eta antolakuntzako praktikaren inguruko azterketa zientifikoak eta gogoetak, eta horrez gain, baita hainbat arlotan ekintzarako taktikak eta estrategiak osatzen laguntzeak ere. Beste alde batetik, Eskola irekita dago eta Brasilgo, Latinoamerikako eta Karibeko gizartearen baitan beste gizarte-, herri-, landa- eta hiri-mugimendu batzuk integratzeko jarduerak eta ekintzak gauzatzea du helburu [...] Prestakuntza funtsezko baldintza da abian diren prozesu horiek ulertu ahal izateko eta gure herrialdeetan langile klasearen arteko batasun, elkartasun eta artikulatzeko loturak indartzeko”. (ENFF, 2012: 1).

5 eta 6. irudiak. ENFFeko ikasgela eta liburutegia



Iturria: Argazki propioak.

Eskolak hiru ikasketa-nukleotan antolatutako Ikastaro formalak eta informalak garatzen ditu: Teoria Politikoa, Nukleo Latinoa/Internazionalismoa, eta unibertsitate publikoekin hitzartutako Ikastaro formalak (3. taulan ikus

daitekeenez). Gainera, trebakuntza teknikoko tailerrak, hitzaldiak, gaikako eztabaida-zikloak, jardunaldi pedagogikoak, gazte eta helduen prestakuntza eta hezkuntzako topaketak, eta abar ere egiten dira. ENFFeren hamar urteko bizitzan 24.000 lagun baino gehiago izan dira bertan antolatutako askotariko jardueretan. 2013. urtea bakarrik aintzat hartuta, Eskolako jardueratan 5.000 lagun inguruk hartu zuten parte.

Ikastaro Formalak garatzeko (Gradua, Espezializazioa eta Graduondoa), ENFFek Brasilgo 40 unibertsitate publiko baino gehiagorekin hitzarmenak eta lankidetzak dauzka lotuta. Ikastaro horiek *Alternantzia sisteman* garatzen dira; lehen aipatu dugun moduan, Nekazaritza Erreformako Hezkuntza Programa Nazionalaren bitartez txertatzen dira -PRONERA-. Ikastaroak *Alternantzia sistemaren* arabera garatzea Ikastaroak hezkuntzako espazioak eta denborak txandakatzen dituzten etapaka antolatzea da, Eskolatzea lanarekiko lotura hautsi gabe ahalbidetuz. Eskola Denbora -TE- ikasleak ENFFen izaten diren epealdia da, barnetegi-erregimenean, ikasteari eta Eskolako hezkuntza-metodologia bizitzeari arduraldi osoa emanda. Komunitate Denboran zehar -TC-, berriz, euren komunitateetara itzultzen dira landa-ikerketako eta ikasketako lanekin.

ENFFeko prestakuntza eskaintza nabarmen zabalduz joan da azken urteetan, eta modu orokorrean eskaintzen diren Ikastaro guztiak ondorengo taulan erakutsita daude:

3. taula . ENFFeko ikasketa-nukleoak	
Teoria Politikoko Nukleoa -Ikastaro Nazionalak	
MSTeko Buruen Ikastaroa	40 eguneko trinkoa
Brasilgo gizarte mugimenduetako buruentzako Ikastaroa	45 eguneko Ikastaroa (15 eguneko hiru etapa)
Marxen pentsamenduari buruzko Ikastaroa	Hiru Ikastaro horiek honela garatzen dira: Alternantzia-sistema (Astebeteko 6 etapa) Iraupena: 1,5 urte guztira
Florestan Fernandes pentsamenduari buruzko Ikastaroa	
Nekazaritza Kontuei buruzko Ikastaroa	
Nukleo Latinoamerikar/Internazionalista	
Ikastaro Internazionala	Trinko ez formala MSTen internazionalismoa bultzatzea

Brigadak prestatzeko Ikastaroa	Nazioarteko elkartrukeak prestatzeko Ikastaroa
Espezializazioko Ikastaro Latinoamerikarra, Juiz de Fora Unibertsitate Federalarekin lankidetzan (UFJF)	2,5 urteko iraupena Alternantzia-sisteman (hilabete bateko 5 etapa), 2 etapa urteko
*FF Ikastaro Latinoamerikarra	45 eguneko Ikastaro trinkoa (2008-2014)
*Teoria Politiko Latinoamerikarreko Ikastaroa	3 hileko Ikastaro trinkoa (2007-2014)
FF Ikastaroa ingelesez	45 eguneko Ikastaro trinkoa (2015)
Ikastaro Formaletako Nukleoa- Brasilgo unibertsitate publikoekin hitzartutako Graduazio eta graduondoko Ikastaroak	
Latinoamerika eta Karibeko Lurralde Garapeneko Masterra-UNESP Landa eremurako Hezkuntzako UNESCO katedrarekin, eta La Vía Campesinarekin lankidetzan	
Nekazaritza-ekosistemetak Masterra Santa Catarinako Unibertsitate Federalarekin	
Hezkuntza eta Nekazaritza Ekologikoko Espezializazioa San Pauloko unibertsitatearekin (USP)	
Osasun eta Ingurumeneko Espezializazioa Fiocruzeko unibertsitatearekin	
Gizarte Zerbitzu espezializazioa Rio de Janeiroko Unibertsitate Federalarekin (UFRJ)	
Gizarte Zerbitzu graduazioa Rio de Janeiroko Unibertsitate Federalarekin (UFRJ)	

Iturria: ENFFeren barne-dokumentu batetik abiatuta norberak egindakoa.

“[...] Eskolako lehenengo ikasleak Lurrik Gabeko nekazariak ziren, MSTeren helburu estrategikoak gauzatzeko behar den subjektibotasuna garatu ahal izateko funtsezkoak diren ikuspuntutik. Hala eta guztiz ere, eraiki zuten unetik bertatik, Eskolak beti izan du izaera internazionalista; izaera internazionalista hori nahikoa indartuta dagoenez, berariazko Ikastaroak daude Brasilgo gizarte-mugimenduetako ikasleentzako eta La Vía Campesina internazionalerako eta ALBAko erakundeetako ikasleentzat [...] 2014. urterarte, portugesez edo espainolez mintzatzen diren herrialdeetako ikasleentzako Ikastaroak bakarrik geneuzkan; orain, ingelesez mintzo diren ikasleentzako lehenengo esperientzia garatzen ari gara Ikastaroetako Eskola nazionalan [...] Horrek erakusten duenez, Eskolaren egitekoa Brasilgo gizarte-

mugimenduentzat askoz ere zuzenduago zegoen lehenago. Baina laborarien borrokak gero eta gehiago erakusten du bere izaera internazionalista: nekazariei eragiten dieten garapen-ereduaren arazoak, gizarte-ereduarenak, zibilizazio-ereduarenak, antzekoak dira mundu osoan”. (Djacira- KPP/ENFF, 2015).

Garrantzitsua da kontutan hartzea, MSTk bere formazio politikoaren prozesu eta estrategia zabaltzeari ekin diola, burutzen dituen ekimen eta estrategiak nazio mailakoak izateari uzten dioten neurrian. Bide horretan, Landa Erakundeen Koordinadora Latinoamerikarraren (hemendik aurrera CLOC) eta ALBA ren eraikuntza prozesuek Hego Amerika mailan eragitearen garrantzia areagotu dute eta La Via Campesinan parte hartzeak, berriz, nazioarte mailan.

2. ENFFeko Ikastaro Latinoak: Trebatzaile Latinoamerikarren Prestakuntza (FF/ENFF) eta Teoria Politiko Latinoamerikarra (TPL/ENFF)

2.1. Aurrekari historikoak

Era horretako prestakuntza-esperientziak eraikitzea inspiratzen duen lehenengo aurrekari historikoa hirurogeigarreneko hamarkadan koka dezakegu, Kubara ezkerreko hainbat gizarte-mugimendutako militante iristen hasi zirenean; askotariko arlo profesionaletan -nekazaritza, osasuna, hezkuntza, eta abar- praktikak eta ezagutzak elkarren artean trukatzeko joan ziren bertara. Argentinako Pañuelos en Rebeldia Herri-Hezkuntza Taldeko Claudia Korol oroitzen denez, honako hauek gertatu ziren 90.eko hamarkadan:

“Topaketa, bilera eta eztabaida ugari izan ziren kolektibo, erakunde eta mugimenduen artean prestakuntza politikoaren gaia modu sistematikoagoan eztabaidatu eta pentsatzeko [...] Topaketa horietara beti etortzen zen Brasilgo Movimento Sem Terra. [...] Eztabaida asko izan ziren dogmak errepikatuko ez zituen pentsamendu kritiko marxista iraultzailea berreskuratzeko egin behar zenari buruz [...] Mugimendua ENFF eraikitzen hasi zenean, poz izugarria izan zen guztiontzat, eta uste dugu oso ekimen esanguratsua izan zela kontinente osoko herri-mugimenduarentzat”.

1998an, Landa Erakundeen Koordinadora Latinoamerikarra-CLOCeko mugimenduak gizarte eta politika arloetako prestakuntza-esperientzia

kolektiboak garatzen hasi ziren nazioarte mailan egituratutako ikastaroen bitartez. Horren harira, ENFFeko Ikastaro Latinoak eraikitzea inspiratu eta motibatu zuten CLOCeko erakundeetatik bultzatutako bi esperientzia azpimarratu nahi ditugu, Latinoamerikako aniztasuna prestakuntzako programa eta ikastaroen bitartez aztertu eta artikulatzeko ahalegina izan zirelako.

Bi esperientzi horietariko lehena 1998an sortu zen: *Oinarrizko Liderren Prestakuntzarako Hego Konoko Ikastaroa* izenarekin ezagututako da esperientzia. Hainbat urtetan Brasilgo *Mato Grosso do Sul*en burutu eta gero, ikastaro ibiltaria izatera pasa zenetik horrela iraun du gaur egunera arte. Nabarmendu nahi dugun bigarren esperientzia, *Hego Amerikako Emakume Nekazarietarako Prestakuntza Ikastaroa* da. 1998an hasi zen Txileko Emakume Nekazari eta Indigenen Elkartearen -ANAMURI- ekimenez. 2011ko urriaren 19an egin zen LVC-Hego Amerikako Eskualde Koordinazioko Batzordearen bilera batean honako hau adierazi zuen eskualdeko ANAMURI eta Vía Campesinako buru den Francisca Rodriguezek:

[...] Emakumeen prestakuntzako Ikastaroari esker, urteetan zehar gizarte ezberdinen baitan izaten diren gai handiei buruz guk eztabaidatu eta gai horiek partekatu ahal izan genituen, zapalduetan zapalduenak diren emakume nekazari eta indigenen egoera aztertu eta gogoeta egin ahal izan genuen, eta generoa eta klasearen auzia landu ere bai, uler genezan borroka ez dela gizon nekazari eta indigenen aurkakoa, sistema kapitalistaren aurkakoa baizik [...] Urteak aurrera joan ahala, helburuak mantentzen eta Ikastaroa egiteko herrialdeak aldatzen joan izan gara; hemen hasi ginen, Txilen bertan, gero Paraguai, Brasil eta Argentinan jarraitu genuen, eta hurrengo Kolonbian ari gara prestatzen”.

2005ean, ENFFren inaugurazioaren baitan hasi zen forma hartzen ENFFen bertan Latinoamerikako landa eta hiriko gizarte-mugimenduentzako prestakuntza politikoko Ikastaroa antolatzeko ideia. ENFFeko KPPeko Paulo Almeida eta Rosana Fernandezek hauxe adierazi zuten:

“ENFF inauguratzearekin, Latinoamerikako ezkerren politika eta ideologia arloko prestakuntza-ikastaroen tradizioa berreskuratu du MSTek; tradizio hori mundu osoko militanteentzako prestakuntza eskaintzen zuen Kubako iraultzako esperientziaz jasotakoa da [...] Prestakuntza politiko latinoamerikarreko ikastaroak praktika horren

adibide batzuk baino ez dira, mundu osoan Latinoamerikako ezkerren prestakuntza politiko ideologikoko ikastaroak eraikitzeke tradizio horren adibideak, hain zuzen”. (Almeida eta Fernandes, 2014:14).

2007an, “La Via Campesinako Prestakuntza Politikoari buruzko I. mintegia” egin zen ENFFen; Mintegi horretako eztabaidak eta ondorioak *La Via Campesinako dokumentu politikoak (2009)* koadernoan sistematizatu zituzten, eta bertan ikastaro kontinentalak aipatzen dira:

“Kontinente bakoitza pentsatzen has daiteke urtean behin, gutxienez, emakumezko eta gizonezko militante, buruzagi eta trebatzaileentzako prestakuntza politikoko ikastaro bat antolatu eta egiteko aukerari buruz. Beharrezkoa da hartzailea ongi definitzea, programa egokia antolatzea, eta koordinazio pedagogiko ona definitzea ere bai [...] Ikastaro horietan, ikaste teorikoa garatzeaz gain, honakoak landuko lirateke; a) gai komuneni buruzko eztabaidak bateratzeko gunea; b) hainbat mugimendu eta herrialdetako esperientziak elkarrekin trukatzeko une garrantzitsuak; c) herrialde ezberdinetako prestakuntza metodologiak eta estrategiak eztabaidatu eta sakontzeko gunea; d) nazioarteko testuingurua eta La Via Campesina ulertzeko gunea”. (LVC, 2009: 192-193).

Hortaz, ENFFeko Ikastaro Latinoak, Hego Amerikako Eskualdean La Via Campesinako prestakuntza politikorako strategiaren ildo politikoetako bat gauzatzeko, MSTk garatzen duen ekintza gisa analiza ditzakegu. 2007an inauguratu zuen ENFFek, hain zuzen, Ikasketa Latinoamerikarren Nukleoa (2. taula ikusi), eta horren bitartez bultzatzen dira integrazio eta izaera internazionalista duten prestakuntza ekimen eta ikastaroak; horien artean da *ENFFeko Ikastaro Latinoak*.

2.2. ENFFeko Ikastaro Latinoak oinarritzen diren printzipio, helburu eta jomugak

Bi Ikastaro Latinoek printzipio komunak dituzte, eta ENFFek, jarduera guztietarako espazio eta prozesu pedagogiko gisa, bere gain hartutako printzipio berberak dira. Printzipio horiek balore humanista eta sozialistei egiten diete erreferentzia (ikastea, adiskidetasuna, elkartasuna, borondatezko lana, diziplina kontzientea, eta abar) eta baita Mugimenduaren antolamendu-printzipioei ere (plangintza, eginkizun eta erantzukizunak banatzea, zuzendaritza kolektiboa, ebaluazio kritikoa eta autokritika, eta abar). Ondorengo lerroetan Ikastaro

Latinoetako edizio batean balore horiei erreferentzia egiten dien Proiektu Politiko Pedagogikoaren (aurrerantzean, PPP) atal batzuk hautatu ditugu:

“[...] Erronka handia izango da guztiontzat ekimen hau gauzatzea, baina ulermena, ardura osoa, diziplina iraultzailea, eskuzabaltasuna, apaltasuna, elkartasuna eta adiskidetasunarekin desafio horiei aurre egingo diegu eta gainditu egingo ditugu [...] elkarrekin gaude herrialde bakoitzean garatzen den borrokan gure arteko elkartasun loturak partekatu, aztertu, ikasi eta indartzeko. Hona ez gatoz ideiak eta teoriak auzitan jartzera, baizik eta ikertu, gogoeta egin, ikasi eta taldeak hezi eta prestatzeko prozesuan aurrera egitera, historikoki esplotatutako herria izanik, gure giza emantzipazioaren alde, gure askatasunaren eta duintasunaren alde borroka egiteari inoiz ere utzi gabe [...] Gure lehentasuna estutasunak, itxaropenak eta kezkek partekatzeko unea izan dadin, Ikastaroa ikertzeko eta esperientziak trukatzeko espazio moduan eratzea da [...] Ikastaroa ondo garatu ahal izateko, funtsezkoak dira parte hartzea, diziplina kontzientea, adiskidetasuna, ardura osoa ikasketetan eta eguneroko eginkizunetan, eta entzuten jakitea, horiek direlako guk sinesten ditugun balore humanista eta sozialistetako batzuk. Ikastaroaren arrakasta geure esku dago, neurri handi batean” (ENFF, 2014:1),

4. eta 5. tauletan, bi Ikastaroetako helburuak eta jomugak aurkeztu ditugu¹³, eta beraietan hauteman ahal izango ditugu Ikastaro bakoitzean lortu nahi denaren inguruko desberdintasun txikiak; hori bera nabarmentzen da Ikastaroek dituzten izen desberdinetan ere. Zenbait ediziotako PPPak analizatuz, urteak aurrera egin ahala bi Ikastaroak euren helburuak eta jomugak zabalduz joan direla ikus daiteke. ENFFren barne-erregistro eta ebaluazioen arabera doikuntza hauek, Ikastaroetako koordinatzaileek eta ikasleek egindako ebaluazio, kritika eta autokritiketan oinarrituta daude.

13 Norberak egindako taulak, informazio iturritzat FF/ENFF (2012-2014) eta TPL/ENFF (2011-2013) Ikastaroetako Proiektu Politiko Pedagogikoak eta Metodologikoak hartuta.

4. taula. FF/ENFF eta TPL/ENFF ikastaroen helburuak	
FF/ENFF Ikastaroko helburuak	TPL/ENFF Ikastaroko helburuak
1. Euren jatorrizko herrialdeetako oinarriak, militanteak eta buruzagiak formatzeko Eskola eta programak antolatzen laguntzeko gaitasuna izango duten Latinoamerika eta Karibeko mugimendu sozial eta hezitzaileak prestatzea.	1. Euren herrialdeetan antolakuntza, mobilizazio eta prestakuntza politikoa laguntzeko gaitasuna izango duten Latinoamerika eta Karibeko mugimendu sozial eta politikoeetako militante eta buruak prestatzea.
2. Ikasleen prestakuntza politiko eta ideologikoaren sakontze teoriko eta metodologikoa.	
3. Mugimenduen eta herrialdeen barruan garatu beharreko prestakuntza politiko eta herri-hezkuntzako prozesuetan erabili ahal izango diren diru-laguntzak eztabaidatu eta garatzea.	3. Latinoamerikaren batasun eta elkartasunari buruzko debategen sakontzea. Baita gai historiko zein egun munduan eta kontinentean klase borroka dituen erronkei buruzko debategen ere.
4. Egungo testuinguruan prestakuntza politiko eta ideologikoaren eduki eta metodologiek in lotutako gaiak eztabaidatu eta sakontzea.	4. Latinoamerikako antolakuntza eta borroka prozesurekin elkartrukea osatu eta berraztertzea ikastea.
5. Latinoamerika eta Karibeko erakunde eta herrialdeetako prestakuntza politiko eta herri-hezkuntzako esperientziak elkartrukatu eta ikastea, eta gonbidatutako erakundeek erakitako askotariko ekimenetatik ikastea.	5. Eskolan zein taldean, gure eguneroko gizarte harremanetan balore sozialistak eraikitzea.
6. Gure erakundeentzako Prestakuntza Politiko eta Herri-Hezkuntzako Programaren eraikuntza kolektiboa egitea.	6. Ikertzetik, elkarrekin trukatzetik eta gogoetatik abiatuz, inperialismoari, enpresa transnazionaleri eta nazioarteko finantza-kapitalari aurre egiteko borroka-ereduak bistaritzea.
7. Une historiko honetan klase-borroka zentrala dela hautematea, eta kontraesanak gure herrialdeetako egunerokoan gertatzen direla jabetzea.	

Iurria: ENFFren barne-dokumentu batetik abiatuta norberak egindakoa.

5. taula. FE/ENFF eta TPI/ENFF ikastaroen jomugak	
	1. Ikastaroaren funtzionamendu egokia bideratzeko, taldearen antolakuntza-prozesua bermatzea, herrialde bakoitzeko desberdintasun kulturalak, maila teorikoak eta bidean ager daitezkeen zailtasunak errespetatuz.
	2. Ikastaroko proiektu pedagogiko eta metodologikoaren oinarriko alderdiak ulertzea, eta ulertze horretatik abiatuz, ikasketa, lan eta parte hartze plangintza pertsonal eta kolektiboa eraikitzen hastea, bizitza pertsonala Ikastaroaren eta ENFFren arabera antolatuz.
	3. Taldearen izena aukeratzea (Turma) oinarrietako nukleoetan eta taldearen osoko bilkuran eztabaidiak eginez, irizpide politikoeetan oinarrituta; mistika bat sortzea, identitateak, kantuak, poesiak, gehiengoak aukeratutako izenaren arabera taldea ordenatzeko oihukak.
	4. Erakundeen eta herrialdeen prestakuntza-praktikan lagundu ahal izango duen, hezkuntza-diziplina (materia) eta denbora bakoitzean, ezagutza eta metodologiaren eraikuntza eta jabeakuntza prozesua garatzea. Prestakuntza politiko eta herri-hezkuntzako hainbat metodologia esperimentatzea.
	5. Ikastaroan parte hartzen duten erakunde eta herrialde guztietako prestakuntza, antolakuntza eta mobilizazio prozesuekin indartu, zabaldu eta ikastea.
	6. Prestakuntza Politikoko Programaren eraikuntza kolektiboa.
	6. Edizio bakoitzean izendatutako liburu eta lanak irakurri, aztertu eta eztabaidatzea. Oinarrietako nukleoetan, izendatutako lanak aztertzeke plangintza antolatzea eta banakako sintesia eta aurkezpen kolektiboa egitea.
	7. Ikastaroaren etengabeko eraikuntzan adiskidetasun, errespetu, hobetze, lan, ikaste, apaltasun, mistika eta dedikaziozko giroa eratzea.

Iurria: ENFFren barne-dokumentu batetik abiatuta norberak egindakoa.

2.3. ENFFeko Ikastaro Latinoetaen egitura eta metodologia pedagogikoa

ENFFen garatzen diren Ikastaro guztiak Ikastaro bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokitzen den metodologia pedagogiko komunaren arabera gidatzen dira. Horrenbestean, ENFFeko Ikastaro Latinoen garapen eta funtzionamenduari aplikatutako metodologia pedagogikoaren alderdirik garrantzitsuenak adierazten ahaleginduko gara.

Kontuan izan behar da Eskolan praktikan jarritako metodologia pedagogikoa MSTek eraikitako hezkuntza ta prestakuntza metodoan oinarritzen dela, bere lurraren aldeko borroka-prozesuari estuki lotuta; bertan pertsonak “kolektiboan lurraren aldeko borrokaren subjektu handia dela ikasten dute eta baita bere hezitzaile handia ere. Inork ez du lurra bakarrik konkistatzen; okupazioak, kanpamentuak, kokaguneak, obra kolektiboak dira orobat” (Caldart, 2012:52). Roseli Caldartek ulermen eta eraikuntza kolektibo hori sintetizatu zuen *Pedagogía del Movimiento Sin Tierra* (Caldart, 2012) lanean; bertan egileak azaltzen duenez, MSTk ez dio pedagogia bakar bati jarraitzen, Mugimendua bera pedagogia ugari modu dialektikoan batzen eta artikulatzen duen subjektu pedagogiko gisa ulertzen da: gizarte-borrokaren pedagogia, antolakuntza kolektiboaren pedagogia, lurraren pedagogia, kulturaren pedagogia, historiaren pedagogia.

Hortaz, Mugimenduaren ikasketa pedagogikoak bere borroka-esperientziatik datoz, eta ezagutza guzti horiek Eskoletako metodologia pedagogikoak barnebildu edo aplikatu zituen (ENFFk barne). Guzti hau ENFFn Eskola eta Ikastaroak ulertzeko eta antolatzeko modu konkretu batean gauzatzen da. ENFFren dimentsio pedagogiko ezberdinak islatzen dituzten *hezkuntza-giroaren metodologia* eta *subjektuen hezkuntza denbora/dimentsioetan* oinarritzen dira Eskola eta Ikastaroak.

2.3.1. Hezkuntza-giroaren metodologia

MSTren ikuspegitik, *hezkuntza-giroa* sortzea prozesuaren egunerokoan gertatzen diren egoera eta harremanetan pedagogikoki esku hartzea baino haratago doa. Horrez gain, aldez aurreko plangintza eta hezkuntza-asmo bat eskatzen du horrek, espazio-denboretan zein elkar-eragin berriak ahalbidetzeko ikaste-egoeretan ere. *Hezkuntza-giroaren* ideia azaltzeko, kontuan hartu beharra dago Eskolako metodologia pedagogikoak giza-prestakuntzaren eta ikasteko prozesuaren erdigunean kokatu nahi dituela prozesu materialak eta gizarte-harremanak:

“Hezkuntza-giroa eraikitzeak jarduera objektiboak, jarrerak eta kolektiboan eta horiek osatzen dituzten pertsonen izateko erak konbinatu egiten ditu. Hori azaltzea Eskolan zaudenean sentitzea eta hautematea baino zailagoa da. Printzipio nagusiaren arabera, pertsona bakoitzak taldearekiko erantzukizunak ditu, eta taldeak erantzukizunak ditu pertsona bakoitzarekiko”. (Caldart, 2013:130).

Horren harira, MSTk bere bilan pedagogikoari esker, hezkuntza-prozesuei intenzionalitatea emateko funtsezko tresnak badirela identifikatu du, “laguntza politiko-pedagogiko gisa identifikatzen duguna tresna handia da [...], eta bere egitekoa gainerako tresna metodologikoen erabilera kolektiboa dinamizatzea edo indartzea da” (Caldart, et al, 2013:375). Ikastaro Latinoetan eginkizun horren ardura duen kolektiboa Ikastaroko KPPa da, eskuarki MSTko hiruzpalau lagunek osatua; bere gain hartzen du bai Ikastaroa prestatzea, eta prozesu pedagogikoa garatzen ari den bitartean hari buruz dialektikoki eta taldearekin era kolektiboan gogoeta egin ahal izateko baita zuzeneko laguntza jarraia ematea ere. Modu horretan, ezaugarri horiek dituen Ikastaro batean, egunez egun parte hartzen duten hezkuntza-denbora, tentsio eta gatazka logikoak eta egoera guztiak, baita ustekabeak ere, den-denak baliatu daitezke ikas aukera moduan.

Hezkuntza-giroa subjektuen heziketa denbora eta dimentsio oro aintzat hartzen dituen antolakuntza-metodologia gisa ulertzen da ENFFn, eta ideia hori lehenengo egunetatik lantzen da taldearekin, proposamen politiko pedagogiko eta metodologikoa modu honetan aztertzen den uean:

“Eskolan antolatutako espazio eta jarduera guztiak prestakuntza-uneak dira; hau da, egiten dugun guztia eta gurekin harremanetan lotu den guztia da prestakuntza: klase teorikoekin hasi eta ariketa praktikoak, tailerrak, elkarbizitza, lan militantea, ikastaroaren izaera organikoa, mistika, aisialdia eta kulturarako unek, irakurketak eta sistematizazioetaraino”. (ENFF, 2014:1).

2.3.2. Hezkuntza-denborak, ENFFeko eta Ikastaro Latinoetako dimentsio pedagogikoak

MST eta ENFFen iritziz, *Hezkuntza-Denborek* Mugimenduaren Pedagogiaren ezaugarri diren bi printzipio indartzeko balio dute (Itterra, 2004). Alde batetik, antolakuntza-prozesuan eta auto-antolakuntzan laguntzen dute, izan

ere, eguna hainbat denboratan nahita banatzean, kolektibitate handiagoaren zati garela konturatzen baikara (Eskola); horrela, Denbora pertsonala Denbora kolektiboarekin antolatzen ikasteko ariketa egin beharra dago, Eskola mantentzeko beharrezko eginkizunei eta norberak zuzenean parte hartzen duen prozesu pedagogiko kolektiboa (bere Ikastaroa) eraikitzeari dagokionean. Beste alde batetik, Eskola ikasteko lekua bakarrik ez, giza prestakuntzako gunea dela ulertzen laguntzen du. Hori dela eta, subjektuen hezkuntza-dimentsio guztiak landu behar dira pedagogikoki, horretarako eguneko denbora tarte jakin batzuk hartuz.

Eskola, Ikastaro edo jarduera bakoitzean, ENFFek definitu egiten du zein hezkuntza-denbora diren egokiak Ikastaro edo prozesuko errealitate horretarako, zein den bere intenzionalitatea eta zenbat irauten duen (eguna ala astea). Esandakoa ilustratzeko, 6. taulan hezkuntza-denbora zehatzen arabera ENFFeko *Ikastaro Latinoak* nola egituratzen diren sintetizatu dugu.

6. taula. ENFFeko Ikastaro Latinoetako hezkuntza-denborak ¹⁴	
Ikasteko denbora	Oinarrizko Nukleoan (aurrerantzean ON) irakurtzeko eta ikasteko egunero erabiltzen den denbora da.
Goizeko Mistika denbora	Astelehenetik larunbatera (30 min.). Denbora horretan Mistika, oharra eman eta bisitariari harrera egiten zaie. Egun bakoitzean ON batek koordinatzen du. ENFF osoarekin egunero partekatzen den espazio bakarra da.
Gelako denbora	Programazioan aurreikusitako curriculum-edukiak garatzeko egunero denbora da (6 ordu). Hezitzaile batek edo gehiagok orientatua.
Lan militanterako denbora	Astelehenetik ostiralera (1,5 ordu), ENFFeko mantentze-lanetarako beharrezko lan-denbora da, ikasle bakoitza Lan-Sektore bateko partaide da.
Taldeak bere burua antolatze denbora	Larunbatak eta igandeak: etxeko lanak ONek hartzen dituzte euren gain. Eskolan dauden ONen artean lanak banatzeko eskala bat osatzen da.
Oinarrizko Nukleoan -ON- bilera	Asteroko denbora (2 ordu), talde osoa integratzeko pentsatutako denbora da, taldea bera da jarduerak pentsatu eta antolatzen dituenak.
Taldearen koordinazioa-Turma	Asteroko denbora (2-4 ordu), izaera organikoa gauatzeko balio du; bilera horietan iradokizunak, proposamenak, Ikastaroaren eta Eskolaren analisia, kritikak eta autokritikak aurkezten eta eztabaidatzen dira. Informazioa eta erabakiak goranzko eta beharrezko fluxuan ibiltzen dira, eta ikasleek Eskolako demokrazia erabiltzeko eta euren burua kudeatzen ikasteko espazioa da.
	Asteroko denbora (2-4 ordu). ON bakoitzeko koordinatzaileek KPPko ordezkariarekin eta taldeko diziplina eta etika batzordearekin egiten duten bilera da. Taldeak deliberratzeko eta hezkuntza-prozesuren auto-kudeaketan trebatzeko espazioa da.

14 6. Taula, FF/ENFF (2012-2014) eta TPL/ENFF (2013) Ikastaroen programazioetako informazioan oinarrituta osatutakoa. Denbora-egitura aldatu egiten da ikastaro batetik bestera; TPL ikastaroan gauzatutako denbora-egitura hartu dugu erreferentziatzat.

Lan-sektoreen koordinazioa	Asteroko denbora (2 ordu), beharrak ebaluatu eta haien plangintza osatzeko, eginkizunak banatzeko, gauzatzeko erabakiak aztertzeke, eta abar.
Literatura elkarteak	Asteroko denbora (2 ordu astelehenean), astean ikasteko gaiak txertatzeko erabilitakoa, ipuin, musika, antzerki, poesia, literatura, jolas ludiko eta abarren bitartez.
Sistematizazioa	Escola osoarentzako asteroko denbora (larunbat goizetan): solasaldi moduan eztabaidatzeko berariaz aurkeztutako gai batekin.
Eztabaida-elkarteak	Tiempo semanal para toda la Escuela (mañana de los sábados): con un tema específico de debate en formato charla.
Kirola	Asteroko denbora: gorputza eta talde integrazioa zaintzeari emandako denbora.
Adierazpen artistikoen tailerrak	Asteroko denbora (2 ordu, TPLn bakarrik, 3. astetik aurrera) Arte-hizkuntza lantzerantz bideratua, antzerki, ikus-entzunezko, dantza, musika, eskulangintza, poesia eta abarri buruzko tailerrak eskaintzen dira, eta bakoitzak aukeratu egiten du. Ikasurtearen bukaeran Kultura eta artearen astea izaten da eta bulego bakoitzaren ekoizpenak aurkezten dira bertan.
Kultur-gaua	Asteroko denbora (larunbat gauak), herrialdeka antolatua, eta ENFFeko arte eta kultura sektoreak koordinatua. Ospatzeko eta lagunartean bat egiteko unea da eta Ikastaroan ordezkaturako herrialde bakoitzak bere herriko dantzak, janariak eta tradizioak aurkezten dizkie gainerako Eskola-kideei.
Landa-praktika	ENFFetik irteera. Ikastaroan zehar egiten den esperientziarik gogoangarrienetako bat da. Batzuetan borroka edo aldarrikapen ekintza batekin elkartzeko bidaia izaten da eta beste batzuetan MSTeko kanpamentu-kokaleku batera egindako bisita. Iraupena eta edukia erabat desberdina izan daiteke Ikastaroaren arabera (gehienetan 3 egunetik 5era bitartean).

Iturria: ENFFeren barne-dokumentu batetik abiatuta norberak egindakoa.

Ondoren, ENFFeko eta Ikastaro Latinoetako dimentsio pedagogiko guztiak aurkeztuko ditugu. Garrantzitsua da elkarrekin harremanetan dauden dimentsio bezala irudikatzea, bata bestearekin teilakatuta; hezkuntza-prozesu osoaren atal gisa garatu eta indartzen dira eta ez elkarrengandik banatuta.

Izaera organikoa

Dimentsio hau ENFF eta MSTren Ikastaroetako proposamen metodologiko eta pedagogikoaren erdigunean dago. Izaera organikoak funtzionatzeko moduari -metodoari- egiten dio erreferentzia, Eskola eta Ikastaroen egitura organikoari bizia emateko formari hain zuzen ere. Izaera organikoa Eskolaren osotasunak funtzionatzea ahalbidetzen duena da eta ikasketa-prozesua barrutik bultzatu, dinamizatu eta egituratzeko balio du. Beste modu batean esanda, izaera organikoa prozesuaren eskeletoa izango litzateke zeinek bere ekintzen bitartez prozesu pedagogikoa mugitzen duen. Koordinazioa eta zuzendaritza instantziek (Koordinazio Politiko Pedagogikoa-KPP), Oinarrizko Nukleok (ON) eta Lan Taldeek osatzen dute eskeleto horren hezurdura.

Horrenbestean, prozesu pedagogikoaren motore-indarra izaera organikoaren praktika da; horrekin, modu aktibo, arduratsu eta kontzientean prozesu pedagogikoan inplikaturako subjektu guztien parte hartze kolektiboa bermatu nahi da. Eta gainera prozesu pedagogikoaren auto-kudeaketa demokratikoa eta auto-antolakuntza bermatzen da teoria eta praktika modu dialektikoan elkarri lotuz. Ikastaroan zehar eguneroko jarduera konkretuek duten ahalmen emantzipatzailearen kontzientzia hartzeko aukera bat da.

Izaera organikoaren bitartez, antolakuntza-metodologia eta antolakuntza-printzipioak Ikastaroko edukiekin artikulatzen dira. Hobeto ulertu ahal izateko, adibide bat jarriko dugu: geletan Gramsciren pentsamendua lantzen da, baina baita antolakuntza-metodologiaren bitartez ere. Ereduaren Pedagogia izaera organikoarekin uztartzen denean, intelektual italiarraren formulazioak praktikan garatzen dira¹⁵. Hori guztia Eskolaren izaera organikoan ikasleak txertatzeak dakarren eguneroko ariketa pedagogikoan islatzen da¹⁶, eta aldi berean *Turma* bakoitzak bere izaera organiko propioa du. 7. taulan ENFFeko Ikastaro Latinoen izaera organikoa sintetizatu dugu.

15 Izaera organikoaren bitartez, bizi egiten dira “praktika pedagogikoak, eta haien arabera irakaslea eta ikaslearen arteko harremana aktiboa da, elkarrekiko loturak dituena, eta, beraz, irakasle oro da ikasle, eta ikasle oro da irakasle. Baina harreman pedagogikoa ezin da mugatu berariaz Eskolastikoak diren harremanetara” (Gramsci, 1995:37).

16 ENFFeren izaera organikoa osatzen dute ENFFeko Apolonio de Carvalho brigadak, Oinarrizko Nukleoen Koordinazioak, Oinarrizko Nukleok, Sektoreen Koordinazioak, Sektoreek eta Koordinazio Politiko Pedagogikoak (KPP).

7. taula. ENFF-eko Ikastaro Latinoetako izaera organikoa ¹⁷	
Oinarrizko Nukleoak (ON)	<p>Ikastaroan zehar parte hartzaile bakoitzaren oinarrizko antolakuntza-egitura.</p> <p>Ikastaro bakoitzeko KPPak definitutako irizpideak jarraituta banatzen dira ONk, herrialdeak, erakundeak, generoa eta adina kontuan hartuta, betiere ahalik eta aniztasun handiena bilatuz. ON bakoitzak ikasle kopuru zehatz bat koordinatu eta antolatzen du (8-10 bitartean), eta Koordinatzaile bat hautatzen du (gizon bat eta emakume bat).</p> <p>Hori izaten da erreferentziako kolektiboa Ikastaroan zehar. Prozesuaren auto-kudeatze demokratikoaren trebatze pedagogikorako espazioa da, bertan aktibatzen dira informazio-fluxuak (proposamenak, kritikak, arazoak), eta bertan egiten dira ebaluazioak, plangintza kolektiboak eta eginkizunen banaketa ere. ONa asteen behin elkartzen da eta baita behar den bakoitzean ere. Hezkuntza prozesuaren eragilea da, Ikastaroari eta Eskolari eusten dion oinarria.</p> <p>Eginkizunak: mistikak <i>turnaren</i> banaketaren arabera gauzatzea, hezitzaileei laguntzeko eguna txandaka koordinatzea, material didaktikoak bermatzea. ON bakoitzak bere kideak identifikatuko dituen izen bat aukeratzen du, borroka prozesu bati, borrokalari bati edota aginte-oihu bati omenaldia egiteko eta Ikastaroan zehar bere identitate osatuz joateko.</p>
<i>Turnaren</i> koordinazioa	<p>Oinarrizko Nukleoen Koordinazioek eta Ikastaroko KPPko kideek osatzen dute.</p> <p>Eginkizunak: asteko jarduera guztiak koordinatzea, laneko nukleo eta talde guztien funtzionamendua bermatzea, goranzko eta beheranzko informazio fluxua bermatzea, antolakuntza-prozesua motibatzea.</p>
Ikastaroaren Koordinazio Politiko eta Pedagogikoa	<p>MSTko trebatzaileek osatutakoa.</p> <p>Eginkizunak: Ikastaroaren plangintza bermatzea, Ikastaroko hezitzaileekin eztabaida metodologikoa eta bitartekaritza egitea, prozesuaren jarraipen pedagogiko eta politikoa egitea, koordinatzaileei eta lan taldeei laguntza ematea; Koordinazioarekin batera Ikastaroaren ebaluazio-prozesuak prestatzea, Ikastaroko Proiektu Politiko Pedagogiko eta Metodologikoaren garapena bermatzea (PPP).</p>

Lan Sektoreak	Ikastaroko parte hartzaile bakoitza ENFFek identifikatutako beharren arabera lan-sektore batean sartzen da, Eskolaren funtzionamendua bermatzen duten taldean beharrezko eginkizunak bere gain hartuz. Bileren dinamika sektore bakoitzeko beharren arabera finkatuko da.
Diziplina eta etika batzordea:	ON bakoitzak Batzordean partaide izango den diziplina eta etika arduradun bat hautatzen du. Eginkizunak: Ordutegiak betetzen direla bermatzea; egitekoak gauzatzea; eztabaida eragin ONetan, honako hauei buruz: diziplina kontzientea, balore humanistak, koherentzia, genero-gaiak, auto-kudeaketa eta arazoak zaintzea, Eskolako arau orokorrak bete daitezen zaintzea.

Inurria: ENFFeren barne-dokumentu batetik abiatuta norberak egindakoa.

17 FF/ENFF (2012-2014) eta TPL/ENFF (2011-2013) ikastaroetako Proiektu Politiko Pedagogikoak eta Metodologikoak informazio iturritzat hartzen duen taula.

Prozesu pedagogikoa hainbat kolektiboren bitartez antolatzea (ONak, Lan-sektoreak, etab.) MSTren Ikastaroen ezaugarrietako bat dela azpimarratu nahi dugu, baina Ikastaro Latinoetako *turma*en aniztasunaren (kulturalak, antolakuntzak, nazionalitateak, diziplinak, adina, etab.) auto-antolakuntza eta auto-kudeaketa demokratikoa bereziki lantzea bilatzen da. ONtan modu kolektiboan lan egiteak ikasleei itunak egitera, elkarrekin lan intelektual zein eskulanak egitera bultzatzen du. Aniztasuna auto-kudeatzea ez da batere erraza, eta tentsio, ika-mika, gatazka eta eztabaida ugari sortzen dira; kolektiboak egoera horien irakurketa pedagogiko eta kritikoa egin ahal dezan jarraipen pedagogikoa behar du horrek, eraldatzeko eta ikasteko aukera gisa baliatuz.

Horren harira, KPPak zein ikasleek *turmaren izena definitzea* ariketa pedagogiko esanguratsuenetako bat, eta horrenbestez, Ikastaro Latinoen jomuguetako bat dela azpimarratzen dute (6. taula ikusi). Eztabaida prozesua ON bakoitzean egiten da, eta borrokan ari diren herrirentzako ondare historikoa ordezkatzeko duen Latinoamerikako pertsonaia historiko edo herri-borroka eta erresistentzia prozesu bati omenaldia egin diezaion orientabide zehatzak ematen zaizkio. Beste orientabide bat aukeratutako izenak ezinbestean *turmako* gehiengoaren sentimendua eta nahia ordezkatu behar duela da. Horregatik, erabakia hartu arte Onen baitan ematen den dialogo kolektibo prozesua da; ondoren, ON bakoitzak *turmari* bere proposamena aurkezten dio eta batzar orokorrean demokratikoki erabakitzen da.

Turmaren izena taldean definitu ostean, ariketa pedagogikoa bukatzeko, Ikastaroan zehar identitate kolektiboaren sinboloak edo seinaleak izango direnak eraiki behar dira: aginte-oihuak, Eskolan nor bere arrastoa uzteko horma-irudia, musikak, kamisetak, eta abar. Horrek, eztabaidatu eta hitzarmenak egitera behartzen ditu, arlo intelektual-ideologikoan ez ezik, baita arlo praktikoa eta artistikoan ere.

7, 8. eta 9. irudiak. *Turma latinoetako horma-irudiak*



Iturria: Argazki propioak.

Ikastea

Ikas dimentsioa Ikastaro Latinoetan eguneko hainbat unetan lantzen da (azpi-denborak) eta bizi-erperientzia eta gogoeta kritikoaren ikuspegitik edukiak hainbat metodologiaren bidez lantzea bilatzen da (6. taula ikusi). Bestalde, eguneroko ohitura eta ikastearen kultura sortzea eta ikastea beharrezko antolakuntza-printzipio gisa balioestea ere bilatzen da.

8. taula. ENFF ikastaroetan ikasteko emandako denbora	
Ikastera bideratutako denborak FF/ENFFen	Ikastera bideratutako denborak TPL/ENFFen
<p>Gela teorikoak hezitzailearen orientazioarekin. Ikastaro bakoitzeko asteko gai ez osatutako programazio bat dago.</p>	
<p>Banaka ikastea eta gogoeta kolektiboa. Bi Ikastaroetan goizez taldean ikastera bideratutako denbora dago eta bakoitzaren antolatzeke gaitasunaren arabera, beste une batzuetan bakarika ikastera bideratutakoa. Ikasteko ahalegina indibidual eta kolektiboa da, banakako subjektua eta kolektibo organikoa (ikastaroan zehar ON dena) elkartzeko prozesua da.</p>	
<p>Literatura elkarteak. Bi kasuetan ipuin latinoetatik abiatzen diren Latinoamerikako literatura ikasteko antolatutako une zehatzak daude. Ipuinak lantzearen helburua literaturaren bitartez astean zehar ikasi dituzten gaietara hurbiltzea da.</p>	
<p>Tailer artistiko eta antolakuntzakoak. Gai zehatzak lantzeko dira, kontu teoriko, metodologiko eta praktikoak txertatuz, eta jarraian ikasleek tailerretako aholkulariekin ebaluazioa eginez.</p> <p>Tailer bakoitzak hiru une izaten ditu: 1) gai zehatz batean kualifikazioa duen norbaiten azalpen teorikoa; 2) ikasleek kideen ezagutza eta esperientzia erakusten duen zerbitu gauzatzea; 3) Eskolan egindakoaren aurkezpena egitea, eta ekoiztutakoa ebaluatzea.</p>	
<p>Ariketa pedagogiko praktikoak eta sintesia. Ikastaroa bukatutakoan ikasle bakoitzak etorkizunean bere herrialdean Ikastaroak egiteko oinarri bezala balioa dion aste bakoitzeko edukien sintesia izan behar du. Horrez gain, Prestakuntza Politikoko Programa proposamen bat berau antolatzeke.</p>	<p>Mintegiak sozializatzeko eta irakurketa sakontzeko irakurketako elkarteak. Adierazitako liburuen irakurketa bideratua egiteko uneak daude, banakako fixatzeak eta kolektiboak egiten dira, eta aurkezteko eta eztabaidatzeko mintegiak ere bai.</p>
<p>Bilaketak liburutegian. Ikasteko ohitura eta liburutegia erabiltzea bultzatzeko, programazioan bilaketa bibliografikoetarako denbora-tarteak gordetzen dira.</p>	

Iturria: ENFFeren barne-dokumentu batetik abiatuta norberak egindakoa.

Ikastaro Latinoetako proposamenak eduki mailan honako ezaugarri hauek ditu:

- a) Edukiak edo gaiak astero antolatzea, batzuk Ikastaro osoan zehar mugimenduan egoten diren arren.
- b) Latinoamerikako pentsamendu sozial eta politiko marxistako egile klasikoei Lehentasuna ematea, Latinoamerikako erakundeen artean gogoeta kritikoko batasun prozesu bat eraikitzen ahaleginduz; hau da, oinarri teoriko bateratua izateko aukerak eztabaidatzea.
- c) Eskualdeko gai historiko eta garaikide garrantzitsuak lantzea.
- d) Ikasgai ohikoenak ondorengo hauek izaten dira: Latinoamerikako historia, ekonomia politikoa, filosofia, Latinoamerikako pentsamendu sozial kritikoa, iraultza-prozesuak, antolakuntzaren teoria politikoa, jatorrizko herriak, marxismoa Latinoamerikan, gizarte-militante baten baloreak, mistika... betiere oinarri teoriko bezala materialismo historiko dialektikoa izanda.
- e) MSTeren hezkuntza-metodologia ikastea eta bizitzea.

Mistika

Mistikaren ideia herri-mugimenduen ikuspegitik erabiltzen dugu, zehazki MSTren ikuspegitik, eta ez ikuspuntu erlijioso batetik. Latinoamerikako herri-mugimenduek orain dela urte asko identifikatu zuten lortu nahi dituzten eraldaketa sozialak arrazionaltasunaren esparruan lantzeaz gain, esparru afektiboan ere landu beharra daudela, garrantzi berarekin eta modu integratuan. Bakoitzak bere modura lantzen duen arren, zalantzarik gabe, mistika izan da horretarako gizarte-mugimendu askok identifikatu duten forma. Horren harira, MSTk hasieratik sartu zuen *mistika herri eta antolakuntza-lanean beharrezko gisa*¹⁸, motibatze duen funtzioagatik eta eraldatzearen aldeko borroka bizirik eta alaitasunez mantentzeko duen gaitasunagatik; horrelaxe azalduta dago ENFFeko barne-dokumentu batean:

“Mundua ikusi eta sentitzeko gure moduaren zati bat da. Gure borrokaren erregaia da mistika. Gure sumin-sentimenduak azaltzeko daukagun modua da, borrokarekin, gure batasunarekin, herrien arteko elkartasunarekin daukagun konpromisoa [...] Mistika funtsezkoa da bizitza eta borrokarako [...] Mistikarik gabe, borondatea,

18 MSTeren 27. Prestakuntzako Koadernoaren izenburua (1998) *Mistika: behar bat herri eta antolakuntza lanean*.

lehiakortasuna, sormena eta geure helburuarekiko maitasuna galtzen dugu". (ENFF, 2014:9).

Baina bere funtzio motibatzailetik haratago, MSTn mistika praktika politiko gisa ulertzen da, Mugimenduko kulturaren zati bihurtu den eraikuntza kolektiboa da; "esperientzia pertsonala bada ere, kolektibitatean gertatzen da ezinbestean, mistika eragiten duen sentimendua kausa komunen inguruan elkarbizitzan eraikitako uste sendo eta baloreen fruitua delako" (Caldart, 2012: 213). Mistikak hainbat funtzio izan ditu MSTren bizitzako 30 urteetan zehar. Barne eztabaida ugariren ondoren, mistika praktika politiko gisa ere ulertu izan zen, hezkuntza- eta prestakuntza-dimentsio indartsuarekin. Hori zela eta, mugimenduaren metodo pedagogikoen oinarritzko atal bezala integratu zen ordutik aurrera, eta, beraz, MSTko eskola eta ikastaroetan bertaratu ere bai.

ENFFen, goizero 7:45etik 8:00etara, eguneroko ikasketa eta laneko eginkizunei ekin aurretik, Eskolako lagun guztiak -Ikastaro, bilera, jarduera edo Apolonio de Carvalho brigadako parte hartzaileak- taldean elkartzen dira une hori bizitzeko, ENFFeko barne-dokumentuan adierazita dagoen bezala:

"Une horretarako orientazio orokorra, bitarteko gisa poesia, musika, keinua, sinbologia hartuta, gure borrokak eta borrokalariak gurtzeko izan behar duela da. Eskolako txosten orokorretarako unea ere bada eta MSTren eta Internazional Komunistarn ereserkiak abesteko ere bai. Egiteko moduari dagokionean, ENFFeko kultura eta mistikako taldeak koordinaturik, Ikastaroetako oinarritzko nukleoan bitartez egiten da". (ENFF, 2014:9).

Mistikak denbora zahatz bat duen arren -Ikastaro eta Eskola gehienetan eguneko lehen denbora pedagogikoa da- prozesu pedagogikoaren une eta gune guztietan egon behar du. Dimentsio horren bitartez, beste kode eta hizkuntza batzuen bitartez -sinbolikoa, artistikoa, emozionala- kolektiboaren konpromisoa eta batasuna, borroken historikotasuna, elkartasuna eta ondoko laguna zaintzea moduko balore eta printzipioak landu nahi dira.

Ildo horretan, ENFFeko Ikastaro Latinoetako mistikak funtsezko eginkizuna du La Via Campesina eta ALBAko mugimendu sozialen arteko loturak eraiki eta sendotzeko, Latinoamerikako identitatea eraikitzeko; izan ere, aldi historiko bakoitzean hainbat belaunaldik modu desberdinean sortzen dituzte batasun-loturak, eta horretarako Ikastaro horiek bideratzen dituzten bezalako prestakuntza- eta elkarbizitza-guneak izatea funtsezkoa da.

Lan militantea

Dimentsio pedagogiko hau lehenengo harria jarri zutenetik dago txertatuta ENFFen, eskola bera eraikitzea milaka lagunen borondatezko lan kolektiboari esker lortu baitzen. Hasieran adierazi dugunez, ENFF etengabe eraikitzen ari den Eskola da, eta bertatik pasatzen diren militante guztiek euren gain hartzen dute eraikuntza horretan parte hartzeko konpromisoa, zentzu pedagogikoan zein Eskolaren mantenuan. Horregatik, Ikastaro bakoitza hasterakoan, ENFFeko Lan Sektoreetako batean -pedagogikoa, ekoizpena, administrazioa eta zerbitzuak- sartzera gonbidatzen dituzte ikasle guztiak (uneko Eskolaren beharren arabera).

Baina, Ikastaro bakoitzeko hasieran adierazten den bezala, kontua ez da borondatez lan bat nork bere gain hartzea zentzu praktiko eta abstraktu hutsean. Pistraken pentsamenduaren eta bere *Lanaren Eskolako oinarriak* (1924) idatziaren eragin teorikoak eraginda, MSTk lana printzipio pedagogiko gisa ulertzen du. Eskolan lanak izaera eraldatzailea izan dezan kolektibitatearentzako erabilgarria den jarduera kolektibo jakin bati lotuta egon behar duela ulertuta.

“[...] beharrezkoa da lan horren zentzuari buruz gogoeta egitea. Izaera politikoa du horrek, eta ez energia eta denbora ahitzen dituen izaera praktikoa bakarrik. Duen dimentsio pedagogiko hezigarria ez da laburtu behar ere, baizik eta berria eraikitzea jotzen duen praxi moduan ulertu behar da, bizitzaren eta borrokaren aurrean jarrera eta balore berriekin gizarte berria, subjektu berriak eraikitzeko [...] Beraz, ENFFeko lanak ez du edozein lan izan behar. Konnotazio politikoa hartzen duena da, hori txertatzea kontzientzia-maila jakin baten arabera delako, eta hemen, Eskolaren barruan, gure egunerokoan eta gure harremanetan bizitakoa gizarte sozialista eraikitzerantz proiektatzen da”. (ENFF, 2014:8. Norberaren itzulpena eta letra lodiak).

ENFFeko proposamen metodologikoan, lana izaera organikoarekin konbinatuta dago, Eskolen bilduma historikotik abiatuta hau ulertzen baita: “Lanak egiten gaitu izaki sozial eta kultural, guk ekoizten ditugun formek ekoizten gaituzte gu: lan egiteko moduak formatu edo deformatu egiten gaitu. Lana hezigarria izan dadin, egiten denaz gogoeta egitea eskatzen du, egiteko moduaz, egiten dena modu batean eta ez bestean antolatzeko arrazoiak. Gogoeta hori gerta dadin, beharrezkoa da horretarako denbora/gune bat izatea” (Iterra, 2004:11). Helburu pedagogiko hori daukan borondatezko lan edo lan militantea oso mekanismo garrantzitsua da eskularen eta lan intelektualaren arteko ohiko

zatiketa hautsi ahal izateko. Hori eginez gero, Eskolara ikastera doazen pertsona guztiak -lan intelektuala- Eskolaren eta ikasturtearen eraikitzaile sentitzea -eskulana- lortzen da. Gainera, uste sendoz onartzen den lan bat denez, balore eta erantzukizun kolektiboak lantzea ahalbidetzen du, “berria” eraikiz kolektibo bihurtzea ahalbidetzen duena.

Diziplina kontzientea (auto-diziplina) eta balore sozialista eta humanistak

ENFFen, ikasturte bakoitzaren hasieran ikasleen artean eta Eskolarekin konpromiso kolektiboa osatzen da. Konpromiso hori Ikastaroaren proposamen politiko pedagogiko eta metodologikoan (PPP) jasotako akordio komunetan oinarritzen da eta taldean aztertu eta lantzen da lehenengo egunean. Horrekin, ENFF ondorengo balore eta jarrerak piztuko dituen hezkuntza-giroa sortzen saiatzen da: auto-diziplina (diziplina kontzientea), Ikastaroaren eta Eskolaren prozesu kolektiboarekiko konpromisoa eta kidetasuna, elkartasuna, koherentzia, adiskidetasuna eta batasuna bezalako baloreak, bizitzaren eta kolektiboaren aurrean apaltasuna, ardura osoa, zaintza, alaitasuna, eskuzabaltasuna, hobetzeko gaitasun iraunkorra, norbere ideiekiko iritzi desberdinak aditzen jakitea bezalako jarrerak.

“Dimentsio honek, militanteen harreman sozialen baitan ematen den giza-eraikuntza adierazten duela iruditzen zaigu. Klase kapitalista menderatzaileari interesatzen zaizkion baloreak, arauak eta portaerak gainditzeko beharraz erabat kontziente gara. Ordena zaharra garaitzeko borrokan ari garen bitartean, eraiki nahi dugun gizarteari dagozkion baloreak eta haiek txertatzeko baldintzak erabil ditzakegu. Ulertzen dugunaren arabera, baldintzak baditugu sinesten dugun balore sozialisten arabera gaur, orain, bizitzen hasteko bai Ikastaroko kideen artean eta bai Eskola osoarekiko harremanean. Gainditu nahi dugun zaharraren eta eraiki nahi dugun berriaren arteko harreman dialektiko etengabeko horretan, kalitatezko jauziak egin behar dira. Genero-harreman berriak, esate baterako, gizon-emakumeen artean finkatutako aurreiritzi eta harreman moduan historikoki osatzen joan denarekin batera gertatzen dira, ez isolatuta eta bereizita, eta beste hainbeste gertatzen da afektibitate eta sexualitate mailako harremanekin. Harreman berriak zaharren baitan eraikitzen dira, egunerokoan”. (ENFF, 2014:12).

Arte eta kultura iraultzailea

Dimentsio hau beste guztiak zeharkatzen dituen dimentsio pedagogikoa da, edo ezinbestean gainerako guztiekin uztartu beharrekoa. Izan ere, ENFFek eta MSTk kultura irudikatzen duten moduaren arabera, kultura ez da bizitzako esfera berezi bat, “gure existentzia ekoizten dugunean sortzen, egiten eta sentitzen dugun guztia da kultura” (Bogo, 2000: 9). Ikuspuntu horretatik, kultura gizarte-elkarbizitzan eraikitzen da; hortaz, kultura kapitalista elkarbizitza sozialean bertan eralda daiteke. Artea ez da ulertzen entretenimendu bezala bakarrik, gizaki guztiok sortzeko dugun gaitasun gisa baizik. Horren harira, ENFFek lortu nahi duen giza-prestakuntzako prozesurako kultura eta artea oso dimentsio pedagogiko garrantzitsuak dira; Eskolako eta Ikastaroko hainbat denbora eta espaziotan bertaratzeaz gain, badaude denbora zehatzak kultura eta artearen ahalmen hezitzailea eta eraldatzailea nahita lantzeko, hala nola, kultur-gauak eta Ikastaroko beste une batzuk.

Bukatzeko, helburua zein den berriz azpimarratu nahiko genuke: metodo pedagogikoaren dimentsio guztiak etengabe mugitzen ibiltzea eta horiek denbora eta espazio guztiak zeharkatzea. Beste alde batetik, ENFF eta Ikastaroetako proposamen metodologikoa osatzen duten elementu guztiak artikulatutako osotasun gisa ulertu behar direla nabarmentzen jarraitzea garrantzutsua da. Hortaz, metodoko atal batek ere ez du zentzurik besteetatik berezita, proposamenaren osotasunarekin harreman dialektikoan baizik. Horregatik guztiagatik, gure ikuspuntuaren arabera, ENFFeko eta Ikastaroetako antolakuntza pedagogikoa osotasun bat da, eta bere baitan biltzen du ekintza praktikoen printzipio filosofiko eta teoriko multzoa, orobat prozesuan parte hartzen dutenen ahalmen emantzipatzailea garatzea ahalbidetzen duena.

2.4. ENFFeko Ikastaro Latinoetako 8 urteko parte hartzearen balantzea

TPL/ENFF (2007-2014) Ikastaroko 8 edizioei eta FF/ENFF (2008-2014) Ikastaroko 6 edizioei buruz ENFFeko Ikastaroetako idazkaritzako artxibategian formatu ezberdinetan aurkitu ditugun parte-hartze datu kuantitatiboak antolatu ditugu. Leku-muga dugunez, Latinoamerika mailako prestakuntza politikoko esperientzia honen garrantzia eta dimentsioa islatzen duten bi Ikastaroetako datu orokor eta grafikoak bakarrik aurkeztu ditugu.

Bi Ikastaroak urtero ematen dira eta ENFFen modu trinkoan garatzen dira etapa bakarrean.

- 2007an izan zen TPL/ENFF Ikastaroaren lehenengo edizioa, eta ordutik hona Ikastaroaren zortzi edizio egin dira bata bestearen ondoren. Hiru hilabeteko iraupena du eta urtero abuztua/irailaetik azaroa bitarte burutzen da.
- FF/ENFF Ikastaroko lehenengo edizioak bi etapa izan zituen; lehenengo etapa ENFFen garatu zen 2008an, eta bigarren etapa, berriz, Cochabamban (Bolivia). Lehenengo edizio horretako barne-ebaluazioak bi etapetan eskolatutako militanteak oso gutxi izan zirela erakutsi zuen, eta horren ondoren, gainerako edizioak ENFFen etapa bakarrean garatuko zirela zehaztu zen. Iraupena 40 eta 45 egun bitartekoa izaten da -6 aste-, eta urte bakoitzeko maiatza eta uztaila bitartean garatzen da.

Hurrengo taulan bi Ikastaroetako parte hartze datu orokorrak aurkeztu ditugu.


9. taula. NFF ikastaroetako parte-hartzea			
	FF/ENFF Ikastaroa (2008-2014)	TPL/ENFF Ikastaroa (2007-2014)	Guztira
Herrialdeak	21	23	
Erakundeak	159	277	
Parte hartzaileak	367	623	990
Emakumeak	145	274	419
Gizonezkoak	222	349	571
Batez besteko adina	29,2 urte	27,5 urte	28,35 urte

Iturria: ENFFeren artxiboko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.


Zortzi urte horietan, guztira 990 militante egin dituzte ENFFeko Ikastaro Latinoak, 623k TPL Ikastaroa eta 376k FF Ikastaroa. Parte-hartze datu orokorrek Ikastaro Latinoek eskualde mailan duten irismenaren dimentsio orokorra ematen digute.

TPL/ENFF Ikastaroak 23 herrialdeetako militanteak izan ditu, Brasilgo askorekin, eta Argentina, Paraguai, Kolonbia, Venezuela eta Mexikokoak ere ugari zirela. Sei herrialde horiek TPL/ENFFeko edizio guztietan bertaratu izan dira. Argentinari dagokionean, parte hartzea handitzen joan da, eta Paraguai eta Venezuelako militante kopurua, aldiz, txikitzen joan da.

1. grafikoa. TPL/ENFF (2007-2014) Ikastaroko parte hartzaile kopuru osoa herrialdeka




Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.



Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.


FF/ENFF Ikastaroan izan diren sei edizioetan 21 herrialdetako militanteak izan ditu, gehienak Brasilgoak, eta kopuruz ondoren Venezuela, Bolivia, Paraguai, Argentina eta Kolonbiakoak datoz. Brasil eta Paraguai izan dira edizio guztietan parte hartu duten herrialde bakarrak, azkeneko urteetan Paraguaiko parte hartzea murrizten joan bada ere.

Ikastaro eta edizio bakoitzean herrialde horien pisua desberdina den arren, bi kasuetan militanteen parte hartzearen batez bestekoa 20 herrialdetakoa izan da. Baina Ikastaro horiek biltzen duten aniztasuna ez da parte hartzaileen jatorrizko herrialdeetara mugatzen, urtero herrialde bakoitzeko eta Latinoamerika osoko herri-erakunde eta gizarte mugimenduen aniztasun handia biltzen baitu; horrez gain, munduko beste eskualde batzuetako erakundeen parte hartzea ere bada, proportzio txikiagoan gertatzen den arren.




Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.

TPL/ENFF Ikastaroan 23 herrialdeetako 277 erakundek parte hartu izan dute guztira, eta denbora-tarte horretan Ikastaroan Argentina, Kolonbia eta Paraguaiko erakunde kopuru itzela nabarmendu da. FF/ENFF Ikastaroaren kasuan, 21 herrialdeetako 159 erakundek parte hartu izan dute guztira. 3. eta 4. grafikoez erakusten dute erakunde kopurua osoa herrialdeka.




Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.

Baina horrez gain, Ikastaro Latinoek hainbat sektore edo esparrutako erakundeak biltzen dituzte. Nekazari-mugimendu batek deitu eta antolatutako ekimena izan arren, nekazarien kezka estrapolatu egiten ditu, eta hirietako langile eta erakunde sozialak ere aintzat hartzen eta biltzen ditu. Gero eta handiagoa da hiri-erakundeetako eta askotariko sektoreetako militanteen parte hartzea.



Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.



Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.

Datu horiek erakusten dutenaren arabera, ENFFeko Ikastaro Latinoak sendotu egin dira gune baliotsu gisa hurbiltzeko, elkar topatzeko, esperientziak trukatzeko, eztabaidatzeko, elkarbizitzarako eta prestakuntzarako, era askotako herrialde, erakunde eta errealitate zehatzetan sustraitutako borroka eta erresistentzia esperientzietatik datozen militanteen artean. Era askotako ikasketak gauzatu dira aniztasun hori guztia elkartzean, elkarrekin hizketan jartzean eta MSTren esperientzia jakinetik sortutako metodologia pedagogiko nekazariaren arabera elkarrekin bizitzen jartzean; eta ikasi egin da, bai ongi eginetatik eta baita aurkitutako mugetatik ere. Hurrengo atalean zehatzago landuko dugu kontu hori.

10. taula. ENFF ikastaroetako parte-hartzaileen batez besteko adina		
Adina/urtea batezbestekoa	TPL/ENFF	FF/ENFF
2014	27 urte	28 urte
2013	29 urte	28 urte
2012	29 urte	31 urte
2011	27 urte	29 urte
2010	26 urte	30 urte
2009	27 urte	Erregistratu gabe
2008	27 urte	Erregistratu gabe
2007	28 urte	—
Ikastaro bakoitzeko batez besteko adina	27,5 urte	29,2 urte
Batez besteko adina guztira	28,3 urte	


Iturria: ENFFeren artxiboko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.

Bi Ikastaroetako parte hartzaileen batez besteko adina 28,3 urtekoa da. TPL/ENFF Ikastaroari dagokionean, batez besteko adina 27,5 urtekoa da, eta FF/ENFF Ikastaroari dagokionean, 29,2 urtekoa. Horrek egiaztatu duenez, Ikastaro bakoitzean bada nagusi den adin-tarte bat: 30 urte baino gutxiagoko gazteena, bi Ikastaroetan.


Beraz, esan dezakegu erakundeek lehentasuna ematen dietela ENFFeko Ikastaro Latinoetara lider gazteak bidaltzeari -30 urte baino gutxiagokoak-; prestakuntza-planak egiteari lehentasuna ematea eta erakundeetan gazteak lider bezala proiektatzea da erakundeetan belaunaldi-aldaketaren erronkari aurre egiteko beharrezko pausoa eta LVC eta ALBAko lerrotatze politikoetako bat. Beste alde batetik, parte hartzaileak gazteegiak baldin badira, antolakuntzako ibilbide eta esperientzia urria dutela adierazi da, prestakuntza po litikoko maila baxua, nola teorian, hala praktikan, eta horrelako profila gehiengoarena den *turmetan* eztabaidak garatu eta sakontzeko muga izan da. Hori dela eta, batzuetan desafiotzat jo da gazteei lehentasuna emanagatik ere, *turmetan* adin-aniztasuna izatera iristea.

Parte hartzaileen sexuaren araberako banaketa antzekoa da bi kasuetan. FF/ENFF Ikastaroari dagokionean, parte hartzaile guztien -367- %60a gizonetzkoak ziren -222- eta %40a emakumezkoak -145-. TPL/ENFF Ikastaroari

dagokionean, parte hartzaile guztien -623- %56a gizonetzkoak ziren -349- eta %44a emakumezkoak -274-. Kopuru osoek ez digute informazio handirik ematen, bi Ikastaroetan sexuaren arabera egindako banaketa antzekoa dela erakusten digute soilik. Baina urte bakoitzeko banaketa aurkezten duten 7. eta 8. grafikoetan agerienez, kopuru osoetan oraindik ere gehienak gizonetzkoak izan arren, 2011. urtetik aurrera *turmetan* genero-berdintasun handiagoa dago, eta, are gehiago, TPL Ikastaroetako edizio batzuetan dagoeneko izan dira emakumezkoak gehiago -2011 eta 2013-.



Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.



Iturria: ENFFeko datuetatik abiatuta norberak egindakoa.

3. ENFFeko Ikastaro Latinoetako aurrerapausu, muga eta erronkak

Hasieran esaten genuen legez, sistematizazio honen helburuetako bat ENFFeko Ikastaro Latinoetako esperientziari buruz kritikoki taldean gogoeta egitea da, esperientzia horretako subjektu izan diren pertsonen jakintzei balioa emateko asmoz, baina baita ikasitakoa prestakuntza politikoko prozesuak eraikitzen dituzten beste leku batzuetako herri-erakunde, mugimendu eta kolektiboekin partekatzeke ere.

Lehenago ENFFen esperientzia kokatzea ahalbidetu diguten informazio eta datuak aurkeztu ondoren, atal honetan, ENFFeko Koordinazio Politiko Pedagogikoan -KPP- eta baita irakasle kolaboratzaile eta ikasleen artean identifikatutako elementu batzuk bildu ditugu, esperientzia honetan ikasitakoen inguruan hainbat ikuspuntu identifikatzen ahaleginduz. Jasotako gogoetetatik isurtzen diren ikasketak bi ataletan sailkatu ditugu; lehenengo atalean, aurrerapausuak/asmaturakoak eta bigarren atalean mugak, zailtasunak eta erronkak, aztertu dugun landa-materialeko alderdirik azpimarragarrienekin harremanduz ¹⁹.

3.1. Identifikatutako aurrerapausoak/asmaturakoak

3.1.1. Erakundeen aniztasunari eta Ikastaroen nazioarteko izaerari buruz

Jasotako gogoeten artean, azpimarratu da ENFF/MSTk urte hauetan zehar Ikastaro Latinoetako proposamenari buruz ekarpenak eta kritikak jasotzeko erakutsi duen irekitasun eta malgutasun gaitasuna, gatazka gehienak eragiten zituzten alderdi metodologiko batzuk doituz -diziplina, edukiak, ordutegiak-, eta erakunde parte hartzaileetatik botatako proposamen batzuk txertatuz ere bai; hori guztia proposamenak identitatea eta hezkuntza-printzipioak galdu gabe. ENFFeko KPPak honako hau adierazi du:

¹⁹ Leku mugatua daukagunez, testu honetan sistematizazio-prozesuan zehar jasotako gogoeten zati bat bakarrik aurkeztu dugu. Horrez gain, Ikastaro Latinoetako edizio guztietako memorien zati handi bat ere aztertu dugu. Guztira 20 elkarrizketa egin dizkiegu hainbat ediziotan parte hartu duten ikasle eta irakasleei: talde eztabaida bat lau militantereekin, talde saio bat FF/ENFFeko Ikastaroko 2012ko edizioaren sistematizazioko taldearekin, TPL/ENFF Ikastaroko 2013. eta 2014. edizioetako eta FF/ENFF Ikastaroko 2014. edizioeko parte hartzaileekin egindako 100 galdetegi.

“Ikastaro Latinoetako esperientziarekin, MST hezkuntza-metodologiaren ikuspegitik jokatzeko ikasiz joan da, eta baita edukietatik eta programazioetatik ere; hain zuzen, turmetako profila oso anitza baita. Errealitate horrek pixkanaka-pixkanaka edizio berri bakoitzean gauzatzen joango ziren aldaketak bultzatu zituen”. (CPP/ENFF, 2012).

Esate baterako, zenbait urtez Ikastaroak eman ostean, ENFFean detektatu zen, kritikak, keak eta antzekoak eramateko proposatutako lekuak Oinarritzko Nukleoak izan arren, kritikak edo arazoak larriagoak zirenean, parte hartzaileek ez zutela KPPrekiko informazio-kanal hori erabiltzen, ez eta Ikastaro bakoitzeko KPPari zuzenean jakinarazten ere. Aitzitik, nor bere erakundeko instantziei jakinarazten zien Ikastaroa bukatu eta gero. Horrelakoak gertatzea ekiditeko, komunikazio mekanismo bat sortu zuen MSTk, eta jatorrizko erakunde bitartez jaso ahal izaten ditu kezarik larriak.

Aurrekoarekin lotuta, ENFF/MSTk beste erakunde batzuen kolaborazioa/ parte hartzea bideratu duela ere nabarmendu da eta horrek Ikastaroetan modu ezberdinetan esku hartzeko -izan tailerrak, eztabaidak, gelak, Ikastaroko KPPan sartuz, eta abar- aukera zabaldu die. Horri esker, Ikastaro Latinoetara militanteak bidaltzen dituzten erakunde aldetik elkarrizketa sakonagoa eta erantzukizun partekatua gauzatu ahal izan da Ikastaroak eraikitzerako orduan. Adibide ugari daude, baina haietako bi nabarmenduko ditugu: Guatemalako Nekazari Batasuneko Batzordea-CUCeko kide batek irakatsitako *Marxismoa eta mundu-ikuskera indigenak Latinoamerikan* ikasgaiaren bitartez indigenen gaiak sartzeko eta baita beste erakunde batzuetako hezitzaile feministek irakatsitako generoa eta feminismoari eta mugimenduak kriminalizatzeari buruzko tailerrak ere:

“Ikastaro Latinoaren egituraren barruan egin ziren mintegiaren baitan, hezitzaile gisa parte hartu nuen prozesu batzuetan; hala nola, Rosa Luxemburgo fundazioak hainbat gairi buruz burutu zituenak eta guztion artean eztabaidatzera irekiak izan zirenak, horietako batzuk feminismoari buruzkoak izan ziren, mugimendu sozialak kriminalizatzeari buruzkoak beste batzuk, eta curriculumaren esparru barruan sartu zituzten hainbat gai egon ziren”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:3).

Behin eta berriz baieztatu da Ikastaroak motibatuzko funtzioa betetzen duela, eta erakunde asko euren prestakuntza politikoko prozesuak eraikitzea eraman dituela. Horrekin lotuta, zenbait testigantza ere aurkitu ditugu erakunde askok, esperientzia ezagutu ondoren, prestakuntza politikoa lehentasun estrategikotzat

hartu dutela adieraziz, eta erakunde askorentzat prestakuntza politiko eta pedagogikoaren arloan ENFF erreferentzia bihurtu dela azpimarratuz. Bestalde, bai Eskolako KPPkoek eta bai irakasle eta ikasleen testigantzek ere nabarmentzen jarraitzen dute erakunde bakoitzak bere borrokako errealitateen eta estrategien arabera norbere formatu politiko eta pedagogikoak eraiki behar dituela:

“Bada [ENFFek] ekarri zuen kontu historiko bat, eta hori, prestakuntza politikoaren beharra berreskuratzea izan da [...] kolektiboki egitearen ideak erakunde ugari euren prestakuntza-ikastaro propioak antolatzen hastea eragin zuen [...] askok MSTren estiloan eta antzera, eta niri hori ez zait konturik interesgarriena iruditzen, uste baitut euren esperientziatik abiatuta ekin ziotela; hala ere, erakunde bakoitzak bere formatu politiko eta pedagogikoak eztabaidatzea ona da”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:3).

Askota aipatzen den beste ideia baten arabera, ENFFek ematen dituen prestakuntzen bitartez, militanteak bidaltzen dituzten erakundeak indartu egiten dira, batik bat euren taldeak prestatzeko ez espazio, denbora ezta beharrezko baliabiderik ez duten erakundeak. Horrez gain, herri-erakundeen beharrei erantzuten dien prestakuntza dela aipatzen da:

“Askotan antolakuntza eta lan dinamikek eraginda, ez gara gure erakundeek dauzkaten prestakuntza-behar eta -hutsuneei buruz pentsatzen jartzen, eta inguratzen gaituen eta aurre egin behar diogun errealitatea ez dugu analizatzen; iruditzen zait horixe dela ENFFek eskaintzen digun gonbidapena eta aukera. Ikastaro Latinoek prestakuntza politikoaren beharra eta garrantzia ulertzen lagundu digute”. (FF/ENFFeko ikaslea, 2014ko Turma).

Hainbeste erakunderen aniztasuna duten Ikastaroetan parte hartzeak proposamena askoz ere integralagoa bihurtzen duela azpimarratzen da. Beste herrialde batzuetako erakundeetako militanteen historia bertatik bertara ezagutzeko aukerari esker, borrokaren jomuga eskualde mailarantz gehiago zabaltzen du; beste herrialdeetako borroka gutxi ezagutzen dituzten lider gazte askorentzat politizatzeo aukera oso garrantzitsua da hori.

“Erakundeetan ardura maila ertaineko militanteak ugari Ikastaroan zehar harremanetan jartzen dira eta horrek hainbat herrialdetan eta langile klaseetako hainbat sektoretan klase borroka esperientziak eta ikuspuntuak trukatzea ahalbidetzen du. Prestakuntza jarduera guztiek

bezala, ikuspegi partzial batetik -eskualdekoa edo sektorekoa- denboran eta espazioan ikuspegi orokorrako batera igarotzea ahalbidetzen du. Ildo horretan, politizatzeak jaurzia da berez. Izan ere, guztiontzako hizkuntza bat eraikitzeak, borroka partzial horren ikuspegia baino zabalago batean kokatuta dagoen norbere praktikaz gogoeta egitea eskatzen du”. (Ikastaro Latinoak/ENFFeko irakaslea, 2015).

Zenbait alditan, jasotako testigantzek baieztatzen dute Ikastaro Latinoak Latinoamerikako landa eta hirietako mugimendu eta erakundeetako eskualde eta nazio mailako artikulazioak indartzeko funtsezkoak direla. Denboran zehar mantentzen diren Ikastaroek elkarrekin topo egiteko, esperientzia eta ideiak trukatzeko, ikuskera eta ikuspegi politikoen aniztasunaz eztabaidatzeko eta abarrerako gune moduan oso eginkizun garrantzitsua betetzen dute. Azken batean, parte hartzen duten herri-erakundearen aniztasunaren baitan elkarrengana hurbiltzeko eta elkarbizitzarako aukera da; ikasleetako batek zioen moduan, “hezur-haragizko integrazio latinoamerikarra”:

“Borroka ezin dela herrialdeka zatitu iruditzen zaigu, izaera internazionalista izan behar duela baizik [...] ENFFeko bezalako esperientzietan parte hartzea oso garrantzitsua da artikulazio horri laguntza emateko, eta aldi berean erakunde bezala hazteko beste borroka, antolakunde eta prestakuntza politikoko prozesu batzuekin integratuta egon beharra dugu”. (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko Turma).

3.1.2. ENFFeko Ikastaro Latinoen proposamen ideologikoari buruz

Testigantza gehienek Ikastaroetako proposamen metodologikoaren izaera integrala ENFFen bizitako prestakuntza-prozesuko giltzarria dela azpimarratzen dute; horrek ikasleei gogoeta egiten eta baita prestakuntza politikoa prozesu integral, iraunkor, eguneroko, dinamiko, dimentsio anitzeko, kolektibo, dialektiko gisa ulertzen lagundu baitie... hau da, eraldatuz, zeure burua eraldatzen duzun prozesu gisa. Oso balorazio positiboa jaso du MSTk beste mugimenduei subjektuen askotariko dimentsioei –arrazionala eta ideologikoa, emozionala, pertsonala, kolektiboa, materiala, subjektiboa, baloreak, etika, artea, kultura, teorikoa, praktikoa– arreta jartzen dien hezkuntza-proposamen adibide bat ezagutu dezaten aukera eskaintzeagatik. ENFFeko Eskola-bizitzako une eta gune guztiak intentzionalitate pedagogikoz hornitzen dituen kolektiboa ari da lanean. Erabilitzen diren metodologiak

Latinoamerikako gaur egungo mugimenduetako prestakuntza politikoaren erronkei heltzen laguntzen diela baieztatu du hautatutako testigantza batek:

“Neure burua antolatzeko, oso garrantzitsua da borroka-espirtua biziarazten eta lan-politikoak aberasten duten espazio horiek izatea. CLOC/LVC eta ALBAn parte hartzen dugunok gure erakundeetan prestakuntza erdiguneko ardatza izateko erabaki politikoa pentsatu behar dugu modu iraunkorrean. Beharrezkoa da gure herrialdeetako errealitateei buruz irakurketa zehatzagoak izatea, gure erakundeen artean komunikazio-kanalak indartzea, Latinoamerikako historiaren analisi kritikoan sakontzea, gure militantziaren espirtu iraultzailea elikatzea, eredu izanez baloreen praktika sustatzea, diziplina kontzientea betearaziz konpromisoak eragitea, gure apustuak indartu ahal izateko hainbeste elementu berri eskaintzen dizkiguten prestakuntza politikoko esperientzia ugariak sozializatzea. Gainera, ebaluatu, ikasi eta desikastea ahalbidetzen digun sistematizazio-eginkizuna bete behar dugu. Ildo horretan, ENFFeko Ikastaro Latinoek, Ikastaroak garatzeko erabilitako metodologiari esker, desafio horiei aurre egitea ahalbidetzen dutela iruditzen zait”. (FF/ENFFeko ikaslea, 2014ko Turma).

Ikastaroaren metodologia Ereduaren Pedagogian oinarritzea parte hartzaile gehienek oso positibotzat jo dute, hau da, Ikastaroaren asmo pedagogikoaren jomuga, ENFFekoa bezalako giro pedagogikoan metodo pedagogikoa bizitzea eta haren jabe egitea izatea. Hori dela eta, ikasleek aldi berean funtzionatzen duen testuinguru zabalago batean garatzen dute proposamen metodologikoa, metodologia- eta antolakuntza-logika berean. Ikastaroaren izaera organikoaren baitan parte hartzen dute (ONak), baina ENFF beraren izaera organikoaren baitan ere bai, Lan sektore batean txertatuz eta KPPrekin batera Ikastaroa koordinatzen parte hartuz:

“Sozialismoari ez itxoin azkeneko geltokian, harremanak, egunerokoan loturak sortzen joan baizik [...] Bizitzeko nahi den mundu hori harreman pertsonaletan bizi daitekeela ikusteak kide batzuegan zirrara eragiten duela uste dut. Eta hori oso indartsua da, izan ere, gutako bakoitzak bizi dugun munduaren kritika da daukana, bidegabekeriaren aurrean matxinatzea, baina, praktika konkretuan edo kolektiboan mugimenduen funtzionatzeko moduagatik, frustrazio ugari ere badago, eta, tira, desberdina izan daitekeen zerbait badagoela ikustea [...], harreman sozial desberdinak eraiki daitezkeela, oso garrantzitsua dela uste dut”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015: 9).

Kontu azpimarragarrienetako bat prozesu pedagogikoa kolektiboetan antolatzea da (ONak, Laneko sektoreak, Koordinazio Politiko Pedagogikoa, eta abar). Ikastaroen izaera organikoak ondorengoa ahalbidetu eta sustatzen du: taldeak bere burua antolatu eta kudeatzeko prozesuetako praktika, teoria eta praktika elkarrekin hizketan jartzea, herrialde, gizarte-klase, etnia, genero eta antolakuntzen heterogeneotasuna elkarrekin harremanetan jartzea, hainbat ariketa pedagogikoren bitartez, eskulana zein lan intelektualak egin ahal izateko eztabaidatzera eta ados jartzera behartzea. KPPren eta ikasleen ikuspegitik, *turmaren* izena eraikitzea hori modu hobereanean gauzatzea lortzen duen ariketa pedagogikoetako bat da:

“Antolakuntzaren ikuspuntutik, ezaugarriarik interesgarriena gune kolektiboak sortzea da, horietan guztiok aktibo eta sortzaile izan gaitezen. Oinarrizko Nukleoak turmako gainerako kideei proposamenak egiteko eta informazioa mugiarazteko antolakuntza-ardatz moduan [...] Laneko taldea ere beharrezko espazioa da eta prestakuntza politikoko neure prozesua ordenatzeko eta nire kideen prozesurako ekarpenak egiteko balio izan dit”. (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko Turma).

Metodologia pedagogikoak *Lan militantea edo beharrezko lana txertatuta izatea* elementu metodologiko indartsuenetako eta gozagarrienetako gisa markatu dute parte hartzaile gehienek. Testigantza batzuen arabera, baloreak eta erantzukizun kolektiboak eraikitzea lantzeko modu eraginkorra izateaz gain, lan militantearen bitartez, Eskolaren eta Ikastaroko prozesuaren eraikitzaile sentitzen zara, ikasgelen bidez ere lantzen den teoria eta praktikaren arteko harreman dialektikoa ulertzen laguntzen du, eta eskulana eta lan intelektualaren arteko dikotomia apurtzea babesten du:

“Lan kolektiboaren ideia eta eskulana eta lan intelektualaren arteko desberdintasuna amaitzeko saiakera eta gizon-emakume guztiok, baldin eta militanteak bagara, bata zein bestea egiteko gai izan behar dugunaren ideia [...] dimentsio oso interesgarria dela iruditzen zait, zerbait berria kolektiboan eraikitzeko lan kolektiboaren ardua norberak uste sendoz hartzeko ideiatatik ere bai, Eskola Ikastaroekin batera eraiki zenaren ideia, hainbeste kide eta erakunde Eskola eraikitzen jarri izana”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:8).

Izaera organikoaren eta lan militantearekin batera, Metodologia pedagogikoak arrazionalak ez diren hizkuntza eta kodeen bitartez edukiak lantzeko molde gisa *mistika* txertatzea parte hartzaileen proposameneko beste alderdirik nabarmenenetakoa da. Beste ideia batzuen artean, alderdi subjektiboak landu

ahal izateko mistikak duen ahalmena azpimarratu dute zenbait testigantzek; erakundeekiko eta euren borrokekiko motibazioa/lotura edo identitate kolektiboa eraikitzea izan daitezke alderdi horietako batzuk. Sistematizazio horren bitartez, erakunde askok Ikastaroa egin ondoren, praktika politiko bezala euren egitura eta prestakuntza-prozesuetan mistika txertatu dutela egiaztatu dugu, gehienetan euren errealitateetara egokituta.

Horrez gain, hiri-erakundeek teoria eta praktika, eskulana eta lan intelektuala eta abar uztartzeko gai den jatorri nekazariko prestakuntza-politikoko metodologia ezagutzeko aukera izatea oso modu positiboan balioetsi da; izan ere, borroka eta militantziako hiri-testuinguruak askoz zailago bihurtzen baititu mota horretako metodologia eta Ikastaroak, eta ENFFek eskaintzen duen aukeragatik izango ez balitz, Latinoamerikako hiri-erakunde askok ezingo lukete mota horretako prestakuntza-proposamenik bizi:

“MSTk beti izan du oso garrantzitsua den kontu bat: teoria eta praktikaren arteko harremana bere prestakuntzako elementutzat hartzea, eta horri dagokionean interesgarria da janaria eta garbiketa bezalako eginkizun kolektiboak txertatzeko proposamen pedagogikoa [...] hau da, kontua ez dela ikastera eta irakurtzera joatea bakarrik, baizik eta era kolektiboan zerbait egitea eta nola lan egiten den ere pentsatzea [...] dagoeneko prestakuntza-prozesuetan ez dagoen teoria praktikoaren harremanari buruzko hori guztia. Besteak beste, erakundeetako prestakuntza-prozesuak oso hiritarrak direlako, Argentinan behinik behin bai [...] Nekazaritza mundua urrun dago Argentinan. Orduan, lurrik gabeko langileen nekazaritza-erakunde bat protagonista izateak zirrara eragiten du. Eta MSTren jarrera klasistak ere hunkitu egiten ditu gaur egungo gazteak”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:4).

Halaber, proposamenean asmatutako puntu bezala azpimarratzen den beste alderdi bat aipatzeko ere balio digu aurreko testigantzak: balore, printzipio eta etika militanteko hezkuntza metodologian txertatzea, berritasuna gaurko egunerokoan eraikitzea. Ikastaroan zehar eztabaidan jartzea eta gogoetagai izatea Ikastaroan zer eratako harremanak eraikitzen diren, zuk -partikularra-kolektiboarekin -osotasuna- zer eratako harremanak eraikitzen dituzun, Ikastaroan zehar zer balore, printzipio eta etika mota jartzen dituzun jokoan, kolektiboa zein den eta harreman dialektiko hori nola gertatzen den. Horren guztiaren eraginez, parte hartzaile gehienek prestakuntza politikoko prozesuetan landu beharreko funtsezko alderditzat aipatzen dituzten alderdi subjektiboak lantzen dira.

“Prestakuntza politikoa guk militante eta erakunde bezala jokatzeko printzipio, balore, eta zeharkako ezaugarri iraunkor bihurtzea da erronka. Horren harira, bermatu ahal izatea prestakuntza politikoa gure izaeran eta jokabidean ekintza kontzientea izan dadila ere bermatzea da erronka [...] Ziur baino ziurrago dakit ENFFeko Ikastaroek ibiltzen laguntzen dutela, eta baita erronka horiek betetzen ere”. (FF/ENFFeko ikaslea, 2014eko Turma).

Metodologia elkarbizitza luzeko proposamen trinkoa izatea parte hartzaile gehienek azpimarratutako beste alderdi bat da; horrela, edukiak bakarrik ikasteaz gain, praktikak, elkarbizitza, gatazkak eta Ikastaroen ondoren irauten duten loturak ere gehitzen zaizkio:

“Argentinan ehunka dira MSTeren Eskolan ikasitakoak, eta uste dut haiek guztiek, emakume zein gizon, han bizitako esperientzien marka daukatela. Kritikoak edo ez hain kritikoak izan daitezke, han bizitakoa gehiago edo gutxiago barneratu izan dute, baina bizipen moduan zein gogoetari dagokionean, arrasto handia uzten duen esperientzia ahazteztina da”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:4).

“ENFFeko nire esperientzia eguneroko aurkikuntza eta ikasketaz betetakoa izan da; Latinoamerikako ikuspegiarekin teoria politiko berriak barneratzea, une bakoitza baliatu ahal izateko neure buruari eragin diodan diziplina, denbora antolatzea, eta une oro partekatutako bizitza izanik, elkarbizitza osasuntsua izatea. Ikastaroko kulturartekotasuna zoragarria da”. (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko Turma).

Ikastarora iritsi aurretik, militante asko, Ikastarora militanteak bidali ohi dituzten erakundeetako militanteak batik bat, aurkituko duten proposamena azaletik ezagututa iristen dira. Bada erakundeek beraiek alde zuzenetik egiten duten nolabaiteko prestaketa bat, eta Ikastaroetan izandako militanteak izaten dira horren arduradun. Prozesuan sartzea asko errazten duelako, oso positibotzat nabarmentzen du Eskolak hori.

Aurreko puntuan adierazi bezala, zortzi urte hauetan Ikastaroetako proposamena doitzen joan da. 2010ean bi doikuntza metodologiko egin ziren eta Eskolaren aldetik zein ikasle-irakasleen aldetik ere oso balorazio ona jaso zuten, prozesuan hobeto barneratzea balio izan zuelako:

- Proposamen metodologikoa aztertzeari, ENFFeko funtzionamendu eta proposamen pedagogikoari eta *turmaren* beraren izaera organikoa

definitzeari eskainitako denbora handitzea izan zen doikuntza horietako bat. Prozesu horri MSTek *sartze organikoa* deitzen dio, eta Ikastaro bakoitzeko lehenengo egunetan egiten da. Latinoamerikako erakundeentzako bideratutako Ikastaroei dagokienean, Eskolan eta Ikastaroko metodologian murgiltzeko denbora gehiago eskaintzea beharrezkotzat jo zuten ikasleek; horrela, proposamen pedagogikoa hobeto ulertzeko eta tentsio eta erresistentzia gutxiago sortzeko aukera izango baitzuten. Ikasle askok adierazi izan duten bezala, urteek aurrera egin ahala, neurri hori oso egokia eta beharrezkoa izan zela ikusi da.

- Lehenengo astean zehar Oinarrizko Nukleoan (ON) Bizi-historiak partekatzea izan zen bestea. Horrela, parte hartzaile bakoitzak bere bizi-esperientzia, ohiturak, gustuak, sinesmenak, munduaren ikuskerak eta ikuspegiak, norberaren erakunde barruko funtzioak, eginkizunak, bizimodua eta Ikastaroarekiko itxaropenak sozializatzen ditu bere ONean. Parte hartzaile askok oso une garrantzitsutzat identifikatu dute, “hasteari ekiteko” unea delako, beharrezko hasiera-pausoa ONaren barruan lagunarte, adiskidetasun eta elkar zaintzeko loturak eraikitzen joan daitezen eta baita ondoren ONaren baitan identitate kolektiboa eraiki ahal izateko ere.

3.1.3. Eduki teorikoei dagokienean

Gizarte-mugimenduetako lider gazteek pentsamendu teoriko marxista ikasteko eta klase-borrokaren ikuspegian sakontzeko aukera izatea oso positibotzat jo da. Zenbait testigantzen arabera, hiri-erakundeetako militanteei dagokionean, ez dituzte ezagutzen teoria marxistak eta euren analisi-esparruak haietako asko unibertsitatean ikasitakoak direlako eta hain zuzen, akademian postmodernitatea nagusi da. Beste testigantza batzuek, berriz, Ikastaroen eta Eskolaren bitartez Latinoamerikako marxismora horrelako prestakuntza-ikastaro eta -prozesuetarako gai eta eztabaida oso garrantzitsu ugari ekarritako egile marxisten pentsamendua berreskuratzearen garrantzia azpimarratu dute; hala nola, Gramsci, Rosa Luxemburgo, Mariategui, eta abar:

“MSTeren jarrera klasistak zirrara eragiten du. Izan ere, azken hamarkadako erakunde ideologikoetan postmodernitatea erabat nagusi izan da. Nolanahi ere, niri klasista hitza patriarkala eta kolonialaren aurkakoaren ertzean aurkezteak nolabait prebentzioko zerbait eragiten dit, eta uste dut Ikastaroetan batzuetan badagoela disoziazio hori. Baina, hala ere, estimatzen dut klasismoaren eztabaida akademian behintzat

hegemonikoa den postmodernitatearen aurkako aldean instalatzea. Eta egia da hiri-erakundeetako militanteetako asko akademian ikasitakoak direla; pikete-kideen edo langabeen mugimenduan izanda ere, bertako kideak unibertsitatean ikasitakoak izaten dira. Orduan, postmodernitatearen kultura horrek mugimenduak zeharkatu zituen [...] Botere-harreman guztiak aldi berean begiratzeko ideia are gehiago indartzea falta den arren, MSTk egin duen ekarpena ikuspuntu klasistatik errealitatearen inguruko eztabaida eta analisisa gauzatzea dela iruditzen zait”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:5).

Horrez gain, hainbat formatu eta hizkuntzaren bitartez eduki teorikoak banaka eta kolektiboan landu izana ikasleek oso era positiboan baloratu dute, ezagutzaren transmisio hutsaz haratago, gaiak lantzeko ikasgelak, eztabaidak, ariketa praktikoak, bisitaldiak, filmak, mintzaira artistikoak eta abar erabiltzea uztartuz. Horren harira, parte hartzaileen ekarpen eta ebaluazioen arabera egindako proposamenaren doikuntzetako bat 2011n egin zen: Ikastaro Latinoetako programazioan Literatura elkarteak txertatzea; aste bakoitzaren hasieran, gai-unitate bakoitzaren aurretik, ipuinak irakurri eta interpretatzeko tailerren bitartez gaien sarrera egiteko. Literatura elkartei buruzko oso iritzi ona dute elkarrizketatutako ikasleek, parte hartzaileen artean kultur-truke aberatsa eta Latinoamerikako errealitatea eta historia ulertzea ahalbidetu duela azpimarratu baitute.

Hainbat testigantzek nabarmendu dute Ikastaro Latinoak militanteek ezagutza eskuratu ahal izateko aukera bat direla, izan ere, egunez eguneko bizimoduan eguneroko urjentzia eta eginkizunek ez baitute denborarik uzten egoera aztertzeko, errealitatea analizatzeko eta esku hartzeko estrategiez pentsatzeko. Irakurketa eta ikasketa trinkoari eskaintzeko denbora izateak oso balorazio ona izan du Ikastaro Latinoetako ikasleen artean:

“Orokorrean, eguneroko eginkizunek zailago bihurtzen dute analisi sakonago eta zabalagoak egiteko aukera. Gainera, ENFFak prestakuntza eta ikasketa zorrotza bultzatzen ditu engaiatutako militantzia lortzeko funtsezko alderdi gisa. ENFF erakunde nekazari, indigena eta hiritarrek ezagutza eskuratzeko, taktikak argiago garatu ahal izateko eta artikulatutako estrategiak definitzeko balio handiko aukera da”. (FF/ENFFeko ikaslea, 2014ko Turma).

Parte hartzaileek eskatutako gaiak edo prozesuan zehar era batera edo bestera ikasgai-zerrendan egon beharrezkotzat nabarmendutako gaiak -auzi indigena,

feminismoa, eta abar- eransteko gai izatea da ENFFek aurreko edizioetan identifikatutako beste kontu bat da. Esate baterako, Marxismoa eta mundu-ikuskerak indigenak Latinoamerikan horietako gai bat izan zen; 2011n txertatu zuten programazioan, eta Guatemalako Nekazari Batasuneko Batzordea-CUCeko kide bat izan zen irakaslea.

Ikastaroko edukiak eduki teorikoak izatera ez daitezela mugatu eta metodologia pedagogikoak programazioan sartuta ikas daitezela; Ikastaroa gidatzen duen metodologia bera ere oso positibotzat jo dute elkarrizketatutako lagun guztiek.

3.1.4. Ikastaroek jatorrizko erakunde eta herrialdeetan daukaten eraginari dagokionean

Eskualdeka prestakuntza politikoko Ikastaroak egiteko ideia eztabaida eta mintegietan sortu zen, eta horietan parte hartu zuten erakunde askok lehenengo edizioetan kolaboratu zuten. Jatorrizko herrialdeko beste erakunde batzuekiko lotura egiteko modua izan ziren erakunde horiek, proposamena, programazioa eta abar azalduz deialdiak zabaltzeko eta alde aurreko nolabaiteko prestakuntza egiteko. Hasiera batean hori herrialdeetan Ikastaroak hedatzeko giltzarri izan zela aipatu da:

“Une horretan, nik Ikastaroa eta Florestanekin neukan lotura deialdia hainbat erakundeetara helaraztea zela esango nuke, eta gero, jakina, hizketaldi batzuetan parte hartzea; baina kontua ez zen izaten metodologiaren edukia eztabaidatzea, baizik eta gehiago izaten zen Ikastaroetako deialdiak iritsi zitezkeen bermatzea, lotura egitea, alegia [...] joaten ziren kideekiko erantzukizuna geneukan, alde aurretik elkartzen ginen. Urte batzuk geroago, erakunde bakoitzak ehunduta zeuzkan bere harremanak”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:2).

Jakin dugunaren arabera, erakunde askok ikasleek ENFFetik itzuleran Ikastaroan ikasitakoa gizartera dezaten saio edo topaketak egiten dituzte. Barne mailan egindako esperientzia-iraulketa da -edukiak, metodologia, artikulazioak, kontaktuak, beste erakunde parte hartzaile batzuen esperientziak-, Eskolara joan aurretik militanteek euren gain hartzen duten konpromisoetako bat.

“Gure erakundeak 2007tik bidaltzen ditu militanteak Ikastaroan ikas dezaten. Paraguaira itzultitakoan, guztiak Asuncioneko CONAMURiko

bulegora iristen dira esperientziaren txostena egiteko. Han dokumentazioa, programak, koadernoak, CDaren kopia memoriarekin, ENFF eta turmako argazkiak jasota gelditzen dira eta dokumentazio eta erregistro guztiak hurrengo urteko kide berriekin sozializatzen dira. MSTko Ikastaroan ontziratutako aurretik Asuncioneko prestaketa egiten da. “Aurkitu nezakeenaren alde aurreko informazioarekin iritsi nintzen ni, eta hitz egin zidatena eta hemen aurkitu nuena bat datoz”. (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko Turma).

ENFFeko Ikastaro Latinoek parte hartzen duten erakundeei eskaintzen dizkieten kontuen artean, positibotzat hartzen den beste kontu bat erakunde askok euren militanteak Ikastaroko eta Eskolako metodologia pedagogikoa eta antolakuntzakoa ezagutu eta ikasteko eginkizunarekin bidaltzea da. Horrez gain, militanteek ENFFeko ikastaldia euren herrialdeko eta kontinenteko beste erakunde batzuekin nork bere herrialdean eta erakunde prestakuntza politikoko prozesu horiek garatzeko moduari buruz pentsatu, eztabaidatu eta ideiak elkarrekin trukatzeko baliatu behar dute.

Zortzi urtez irautea zinez garrantzitsutzat jo izan da behin eta berriz; izan ere, parte hartzearen balantzea aurkeztu dugun atalean egiazta daitekeen bezala, herrialde askotan benetan kopuru handia osatzen dute ENFFetik pasa diren zenbait belaunalditako militanteek. Jasotako testigantza batzuek hori eragin eta arrasto positiboak izaten ari dela adierazten dute, bai erakundeen barne mailan eta baita erakundeen arteko harreman mailan ere; esate baterako, hurrengo testigantzan ageri den bezala herrialdeetan elkarrekin prestakuntza-prozesuak antolatzeke aukeraz pentsatzea eragin positibo horietako bat da:

“Florestaneko Ikastaroetara joandako kide ugari gaur egun mugimenduetako partaide dira; orduan badakigu elkarrekin gauzak egin daitezkeela. Zuk Ikastaroetan dagoeneko ibilbide jakin bat egindako horietako erakundeetako edozeini esaten badiozu, ongi, hezkuntza kolektiboko esperientzia bat gauzatu nahi dugu elkarrekin, Ikastaro Latinoa daukate buruan, bizi izan dutelako edo euren kideren batek dagoeneko bizi izan duelako. Lehenago Argentinan ezinezkoa zen prestakuntza prozesu bat partekatzea [...] Ikastaroen esperientzia hau urteetako da jadanik; horregatik esaten nuen niretzat urteen kontua oso garrantzitsua dela, partekatutako Eskola edo Ikastaro prozesuetan pentsatzeko aukera ematen digulako. Une hauetan, hainbat erakunderen artean Argentinan prestakuntza politikoko hiru Ikastaro gutxienez egiten ari gara”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:9).

3.1.5. Emakume eta gizonen parte hartzeari eta eztabaida feministak eransteari buruz

Nahiz eta guztira oraindik ere parte hartzaile gehienak gizonetzkoak izan, 2011tik partaideen artean genero-berdintasunerantz aurrera pausoak ematen ari dira eta TPL Ikastaroko zenbait ediziotan -2011n eta 2013an- emakumezkoak izan dira gehiengoa.

Ikastaroetako programazioan generoa eta feminismoaz tailerrak eta eztabaidak sartu izana aurrerapausotzat identifikatu da; Rosa Luxemburgo Fundazioa, Pañuelos en Rebeldía, SOF-Brasil eta MST bezalako taldeetako hezitzaileek dinamizatzen dituzte ekimen horiek.

3.1.6. Ikastaroetako jarraipen Politiko Pedagogikoari (KPP) dagokionean

Zenbait testigantzatan azpimarratutakoaren arabera, Ikastaro Latinoetako Koordinazio Politiko Pedagogikoek (KPPek) egindako jarraipenaren bitartez, ENFF/MSTk *turma* latinoen behar espezifiko batzuk identifikatu zituen. *Turma* latinoen berezko ezaugarriak direla eta -biltzen dituzten herrialdeak, erakundeak, etniak eta hizkuntzak hain heterogeneoak izateagatik-, Ikastaroetako proposamenean doikuntzak egiteko beharra detektatu zen -elkarbizitza irizpideak, diziplina irizpideak, eta abar-, eta beharrezkoa izan zen MSTko militanteentzako Ikastaroetan egiten dena baino prozesuaren jarraipen politiko pedagogiko biziagoa, hurbilagokoa egitea.

Ikastaro Latinoetako KPPek *turmetan* egindako esku hartzeek edo itzulketek oso balorazio positiboa izan dute; horiek parte hartzaileek bizi duten prozesuaren irakurketa politiko-pedagogikoen bitartez egiten dira edo prozesuan zehar sortzen diren tentsio edo gatazka egoerak lantzeko ariketa-proposamenen bidez.

Ikastaro Latinoetako edizioak dagoeneko zortzi izanik, eta batzuetan KPPko kideak edizio batetik bestera aldatu egiten diren arren, prestakuntza eta jarraipen politiko eta pedagogikoaren metatze bat gertatzen da. Horren harira, irakasleen eta Eskolako koordinazioaren aldetik bertatik ikusi da beharrezkoa dela edizio batetik bestera KPPko bi kide gutxienez mantentzea, prozesuaren izaera historikoa eta Ikastaro Latinoetako metatze politiko eta antolakuntzazkoa bermatu ahal izateko.

3.2. Identifikatutako mugak eta erronkak

3.2.1. Erakundeen eta herrialdeen aniztasunari dagokionean

Ikastaro Latinoetara iristen diren erakundeak, hiritarrak bereziki, gero eta izaera anitzagoa izatea, erakundeen askotariko izaera hori lantzeko modua erronka da Eskolarentzar. Izan ere, Ikastaroak eta Eskola, ikuspegi eta logika nekazari batetik pentsatuta, koordinatuta eta zuzenduta daude.

Prestakuntzako hainbat ekimeni artikulazio eta lotura estrategiko handiagoa emateko Latinoamerikako prestakuntza instantziak indartzeko eta haietaz pentsatzeko erronka:

“Prestakuntza politikoak gure erakundeetako ardatz estrategikoa izan behar du. Horregatik, beharrezkoa da prestakuntzako ekimenen artean artikulatzeko instantzia latinoamerikar bati buruz pentsatzea, horrek gure kontinentean aurkezten zaizkigun erronkei aurre egiteko eztabaidak aberasten dituelako”. (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko Turma).

3.2.2. ENFFeko Ikastaro Latinoen proposamen metodologikoari dagokionean

Nahiz eta, lehenago adierazi dugunez, Oinarrizko Nukleoek -ONekturmen izaera askotarikoa elkarriketan jartzeko ahalmena izan, ahalmen horiek arin gauzatzeko eta ikastaroan zehar ONetan une batzuetan sortzen den tentsio logikoa modu pedagogikoan kudeatzeko zailtasun asko daude. ENFFeko KPPeko testigantza batzuek adierazi dutenez, Hego Konoko -Argentina, Uruguai, Txile, Brasil eta abar- erakundeetako parte hartzaileek euren desadostasunak eta proposamenak kokatzen dituzte, eta Andeetako Eskualdeko herrialdeetatik datozen parte hartzaileek baino erraztasun handiagoz eztabaidatzen dute, bereziki andetarrak jatorri indigenakoak baldin badira.

Ikastaroetan zehar KPPTik behin eta berriz errepikatu arren kritikak, hobetzeko iradokizunak, kekek, eta abarrak ON instantzietara eraman behar direla, parte hartzaile askok ez dituzte instantzia horiek baliatzen, eta nahiago dute kritikak eta abarrak beste gune batzuetan helaraztea; horren ondorioz, proposamen metodologikoan jasota dagoen gatazkak kudeatzeko logika hautsi egiten da batzuetan. Proposamena ONetan eztabaidak eta debateak sakontzea da, eta

zailtasunik balego KPPari laguntzeko edo esku hartzeko eskatzea izango litzateke bidea. Zenbaitetan, gatazkak eta zailtasun larriretan batik bat, kide bakoitza bere herrialdera itzulitakoan norbere erakundeetako instantzien bitartez aztertzen dira.

Testigantza batzuek nabarmendu dutenez, bakoitzaren herrialde eta errealtateetan ENFFeko Ikastaroetako metodologia zuzenean ezartzerako orduan mugak ezarri behar dira; planteamendu politiko eta pedagogiko hauek ezin da gauzatu barne azterketa prozesu propioa egin gabe, nor bere errealtatera egokitu gabe.

Ikastaro Latinoetako proposamena egungo une historikoak ezartzen dizkigun prestakuntza politikoko beharretara are gehiago egokitzea erronkatzat identifikatu da: militante profil berria, langile-klasearen egituratze berria, oraingo egoerek beste bestelako prestakuntza premia batzuk inposatzen dituzte lehenagoko hamarkadetakoekin alderatuz. Zenbait testigantzatan adierazitakoaren arabera, behar berri horietara egokitzeko erritmoa motelegia da. Honako hau dio testigantza egile horietako batek:

“Kapitalak eskualde mailan bultzatutako eraldaketekin, Latinoamerikako egoera aldatu egin da, ikasgelaren egituraketa aldatu egin da, eta ez gara horri aurrea hartzen ari. Dagoeneko existitzen ez den egoera bat, urte batzuk lehenagokoa, analizatzen jarraitzen dugu nolabait; hau bezalako inflexio uneetan, hezitzaileak eta ikasleak elkarrekin ikasten ari dira [...] Ikastaroa egitera iristen den militantaren profileen pentsatu beharra dugu, ikastaroa hobeto prestatu ahal izateko, ezaugarri horien ikuspegi zehatzagoa izan behar dugu, aldi honetako prestakuntza beharrak zein diren jakitea, gaiei dagokienean zein praktikei dagokienean”. (Ikastaro Latinoak/ENFFeko irakaslea, 2015).

3.2.3. Eduki teorikoei dagokienean

Edukiak eta eztabaidak klase-borroka eta teoria marxistetan gehiegi ardatzea, horiek bezain garrantzitsuak diren botere-harremani buruzko beste ikuspegi teoriko batzuen kaltetan -feminista, koloniala, eta abar-, muga gisa ikusten da. Hortaz, edukiek botere-harreman guztiei garrantzi bera emate aldera, proposamenaren eduki teorikoak orekatzera iristea erronkatzat nabarmentzen da.

Programa luzeegia izatea Ikastaroan izan diren ikasleetako askok nabarmendutako beste muga bat da, izan ere, proposatutako eztabaida eta gaietan sakondu ahal izateko ez baitago astirik; horrek gaiak lantzerakoan azalkeria sentsazioa eragiten du batzuetan:

“Herri-erresistentzien Historia Politikoari buruz ikasteko itzaropena neukan, filosofia eta antolakuntza politikoaren teoria ikasi nahi nituen, eta aste honetan landutako gaiak izan dira. Sakontzeko denborarik ez daukagula konturatu nintzen; kapitalismoari aurre egiteko hain garrantzitsuak diren teoria horiek hobeto ezagutzeko, ikastaroaren ondoren neure gain izango da gure mugimenduarekin sekuentzia bat antolatzea”. (TPLko ikaslea, 2013ko Turma).

Historia edertu eta idealizatzeko arriskuan ez erortzeko, Latinoamerikako gizarte-mugimenduen eta iraultza-prozesuen historiarekiko ikuspegi kritikoagoa txertatzea erronkatzat jotzen da. Latinoamerikako borroka eta pentsalari kritikoen bilduma historikoa aztertzea eta idealizazio eta dogmatismoak ez erreproduzitzeko, haietaz kritikoki gogoeta eginez gaur egungo erronkei aurre egiten lagunduko duten ikaskuntzak eskuratzea. Hasieratik ENFFeko Ikastaro Latinoetan kolaboratzen ari den hezitzaileetako batek esan zigunez, “beharrezkoa da gure historiaren begirada kritikoagoa txertatzea garaipen urriak eta porrot ugariak hobeto ulertzeko”.

Gaiak landu ahal izateko parte hartzaileen prestakuntza-maila desberdinak kudeatzeak izaten duen zailtasuna irakasleek identifikatutako beste muga bat da:

“Ikasleen prestakuntza desberdinei aurre egiteko zailtasunak; askotan ez dakigu egin beharreak egiten, arazoak izan ditugu benetan, batzuetan irakurtzeko trebetasun eta ohiturarik ez duten militanteak ez datoz bat ikasgelak prestatzean erabilitako jomugekin; ikasleei buruz osatzen dugun ideiarekin ez dugu beti asmatzen”. (Ikastaro Latinoak/ ENFF 2015eko irakaslea).

3.2.4. Ikastaroek jatorrizko erakunde eta herrialdeetan daukaten eraginari dagokionean

Orain arte ENFFek ez du Ikastaroek erakunde parte hartzaileetan modu zabalean izaten duten eraginaren ebaluaziorik egin. Beharrezkotzat identifikatu den arren, gauzatzea ez da oraindik posible izan; hori dela eta hurrengo urteetan aurre egin beharrekotzat erroka izango da.

Erakundeek baliabide ekonomikorik ez izateak batzuetan zailago bihurtzen du Ikastaroetako parte hartzaileek euren erakunde eta herrialdeetan prestakuntza lantzea. Hau da, horretarako prestatuta dauden arren, erakundeek barne-prestakuntza egiteko ez dute beharrezko baliabiderik.

3.2.5. Emakume eta gizonen parte hartzeari eta eztabaida feministak txertatzeari buruz

Jasotako testigantzetako askok genero-gaiek Ikastaro Latinoetako programazioetan protagonismo handiagoa ez izatea muga handitzat azpimarratu dute: teoria eta praktika feminista sakonki ez aztertzea, Ikastaroetako prestakuntza politikoaren baitan patriarkatua sistema kapitalistan artikulatutako zapalkuntza gisa analizatzea, ikasgai bezala ez txertatu izana. Azken finean, errealitatea ulertzeko funtsezko zapalkuntza-sistema moduan patriarkatuak erreproduzitzen dituen genero desberdinkeria eta indarkeriei dagozkien eztabaidak programazioan goiz edo arratsalde batera, edo osagarri edo bigarren mailako diren espazioetara murriztea. Kontu hori behin eta berriz islatuta agertzen da parte hartzaileen ebaluazioetan eta ebaluazio horiek proposamena doitzera eragin handiagoa izateko erronkak bere horretan dirau:

“Beharrezkoa da prestakuntza, teoria eta praktika integratzen dituen mugimendu dialektiko moduan irudikatzea. Prestakuntza politikoak bizitzaren dimentsio publikoa eta pribatua bere baitan izan behar ditu, kolektiboa dena orobat, baina baita pertsonala ere, pertsonala politikoa baita, eta politikoa kolektiboa. Beharrezkoa da prestakuntzak begirada anitza izatea, ikuspegi eurozentriko, elitista eta patriarkala hautsiko duen genero-begirada barneratuta duena”. (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko Turma).

“Begirada feministak zenbateraino zeharkatzen dituen gai guztiak ala ez den horretara iristen hainbat alditan arazo bihurtu zen, patriarkatuaren eta mugimendu feministen erresistentzien kritikaren gaia zer espazio errealean gertatzen den, sexualitatea eta eguneroko bizitzari buruz nolako begiradak dituen [...] badakit taldeen eta ebaluazioen barruan etengabe eztabaidatzen den gaia dela. Horrez gain, badakit aldatetako izan direla, badakit gauzatze moduak bilatzen ari direla eta badakit mugitzen ari den zerbaite dela”. (ENFFeko hezitzaile kolaboratzailea, 2015:5).

3.2.6. Ikastaroetako jarraipen Politiko Pedagogikoari (KPP) dagokionean

ENFF/MSTk, muga izan duela edizio bakoitzak behar zuen jarraipen politiko pedagogikoa beti bermatzea lortu ezina bere barne kritika eta autokritika ariketetan aitortzen du. Hainbat arrazoigatik gertatu da: beharrezko ezaugarriekin (hizkuntza, izaera heterogeneoak eragindako prozesu konplexua, hainbat gizarte-erakunde eta abar) KPPen parte hartzeko esperientziadun kideak izatea, jarraipen politiko pedagogikoa mekanizatzea, ENFFeko kideak txandakatzearen eraginez aurreko edizioetan metatuaren zati bat galtzea, *turma* latinoetako KPPetan esperientzia duten taldeak gainkargatzen dituzten Eskolako jarduerak eta ikastaroak gehitzea, eta abar.

Gaien ordena prozesu pedagogikoaren beharren arabera baino, irakasle boluntarioen agenden arabera zehaztuta zegoenez, edizio askotan ez da lortu izan edukien planifikazioa-programazioa betetzea eta Ikastaroaren ildo eta ikuskera teorikoa lausotuta gelditu da.

3.2.7. Ikastaro Latinoetako irakasle kolaboratzaileei dagokienean

Ikasgaiak irakasten dituzten irakasle gehienak Brasilgo unibertsitateetatik datoz, gizarte-maila ertainekoak dira eta haien irakasteko metodoa akademiaren izaera marka eta formaz (banku-hezkuntza) beteta dago. Eta beraz, ez dator bat Eskolako proposamenaren gainerako multzoak ezaugarri duen Herri-Hezkuntzako metodologiarekin. Horren harira, ENFF akademia-unibertsitate arlotik datozen irakasleen menpe dago eta herri-erakundeetatik hurbilekoak badira ere, edukiak transmititzeko ohiko metodo pedagogikoak baliatzen dituzte. Egoera hau KPPk eta ENFFek muga bezala aitortu izan dute eta ikastaro guztietako ikasleek ere nabarmendu izan dute.

“Eskolak oso onak dira eduki teorikoetan; garapen pedagogikoa falta zaie, hitz gutxitan esanda, herri-hezkuntza berez dena asimilatu ahal izatea”. (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko *Turma*).

“Aspergarriak eta astunak diren eskolak badira irakasleekin, hitzaldi asko eta herri-hezkuntzako metodologia gutxi; irakasle horiek ezaugarri akademizistagoa dute, asko hitz egiten dute, eta etengabe. Gogoan izan behar da edukia ez dagoela programa akademikoan jasotakoan bakarrik, baizik eta gure harreman eta praktketan eztabaidatzen

denean ere bai; guk ere badugu irakaslearekin elkarriketan aritzeko ezagutza". (TPL/ENFFeko ikaslea, 2013ko *Turma*).

MSTek gaur egun ez du Latinoamerikako prestakuntza sozial eta ekonomikoa duen trebatzaile eta hezitzaile talderik. Ikastaro Latinoetako eskola teoriko guztiak bere gain hartu ditzakeen Herri-Hezkuntzako metodologiak erabiltzeko gai den talderik ez dagoenez, kanpoko irakasleak behar ditu. ENFF berak kontu hori muga bezala identifikatu du eta baita hurrengo urteetan aurre egin beharreko erronka moduan ere.

Ezintasun ekonomikoak direla eta, gehienetan ez dago beste herrialde batzuetako hezitzaile eta beste erakunde batzuetako trebatzaileak ekartzetik, nahiz eta batzuetan lortzen den.

Garrantzi handikoak badira ere, ENFFeko Ikastaro Latinoak esperientzia mugatuak dira; *ariketa pedagogikoak* dira, entsegu laborategi eta "berria" dena alde aurretik irudikatzeko moduko ariketak. Baina herrialde bakoitzean plano erreal konkretuetan sortzen diren borrokak eta erakundeetan egin behar den lana dira proposamen pedagogikoak eta prestakuntza politikoko norbere prozesuak eraikitzeko erronka euren gain hartu behar dutenak. Erakunde bakoitzak bere *pedagogia zehatzak* esploratu behar ditu, bere planteamendu metodologiko eta pedagogikoak, izan ere, ez dago errezeta metodologikorik, adibide metodologikoak baizik. Une historiko eta testuinguru bakoitzeko baldintza objektibo eta subjektiboek zehazten dituzte behar metodologiko eta pedagogikoak.

MSTk bere metodologia pedagogiko propioa eraiki du -Mugimendu Pedagogia- beste prozesu eta borroka batzuetatik jasotako bilduma historikoan oinarrituta, bai horixe, baina funtsean lurraren aldeko borroka esperientzia eta estrategian oinarritutakoa. Esperientzia horretatik, MSTk ikasi du "subjektu hezitzailea kolektiboa dela", eta hori da, hain zuzen, MSTk eta ENFFek eraldaketa soziala eta giza-emantzipazioaren alde borrokan ari diren gainerako erakundeei egiten dioten ekarpen handietako bat.

Bibliografia

- ALMEIDA, Paulo; FERNANDES, Rosana (2014). “O internacionalismo é valor da classe trabalhadora” *Jornal dos Trabalhadores Rurais Sem Terra*, 30 anos. 326. zk.a, Dezembro, 2014. Inprimatutako edizioa.
- BOGO, Ademar (2000) O MST e a Cultura. Caderno de formação, 34. zk.a MST. São Paulo.
- CALDART, Roseli. S. (2012) *Pedagogia do Movimento Sem Terra: escola é mais do que escola*. 4. ed. São Paulo: Expressão Popular.
- CALDART, Roseli. S et al. (2013) *Escola em Movimento no Instituto de Educação Josué de Castro*. 1. ed. São Paulo: Expressão Popular.
- ESCUELA NACIONAL FLORESTAN FERNANDES, ENFF (2005) Bideoa. *ENFF uma Escola em construção*. Hemen eskuragarri: <<https://vimeo.com/30328715>>.
- ____ ENFF (2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014). *Proyecto Político Pedagógico Curso Formación de Formadores Latinoamericano*. Barne-dokumentua. Barne-dokumentua. Guararema, São Paulo.
- ____ ENFF (2013). *Testimonio Michel Löwy recogido en la ENFF en Noviembre/2013*. Barne-dokumentua, Guararema, São Paulo.
- ____ ENFF (2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014) *Proyecto Político Pedagógico Curso Teoría Política Latinoamericano*. Barne-dokumentua. Guararema, São Paulo.
- GRAMSCI, Antônio (1995). *Concepção dialética da História*. Itzulpena: Carlos Nelson Coutinho. 10. edizioa. Rio de Janeiro. Civilização Brasileira.
- INSTITUTO TÉCNICO DE CAPACITAÇÃO E PESQUISA DA REFORMA AGRÁRIA, ITERRA (2004). *Método Pedagógico*. Cadernos do ITERRA, ano IV, 09. zk.a.
- JARA, Oscar (2006). “Para Sistematizar Experiencias” 4. edizioa. Alforja.
- LA VIA CAMPESINA. (2009). *Documentos políticos de La Vía Campesina* Hemen eskuragarri: <www.viacampesina.org/downloads/pdf/policydocuments/POLICY_DOCUMENTS-SP-FINAL.pdf> (2015eko ekainaren 15ean kontsultatua).
- MOVIMENTO DOS TRABALHADORES RURAIS SEM TERRA, MST (1998) *Mística: uma necessidade no trabalho popular e organizativo*. Caderno de Formação, 27. zk.a, São Paulo.

- _____. MST (2014). Revista Sem Terra. Especial Educação. Da Educação Infantil a Universidade.
- PASSOS, Najla (2010). Escola que leva nome do mestre pede ajuda. Hemen eskuragarri: <www.adunet.com.br/noticias.php?news_not_pk=1105> (2015eko ekainaren 15ean kontsultatua).
- PEREIRA, Simone (2014). “ENFF, um resultado das experiências históricas da classe trabalhadora” *Jornal dos Trabalhadores Rurais Sem Terra, 30 anos*. 326. zk.a, Dezembro, 2014. Inprimatutako edizioa.
- PIZETTA, Adelar João. (2007). *A formação de quadros no MST. Barne-dokumentua*.
- PIZETTA, Adelar João (2014) “La Formación política e ideológica: una necesidad en los procesos de organización y lucha”, hemen: *ALAI, Revista América Latina en Movimiento*. 499. zk.a, 2014ko urria. Edizio digitala. Hemen eskuragarri: <www.alainet.org/es/revistas/165260> (2015eko martxoaren 10ean kontsultatua).
- PIZETTA, Ana Justo (2009). *A construção da Escola Nacional Florestan Fernandes*.

Jakintzen aniztasuna eta prestakuntza emantzipatzailea

Zesar Martínez eta Beatriz Casado*

* Zesar Martínez eta Beatriz Casado Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuko Mugimendu Sozialei eta Lankidetzak Kritikoei buruzko ikerketa taldeko partaideak dira. Joxemi Zumalabe Fundazioa eta Peruko PDTGrekin batera garatutako “Jakintzen aniztasuna eta prestakuntza emantzipatzailea” proiektua koordinatu dute. Proiektu horretan, mugimendu sozialak protagonista izan diren elkarrizketa eta prestakuntza mailako lau esperientzia sistematizatu dituzte. Liburu honetako aurreko kapituluetan aurkeztu ditugu banan-banan, eta honako hauek dira: BorBor(k) Herri Jakintzen Laborategia Euskal Herrian, Jakintza eta mugimenduen elkarrizketak Perun, Emakumeen hiru erakundek bultzatutako Eskola Politiko Feminista Guatemalan, eta, azkenik, Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduaren Florestan Fernandes Eskola Nazionaleko bi ikastaldi. Azken kapitulu honen oinarrian esperientzia horiek -kapitulu honen edukia sakontasun osoan ulertu ahal izateko, guztia irakurtzea gomendatuko genuke- eta sistematizatzen aritu diren gizon-emakume kideen artean egindako ekarpen eta eztabaidak daude; beraz, prestakuntza politikoko esperientzia horiek bateratzeko eta elkarrekin guztien artean analizatzeko prozesuan parte hartu duten kideek era kolektiboan osatu duten lana izan da.

Prestakuntza politikoko esperientzien ikerkuntza eta sistematizazioko prozesu honi esker, lehenagoko kapituluetan aurkeztutako lau esperientziak sistematizatu ahal izateaz gain, lau esperientzia horien arteko elkartrukea eta analisi gurutzatua egiteko aukera izan da; horrela, elementu bateratuak, berezitasunak eta ikaskuntzak identifikatu ahal izan dira. Ikuspegi internazionalista batetik begiratuta, beste testuinguru batzuetan ahalmen emantzipatzailea daukaten prestakuntza politikoko prozesuak garatzea eragin dezaketen elementuak dira.

Sistematizatutako prestakuntza esperientziak bateratzea bereziki ariketa aberasgarria izan da; ariketa hori Donostian 2015eko ekainean egin ziren “Jakintza A(u)nitiz: Herri borrokak, ezagutza emantzipatzaileak eta formazio politikoa” izeneko Nazioarteko Jardunaldien baitan hasi zen. Eta jarraipena izan du: esperientzietako bakoitzari dagokion artikulua idatzi dute, ekarpenak egiteko esperientzia guztien artean kapitulu horiek trukatu da, eta ikaskuntzak eta mugak identifikatu ahal izateko esperientziak elkarren artean gurutzatuta analizatu dira.

Liburuaren azkeneko kapitulu honetan, beraz, esperientzien arteko trukea analizatzeko ariketa horiek gauzatzerakoan identifikatu diren ikaskuntzak aurkeztu ditugu. Kapitulu hiru ataletan zatitzea erabaki dugu. Lehenengo atalean, sistematizatutako esperientzietan erabilitako erreferente epistemologikoa eta metodologikoari buruzko gogoeta batzuk aurkeztu ditugu, herri-hezkuntzaren inguruan. Bigarren atalean, lau esperientziak baldintzatzen dituen testuinguru globalari dagokionean lauen baitan dauden elementuak aurkeztu ditugu, eta baita proiektu hau dinamizatzea kokatu den Euskal Herriko tokiko mugimenduen testuinguruetako elementu batzuk ere. Bigarren atala bukatzeko, prestakuntza politikoko ekimenak garatzeari desafioa botatzen dioten barneko eta kanpoko kontraesan batzuk identifikatu dira. Hirugarren atalean, sistematizatutako lau esperientzietan identifikatutako aurrerapausoak eta mugak aurkeztu ditugu, bost ardatzen arabera antolatuta, identifikatutako ikaskuntzetako batzuk hobeto antolatuta egituratu ahal izateko.

1. Herri-hezkuntzaren erreferente teoriko eta metodologikoa

Lan honetan sistematizatutako prestakuntza esperientzien erreferente teoriko eta pedagogikoa herri-hezkuntza da; bere burua etengabe berrasmutzen eta

egokitzen ari den ezagutza eta esku hartze politikoko esparru bezala ulertzen da herri-hezkuntza. Subjektibotasun pertsonalak, antolatze moduak eta euren erresistentzia-borroketako gogoeta teoriko-ideologikoak pedagogikoki lantzeko herri-sektoreentzako ezinbesteko erreferente gisa ere ulertu izan da.

Herri-hezkuntzak ezagutzaren teoria bat aurkezten du -ezagutza era kolektiboan sortzea, nork bere esperientzia eta praktiken inguruko testuinguruan kokatzen den gogoeta sistematikotik abiatuta-, eta herri-sektoreak ahaldundu eta auto-antolatze prozesuak erraztu eta dinamizatzeko proposamen politiko-pedagogikoa da. Gure kontzientzia politikoa garatu eta politikoki eragiteko gure gaitasun pertsonala eta kolektiboa askatu nahiz indartuko duten prozesuak dira, sustengatzen dituzten gure arteko praktikak eta sinesmenak ildo emantzipatzailean eraldatuz. Herri-hezkuntzaren proposamena, horrenbestez, praxiaren teoria eta teoriaren praxia da, asmo etiko zein politiko emantzipatzailearekin bideratuta, menderatze-harremanetatik askatzeko.

Herri-hezkuntza ezagutzaren teoria bezala irudikatzen da, ez metodo pedagogiko moduan bakarrik. Ikuspuntu horretatik, ezagutzaren subjektuak herri-erakundeak eta haietako aktibistak dira; euren praxia birsortzen dute, eta, arazo bihurtuz, euren intelektual kolektibo izaera indartu ere bai. Hau adierazi zuen Claudia Korolek *“Jakintza A(u)nitiz” jardunaldietan*: *“(…) Horregatik, herri-hezkuntzaren ikuskera horretan ez dugu ezagutzak transmititzeko unea lehenesten -funtsezko unea iruditzen bazaigu ere-, ezagutzak era kolektiboan sortzea baizik. Hau da, gure proiektuan funtsezkoa da azpimarratzea inoiz ere bukatzen ez den ezagutzak eta herri-mugimenduetako adimen kolektiboaren lekuak duten garrantzia herri-mugimenduetako praktikak lantzetik jaiotzen diren jakintzetan; jakintza horiek elkarriketa osatzen dute beste herri-kolektibo batzuetatik, arlo akademikoetatik edo beste pentsamendu-logika batzuetatik datozen gainerako jakintzekin”*.

Herri-hezkuntzak, horrela ulertuz gero, piztu egiten ditu aktibistek eta euren erakundeek elkarrekin topo egin, hizketan aritu eta uztartzeko beste modu batzuk, aldatzeko ikuspegiak, estrategiak eta tresnak eraikitzea, testuinguruaren gogoeta kritiko batetik testuinguru horretan geure praktiketatik abiatuz. Beraz, herri-mugimendu eta ekimenekin eta haien barnetik lan egiteko era bat da, gure antolatze, prestatze eta artikulatzeko prozesuetan elkar indartu ahal izan dezagun.

Herri-hezkuntzaren arnasatik eraikitako prestakuntza prozesuen proposamen epistemologikoaren arabera, edozein jakintza egoki kokatuta dauden prozesu

kolektiboen emaitza da. Peruko PDTGko emakume kideek erabiltzen duten metaforari jarraipena emanez, ezagutza eraikitzea ehuna osatzea bezalakoa da. Kolore desberdinak elkartuz gero, konbinazio berriak sortzen dira. Era berean, subjektu eta borroka sozialetan sustraitutako hainbat jakintza eta hizkuntzen arteko elkarrizketak ehunduz, jakintza eta ezagutzen konbinazio sortzaileak ekoizten dira, eta baita sare berriak ere askotariko subjektibitate eta identitateen artean. Horrez gain, ideien “berritasuna” baina haratago, funtsezkoa da ideiak subjektuen baitan barneratzea eta praktika politikoetan txertatzea. Hau da, ezagutza sortzeko harekin lotutako errealtatea behar du, eta geure gain behin eta berriz hartzen ditugun jarreretatik abiatuta gauzatzen den ekintza eraldatzaileak ere bai.

Nolanahi ere, erreferentzia epistemologiko eta metodologiko horietatik abiatuta, herri-hezkuntza etengabe eztabaidatzen eta birsortzen ari da, lan-forma pedagogikoak eskaintzeko modua aurkitzeko helburuarekin; hartara, berriazko testuinguru eta egoera bakoitzean subjektibotasunak, jakintza-forma hegemonikoak eta emantzipazio sozialeko prozesuak sostengatzeko tresnak eztabaidan jartzea erraztu eta sakontzeko aukera izan daiteke.

Esate baterako, Guatemalako Eskola Politiko Feministako kideek esan izan digutenez, Herri Hezkuntza Feminista “*eraldatze pertsonal eta kolektiboko prozesua da, emakumeak eta euren erakundeak subjektu politiko bihurtzeko laguntzen duen tresna politiko; garatzeko prozesua da, nola ekintza politikorako trebetasunak, hala ezagutzak eta hazkundera. Proposamen hori pentsamendua, sentimendua eta jarduera pertsonala eta kolektiboa eraldatzerakoan gogoan izaten da. Horren arabera, Herri Hezkuntza Feminista ekintza politiko da, pertsonak, euren kolektiboak eta errealtateak eraldatzea dakarrelako berekin batera. Askatzen duen hezkuntza da, eta bizia ekinbide horren erdian kokatzen da*”.

2. Testuinguru globala: prestakuntza politikorako baldintzak eta desafioak

Hainbat mugimendu sozialetako erresistentzia- eta borroka-esperientzietatik abiatuta, kapitalismo neoliberalaren krisia ulertzeko modu bat ari da gauzatzen, eta modu horrek krisiaren sistema eta zibilizazio izaera azpimarratzen du. Birsortze sozialeko krisia izanik, bistaratu egiten digu gaur egungo gizarte-antolamendua ez dela gai biziak iraun dezan bermatzeko. Gero eta premia-koatza da bizia birsortzea lehentasun politikoen ardatzean

kokatuko duten alternatibak sortzea, biziaren forma eta adierazpen guztien aniztasun osoa zainduz. Horren harira, azkenaldi honetako hamarkadetan mugimendu sozialek bultzatu izan dituzten proposamen eta proiektu politikoak -elikadura subiranotasuna, energiaren subiranotasuna, lurraldearen eta gorputzen subiranotasuna, deshazkundera, ongi bizitzea, komunitateak bere burua kudeatzea eta erabakitzeko eskubidea, ekonomia solidarioa, eta abar- artikulatzen ari dira, gero eta garrantzi eta indar sozial handiagoarekin.

Proposamen horien bitartez, mendebaldeko modernitateak bere eragin kolonial, patriarkal eta kapitalista indartsuaren matrize kulturalarekin egituratu duen gizarte eta sistema-munduaren ereduaren aurrean jartzeko zibilizazio-alternatiba bat da helburua. Horretarantz jotzeko ibil litezkeen bideak alde aurretik erakutsi eta irudikatzen dira. Proposamen horiek salatu eta bistaratzen dutenez, gaur egun ondasun mugatuak dauzkan gure planetan indarrean diren menderatze, estraktibismo, kontsumismo, pilatze, homogeneizazio eta ordezkotasun politikoaren logikak ezin dira bateratu, elkar zaintzea, autogobernu demokratikoa eta biziak jarraitzeko dinamikekin.

Euskal Herriko testuinguru zehatzaren baitan, bertako erakunde eta mugimendu sozialen sareari dagokion alorrean, BorBor(k) prozesua sistematizatzean adierazi zutenaren arabera, agertoki eta ziklo politiko berriak ireki dira; uztartuta daude bai borroka armatua uztearekin, eta baita kapitalismo neoliberalaren krisitik eratorritako asaldura sozial eta politikoekin ere. Hots, alde batetik, jarraitu egiten du herri gisa autodeterminatzearekin lotutako gatazkak eragin duen blokeo politikoak, nahiz eta erabakitzeko eskubidearen aldeko mobilizazioen dinamika areagotzen ari den. Bestalde, iraun egiten dute herri-antolaketa gaitasun oparoak eta emantzipazio-ildoko praktika, gune eta prozesuek ere. Jarraitu egiten dute herri-mugimenduaren hainbat adierazpenen aurkako errepresio eta kriminalizatzeko politikek: atxiloketak, epaiketak, zigorrak luzatzeak edo presoak sakabanatzeak. Beste hainbestean, ekinbide horrek mobilizazioak eta protestak eragiten ditu behin eta berriz. Era berean, borrokak elkarren artean hobeto lotuta eta artikulatuta begirada egoki batekin eraikitzekeo desafio handiak identifikatzen baldin baditugu ere, azkeneko urteetan mobilizazio, protesta eta greba-deialdi zabalak bizi izan dira hurrenez hurren. Erantzunak izan dira, murrizketen eta etxegabeteen aurrean, lana, hezkuntza, pentsioak, abortua eta erreproduzio-eskubideak eta beste hainbat erreformaren aurka. Erantzunak izan dira, gehiegikeriek eta mugarik gabeko diru-goseak desegonkortutako finantza-sistema kapitalista baretu eta egonkortzeko funts publikoak desbideratuz krisi neoliberal politikoki kudeatzeak eragiten dituen asperdura eta babesgabetasunaren ondorioz iritsitako erantzunak, guztiak ere.

Mugimenduak alderik alde zeharkatuz, haiei eskatu egiten dieten agertokiak eta logika globalak dira –baita tokikoak ere–; hain zuzen, ez baita langintza erraza elite ekonomiko eta politikoek finkatutako botere politikoaren kontzentrazio oligarkikoari aurre egitea. Agertoki berriek berrikustea, oinordetzan jasotako inertziak gainditzea, eta, aldi berean, ikasteen jasotakoak gogoan izatea eskatzen dute; horren bitartez, geure burua behin eta berriz kokatuko dugu, eragin sozial eta politikorako gaitasuna indartu. Zumalabe Fundazioko emakume kideek adierazi zuten moduan, galdera eta desafio berrien aurrean, eraldatze, azal-aldatze eta erantzun berriak sortzeko prozesu liluragarrian barruan gaude.

Desafio horietako baten arabera, menderakuntza orok zatikatu eta isolatu egiten gaitu, elkarren arteko loturak hausten dizkigu. Hierarkizatu egiten gaituzten identitate-mugak eta jarrerak sortzen ditu, eta, hainbat jakintza baztertu eta ikusezin bihurtzeaz gain, gure bizitzak garatzen diren testuinguru materiala eta kulturala osorik eta aldatuz doan historiaren harian ulertzen uzten ez diguten ezagutza-sistemak ere bai.

Arrazoi horren eraginez, garrantzitsuak dira harreman menderatzaile eta zanpatzaileen formak deseraikitzeke prestakuntza prozesuak, harreman oker horiek historizatu eta desnaturalizatzeko. Zapalkuntzak naturalizatzeko mekanismoa da, izan ere, hierarkia eta menderakuntza sozialak eta botere-harreman asimetrikoak inposatzea bideratu duten denbora eta prozesu historikoen artean loturarik ez ezartzea. Haiek historizatzeari esker, indarrean dauden harreman sozialen definizioa bideratu duten prozesu politikoak, mentalitateak eta arau-sistema berreraiki eta berrinterpretatzen dira; aukera ematen digute desikasteko, eta arlo pertsonal, antolakundeko eta sozialetan pentsamendu eta praktika askatzaileak eraikitzeko.

Hori dela eta, sistematizatutako prestakuntzen bitartez apustu egiten da ordena kapitalista, heteropatriarkala eta koloniala birsortzen duten zapalkuntzak eta bidegurutzak era kolektiboan -geure buruari- bistaratu, -geure buruan- ezagutu eta lantzeko. Helburua da, geure burua borroka desberdinetan hierarkizatu eta zatitzen ibili beharrean, borroka horiekiko konplizitatea bizitzea: horrek elkarren artean sareak eratu eta sendotuko gaituzten zubiak eraikitzeko aukera zabaltzea nahi genuke.

Azkenik, adierazi nahi dugu jakinaren gainean gaudela “mugimendu soziala” ideia etengabe birdefinitzen ari dela, testuinguru eta egoera kultural zein politiko bakoitzean garatzen diren hainbat eratako mobilizazio-praktiken

eraginez. “Mugimendua” adierazteko hainbat modu daude, borroka sozialak ulertu eta praktikatzeko era askotarikoak; aldi berean, prestakuntza premia eta praktika askotarikoak sortzen dituzte. Mugimendu ideia ez dugu mugatu nahi dagoeneko osatuta dauden erakunde eta kolektiboetara. Egari zor, batzuetan herri-mobilizazio olatuek gaina hartzen digute eta geure buruari mugimenduen barruan daudenak eta ez daudenak zorrotz bereizten dituen mugarik ba ote dagoen ala ez galdetzera garamatzate; hala eta guztiz ere, bi esparruen arteko trantsizioak eta porositateak oso ohikoak dira.

Dena dela, bada ekintza kolektiboa gauzatzeko modu bat finkatutako ordena sozialaren hainbat alderdi mugitu eta ildo emantzipatzailearen arabera eraldatu nahi dituen, antagonismoa, gainditzea eta transgresioaren bitartez. Mugimenduak mugimendu dira, hain zuzen, mugitu egiten dutelako; pertsona eta taldeek guri gizartearen arabera esleitzen diguten lekuan geldirik eta axolagabe egotearen aurka mugitzetik sortzen dira -jasaile izateari uko egin, eta eragile bihurtu-. Geldirik, aparte edo axolagabe egoteari -ordena sozialaren objektu izateari- uko egiteak mugitu egiten gaitu, aktibatu, dei egiten digu elkartzera, mobilizatzen eta antolatzen; ados ez gaudela erakusteko subjektu politiko bihurtzen gaitu, menderatze-harremanek sortzen zituzten pribilegioak eta atzeratzeak eztabaidan jartzeko eragile. Beraz, mugimendu sozializat hartzen dugu menderakuntzekiko ordena gainditzen duen ekintza kolektiboa, ildo emantzipatzaile edo askatzailean gauzatua; bertako kide diren subjektuek aldarazi, erantzukizunak bistaratu eta gogait eragiten dute euren mobilizazio-prozesu eta dinamikekin, eta euren borroka-ideologia eta praktikekin sarritan finkatutako ordena eta hura sostengatzen duten hegemoniekin bateragarria izatearen mugak hautsi eta gainditu egiten dituzte.

Hori dela eta, lan honetan aurkeztu ditugun esperientzietatik abiatuta, mugimenduei analisisa eta gogoetan sakontzeko ahalmena ematen dieten prestakuntza prozesuak indartzea aukeratu dugu, eraikitzen ari diren iruditeria, ideia eta praktikak eragin handiagoz sistematizatu eta heda daitezen. Aukera epistemologiko eta etiko-politiko horrek berekin dakarrena ez da ikuspuntu idealizatzailea, sinplista eta goraiatzailean oinarritzea; izan ere, autokonplazentzian geratuta nekez lagunduko diogu subjektu kolektiboek eta horiek garatzen dituzten prozesuek euren buruari eusteko behar duten indarrari. Aitzitik, argi-ilunen bitarteko begirada izan behar du, dialektikoa eta autokritikoa, indarguneei bezainbat ahultasunei arreta jarriko diena, eta, beraz, emantzipatzeko grina eta ahalmena mugatu edo ahultzen duten kontraesanak eta tentsioak ere zainduko dituena.

2.1. Kontraesanak, inertiak eta desafioak

Sistematizatutako esperientziak bateratzeko jardunaldietan Claudia Korolek adierazi zuenaren arabera, gaur egungo testuinguruak aurrez-aurre jartzen digu berehalako desafioetako bat: bizi dugun krisi sistemikoak herri-mugimenduak nola zeharkatzen dituen ezagutzea. Izan ere, ziur aski mugimenduen esku hartze politikoa gauzatzeko moduak eskatu egiten du euren gain hartzen dituzten eskaerak, borroka-formak eta askotariko identitateak sortzea; baita euren proiektu politikoak eraikitzen dituzten jakintzak aztertu eta zabaltea ere.

Prozesu horretan, lehenengo mugimenduetatik funtsezkoa da identifikatzea ildo emantzipatzailearen arabera pentsatu eta jokatzeko beharrezko ezagutza oinarrikoak zein diren, eta finkatzea **gure helburua den gizartea bistaratzeko eta aldez aurretik irudikatzen ekarpenik onenak egiten dituzten borroka-formak nolakoak diren, formak gorpuzten dituzten kolektiboetan eta beste kolektibo batzuekin daukaten harremanean zapalkuntzarik erreproduzitu ez dadin**. Hau da, emantzipazio-proiektuari buruz kontzeptuak eta ikuskerak birplanteatzea kontraesan gogorrek daukaten desafio liluragarriak dira, bizi garen eta birsortzen dugun gizartearen ezaugarrietako inertiak eta eraginak sentiarazten baitira, gure prestakuntza prozesuak ere ahultzen dituzten elementuak.

Testuinguruarekin lotutako inertzia eta desafioak tarteko hartuta, identifikatutako kontraesanetako bat, **prestakuntzari ematen diogun lehenetsua eta hari eskaintzen diogun denbora eta leku urriaren arteko alde izugarria dago**; egunez egunekoaren larritasunak eramaten gaitu herrestan. Bestela esanda, gogoetarik gabeko abiaduraren eraginez, askotariko aktibismo presakoak garamatza herrestan, eta tarte txikia uzten digu gure praktikak aztertzeko. Gainera, ikuskizunaren kulturak eta hedabideetan informazio, erreferentzia eta produktuak gutxieneko ahalegina eginda azkar kontsumitzeak zailago bihurtzen dituzte prestakuntza proiektuak. Prestakuntzak maila bateko iraunkortasuna, arduraldi osoa eta diziplina eskatzen ditu, iritsi ahal izan gaitezen deseraikitzen, desikasteko, inertiak gainditzeko eta praktika emantzipatzaileak identifikatzeko prozesuek behar duten sakontasunera.

Sosegu handiagoko gogoeta eta analisiak egiteko aukera emango diguten **beste lehenetsun eta erritmo batzuk** eraikitzen zailtasun nabariak daude, eta, batik bat, ikuskuntzak, nahi ez diren inertiak, aukera berriak eta abar identifikatzeko aukera eman dezaketen praktika politikoak norberak ikuskatu ahal izateko. Horren harira, prestakuntzako esperientziak sistematizatzeko

giltzarri asko eskaini ahal dizkio prozesu bakoitzari. Ildo berean, aintzat hartu beharra dago mugimenduak ehunka lagunen borondatezko lan aktibistan oinarritzeak muga batzuk dituela: jende hori eginkizun militantea eta beste lan askotan ahalegintzen denez, prozesuak oso aldakorak edo iraunkortasunik gabeak bihur daitezke, unearen arabera. Zein da mugimenduek eusteko moduko lan-gaitasuna eta bolumena? Nola uztar daiteke hori markatutako lehentasunekin eta prestakuntza nahi baino gutxiago lehenesteko joerarekin? Zenbateraino dira mugimenduetako indar mugatuak, eta zenbateraino prestakuntza lehenetsi beharrean ekintzailtza mota produktibistetan murgiltzen den kultura politikoaren emaitza? Nola egokitzen ditugu prestakuntza proposamenak kolektiboak eta erakundeak osatzen dituzten lagunen egiazko baldintzetara? Sistematizatutako esperientzietan behin eta berri agertu izan diren galderetako batzuk dira; lehentasunak, lan-erritmoak eta bizitza pertsonala eta militantziaren artean beharrezko uztardurari dagozkie.

Jakina denez, testuinguru sozial orokorreko baldintzak badira -eta bertako erritmoak, eskakizunak, inposaketak, eta abar- eta errealtate bakoitzean indarrean dauden kultura politikoak ere bai. Baldintza horiek, materialak batzuek, immaterialak besteak, denboraren ideia eta bizipen presako, lineal, intentsibo eta produktibista dakartenez, eragotzi egiten dute ibilian birdefinitutako espiralean prozesu sosegatuak eta ziklikoak garatzea. Prestakuntza emantzipatzaileko prozesuek erritmo sosegatu eta errepikakor horietako gehiago behar dituzte inertzia eta praktika zapaltzaileak eta askatzaileak identifikatu ahal izateko; horren ondorioz, premia larria dago inertzia azeleratu eta intentsibo horiek zergatik eta nola jokatzen duten pentsatzeko, sakonago ulertu ahal izateko eta haiek gainditu edo eraldatzea bidera dezaketen mekanismo errealista eta erabilgarriak abian jartzen asmatzeko.

Mugitze eta erresistentziak eragiten dituzten beste inertzia eta kontraesanak lotuta daude jakin beharrekoa *dakiten* eta, ustez, *ez dakiten* pertsonen artean hierarkiak birsortzen dituzten **prestakuntza eredu bertikalistak eta noranzko bakarrekoak** mantentzearekin. Eta, batzuetan, bide ematen diote hitza, diskurtso publikoa eta arrazoiaren zentraltasuna birsortzen jarraitzeari, eta baita prestakuntzaren planteamendu instrumentalei ere; mugimenduaren abaguneak edo estrategiak exijitzen duen ortodoxian lerrokatzeko modu bezala ulertzen dira. Prestakuntza zatikatua da horrenbestean, zeinetan hainbat dimentsio hierarkizatu, oharkabean utzi edo sailetan zatitzen diren: trebetasun intelektualak, harremanetakoak, emozionalak, artistikoak, antolatzeak, komunikaziokoak, eragileak, eta abar.

Era berean, sistematizatutako esperientzien bitartez identifikatzen da iraun egiten duela prestakuntza aditu-jakintzarekin lotzeko joerak, eta, horrenbestean, prestakuntza erakundeetatik kanpoko eragileen esku jartzeko joerak; areago dena, askotan kolektiboetako kideak baztertu egiten dituzte arlo horretatik. Formazioa prestatzeko eta dinamizatzeke ezinbesteko baliabideak eta denbora haien esku jarriko baldin balitz, prestakuntza prozesua eta bere edukia era kolektiboan eraikitzea bideratu ahal izango lukete. Pertsona “adituek” ezagutza monopolizatzeke joera, gainera, birsortu egiten da mugimenduen barruan ere batzuetan.

“Aditu izaera” horrekin lotuta dago formazioa modu arautu eta formalizatuan ulertzeko goranzko joera ere; horrela, eskuratutako ezagutza titulu batekin egiaztatuz, testuinguru orokorraren baitan hazten ari den logika meritokratiko eta lehiakor bezala ulertzen da prestakuntza. Paradoxa da, bestalde, feminismoa, ekologismoa, hizkuntzak biziberritzea edo nekazaritza-ekologia, norberak esku hartzeko proiektu politiko bezala hartu beharrean, identifikatu edo ezagutu ahal izateke espezializatzea eskatzen duten aztertze-diziplinatza hartzeko idejara iritsi gara. Joera hori dela eta, jende askok ez du bere burua feminista edo ekologizatza jotzen, horiek espezializatutako ezagutza akademikoaren kontuak gehiago direlakoan mugimenduetan jarrera politikoa izateke kontuak baino.

Azkenik, prozesu honetan aztertu ditugun prestakuntza esperientzientzako beste desafioetako bat lotuta dago **autonomia ekonomikoa eta politikoa** bermatutako baldintzak sortu eta mantentzearekin, herri-mugimendu eta -erakundeek euren dinamika pedagogikoak eraiki ahal izan ditzaten. Kanpoko mendetasun ekonomikoak mugatu eta baldintzatu egiten du prestakuntza prozesuen jarraipena. Horrek ez du ezinbestean esan nahi prestakuntzako esparru formal eta ofizialei -hezkuntza eta lanekoei- uko egin behar dietenik; izan ere, baldin eta harremana elkarlanetik eta horizontaltasunetik finkatzen bada, ekimen horiek sendotzea eragin daiteke. Esate baterako, politikoki kideak izan daitezkeen unibertsitate-espazioekin hitzarmenak bilatzeak prestakuntza prozesuak sendotzea ahalbidetzen du, hainbat ezagutza akademiko, herrikoi, teoriko eta praktikoa bateratuz. Hala ere, eskakizun formalak -alde aurreko egiaztatze akademikoak, tasa ekonomikoak, sartzeko eskakizunak, eta abar-erantsitako zailtasuna eta prestakuntza prozesu mota horietan sarbidea bermatadain irizpideak finkatzeko premia ekartzen dute.

3. Prestakuntza politiko emantzipatzaileako ikaskuntzak

Orain arte prestakuntza esperientzia hauetan lagun izango ditugun erreferentzia epistemologiko eta metodologikoak adierazi ditugu, eta baita baldintzatzen dituzten testuinguru globaleko elementu batzuk eta erronka jotzen ari zaizkigun geure eta gainerakoen kontraesanak ere. Une honetan, argitalpen honen aurreko kapituluetan aurkeztutako lau prestakuntza esperientziak bateratu eta gurutzatuta aztertze aldera, identifikatutako ikaskuntzetako batzuk hobeto ordenatuz egituratzeko balioko diguten bost ardatz bereizi ditugu:

1. Koadroa. Sistematizatutako lau esperientzietan aurrerapausoak eta mugak identifikatzeko ardatzak

1. Antolamendu- eta pedagogia-praktika emantzipatzaileak: taldeak antolatzeko moduak, ikasteko erak, metodologiak, eta abar.
2. Ahalduntze pertsonala eta antolamendua sendotzea: nor bere buruan konfiantza izatea, konpromisoa, bat egitea, antolatzeko kohesioa, eta abar.
3. Hainbat jakintza, hizkuntza eta kode uztartzea eta harremanetan jartzea.
4. Askotariko zapalkuntza eta borrokak batera jorratzea: sektore-artekotasuna.
5. Toki, nazio edota nazioarteko artikulazioak erraztea.

3.1. Antolamendu- eta pedagogia-praktika emantzipatzaileak: taldeak antolatzeko moduak, ikasteko erak, metodologiak, eta abar.

Pedagogia eta antolamenduko esparru orokorrari dagokionez, proiektu honetan sistematizatutako prestakuntza proposamen guztietan alderdi positibo zinez garrantzitsutzat eman da prestakuntza prozesuak **bizitzetik ikasteko prozesu** bezala irudikatzea. Hau da, prozesuen baitan dimentsio, une eta espazioa guztiek asmo politikoa eta pedagogikoa dute. Peruko PDTGko kideek adierazten duten bezala, prestakuntza esperientzia bakoitzak harremanen ekosistema bat sortzen du: izaera politiko garbia duten espazioak, denborak, antolatzeko moduak, lan egitea, atsedean hartzea, elikatzea, jostatzea, eginkizunak eta erantzukizunak banatzea, erabakiak hartzea, eta abar. Beraz, aukera ona dira ikasteko eta balio emantzipatzaileetan oinarritutako harremanak izatera eramango gaituen praxia gauzatzeko, adibidearen pedagogian oinarrituz, formazioa osatu nahi dugun eran.

Ikuspegi integral edo dimentsio anitzeko horretatik, eraldatze emantzipatzailea lantzen da, aldi berean pertsonala, kolektibo-antolamendukoa eta egiturazkoa den prozesu bezala. Hau da, menderatzeko sistemen kontzientzia politikoetan eta sistema horiek eragiten dituzten botere-harreman asimetrikoetan oinarrituta, alderdi funtsezkotzat jo da prestakuntza prozesuek, euren proposamen pedagogikoaren bidez, gizon-emakumeok politikoki jakitea asimetria horiek gu guztiongan daudela. Horrenbestean, asimetriak bizitzako arlo guztietan birsortzen ditugu, baita parte hartzen ari garen prestakuntza espazioetan ere, neurri txikiago edo handiagoan.

Hori dela eta, bizi-ikaskuntzak beste intentsitate bat dauka, beste logika bat, beste bereganatze-prozesu bat; adibidearen pedagogiaren bitartez balio emantzipatzaileen aurre-irudikatze praxia bilatzeko ariketaren eraginez, gaur egunerokoan eta parte hartzen dugun prestakuntza esperientzian berria eraikiz teoria eta praktika elkarlotu daitezke zentzu dialektikoan. Eguneroko praktiken bidez, bizi ahal izatea bizitzako edozein gunetan eskura daukagula ahalmena eta aukera eraldatzeko; eraldatzen ari garen aldi berean, gainera.

Bilatzen ditugun aldaketen dimentsio guztiei eta aldaketa horiek lantzeko era guztiei buruzko eztabaidak eta emantzipazioaren ikuskera bera oso lotuta daude elkarrekin. Bai behintzat emantzipazio-ikuskeraren dependentzia, menderatze eta asimetriak gainditzeko prozesu politiko bezala ulertuz gero. Emantzipazioa horrela ulertuta, horren jarraian gure kultura politiko, antolatze, erabakiak hartzeko, desberdintasunak eta gatazka prozesatzeko moduak eta abar kritikoki aztertu eta auzitan jartzea dator, nola geure erakundeetan, hala parte hartzen dugun erakunde guztien arteko artikulazio-dinamiketan ere.

Beste alde batetik, bizi-ikaskuntza horri esker azaleratu egiten da gure ekimeneko taldeak, kolektiboak edo mugimenduak berak duen hezkuntza-dimentsioa. **Kolektiboa eta bere eguneroko dinamikak dira subjektu hezitzaile/prestatzailea.** Beraz, funtsezkoa da prestakuntza prozesuan zer harreman mota eraikitzen diren auzitan jartzea eta gogoeta egitea; zuk zeuk kolektiboarekiko zer eratako balio, etika eta harreman eraikitzen dituzun, eta kolektiboak zurekiko nolakoak. Horren harira, funtsezkoa bihurtzen da proposamen metodologikoak berdintasunezko dinamikak eta elkarrekiko erantzukizuna erakusten dutenak zaintzea eta sortzen ahalegintzea: horietan ahots guztiak baliozkotzat aitortu beharko dira, eta beharrezko eginkizun guztietan ekintzaile guztiak txandaka inplikatu dira, guztiak berdin bistaratu eta balora daitezten.

Hori guztia prestakuntza prozesuaren esparruan gauzatu ahal izateko, sistematizatutako esperientzietako batzuetan identifikatu dugu lan egiteko eta antolatzeke moduetan txertatuta dutela **taldean euren burua antolatu, kudeatu eta arautzeko praktika**. Esperientzia batzuen baitan, hori guztia prozesu pedagogikoa antolatzean gauzatzen da, prestakuntza garatzeko beharrezko hainbat eginkizun esku-laneko eta intelektualak txandakatzen diren lan-taldeetan oinarrituta. Prestakuntza prozesuaren garapenean erantzunkidetasuneko parte hartze horrek parte hartzaileak, eragile aktibo eta protagonista bezala -jaso bakarrik egiten duten hartzaile hutsak izan beharrean-, ekimenaren dimentsio guztietan txertatzeko eta bizia ematen dion harreman-ekosistema izateko ahalmena ematen du. Gainera, hainbat eratako eginkizunei ekitea guztiok elkarrekin partekatuz, pedagogikoki hautsi egiten da lan intelektual eta esku-lanaren artean dagoen dikotomia hierarkikoa. Lana elkarrekin egiteko antolatzea eta laneko alderdi guztiei buruzkoak adostea da kontua: taldea osatzen duten pertsona, baldintza sozial eta identitate politikoen aniztasunetik abiatuta, batasuna eraikitzea. Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduaren Florestan Fernandes Eskola Nazionaleko esperientzian identitatea eraikitzea eta taldekide izatearen sentimendua lantzen dira. Horretarako, hainbat ariketa pedagogiko erabiltzen dira: taldeari izena jartzea, esate baterako. Ariketa horien helburua aniztasunean artikulazioa eta ekintza-batasuna eraikitzeke beharrezko prozesuen kontzientzia handiagoa lantzea eta sortzea da; baita prozesu horien barrenean dauden zailtasunak jorratzea ere, are ariketa pedagogikoak badira ere.

Jakinaenez, nola prestakuntza dimentsio anitzeko bizi-ikaskuntza bezala ulertzeko era horrek, hala harremanen ekosisteman lan egiteko eta -elkarrekin-bizitzeko ezinbesteko eguneroko eginkizun guztien politizazio pedagogikoak, eskatu egiten dute prestakuntzako ekimen oro -izan ikastaroa, izan jardunaldiak, izan tailerra, izan topaketak- **ekimenaren garapena erraztu eta lagunduko duen talde edo batzorde pedagogiko** batek pentsatu, proposatu eta dinamizatzea. Badu garrantzia prestakuntza ekimena alde z aurretik pentsatu eta antolatzen duen taldeak parte hartzaileei prozesua sostengatzen duten oinarri filosofiko eta pedagogikoak eta horiek dakarten elkarrekiko erantzunkidetasun eta inplikazio maila azaltzea. Halaber, garrantzitsua da irakurketa pedagogiko iraunkorra pizteke adinako esperientzia eta gaitasun pedagogikoa daukan taldea izatea. Prozesuan gertatzen den guztia -ustekabekoak, birformulatzeak, tentsioak, gatazkak, inspirazio eta sormen uneak, eta abar- ikaskuntza kolektibo eta banakakoak eskainitako aukeratzat barneratzen ahalegintzea komeni da, ildo horretan jasotako taldeari itzuliz. Era horretan, **hezakuntza-giroa** zainduz eta **jarraipen pedagogikoa irekitasun eta malgutasun egokiarekin** gauzatuz, parte hartzaile guztien egiteke aktiboa

eta haiek egitekoetan erantzunkidetasunez txerta daitezten, prozesua garatzeko sortutako lan-taldeen egituraren bitartez.

Aurreikusitakoaren arabera pentsatu eta proposatutakoaren irekitasuna, hartzeko gaitasuna eta iragazkortasuna, hau da, prozesuak berak alde aurretik bidean irekitzen edo ixten diren aukeren arabera definitutakoa molda dezan uztea; horren arabera, nahiz eta badiren ekimenaren ildo emantzipatzailearen oinarrian dagoen erreferentzia filosofiko eta metodologikoa finkatzen duten marra gorriak, ekidin egin beharko ditugu irekitzeko eta iragazkor izateko gaitasuna mugatuko diguten zurruntasun, helburu, jokatzeko estilo edo moduak. Horretarako, sistematizatutako esperientzia batzuetan identifikatutako ikaskuntza batean adierazi bezala, garrantzitsua da norberak proposamen pedagogikoaren inguruko zalantzak, hutsuneak, autokritikak eta beldurrak azaltzeko apaltasuna, zintzotasuna eta zinezkotasuna izatea; jarrera horiek ulermena, enpatia eta konplizitatea eragin ohi dute, prozesuaren parte sentitzeko eta prozesuaren baitan erantzunkide izateko.

Beraz, ikuspegi eta laguntza pedagogiko horrek eskatu egiten du praktika gauzatzen duten hezitzaile edo bideratzaileek haren inguruan gogoeta egitea, eta bultzatzen ari den eraldatze-prozesuaren atal gisa euren gain hartzea. Talde iragazkorra osieran eta gogoeta eginzalea proposamen pedagogikoa eta bere mugen inguruan.

Landu behar diren gaiak eta edukiak garatzeko **espazioak, denborak, praktika didaktiko motak eta talde-dinamikei** dagokienean, helburu emantzipatzailea duten prestakuntza prozesuen apustu estrategikoa alderdi guztiak elkarren artean era koherentean estekatzea da. Eginkizuna gauzatzeko, egokienak espazio zabal, argi eta arnasbide onekoak dira, guk gure ikurrekin apainduz geure egin ditzakegunak, nola talde txikietan, hala osoko bilera handietan lan egiteko aukera ematen dutenak, eta egindako ekarpen guztiak jasotzeko txartelak eta papertzarrak itsatsi eta bistartzeko hormak dauzkatena. Prestakuntza prozesuetan naturarekiko eta lurrarekiko harremana txertatzeak sosegatzen eta uneak zein espazioak dibertsifikatzen lagunduko digu; halaber, prestakuntzak irauten duen egun edo asteetan zehar parte hartzaileak elkarrekin bizitzea lehenago aipatu dugun bizi-ikaskuntza integrala bideratu ahal izateko baldintzetako bat da. Ildo horretan, bi edo hiru eguneko gutxieneko denbora bat izatea komeni da, prestakuntza prozesu osoagoak gara daitezten.

Bistan denez, prestakuntzako ekimen bakoitzak izango ditu bere baldintzak, eta ez dago orokorrean aplikatu daitezkeen alde aurretik finkatutako errezetarik.

Espazioak, denborak, taldearen osaera eta erabilgarritasuna eta erakundeak zein parte hartzaileak deitzen dituzten gai eta helburuen arabera, ibilbide edo sekuentzia bat osatzen da. Hainbat tresna eta estimulu ditu ibilbide edo sekuentzia horrek, eta lan pertsonala eta talde txikiko zein handiko lan kolektiboa konbinatzen ditu. Eraikitzen jarraitzen duen lan-ibilbidea da, taldean gauzatzen diren egoeren arabera. Horrenbestean, irekita eta moldagarri mantentzen da ibilbidea, han dabilenak bere egin ahal izan dezan eta, hura garatzerako prozesuan gertatzen denaren arabera, aldatu ahal izan dezan.

Bai edukiak eta baita lantzeko formak ere -ibilbide metodologikoa osatzen duten praktikak eta dinamikak- batasuna osatzen dute; bi alderdietan bilatzen den orientazio emantzipatzaileak elkarri lotutako batasuna da. Izan ere, esaten dugunak eta hezten gaituzten edukiek adina edo gehiago prestatzen edo hezten baikaitu egiten dugunak -lan egiteko, eztabaidatzeko, bateratzeko eta abarrerako moduak-.

Ildo horretan, argitalpen honetan aurkeztutako sistematizazioetan edukien eta lan-moduen arteko koherentzia lortzeko zenbait erreferentzia erabilgarri identifikatu ditugu, parte-hartzaile guztientzat ahalduz emantzipatzaileak izatearen harira. Erreferentzia horien artean daude honako hauek: parte hartze bidezkoa eta berdintasunezkoa bermatuko dituzten mekanismoak bideratzea, parte hartu duten kide guztien bizipenak eta gogoetak adi entzun ahal izateko uneak sortzea, ezagutza eraikitzeke espazioak eta ariketak bideratzea, era kolektiboan guztion ekarpenekin talde moduan eraiki dugulako indarra eta geure buruarengan konfiantza sentiaraziko diguten uneak -eta gainera elkar ondo hartu dugu, gustura sentitu gara espazio horretan, eta gure arteko desadostasun eta tentsioak modu pedagogiko eraikitzailean konpondu ditugu-.

2. Koadroa. Joera emantzipatzaile hori eraikitzeko ibilbide metodologikoan izan ohi diren elementuetako batzuk dira ondorengo hauek

- Ongi etorria, aurkezpena eta inguruarekin lotzea. Elkartu gaituen jarduera abiatu aurretik, geure artean, momentuarekin eta espazioarekin sintonizatuko gaituen jolas, ospakizun edo esker-emate kolektiboa.
- Bertaratutako lagunak dinamika batekin aurkeztea; komeniko da dinamika horrek laguntzea, aldez aurretik finkatutako formaltasun, etiketa edo roletatik haratago, geure burua pertsona moduan era osoagoan ikusten, bizi- eta aktibismo-ibilbideak partekatzen, eta prozesura nolako aldartearekin iritsi garen azaltzen, taldean konplizitatea eta konfiantza eraikitzen joate aldera.
- Landuko ditugun gaiekin lotutako parte hartzaileen bizipenak berreskuratu eta ezagutzea.
- Gaietan sakontzea, hainbat eratako dinamika eta elkartrukeen bitartez -gonbidatutako pertsona edota esperientziak sar daitezke-, gaia ulertzeko eta haren aurrean daukagun jarrerarekiko ekarpen esanguratsuak piztea bidera dezaketenak; horrekin batera, gaia ulertzeko eta harekiko iritzia osatzeko formak irekitzea bidera dezaketen hainbat ikuspuntu eta esperientziaren artean elkarrizketa irekitzea ere bai.
- Izan litezkeen birkokatzeak eta praktika politikoak adierazten dizkiguten ikaskuntzak, elementu berritzaileak eta taldean eraikitako ezagutza bezala lepoan hartuta daramatzagun planteamenduak identifikatzea. Baita beste eztabaida batzuetako sarrera irekiko diguten galdera berriak eta erreferentziak ere.
- Prestakuntza esperientzia osatu duten alderdi eta bizipen guztiak ebaluatzea, geuk banaka eta kolektiboan egindakoaren kontzientzia hartzen laguntzeko, eta hobekuntzak iradokitzeko.
- Bukaera eta agurra, sortutako adiskidetasun eta harreman berriak adierazteko denbora-tartea.
- Edukiak, eztabaidak, saioetan sortutako ideiak ordenatu eta sintetizatzeko lana gelditzen da, itzultzeko eta hedatzeko materialak edukitzeko erregistro grafikoa edo ikus-entzunezkoa osatzea.

3.1.1. Gure praktika pedagogikoen zailtasunak, mugak eta kontraesanak

Antolatzeko moduei eta praktika pedagogikoei dagokienez, sistematizatutako esperientziak egiten ari diren aurrerapauso eta ekarpenetako batzuk deskribatu ondoren, ikus ditzagun orain alderdi hori bera identifikatu izan duten zailtasun,

zalantza eta kontraesanetako batzuk, muga edo kontraesan horietatik ere irakatsi eta ikasi ahal izan dezagun. Esaten duguna, nahi duguna eta egiaz gertatzen denaren arteko aldea handia dago horietan, eta prestakuntza prozesuetako errealitatean ez dugu lortzen prestakuntzaren izaera emantzipatzailea eta indartzailea sakonduko luketen asmoak gauzatzea.

Identifikatutako lehenengo muga metodologismoa edo **dinamika parte hartzaileak erabiltzea hutsaltzat hartzeko** nolabaiteko joerarekin lotuta dago. Herri-hezkuntzaren eraginak ikaskuntza errazteko neurrietara murriztearen arriskua dago tartean; ezagutzen transmisio soildutakora edo gizon-emakume guztiek prozesu pedagogikoan parte hartzea demokratizatzerara mugatuko litzateke era horretan. Herri-hezkuntzaren prozesuetako atalen baitako elementuak dira, bai, baina herri-hezkuntza ez dute horiek bakarrik definitzen. Edukiak sinplifikatzearekin, edukiak gutxitzea ere gerta daiteke, sakontasuna galtzea, gutxiestea norberaren jakintzak beste erakunde batzuek ekartzen dituztenekin, eta beste elementu batzuek eransten dituzten pentsamendu kritikoko korranteetako jakintza akademikoekin harremanetan sartzea.

Beste alde batetik, ezagutzak era kolektiboan sortu ahal izateko beharrezko denbora-tarteak handiagoak dira prozesu pedagogiko hauetan erabilitako denbora-tarteak baino. Horren eraginez, askotan prestakuntza unea ezagutzak transmititzera murrizten da, kasurik onenean ere, praktiketatik abiatuta haiek arazo bihurtuz, baina sortutakoa ezagutzaren aurrerapauso bezala sistematizatu gabe. Topaketen memoria eraikitzeke prozesua gutxietsi egiten da, edo ez zaio jaramonik egiten; baita haiek sortze teorikoaren erdiguneko lekutzat sistematizatzea ere. Nola gaindi daitezke lan puntualeko logikak ikaskuntzak era sistematikoan identifikatu eta jaso ahal izateko? Prestakuntzako esperientzia bera sistematizatzea funtsezkoa da ezagutzak era kolektiboan sortzean aurrera egiteko bide izan dadin, eta baita ikasteko une bakoitzean gogoeta kolektibo horrek pizten dituen sormen-izpiak ere.

Lan honetan sistematizatutako prestakuntza prozesuek aurrean aurkitzen dituzten muga, zalantza eta kontraesan multzo bat lotuta dago **bideratzaileen eta beste hezkuntza-prozesuetako laguntzaile pedagogiko batzuen rol politikoarekin** -komunikatzaileak, artistak edo ikerlari aktibistak, esate baterako-. Prestakuntza prozesuaren baitan euren ekintzaile eginkizuna daukaten hainbat rol, identitate eta eginkizun dira. Herri-hezkuntzako prozesu horiek bideratu eta dinamizatzeari dagokionean, horien ardatzetako bat geuk osatzen dugunez, prozesuei eragin egiten diegu eta haiek eragin egiten digute. Nola kudeatu dezakegu erdigunean aritze hori era ireki eta malguan,

prozesuan eragiteko gaitasunean abangoardismoetan edo asimetrietan erori gabe? Nola ekidin dezakegu prozesua sostengatzeko erantzukizun bakarra figura horietan uztea, baina aldi berean ziurtasun gabeziak, zalantzak eta blokeoak pedagogikoki bideratzeko erreferentzialtasuna finkatzea galdu gabe? Oreka-ariketa korapilatsuak dira, eta, jakina, ez dago beti asmatzerik. Talde pedagogikoen barruan bertan ere zalantzak, eztabaidak eta gatazkak sortzen dituzten ariketak dira, tentsio horietan bakoitzak oreka-puntua ikusten duen lekuaren arabera.

Batzuetan prestakuntza prozesuko giro pedagogikoaren ezinbesteko babesa eta zaintza ahultzen dute honako hauek: prestakuntza prozesua aurkeztu eta bideratzeko modua errutina bihurtzea eta mekanizatzea, prozesua ibilian, gelditu gabe, interpretatzeko eta isiltasunak, ez egiteak eta abar aditzeko zailtasuna edo lan-zama handiegiagatik edo prestakuntza faltagatik talde pedagogikoen euren ahultasuna.

Halaber, mugimenduen nolabaiteko idealizazioak, ekimen horiek hasieran eragiten duten gogoberotasuna eta ilusioarekin batera, prestakuntza prozesuen ahalmenak eta itxaropenak puztu ditzakete, edo euren onetik atera; baita zailtasunak sortu ere mugimenduetako bizi-pultsua, beharrak, inguruabarrak eta testuinguru bakoitzean mugimenduen zutabe den aktibista jendea zertan den jakin ahal izateko. Horren harira, zailtasunak identifikatu dira era orekatuan arduraldia eta lan-intentsiboa atsedena, bakoitzaren espazioa, jolasa eta abarrekin lotuta neurtzeko.

Zailtasun eta muga horietatik eratorrita dator prestakuntzako ekimenen ebaluazio kritiko eta errealista egiteko ikaskuntza, lurreko hargune solidoarekin konektatuta izan daitezen, pertsona eta erakundeen erabilgarritasuna, energiei eta arduraldiari dagokionean; izan ere, ona eta beharrezkoaren aurkakoa izan daiteke ideala. Hau da, egin daitekeena baino haratago joan nahi izatearen idealismoa eta laneko baldintza errealak beti aintzat hartzeko pragmatismoaren arteko dialektika zaintzea, gero zapuztu eta adoregabetzearen zuloan ez erortzeko.

Esperientzia horietako batean detektatu izan da, esate baterako, ikastaroen formatua izan daitekeela zurrun eta zorrotzagoa erakundeen eta aktibisten egiazko egoerekiko, eta, horrenbestean, parte hartzeko aukerak gehiago mugatzen dituela. Hala eta guztiz ere, topaketa eta jardunaldien formatuak aukera ematen du mugimenduetako pertsona eta erakundeen behar aldakorrekin bat datorren parte hartzea irekiagoa eta malguagoa izan dadin. Horri esker,

neurri handiagoan egokitu eta integratzen dira bai beharrak eta baita aktibisten profil eta antolatzeko forma berriak ere, testuinguru bakoitzeko zapalkuntzaren ondorioz gauzatzen diren egoera, gatazka eta errealitate aldakorren arabera.

3. Koadroa. Antolamendu eta pedagogia emantzipatzaileei dagokien laburpen-taula

1. Prestakuntza bizipenen araberrako irakaspen-prozesu bezala pentsatzea: formazioaren une, espazio eta eginkizun guztiak asmo politiko eta pedagogikoarekin antolatuak. Prestakuntza esperientzia bakoitza aukera da gure arteko antolaketa eta harremanen praxia landu nahi ditugun balore emantzipatzaileen araberrakoa izateko. Eraldatze emantzipatzailea aldi berean pertsonala, antolamendukoa eta egiturazkoa den prozesu bezala lantzea.
2. Subjektu hezitzaile-formatzailea kolektiboa eta bere eguneroko harreman-dinamikak osatzen du: kolektiboa lan-talde ezberdinetan antolatzea eta erregulatzea, prestakuntza garatzeko beharrezkoak diren hainbat eginkizun esku-lanekoak zein intelektualak txandakatzen joateko.
3. Prozesua bideratu eta babesten duen talde pedagogikoaren garrantzia: irekitasuna, malgutasuna eta hezkuntza-giroaren zaintza, prozesuan gertatzen den guztiaren irakurketa pedagogikoa eginez –ustekabekoak, gatazkak, sormen-uneak...–, eta ikasteko aukerak diren heinean taldeari horien inguruko gogoetak eta irakaspenak identifikatzeko gonbiteak luzatuz.
4. Espazio eta denbora egokien garrantzia, eta baita landu behar diren gaiak eta edukiak garatzeko prozesu osoa ireki eta ixten duten praktika didaktiko eta dinamiken ibilbidearen garrantzia ere. Alderdi horiek guztiak era koherentean elkarlotzea da apustu estrategikoa.
5. Metodologismoa edo talde-dinamiken sinplifikazio despolitizatzailea ekiditea. Herri-hezkuntzaren izaera ikaskuntza errazteko neurrietara, ezagutzen transmisio sinplifikatura edo prozesu pedagogikoan guztion parte hartzea demokratizatzerantz murriztearen arriskua.
6. Taldeak ezagutza berri bezala sortutakoa sistematizatzea sormen teorikoa ahalbidetzea da. Taldeak sorturikoa jasotzea eta gogoetatzea aukera politiko-pedagogikoa ederra baliatzea da eta, gure praktika politikoen inguruko gogoeta kritikoa indartzen duen aldi berean, teoriak praktika politikoetara ekartzen ditu. Sistematizazioa egiteko beharrezkoak diren denborak zaindu behar dira, prozesu pedagogikoetan erabilitako denborak baino luzeagoak baitira.

7. Prestakuntza prozesuaren baitan bideratzaileek eta beste laguntza-rol batzuek –komunikatzaileak, artistak, ikerlari aktibistak, eta abar– duten rol politikoa bistaratzeko eta hari buruzko gogoeta egitea. Bideratzaileen ezaugarrietako bat prozesuaren erdigunean egotea da; erdiguneko izaera hori, abangoardismoetan edo prozesuan eragiteko asimetrietan erori gabe, modu ireki eta malguan kudeatzea.
8. Pertsona eta erakundeen denbora-, energia- eta ekiteko-baldintzak aintzat hartzea. Jardunari ekitea eta lan-intentsiboa atsedena, espazio pertsonala eta aisialdiarekin orekatzea.
9. Prestakuntza prozesuko talde-praktika eta dinamiken ibilbidea planteatzeko eta eramateko modua errutina bihurtzea eta mekanizatzea ekiditea.

3.2. Ahalduntze pertsonala eta antolamendua sendotzea: nork bere buruan konfiantza izatea, konpromisoa, antolatze koherentsia, bat egitea, eta abar.

Lehenago adierazi dugunez, herri-hezkuntzari begira sortutako prestakuntza prozesuek gure kontzientzia politikoa zabaldu eta gure eragiteko gaitasun pertsonala eta kolektiboa indartzea dute helburu, gure praktikak eta horiek sostengatzen dituzten sinesmenak modu emantzipatzailean eraldatuz. Horregatik, funtsezkoa da gure subjektibotasunetan eta horien marka sozial eta kulturaletan oinarritzea.

Lan honetan sistematizatutako prestakuntza esperientziak bateratzen dituen elementuetako bat **esperientzia pertsonalak eta kolektiboak** erdigunean kokatzea da, **prozesu pedagogikoan sartzeko abiapuntu gisa**. Landu behar diren gaiekin lotutako parte hartzaileen eguneroko bizipen eta praktiketan oinarritzen da, eta haiek partekatu egiten dira. Prestakuntza prozesua saiatzen da bizipen eta praktika horiekin lotuta mantentzen, haien inguruan eztabaidatu eta teorizatuz -deseraiki, historizatu, eta abar-, gero eraldatu ahal izateko.

Era horretan, ezagutza eraikitze prozesua ez da sortzen duen errealitatearekin lotu gabeko zerbait. Horrez gain, menderatze-harremanetatik askatzeko praktika politiko berrietan txertatu ahal izateko ikaskuntza eta barneratze prozesua eraikitzearekin lotuta ere badago. Hori dela eta, garrantzitsua da bizipenak aitortzea eta parte hartzen duten lagun guztien praktikari buruzko gogoeta kritikoa sustatzea. Hari horretan, praktiken teorizazioa eta praktika alternatibo emantzipatzaileetarako orientazioa landu ahal izango da taldean.

Talde txikiek bizipen pertsonalak partekatzeko aukera ematen digute, banaka eta taldean geure burua ezagutzea landuz, antzekotasun eta desberdintasunetan geure burua islatuta ikusiz; horrela lortuko dugu taldean integrazioa, konplizitatea eta konfiantza bideratzea. Guatemalako prestakuntza politiko feminista eskolako emakume kideek honako testigantza jaso hau dute: *“Bazterkeriazko bizi-esperientzia da gurea, eta gu espazio batera gonbidatzea bera, non baloratu egingo gaituzten, jatekoa eta ostatua emango diguten, inork gu epaitu gabe, jende berria ezagutzeko aukerarekin, oso garrantzitsua da. Balorazio pertsonala eragiten du kideengan, eragin positiboa du euren duintze-prozesuan. Horri esker, ideia berriekin itzultzen dira kideak, eta desberdin sentitzen dira. Geure artean elkar ezagutzea eragiten du, eta garrantzitsu sentiarazten gaitu. Talde txikia izateak ere lagundu du gure emakume feminista identitatea sendotzen, guk egindako matxinadak eta gure ama-amonek egindakoak eta abar aitortzetik abiatuta. Talde txikiek lagundu egiten dute geuk sortzen ditugun arauak hausten eta emakumeok geure artean elkarri ematen diogun zorionsu bizitzeko ahalmena nola ematen diogun partekatzen, eztabaidatuz eta askatasuna sortuz”*.

Metodologia pedagogikoak subjektibotasuna espazio seguru eta lagun artekoan lantzeko moduak bere baitan izateak potentzialtasun handia du ahalduz pertsonala eta antolamendua indartzea lantzeko. Taldearekiko lotura eta erakundeetan zein euren borroketan partaide sentitzea sendotzeko aukera irekitzen du; hau da, prestakuntza eta antolamendu-prozesuetan identitate kolektiboa eraikitzea pertsonen arteko zaintza dimentsioari arreta eskainiz. *“Ildo askatzailean aberastu eta eraldatu egiten nauen partaidetza-espazio batean, sentitzen dugunean aditu egiten digutela, zainduta gaudela, duin bihurtzen gaituztela, eta garrantzitsuak garela, horrek eragin positiboa du geure buruaren estimuan eta konfiantzan; hori funtsezkoa da emantzipazio pertsonaleko prozesuan”* adierazi zuen Guatemalako eskola feministako kide batek.

Aldi berean, esperientzia horrek adierazten digu egin eta pentsatzen dugunaz eta praktika zein pentsamendu horiek oro jaiotzen diren testuinguru guztiez kritikoki gogoeta egiteak lagundu egiten duela bistaratu eta identifikatzen errealitatea -teoriak- ulertu eta interpretatzeko formak eta eraldaketa emantzipatzaileak eraikitzen joateko alternatiba posible bihurtzen diren ekintza zehatzak -praktikak-.

Beste alde batetik, bereizitako borroka politikoen artean hitzarmen-politika eraikitzeak, besteak beste, **afektuak eta harremanak sortu eta zaintzea** eskatzen du. Esperientziak partekatzetik sortutako afektuek aukera ematen dute

gure zalantzak, zailtasunak, kontraesanak, beldurrak, baldarkeriak, eta abar ere partekatzeke; izan ere, ahultasunak partekatzeak konplizitate, konfiantza eta kohesio maila handia eragiten du. Peruko PDTGko gure emakume kideen mugimenduen arteko Elkarrizketen esperientzian *“tentu handiz landu genituen afektu horiei esker sartu ahal izan ginen bazterkeria-esperientzietan geure erakundeetan, esperientzia horien sustraiak eta irtenbideak bilatuz. Guztion zapalkuntza eta aberasten gaituzten desberdintasunak ezagutzea izan zen abiapuntua. Horrek aldi berean berdintasun eta bidezketasun dinamikak birsortzera eramán gintuen, eta haietan guztien ahotsak eta mundu-ikuskerak baliozkotzat jotzen ziren.”* MSTren Florestan Fernandes Eskola Nazionalen sistematizatutako esperientzian identifikatu zutenez, pertsona eta antolamendu mailan ahalduntzeko eta aberasteko egituretan parte hartzean, beste kide batzuk taldeetan parte hartzera animatzeko motibazioa handitu egiten da. Gainera, esperientziak balio du prestakuntza politikoa norberaren erakundearen izaera estrategiko zuzenagoarekin txertatzeko.

Hain zuzen, prestakuntza politikoa **erakundearen estrategiarekin** lotzea, nola barneko mailan, hala kanpoko mailan, lan honetan sistematizatutako esperientzietako batzuetan identifikatutako beste elementuetako bat da. Elementu horrek mugimenduak antolatzea indartzeko balio du. Era berean, hurrenez hurren gauzatutako edizio eta esperientzietan **prestakuntza ekimenen jarraipenak** eragin positiboa ere izaten du, aukera eskaintzen duelako erakunde bereko zein beste erakunde batzuetako gero eta aktibista gehiagok, orpoz orpo, prestakuntza esperientzia parteka dezaten. Esperientzia elkarrekin bizitzeak eragiten duen antolamendu- eta harreman-alderdiak lantzearekin sortzen den kideasunak antolatzeke eta antolamendu arteko langintza hobetu dezake, nork bere kontzientzia eta kohesioari dagokionean bereziki.

ENFFeko esperientzian identifikatu zuten beste elementuetako batek lagundu egiten du ahalduntze pertsonala eta antolamendua indartzea prestakuntza prozesuetan lantzen. Elementu hori harremanetan dago, prestakuntza prozesu beraren garapenarekin lotuta, **nork bere burua antolatzeke eta eginkizun material eta immaterial guztietan -lan intelektuala eta lan fisikoa- parte hartzen duten pertsona erantzunkideen lanarekin**. Prestakuntza prozesuan bertan, antolatzeke egitura eta laneko taldeak -horiek ere kideztakoak izanik-sortuz gero eta, erantzukizun handiagoarekin nork bere burua hobeto kudeatuta, prozesu pedagogikoaren motore-indarra kolektibo osoa izanez gero, aukera bat zabaltzen da: erakunde bakoitzean indarrean dauden antolatze-moduak eta antolatze-kulturak aztertzeke erreferentzia bat markatzen duen antolatze-eredua bizi daiteke.

Gainera, nork bere erakundearen ikasitakoa sozializatzeko ahalduzko pertsonala eragin ohi du erakundearen baitan. Ildo berean, ahalduzko interesgarria da ordezkioak sortzeko eta erakundearen lidergoak ikuskatzeko ere. Horrenbestean, garrantzitsua da prestakuntza prozesu horietan parte hartzen duten **aktibisten profilak -adina, esperientzia, generoa, kezka, eta abarren inguruan-dibertsifikatzea**. Ekidin egin behar da erakundearen goi-graduak dabilzan aktibisten bakarrik parte hartzea. Beste hainbeste egitea komeni da prestakuntza edo teoria kezka handiagoa dutenekin ere, prestakuntza ekimenetan bertaratzean “aditu” profil errepikakorra osatzen baita horiekin.

3.2.1. Ahalduzko pertsonalaren eta antolaketaren indartzearen zailtasunak, mugak eta kontraesanak

Oso murriztailea izango litzateke prestakuntza politikoa batik bat berariaz asmo horrekin bideratutako ikastaro, topaketa, jardunaldi, solasaldi edo prozesuetan gauzatzen dela pentsatzea. Sistematizatutako esperientzietan egiaztatu denez, prestakuntza politikoa egunez egunekoan gauzatzen da gehienbat. Egiteko modu jakinak eta kultura politiko batzuk behin eta berriz elikatzen dituen kideak eta sozializazio politikoko inguruneetan gauzatzen da batik bat prestakuntza hori. Antolatze- eta borroka-praktiken baitan subjektu politiko bihurtuz eta prestatuz goaz. Eta hainbat eratako abagune, eguneroko exigentzia, tentsio, norgehiagoka eta inertzia aldakorretako baldintzetan jokatzeko dugu.

Prestakuntza prozesuak parentesi moduko bat dira ohiko praktika pertsonal eta antolamenduko dinamikak, asmo pedagogikoak eta ikasketak-giroak gidatutako aparteko espazioa eta denbora. Prestakuntzako helburuekin osatutako espazioak aukera eskaintzen dute eginkizunak ikuskatu eta sakontzeko. Izan ere, tarte bat eman diezagukete gure praktikez eta euren baldintza guztiekin garatzen diren testuinguruaz gogoeta egiteko, eta esperientziak zein gogoetak partekatzeko aukerarik ez daukagun pertsona eta sareekin elkartruckerako bestelako harremanak eta aukerak eskaintzeko. Horren harira, garrantzitsua da **prestakuntza prozesuek kolektiboek antolatzen eta borrokako dinamikak zenbateraino neurrian duten eragina ala batera eragirik ez duten ebaluatzea**. Ikus dezakegunez, gutxitan egiten dira era horretako analisiak eta ebaluazioak. Horrenbestean, ez dakigu prestakuntza prozesuek zer eragin duten erakundeak ahultzen dituzten inertiak edo euren baitan botere-hierarkiak berregiten dituzten inertiak eraldatzeko prozesuan. Eta beraz, ez dute balio pertsona eta taldeak ahalduzko prozesuak gauzatzeko garaian.

Nola egin dezakegu aurrera mugimenduetako kolektibo eta sareen barruko antolamendu-bizitzan beste botere-banaketa forma batzuk eraiki ahal izateko? Nola eragin konfiantzazko dinamika bat sexua-generoa, adina, esperientzia, ezagutza, erabilgarritasuna, eta abarren arabera gutxietsi eta hierarkia ezartzen duten -zeintzuk dauden erakundearen emari menderatzailean eta zeintzuk haren ertzetan- pertsona eta erakunde mailako praktiketan berrazterketa autokritikoa egiteko moduan? Nola lagundu prestakuntza esperientzien baitan erakundeen barrenean eta erakundeen arteko harremanetan liskar eta gatazkak modu eraikitzaileagoan bideratzen? Horiek dira prestakuntza esperientziek ahaldundute pertsonala eta antolamendua indartze horri dagokionean aurrez aurre aurkitzen ari diren galdera eta mugetako batzuk.

Badakigu parte hartzaileek bizi izan dituzten prestakuntza prozesuak **nork bere erakundera lekualdatzeko eta bertan birsortu ahal izateko zailtasunak** daudela. Beharbada beharrezkoa izango da gaitasunak garatzea prestakuntza prozesuek parte hartzaileen artean arreta handiagoz zaintzea dinamizatze eta bideratzeko. Dagoeneko arreta bideratuta dago horretara ere azkenaldian, baina era ahulean oraindik. Jakin badakigu kalkatzeak eta kopiatzeak ez duela balio, prestakuntza proposamenak behar bezala euren testuinguruan kokatu gabe aplikatu daitezkeen errezeta metodologiko edo pedagogikorik ez dagoelako. Erakunde bakoitzak, bere borroka esperientzia eta estrategia eta une historiko bakoitzeko baldintzen arabera, dituen prestakuntza beharrak aztertuko ditu, eta haiek zer planteamendu politiko pedagogikotatik lantzea komeni den ere bai. Subjektu prestatzaile nagusia kolektiboa edo erakundea bera denez, bere baitan sortzen eta birsortzen da antolatzeak kultura, adibidearen pedagogia eta, beraz, mugimenduaren pedagogia politikoa.

Horren harira, mugak aurkitu ditugu guk geuk kontzientzia hobea izateko errealitate horretaz eta errealitate horrek lortu nahi dugun emantzipazio-helburua irudikatzeak lan eta antolatze dinamiketara bidean aurrera egiteko duten garrantziaz. Dinamika horien bitartez, parte hartzaile bakoitzaren jakintzak eta erabilgarritasunak taldearen zerbitzurako eskaini beharko dira, era orekatuan, pertsonalismo edo egozentrismo gabe. Horrela, funtzionamendua, kohesioa, komunikazioa eta desadostasun zein gatazken jorratze eraikitzailea hobetuko da: erakundeko kide guztiak taldeko parte garrantzitsu sentiaraziz. Halaber, hobetu egin beharko dugu kide eta sozializazio politikoko funtsezko gune horretara iritsitako lagunei egiten diegun harrera ere.

Azkenik, muga eta zailtasunen aurrean, prestakuntza prozesuek apal jokatzeko jarraitu behar dute: antolatze eta borroka prozesuetan ekarpen bat gehiagotzat

jo behar dira. Ez dute abangoardismoetan erori behar, eta beste erakunde batzuetan ez dute eragin behar euren lehentasun edo beharretatik aparteko prozesurik.

4. Koadroa. Ahalduntze pertsonalari eta antolakundeen sendotzeari dagokien laburpen-etaula

1. Eguneroko esperientzia pertsonal eta kolektiboen garrantzia prestakuntza prozesuaren abiapuntu bezala.
2. Sentipenak eta subjektibotasuna lantzea espazio abegikor eta seguruetan –talde txikiak, bizipenak partekatzeo dinamikak, espazio eta une informalak, eta abar–.
3. Esperientzia pertsonalak eta kolektiboak partekatuz, afektuak sortzeari eta harremanak zaintzeari erreparatzea: gure zalantzak, zailtasunak, kontraesanak, beldurrak, baldarkeriak, eta abar ere partekatzea.
4. Prestakuntza politikoa erakundearen estrategiarekin lotzea, erakundearen indarra sendotzeko bere behar eta lehentasunei ez dagozkien prozesuak sortu gabe. Prestakuntza prozesuak euren testuinguruan kokatzea, eta baita denboran jarraipena emateko ahalegina egitea, erakundeko gero eta jende gehiagoren antolatze-kultura zipriztintzen joan daitezen.
5. Prestakuntza prozesuan bertan antolatze-egitura eta lan-taldeak sortzea, prozesu pedagogikoan taldea arduradun eta motore izan dadin –nola eginkizun eta zaintza materialetan, hala inmaterialetan ere–; horrela, errotik demokratikoak diren antolatze-ereduak bizi ahal izango ditugu.
6. Taldeen aniztasuna modu demokratikoan artikulatzeko gaitasunak garatzea, ez daitezen gauzatu genero, adin, ibilbide-esperientzia edo ezagutzaren arabera barne-hierarkiak. Kolektiboetako antolakuntza-bizitzan boterea banatzeko bestelako formak bizitzeko; lidergo kolektiboak eraikitzeo aukera emango dutenak eta gatazkak erakundeak indartzeko eran bideratzeko aukera emango dutenak.
7. Prestakuntza prozesuetan parte hartzen duten aktibisten profilak dibertsifikatzea –adina, generoa, esperientzia, interesak, aginte-maila erakundearen, eta abar–.
8. Prestakuntza prozesuek kolektiboetako borroketan duten eragina ebaluatzea, baita euren botere-dinamika, gatazka eta antolakuntza-inertzietan duten eragina ere.
9. Prestakuntza esperientzia nork bere erakundera edo ingurura egokitzeo eta bertan berregiteko formularik egokien inguruko gogoeta egitea, kasu bakoitzaren arabera.

3.3. Hainbat jakintza, hizkuntza eta kode uztartzea eta harremanetan jartzea

Hainbat jakintza, hizkuntza eta komunikazio-kode pedagogikoki lotzeko beharra da sistematizatutako prestakuntza politikoko lau esperientzietan dagoen beste irakaspen bat. Herri-jakintzak, jakintza artistikoak, jakintza akademikoak eta mugimenduetan antolatzeko zein borrokako prozesuetan lantzen diren jakintzen artean izan beharreko lotura da hori.

Mugimendu sozialen esperientzian **jakintza akademikoekin elkarriketan aritzeko hainbat zailtasun eta kontraesan** daude. Zailtasun horien jatorria akademiak mugimenduetako esperientzia eta borroketatik eratorritako jakintzak ez aitortu eta baloratzean datza. Elikadura-subiranotasuna eta nekazaritza-ekologia bezalako gogoeta eta proposamen politikoak dira. Horiek hainbat herri-mugimendutako erresistentzia eta borroka prozesuetan eraiki izan dira, eta beste hauek ere bai: kapitala pilatzea –bizitzak urritu eta hondatzen ditu– eta bizitzaren arteko gatazka –egunero bizitza sostengatzen duten lan material eta inmaterialak ikusezin bihurtu eta feminizatu–, deshazkundera, komunitatearen auto-antolakuntza eta erabakitzeke eskubidearen garrantzia gobernu demokratikorako, eta abar. Beraz, beharrezkoa da aitortzea mugimenduetako praktikak, eztabaidak ireki ez ezik, erakutsi egiten dituela berrikuntza teorikoa sortu eta menderakuntzak zein emantzipazioak jorratzeko giltzarri batzuk. Sarritan, akademiak jakintza horiek jaso eta formalizatu egiten ditu, eta batzuetan estruktibismo kognitiboa gertatzen da nolabait: jakintza kolektiboak desjabetu eta banakako-pribatu bihurtzen ditu. Orduan, ikasketa akademikoetako eta eragin akademiko -ez sozial- handiko argitalpenetako meritu-bikaintasuneko lehia-logikaren zerbitzura jartzen ditu. Hori guztia justifikatzearen oinarria ustez akademia ezagutza zorrotza eta fidagarria sortzeko leku bakarra izatean datza. Nahastu egiten dira, hortaz, gizarte-hierarkietan botere-tresna gisa jakintza ofizialtzea eta erabiltzea batetik eta eraikitzeke prozesu kolektiboak, bestetik.

Horregatik, asmo emantzipatzailearekin egindako prestakuntza politikoko prozesuetarako garrantzitsua da ezagutzaren joera eskusibista eta elitizatzaile hori kritikatzeko eta jakintzak zein ezagutzak ekoitzi, sistematizatu, eraiki eta transmititzeko beste logika batzuk bilatzea. Hala eta guztiz ere, prozesu horiek hainbat jakintzaren arteko elkarriketa behar dute, eta badakite baldarkeria eta alferrik galtze epistemikoa izango litzatekeela jakintza akademikoen garrantzia gutxiestea zapalkuntza eta emantzipazioko prozesuen konplexutasuna komeni den sakontasunarekin jorratzeko. Beraz, beharrezko elkarriketa da, ezinbestekoa askotan; izan ere, elkar aitortzetik eta berdintasunean egindako lankidetzatik abiatzen denean, bereziki emankorra baita.

Esate baterako, Brasilgo MSTri dagokionean, Caldartek (2012) adierazi zuen bezala, bere proposamen pedagogikoa hiru iturri desberdin artikulatzearen emaitza da. Lehenik, MSTko hezkuntza sektorearen kokaleku eta kanpamentuetako esperientzia sistematizatzea. Bigarren, Mugimendua osotasun bezala, ibilbidean metatutako oinarri, helburu eta ikaskuntza kolektiboen bitartez. Eta azkenik teoria pedagogikoko elementu batzuk, nola Paulo Freireren Herri Hezkuntza, hala intelektual sozialistak (Makarenko, Pistrak, besteak beste), teorizazio klasiko horiei balioa emanez, baina aldi berean haien interpretazio asko eta egokitua eginez. Horri esker, euren burua proposamen edo esperientzia horien ikasle baino gehiago jarraitzailetzat hartzen dute.

Asmo askatzaileko -ez arautzaile, ez normalizatzaile- prestakuntza prozesuetan behar diren hizkuntza eta kodeen aniztasunari dagokionean, bada beste alderdi garrantzitsu bat: **pertsonaren dimentsio guztiak osoki lantzeko** aukera ematen duten hizkuntza eta kodeei dagokie. Hau da, kontuan izatea behar intelektualak, afektiboak, gorputzekoak, harremanetakoak, ludikoak, eta abar. Helburua prestakuntza prozesu integratzaileagoak, dimentsio anitzekoak eraikitzea da; zentzu politiko eta pedagogikoz arrazionala, gorputzekoa, emozionala eta abar lantzeko gai diren prozesuak.

Peruko PDTGko kideek adierazi zuten bezala, Paulo Freirek zerbaitegatik gogorarazi izan digu “(...) *ezinezkoa da zerbait zorrotz ezagutzea intuizioa, sentimenduak, ametsak, desioak mesprexatuz, gorputz osoa delako sozialki ezagutzen duena*”. Beraz, jakintzaren dialektikak artikulatzen du pentsatzea, sentitzea, egitea, sortzea, desiratzea, eta abar. Horrez gain, baita inguru eta prozesu zabalagoen, prozesu sozial historikoen eta bizitzaren ziklo naturalen parte izatearen kontzientziarekin horrek guztiak duen lotura ere.

Era berean, lan honetan sistematizatutako lau esperientzietan ikas daiteke **sentitzeak eta subjektibitateek osatzen dutela prestakuntza prozesuaren funtsezko dimentsio bat**. Metodologi pedagogikoaren baitan subjektibotasuna lantzeko formak izateak aukera irekitzen du talde-lotura eta erakunde zein borroketan kide sentitzea indartzeko; hau da, identitate kolektiboa eraikitzea, arreta jarrita honetan guztian: borroken memoria, espiritualtasuna, bizi den unearakiko eta osatzen dugun prozesu historikoa elikatu izan duten eta elikatuko duten lehengo, oraingo eta geroko pertsonakiko konexioa. Gogoan izanda, aldi berean, barruan hartzen gaituen inguru naturala eta bizitzarako ezinbestekoak diren ama lurraren elementuak.

Hori dela eta, prestakuntza prozesuetan **erritualak edo mistika** -hainbat eratako adierazpen-moduetan: ospakizuna, omenaldia, oroigarriak, eskertzak, eta abar- sartzeak, kantuak, bertsoak, dantzak, antzetzea, ilustratzea, nor bere baitaratzea, eta besteren bitartez, aukera ematen digu -geure burua-prestatzeko beste hizkuntza eta kode batzuek erabilita. Eta horri esker prozesu eta borrokekiko lotura emozionalean sakontzea, espiritualtasuna eta borroken transzendentzian, konpromisoan eta bat egitean, batasuna edo “masa gorpuzten duen itsasgarria” bere osagai bero eta emozionalenetan; arreta arrazional, analitiko, arrazoibideko edo ideologiko hutsak diren dimentsioetan bakarrik jarri gabe. Horren harira, ohiko praktika da lan-jardunaldiak kezka edo eginkizunak alboan uzteko aukera emango digun jarduera batekin hasi eta bukatzea: bertaratutako jendearekin sintonizatzen dugu, bizi dugun espazioa eta unearekin, eginkizun bateratua hasi edo bukatzeko.

Era berean, adierazpen zein komunikazioko kode eta hizkuntzen dibertsifikazioa gainerako praktika pedagogikoetan txertatzen da, erdigunetik ateratzeko eta arrazoibide, hitz, testu eta abarri laguntzeko balioko duten sormen-adierazpideak eta -jarduerak bideratuz. Horretan, **adierazpen eta ezagutza artistikoa** batu egiten zaio jakintza eta hizkuntzen aniztasunari, adierazi eta komunikatzeko kanal guztiei arreta jarrita, arrazoibidea, hitza edo testuaren kanala bakarrik erabiltzera mugatu gabe.

Formatu eta hizkuntza dibertsifikazio horren parte dira honako hauek: marrazkiak, elementu sinbolikoak, argazkiak, horma-irudiak, gastronomia, erlaxazioa eta masajea pedagogikoki erabiltzea, gorputzean minak eta gainkargak identifikatzea, esanahi historiko handiko lekuak bisitatzea, sendaloretan eta -belarrak erabiltzea, eskuzko lanetako lanabesak, eta abar.

3.3.1. Hainbat hizkuntza eta kode uztartzearen zailtasunak, mugak eta kontraesanak

Oraindik ere asko dira politikaren esparruan hitza eta arrazoibidea erdigunetik ateratzeko esperientzia sistematizatu hauetan aurkitutako kontraesanak, zalantzak eta zailtasunak. Hau da, oratoria eta dialektikaren zentraltasuna, bi horiek hartuz batzuetan liluratu, nabarmendu, distiratu edota aurkari dialektikoari irabaztera bideratutako argudio-borroka bezala. Kosta egiten da ikustea eta barneratzea sentitze, emozio, musu, beldur, jarduera artistiko, ludiko, sormenezko eta abarren zentzu politikoa. Subjektibotasun politikoen beste dimentsio horietara begira dauden jarduerak batzeko garaian **erresistentzia, oztopo eta zurruntasun ugari** aurkitu ditugu.

Bestalde, kultura-erreferentzia eta mundu-ikuskerara oso desberdinak elkarrekin bizi diren testuinguruetan aurkitutako zailtasuna da **pentsamendua artikulatzeko askotariko formak eta denbora ulertzeko modu desberdinak elkarrekin harremanetan jartzea**. Esaterako, denboraren logika moderno eta linealak zikliko eta errepikakorragoak diren ikuskerekin lotzea.

Prestakuntza esperientzia horietako batzuetan, **gorputza menderatzearen eta hierarkizazio formekin lotutako intersekzio eta korapiloen lurralde bezala politikoki eta metodologikoki jorratzeko garaian, erresistentziak eta beldurrak** identifikatu izan dira Nola aztertu gorputza kategoria politiko bezala era iraunkorren? Ildo horretan, prestakuntza prozesuetan zailtasunak hauteman dira jakintzak eta hizkuntzak dibertsifikatzeko garaian, fisiko zein emozionalki mugituko gaituzten praktika gehiago eransterakoan, baina landinamika horiek irekitakoa kanalizatuko duten itxitura emozional egokiak bideratzeko prestakuntza eta gaitasun nahikoarekin.

5. Koadroa. Hainbat jakintza, hizkuntza eta kode uztartzearen eta harremanetan ipintzearen inguruko laburpen-taula

1. Akademiako jakintzekin elkar aitortzan eta parekidetasunean oinarritutako elkar-hizketa eta elkarlana defendatzea eta eraikitzea. Ezagutza akademikoaren joera eskusibista eta elitizatzaileari aurre egitea, eta jakintzak zein ezagutzak sortu, sistematizatu eta transmititzeko beste logika batzuk eraikitzea.
2. Pertsonaren alderdi guztiak osoki lantzea: beharizan intelektualak, afektiboak, gorputzekoak, harremanetakoak eta ludikoak kontuan izatea; horrela, arlo arrazionala, gorputzekoa eta emozionala zentzu politiko eta pedagogikoz zainduko dituzten prozesuak eraikitzeko.
3. Prestakuntza prozesuetako funtsezko alderdi bezala, sentipen eta subjektibotasunei erreparatzea; izan ere, identitate kolektiboa sortu ahal izateko borrokaren memoria eta espiritualtasuna landu beharra dugu: borrokaren prozesu historikoa elikatu duten kideekin konexioa elikatuz (gu sortu ginen enbor beretik...), eta baita bere baitan hartzen gaituen amalurrarekiko konexioa sendotuz ere.
4. Adierazpen eta jarduera artistikoaren bitartez erritualak edo mistikak sortzea –ospakizunak, omenaldiak, oroigarriak, eskertzak, eta abar–, borroka-prozesuekiko inplikazio emozionala, konpromisoa eta atxikimendua lantzeko.
5. Arrazoibidea, hitza edo testuaren kanala bakarrik erabili gabe eta komunikatzeko zein nor bere burua adierazteko kanal guztiei arreta jarrita, formatuak eta hizkuntzak dibertsifikatzea; marrazkiak, elementu sinbolikoak, argazkiak, horma-irudiak, gastronomia, eta abar pedagogikoki erabiliaz.
6. Era kolektiboan jorratzea aktibatzen zaizkigun erresistentziak, oztopoak eta zurruntasunak sentipen, emozio, desio edota beldurren zentzu politikoa lantzerakoan; baita jarduera artistiko, ludiko, sormenezko eta abarren zentzu politikoa lantzerakoan ere.
7. Gorputza kategoria politiko bezala jarraikortasunez lantzeko moduak bilatu eta eraikitzea. Gorputza gure lurraldea da. Ikasteko, sentitzeko eta eraldatzeko dugun lurraldea, non aldi berean txirikordatzen diren hainbat zapalkuntza eta hierarkizazio sozial, batetik, eta hainbat askatze-esperientzia, bestetik.

3.4. Askotariko zapalkuntza eta borrokak batera jorratzea: menderakuntza ezberdinak aztertzea, elkarrekin txirikordaturik edo sektore-artekotasunez

Orain dela zenbait urtez geroztik, hainbat mugimendu sozialek euren eztabaida eta prestakuntza prozesuetan partekatuz erabiltzen duten tresna da

menderakuntza-forma guztiak batera eta elkarrekin lotuta aztertzea. Atalen arteko begirada edo **zapalkuntza eta borroken txirikordatutako irakurketa** horrek, aukera ematen digu gogoeta egiteko ondorengo honetaz: generoa, klase soziala, adina, aniztasun etnikoa, linguistikoa, sexuala edo funtzionala nola lotzen diren elkarrekin eta nola hainbat eratara eragiten diguten, pertsona eta talde sozialen ezaugarri diren aldagaien arabera.

Horren harira, lan honetan sistematizatutako prestakuntza politikoko proposamenen atal garrantzitsua osatzen du behatu eta integratzearen ideiak, nola edukietan, hala ariketa pedagogikoetan ere. Bizi-espazio guztietan askotariko menderatze-harremanak eta hierarkia sozialen sorrera nola behin eta berriz elikatzen eta ekoizten diren identifikatzen laguntzeko proposamenak dira: etxean, lanbidean, antolakuntza politikoan, ikasketa eta prestakuntzan, aisialdian eta jolasean, eta bestelakoetan. Halaber, bai pertsonen arteko mailan, bai antolakuntzan, eta baita egitura mailan (makro-sozialean) ere.

Elkarri lotutako begiradaren baitan dago **klaseen arteko desberdintasunen analisia egiteko pentsamendu marxistari balioa ematea**. Klase-desberdintasunak esplotazio kapitalistak eragiten ditu: kostuak gutxitzearen bizkar onurak handitzearen logika, langile-klaseen lanbide eta bizi baldintzak eskastuz. Horrenbestean, mugimendu sozialetatik garatutako prestakuntza politikoko esperientzia hauetako batzuk sistematizatzeko egoki baloratu izan da klase-analisi marxistari balioa ematea. Izan ere, pentsamendu neoliberalaren eta erreferentzia postmodernoen hegemoniak ezabatu egin dute prestakuntza prozesuetan pentsamendu marxistarekiko edozein erreferentzia. Dena den, aldi berean lan-esplotazioa eta desjabetzearen eraginez, ondasunak gero eta gehiago metatzen ari dira.

Ildo marxistako klase-analisiari balioa emateak ez du zertan berekin ekarri beste zapalkuntzekin gutxiago jabetzea eta haiek ez kontuan hartzea. Izan ere, analisi horietan emakumeen ordaingabeko lanetik datorren kapital-metatze prozesuak, kolonizatutako herrietako migratzaileen lanari balioa gutxitzeak edo gazte-jendearen bizi-baldintzak prekarizatzeko osatu gabeko irakurketara garamatza. Irakurketa horrek itxuragabetu egiten du esplotazio kapitalista, ez baitu aintzat hartzen menderatze koloniala, zapalkuntza patriarkala edo helduen boterearen gailentasunak beste adin-talde sozialekin -haurtzarora, gaztarora, zahartzarora- duen konexioa. Hori dela eta, ez da nahikoa menderatze-harreman bakarrari era isolatu edo jatorrizkoan arreta jartzea, gainerakoa haren ondoren jarrita, hura erdian ezarriz, eta zapalkuntza-forma berberaren analisi osatu gabea dakar.

Sistematizatutako esperientzietan egiaztatuenez, pentsamendu de-kolonial, feminista, antikapitalista, ekologistaren ekarpenak eta hainbat erresistentzia-borrotatik -gazteenak, ikasleenak, LGTBena, eta abar- eratorritako ekarpenak uztartuko dituen ikuspegiaren beharra dago. Ez da hori bigarren mailakotzat hartuta gauzatzeko, ezta batutako aldarrikapen-multzo hutsa izatera mugatzeko ere, baizik eta erresistentzia-praxietan sakontzeko. Horien bitartez, jomuga izan daiteke hainbat emantzipazioaldi berean gauzatzea edo emantzipazio osoagoak eraikitzea.

Zapalkuntzak artikulatzen diren moduaren inguruko ikaskuntza **egunerokotasuna politizatuz** jorratu izan da prestakuntza esperientzia hauetan. Hau da, egoera, testuinguru eta bizipen zehatzen analisiak ematen digu aukera egunero bizi duguna elkarri lotzeko. Gure gorputzaren bitartez egiten dugu hori, gorputza baita gure jakintza, ikastea, sentitzea eta eraldatzearen baitako gure lurraldea. Horrela, begirada horrek gorputza eta lurraldearen arteko baliokidetzak finkatzen du kategoria politiko diren heinean. Menderatze-forma guztien arteko konexioak ulertzeko aukera zabaltzen du, geuk eta hurkoek bizitakoaren bitartez.

Era horretan, identifikatu egin nahi da gure gorputzen eta bere praktiken kontrola boterea, prestigioa, kapitala, eta abar eskuratzeko interesekin eta menderatze horri eusteko ezarritako instituzionalitatearekin: emakumeen monogamia behartua, bikote-ereduak, amatasun-aitatasun eta familia heteroarautzaile eta patriarkalak, eskola- eta prestakuntza eredu infantilizatzaileak, zerbitzaritzako merkatu-logika hegemonikoetan sartzearen zerbitzura, esplotazioa, prekario bihurtzea, eta abar, mendebaldeko modernitatearen kanonaren arabera arrazak, herriak eta kulturak “garatu” edo “azpigaratuztat” hierarkizatzen dituen iruditeria kolonialak irautea, eta abar.

Zapalkuntzekiko begirada bateratu eta txirikordatuak aniztasun handia bistaratzen du menderakuntza-forma horiek -pertsona guztiengan berdin txirikordatzen ez direnak- dauzkaten jokatzeko moduetan. Batik bat, aukera ematen du ikusteko askotariko zapalkuntzak jasaten dituzten pertsonen errealitatea, euren baldintza sozial eta identitateen arabera -emakumea, langile klasekoa, gaztea, beltza, hizkuntza minorizatuko hiztuna-. Horrek guztiak eragin egiten du **aldatzeko subjektu politikoak itxuratzea** ulertzeko moduan. Lehenik, aukera ematen du aldaketa bakar, unibertsal eta homogeenaren subjektu izateko ideia gainditu beharra bistartzeko; subjektu plural, konplexuaren mesedetan, zeinetan elkarlotzen diren hainbat menderatze-ardatz. Ardatz horien baitan, batzuk gutxietsi egiten gaituzte, eta

beste batzuk pribilegiatu. Horrela, identitate-itxuratze politikoak konplexu bihurtzen dituzte, era homogeen eta eksklusiboan ulertzen den edozein identitate deszentratzea dakarrelako. Era berean, binarismoak -zapaltzaileak vs. zapalduak, hasteko- eztabaidatzea ere bada, pertsona guztiok hainbat baldintza sozialek alderik alde zeharkatzen gaituztela onartzeko. Beraz, pribilegioak eta atzeratzeak gauzatzen dira gudan. Horrek geure puntu itsuei begira jartzen gaitu, hau da, pribilegioak -generoa, arraza, klasea, hizkuntza, adina, ezagutzen aitortza akademikoa- kokatuta dauden ideiak eta praktikak, eta pribilegioek pertsonen artean zein talde (erakunde) eta egitura (makro-sozial) motaren artean eragin ditzaketen botere desberdintasunak.

Kapitulu honen hasieran adierazi dugun bezala, prestakuntza esperientzia hauek elkarrekin gurutzatuz identifikatutako ikaskuntzetako batek azaldua digu dagoeneko menderakuntza horiek guztiak gu zatitzera jotzen dutela, loturak hautsiz. Zapalkuntzak eta eraldatzera deitutako subjektu historikoak hierarkizatzen dituzten identitate-mugak edota jarrera politikoak sortzen dira.

Hori dela eta, garrantzitsuak dira askotariko harreman menderatzaile eta zanpatzaileen formak deseraikitzeo aukera emango diguten prestakuntza prozesuak. Hainbat eratako gure diskriminazio-esperientzietatik abiatuz, eragin dizkiguten min eta atzeratzeekin enpatizatzeo aukera emango diguten prozesuak, indarrean dagoen gizarte-ordenamenduak berregiten dituen txirikordatutako zapalkuntzak -baita geure bitartez ere- era kolektiboan -geure burua- ezagutu eta lantzeko. Horrenbestean, -gure burua- hierarkizatu eta zatitu beharrean, borroken konplizitate bizi ahal izan dezagun eta bizitako konplizitateak saretu eta sendotuko gaituen zubiak egiteko irekitasuna eman diezagun; horri guztiari esker, borroka, mugimendu eta esperientzietako antzekotasun zein desberdintasunetara hurbil gaitez; eta aurrera egin dezagun hainbat subjektu, borroka eta proiektu politiko emantzipatzailek elkar indartzeko aukera eman dezaketen artikulazio eta itunak era kolektiboan eraikitzean.

3.4.1. Askotariko zapalkuntzen irakurketa txirikordatuaren zailtasunak, mugak eta kontraesanak

Lan honetan sistematizatuta dauden prestakuntza esperientziak, jakina, oztopoak, blokeoak eta mugak ere aurkitzen ari dira zapalkuntza eta borroken irakurketa txirikordatua garatzerakoan. Horren harira, klase-analisia eta norbere lurraldearen defentsarekin batera, erresistentziak aurkitu dituzte **ikuspegi feminista** jorratu eta txertatzeko garaian. Izan ere, feminismoak

salatu egiten du sexismo sozialaren eta emakume zein sexu-disidenteen menderakuntza-praktika naturalizatuaren egunerokotasuna. Beste hainbeste gertatzen da **ikuspegi de-kolonialarekin** ere. Ikuspegi horrek dioskunez, iruditeria kolonialistak honelakoak eragiten ditu: beste arraza edo jatorrizko herriekiko arrazakeria sozial eta instituzionala, eta gutxiagotzat jotzea euren hizkuntzak, autogobernu formak, ohiturak, bizimoduak, jakintzak, eta abar.

Hari berean, **hizkuntza gutxituetan eta norberaren mundu-ikuskeran pentsamendu emantzipatzailea sortzeko** beharra ere egiaztatu da. Hizkuntza ez hegemonikoak lurralde sinbolikotzat jotzen dira, eta proposamen-jomugak era aske eta berritzaileagoan sortzeko aukera ematen digute.

Azken batean, erresistentzia eta zailtasun horiek erakusten dute zenbaterainokoa den ideia eta praktika patriarkal, kolonial eta homofobikoak desikasten laguntzeko lanabesak eta baliabideak garatzeko beharra. Deseraikitze eta sexualitatea bizitzeko bestelako forma batzuk eta kolektiboetako antolatze-bizitzan boterea banatzeko beste forma batzuk ere horien artean leudeke; forma horien bitartez, aukera izango da emakumeak eta gazteak barruan izango dituzten lidergo kolektiboak eraikitze, liskarrak eta gatazkak erakundeak indartzeko moduan kudeatzeko. Ildo horretan, prestakuntza esperientzietan egiaztatu da **taldeen aniztasuna artikulatzeko gaitasunak eta baliabideak artikulatzeko** beharra, genero, adin, ibilbide-esperientzia, prestakuntza, jakintza eta abarrekin **barne hierarkiak berregitea ekidinez**. Hor sartuko lirateke prestakuntza edo eztabaida-prozesuak bideratzaile edo dinamizatzaileak berak sortzen dituen asimetriak edo lidergoak.

Sistematizatutako esperientzietako batzuetan tailerrak edo topaketa monografikoak antolatzen ari dira, aukera izateko garrantzi gutxiagokotzat jota alboan utzitako zapalkuntzak eta asimetriak berariaz lantzeko. Hala ere, azalera atera da lanaren egunerokotasunean dimentsio horiek guztiak elkarri loturik, era kontzientean nork berera asimilatu-gorpuztuta txertatzeko desafioa.

Zenbaitetan, arlo askotara iritsi nahiak azalean geratzeko arriskua izaten du, elkarren arteko konexioetan eta eraldatze emantzipatzaileko prozesuei begira dauzkaten inplikazioetan sakontzeko astirik gabe.

Azkenik, **iragan urruneko eta hurbileko herri-borroka prozesuak jorratzeko** beharra identifikatu da, arrakastatsuak zein hainbesteko arrakastarik gabeak, idealizatzailea ez den ikuspegi batetik, baina behar bezain

kritikoa bai; horrek eman diezaguke aukera hainbat zapalkuntza eta borrokaren ikuspegi elkarri lotuan oinarrituta ongi eta gaizki eginak identifikatzeko. Horrela, hobeto ulertuko dugu gure historia eta, Claudia Korolek zioskun bezala, zergatik izan diren “*hain garaipen gutxi eta hainbeste porrof*”.

6. Koadroa. Askotariko zapalkuntza eta borrokak batera jorratzeari buruzko laburpen-taula

1. Zapalkuntzen irakurketa txirikordatua: ariketa pedagogikoak lagungarriak izatea identifikatzeko askotariko menderakuntza-harremanak nola berrelikatzen eta berregiten diren eguneroko bizitzaren espazioetan: etxean, enpleguan, erakunde politikoetan, ikasketa eta prestakuntzetan, aisialdian eta parrandan, eta abar.
2. Klase-analisiak egiteko pentsamendu marxistari duen balioa ematea, ez baitu halabeharrez zertan ekarri behar beste zapalkuntzak bigarren mailan lagatzea; esplotazio kapitalistaren analisisan ezinbestekoa baita zapalkuntza koloniala, patriarkala edota helduen boterekeria beste adin-taldeekiko –gazteak, adinekoak, haurrak–.
3. Pentsamendu de-koloniala, feminista, antikapitalista, ekologistaren ekarpenak eta hainbat erresistentzia-borroketatik –gazteenak, ikasleena, LGTBena, eta abar– eratorritako ekarpenak uztartuko dituen formazio-ikuspegia lantzea.
4. Egunerokoa politizatzearen bitartez, zapalkuntza ezberdinak nola artikulatzen diren lantzea: gure gorputzak eta praktikak kontrolatzea eta boterea, prestigioa eta kapitala pilatzeko interesen artean dagoen lotura identifikatzea, eta baita menderakuntza horri eusteko dagoen instituzionalitate soziala identifikatzea ere.
5. Aldaketa-subjektu bakar, unibertsal eta homogeenaren ideia gainditzeko beharra bistaratzeko, hainbat menderatze-ardatz elkarri lotzen zaizkion subjektu plural eta konplexuaren mesedean. Menpekotasun-ardatz horietako batzuetan pribilegiatuen artean gauden bitartean, beste batzuetan gutxietsietakoen artean gaudelarik.
6. Gure diskriminazio-esperientzietatik abiatuz, eragin dizkiguten min eta gutxiespenen inguruko elkarrekiko enpatia lantzea, elkarrekin identifikatzeko eta des-erakitze berregiten ditugun –baita geure praktiken bitartez ere– zapalkuntza ezberdinak. Horrela gure burua zatitu, desartikulatu eta hierarkizatu beharrean, borroken konplizitatea bizi ahal izan dezagun.
7. Horren bitartez, borroka, mugimendu eta esperientzia ezberdinetako antzekotasun zein desberdintasunetara hurbiltzea; eta horrela, subjektu, borroka eta proiektu politiko emantzipatzaileek elkar indartzeko artikulazio eta aliantzen eraikuntzan aurrera egitea.

8. Era kolektiboan jorratzea, klase-analisia eta nork bere lurraldearen defentsarekin batera, sexismo-sozialaren egunerokotasuna salatzen duen ikuspegi feminista; eta baita beste arraza edo jatorrizko herriekiko dagoen arrazakeria sozial eta instituzionala des-erakitzen duen ikuspegi de-koloniala ere; azken bi ikuspegi horiek lantzeko garaian erresistentziak agertzen baitira.

9. Hizkuntza gutxituetan eta nork bere mundu-ikuskeran pentsamendu emantzipatzailea sortzeko beharra. Hizkuntza ez hegemonikoak lurralde sinbolikotzat jotzen ditugu, eta etorkizunaren inguruko proposamenak era aske eta berritzaileagoan sortzeko aukera ematen digute.

3.5. Tokiko, nazioko edota nazioarteko artikulazioak erraztea

Atal honetan, prestakuntza esperientzia horiek elkar ezagutzea eta hainbat erakunde zein borrokaren artean -tokiko eta nazioarte mailan- elkarrekin lan egitea bideratzeari dagokionean aurkitu dituzten aurrerapausoak eta mugak aurkeztu ditugu. Lehenik, azpimarratzekoa da aktibistak hezteko berariazko jardueretarako euren espazio, denbora edo baliabiderik ez duten kolektibo eta erakunde askoren errealitatea. Hori dela eta, hainbat kolektiborentzako irekiak diren prestakuntza proposamenei esker, badute aukera lan politikoko dimentsio hori osatzeko. Gainera, eguneroko antolatze-praktikan geldialdia egin eta hari buruz gogoeta egiteko aukera ere bada. Halaber, erakunde eta borroka desberdinetako jendearekin aritzen dira, nork bere antolamendu-errealitateen eta askotariko testuinguruen berri emanez. Horri esker, zabaldu egiten dira ikuspegiak, jomugak edo lan-aukerak.

Beraz, aukera ematen dute **herri-erakundeetako hainbat arlotan aktibisten artean elkarrengana hurbiltzeko, elkar ezagutzeko eta antolamenduloturak eta harreman afektiboak sortzeko**; eta baita errealitate, esperientzia eta ikuspegi politiko desberdinen artean elkar topatu eta elkarrekin trukean aritzeko ere. Hau da, artikulazio politiko asko erretzeko haziak aurpegiak, gorputzak eta konplizitateak ditu, eta horiek guztiak eginkizunak, erantzukizunak, gogoetak eta dentsitate afektibo handiagoko une ludikoak bizitzeak eragin izan ditu: otorduak, garagardoak, dantzaldiak eta jende arteko konexio-erritualetako jarduerak.

Lan honetan sistematizatutako prestakuntza esperientzietan harreman politikoen baitan ukitu ezin daitezkeen dimentsio horiek nahita politikoki ematen zaien zentraltasun kontzientea oso positibotzat jotzen dute parte hartzaileek batasuna eraiki ahal izateko, aniztasuna artikulatzeko eta borrokak

nahiz erakundeek daukaten elkarren beharra bistartzeko. Horren adibide dira topaketa eta prestakuntza espazio horietan eraikitzen diren borroka guztietako kode bateratuak eta zeharkako lemak; hala nola, “Borroka globaliza dezagun, itxaropena globaliza dezagun” edo “*Iraultza feminista izango da, edo ez da izango*”.

Gainera, aintzat hartu beharra dago batzuetan ikastaro, jardunaldi edo topaketa horietan parte hartzen duten lagunek ikasitakoaren zati bat euren erakundeetan sozializatzen dutela. Hori dela eta, barne-prozesuen esparruan edo beste erakunde batzuekin eraikitako prozesuetako esparruetan nor bere testuingurura egokitutako nolabaiteko erantzuna sortzen da. Horren harira, bereziki une garrantzitsua da parte hartu duten lagunekin prestakuntza ebaluatzeko unea. Izan ere, edukiak, metodoak, antolatzeko moduak, hezkuntza-giroa, bideratzea, bizitako esperientzia eta abar aztertzeak aukera ematen du hobekuntzak proposatu eta, nor bere erakundearen prestakuntza nola garatuko lukeen jakiteko, parte hartzaileen lekuan kokatzeko. Gero ikusiko dugun legez, oker jokatuko genuke prozesu pedagogikoak herri-pedagogietako alderdi guztiei buruzko ikaskuntza teoriko eta praktikoko prozesua egin gabe edozeinek dinamiza eta bidera ditzakeela pentsatuko bagenu.

Lan honetan sistematizatu ditugun prestakuntza esperientzietatik eratorritako beste ikaskuntza bat lotuta dago **hainbat testuinguru edota borroketan garatzen ari diren prestakuntza ekimenen artean sareak ehuntzearen garrantziarekin**. Izan ere, horren bidez osagarriak diren elementu trukagarriak identifikatu ahal dira. Hau da, prestakuntza proposamena edo ohiko proposamena egin izan zaien subjektuei eragiten dieten aldaketa politiko orokor edo sektorialak ebaluatu eta birdefinitzeko garaian, kontua prestakuntza proposamenak birpentsatzea da. Horretarako, gogoan izan behar dira lehengo eta oraingo beste bizipen batzuk. Horien bitartez, birformulatzeko prozesuak gara daitezke, eta Zumalabe Fundazioko emakume kideek gogorarazi diguten bezala, “su ez-tian” prestatutako birformulatzeko prozesuak garatu ahal izango dira. Prozesu horiek aukera eman dezakete esperientzia guztietan ondo eta gaizki eginak nahiz testuinguru politikoko aldatetekiko doikuntzak identifikatzeko. Horrez gain, proposamena erakunde gehiagok bereganatu ahal izateko moduan birdefinitzea dakar berekin, eta horrela euren sare, prozesu eta kanaletan zehar hainbat aldiz biderkatuta hedatuko dute.

Ildo horretan, sistematizatu ditugun herri-prestakuntza eta -hezkuntzako esperientzietako batzuen bidez, egoeraren arabera testuinguru jakin bateko une politikoari lotutako analisi eta gogoeta kolektiboko espazioak bideratu

izan dituzte. Hau da, **herri-hezkuntzako metodologiak egoera politikoaren analisiari** aplikatu dizkiote, eta ziklo politiko jakin batzuk ireki edo ixteko edo hauteskunde-emaiza jakin batzuetako joerak, arriskuak eta aukerei buruz era kolektiboan gogoeta eginez. Aldi berean, eztabaidatu egin da herri-mugimenduen arloan orain arte erabilitako batasun modalitateez, egoera horretan politikoki eragin ahal izateko behar diren artikulazio motei buruz edo mugimenduen barruan landutako agenda bateratuak osatzearen inguruan.

Horrenbestean, mugimenduen artean artikulazio eta lan bateratuan aurrerapauso handiagoak emate aldera, hainbat borrokatan egindako analisi kolektiboek bide eman izan dute Diálogos de Saberes y Movimientos -Jakintza eta Mugimenduen Elkarrizketak- esperientzian parte hartu zuen Peruko aktibista batek noizbait eskainitakoa bezalako bizipen eta testigantza interesgarriak jasotzeko. Hona hemen: “(...) *pozik nago zuekin egoteaz, bost hatz izatea bezalakoa da; eskuko bost hatzak desberdinak dira elkarrekiko, baina guztiak esku bakarrekoak. Orain ikusten dut guk eraikuntza kolektiboetara ere egiten diegula ekarpena, nahiz eta elkarren artean desberdinak izan (...)*”.

3.5.1. Askotariko artikulazioak bideratzeko zailtasunak, mugak eta kontraesanak

Borroka sozialetako hainbat esparrutan lan egiten duten erakundeen artean topaketa, elkartruke eta hurbiltasuna bideratzeko garaian, prestakuntzako esperientzia horietan aurkitutako blokeo eta mugei dagokienez, formazio prozesu horiek erakundeen bizitzan eta erakunde desberdinen arteko harreman-dinamiketan dauzkaten eraginak **zehaztasun eta sakontasun handiagoz ebaluatzeko** beharra egiaztatu da lehenik. Hau da, erakundeetako aktibista batzuek egiten dituzten erakunde-praktiketan eta erakundeen arteko praktiketan prestakuntza prozesuetan nola gauzatzen diren ezagutzeko gaitasun ahula detektatu da. Beste hainbeste gertatzen da jakiterakoan eragin biderkatzailearekin edo prestakuntzako bertaratze-unez gain sareak sortzen joatea zenbateraino gauzatzen den jakitearekin.

Alde batetik, zaila dela sumatzen da bizitako prestakuntza esperientzia kalkoa eta kopia egin gabe transmititu eta sozializatzea, nahiz testuinguruan, nahiz lan eta prestakuntzako modu horietan txertatu nahi diren prozesuan behar den adinako arreta jarritz. Horren harira, beharrezkoa ematen du **herri-hezkuntzako proposamen pedagogikoen baitan gaitasuna eurenganatuak duten prestatzaileentzako formazioan** aurrera jotzea. Jakina, eskatzen duen sistematikotasun eta sakontasun guztiarekin, bestela talde-dinamika parte

hartzailleak hutsaltzat jo baitaitezke eta teoria gutxietsi, eta okerra da hori. Nork bere testuingurura egokitutako bideak berrasmatu eta biderkatzeari ekin ahal izatea komeni da, horrela herri-mugimendu eta -ekimenen arloaren baitan desberdinen artean elkarrekin taldeak eta prestakuntza zein lan-prozesuak bideratu ahal izatea berme osoz indar dadin.

Osagarritasunak bilatzeko ildoaren barruan, bestalde, nahikoa zaindu gabeko desafioa da **hainbat prestakuntza ekimenen arteko artikulazioa**: elkarren gainean ez jartzea eta ikasitakoa elkarren artean trukatzeari. Sistematizatzeko prozesu horrek berak ere elkartruke aberatsa eragin izan du, eta horri esker aukera izango da sistematizatu ditugun esperientzietako bakoitzaren baitan hobetu daitezkeen elementu guztiak aztertu eta hobetzeko. Hala eta guztiz ere, sistematizatutako prozesuetan identifikatutakoari arreta jarrita, toki- eta estatu-mailari dagokionean, ikusten da iraun egiten duela beste erakunde batean sortutakoak diren ekimenak bereganatzea zailtzen duten kultura politikoak, gero eta nabariagoa baldin bada ere elkar ezagutzeko, elkarrekin lan egiteko eta elkarrekin sarea osatzeko premia.

Azkenik, borroka sozialetako hainbat arlotan lan egiten duten erakundeen artean artikulazioak bideratzeko eginkizunak **identitate politiko desberdinen arteko elkarrizketan sortzen diren tentsioekin** lotutako zailtasunak ditu aurrez aurre. Identitate politiko horiek -feministak, nekazariak, etnikoak, sindikalak, ekologistak, LGTBak, garapenkeriaren aurkakoak, eta abar-, kidetza kolektiboko identitate edo sentimenduak izanik, euren burua berrestea eta aitortza autonomia behar dute. Horrez gain, desberdintasunak ez dira bihurtu behar garrantzi politiko handi edo txikiko bereizgarri. Bestela esanda, desberdintasunetatik ikastea, aniztasuna ulertuz desberdintasun eta hierarkia sozialak sakonago eztabaidatzeko aukera bezala; langintza zaila eta inoiz ere bukatzen ez dena da. Bide horretan jarraituz, politikoki zapalkuntza ugariren eta herri-sektoreek euren burua antolatzearen beharraren kontzientzia izatearen identitate bateratua sendotzea da helburua.

Prestakuntza esperientzia hauen baitan muga asko daude oraindik ere zubiak eraikitzeko, eta identitatea berrestea eta aipatutako aniztasuna artikulatzea elkarrekin konektatzeko aukera eskainiko duten proposamen politiko-metodologikoak osatu behar dira. Nola egin aurrera mugimenduen bizitza eta euren eragiteko gaitasun politikoa handitzeko funtsezko mekanismo moduan elkarrekiko mendekotasunaren kontzientzia politikoa eraikiz, subjektu politiko gisa nork bere identitatea berresteari utzi gabe? Aldi berean nola elkarri lotu eta eraiki autonomia eta elkarrekiko mendetasun hori?

7. Koadroa. Herri mugimenduen arteko elkarlana eta artikulazioen inguruko laburpen-taula

1. Hainbat testuinguru, erakunde eta borroketako aktibisten parte hartzeari zabalduko prestakuntza proposamenak sustatzea; horri esker ikuspegia eta elkarlanerako aukerak zabaldu egiten baitira. Baita arlo desberdinetako aktibisten arteko lotura afektiboak ere.
2. Hainbat testuinguru edota borroka arlotan garatzen ari diren prestakuntza ekimenen artean sareak ehuntzea, horren bitartez osagarritasun- eta elkartruke-elementuak identifikatzeko. Horrela, lehengo eta oraingo beste esperientziak kontuan hartuz, elkarren gaineko jarduera saihestea, ikasitakoa elkarrekin trukitzea eta prestakuntza proposamenak ber-pentsatzea eta hobetzea bilatu dezakegu.
3. Herri-hezkuntzako metodologiak koiuntura politikoaren analisiari aplikatzeko aukera; ziklo politiko jakin batzuk ireki edo ixterakoan, edo hauteskunde-emaitza jakin batzuen aurrean, egon daitezkeen joerak, arriskuak eta aukeretaz gogoeta zabalagoak egiteko. Eta, horrekin batera, koiuntura horietan politikoki eragiteko behar diren artikulazio motei buruzko eztabaida zabaltzeko.
4. Prestakuntza prozesu hauek herri mugimenduetako erakunderen arteko harreman-dinamiketan dituzten eraginak zehatzago eta sakonago ebaluatzea. Hau da, prestakuntzan bertaratzeko uneetatik haratago, pertsona eta kolektiboen arteko sareak zein neurritan sortzen diren analizatzea.
5. Parte hartu duten lagunekin prestakuntzaren ebaluazioa indartzea; izan ere, edukiak, metodoak, antolatzeko moduak, hezkuntza-giroa, dinamizazioa eta bizitako esperientzia ebaluatzea aukera ematen du hobekuntzak proposatzeko eta nork bere erakundearen prestakuntza nola garatuko lukeen pentsatzeko eta horretan kokatzeko.
6. Bizitako prestakuntza-esperientzia eta lan egiteko moduak nork bere antolamendu-egiturara eta prozesuetara eramateko eta egokitzeo zailtasunak. Hori dela eta, herri-hezkuntzako proposamen pedagogiko eta metodologikoetan formazioa lantzea (dinamizatzaile edo erraztatzaileen prestakuntza); eta horrela, herri ekimena eta herri mugimenduen eremuan, talde eta asanbladen dinamizazioa, formazio-prozesuak sustatzea eta erakunde ezberdinen arteko elkarlana erraztea sendotzen joatea.
7. Zailtasunak edo mugak topatzen ditugu proposamen politiko-metodologiko egokiak sortzeko ondoko helburu honi begira: nor bere identitate politikoa berresteari utzi gabe, identitate politikoa ezberdinen arteko loturak eraikitzea.

Mugimendu sozialen protagonismoarekin garatutako formazio politikorako lau esperientzia desberdin gurutzatuz jorratu dugun artikulua hau bukatzera

goaz. Irakaspenak eta mugak identifikatzeko bost ardatz erabili ditugu, haietako bakoitzean identifikatuta gelditu dira gure formazio praktikak, eta antolaketa nahiz pedagogia jarduerak oro har, aberasteko aukera emango diguten proposamen-elementuak. Horrekin batera, identifikatu egin ditugu desafio batzuk dinamika politiko osasuntsu eta eraginkorrak eraikitzeari begira, beti ere herri-mugimenduak indartzeko asmoz eta euren helmuga politikoetan aurrera egiteko xedez; desafio horiei dagokienez, bilatze eta elkartruke lanetan jarraitu beharko dugu, dinamika politiko emantzipatzaileak elikatzea inoiz ere bukatzen ez den prozesua baita.

Halaber, prestakuntza prozesuak era konplexu eta sakonagoan ulertzeko ikasketa prozesu interesgarria bizi izan dugula ere sentitzen dugu. Prozesuak geure aurrean jarri digu gizon-emakumeak euren ingurune sozial eta naturalean ikuspegi osoago batean ulertzeko beharra. Ikuspegi horrek nork bere buruaren ezagutza pertsonal eta sozial osoagoa edukitzeko aukera emango diguten praktika pedagogikoen beharra agertzen digu; hau da, gure burua eraldatuko duten praktika politiko-pedagogikoak gutxiagotze eta menderatze harreman oro desikasi dezagun, eta gure eguneroko espazio guztietan –etxean, erakunde politikoan, enplegu-tokian, ikasketa-zentruetan, aisialdian, plaza publikoan, sistema politikoan, eta abar– zentzu duintzaile eta emantzipatzailez eragiteko aktiba gaitzen.

Epilogo.

Nazioarteko lankidetzeta eta formazio askatzailea

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate*

* Paz con Dignidad Euskadi-ko koordinatzailea, eta Elkartasuna Eraldatuz Plataformako partaide aktiboa.

I. Nazioarteko lankidetzaren identitate-krisian dago

Lankidetzaren kritiko eta askatzailearen ikuspegitik, bizi dugun zibilizazio-krisiak denoi mugiarazten gaitu; dena zalantzetan dago une historiko, konplexu eta zalantzezko honetan. Lehenik, gizarte globalaren eredu hegemonikoa dugu, bere nortasuna ankerkeriz agertzen duena; indarkeriak, desberdinkeriak eta iraunkortasun-ezak markatutako nortasuna; horren aurka eta beste bizimodu batzuetarantz joaterik izan dezagun, beste balio, dinamika eta eragile batzuk ezarri behar dira; bigarrenik, eraldatzeko tresna izan behar duen nazioarteko lankidetzaren politika publikoa, bizimodu berriak aurretik zehaztu eta bultzatzeko agendatzako guneak handitzeko duen gaitasunari buruzko analisi kritikoa eginez; eta, hirugarren eta azkenik, gizarte erakundearen zeregina dugu, lankidetzaren eremuan parte hartzen duten erakundeak diren neurrian etengabeko tentsioan baitaude; nazioarteko lankidetzaren eraldaketarako estrategia gisa barnebilduz batetik, eta, euren gaitasun politikoak neutralizatzeko arriskuarekin lan eginez bestetik, izan ere, logika tekno-administratiboaren inperioak gizarte erakundearen gaitasun politikoak neutraliza baititzake –gaur egungo lankidetzaren hori oso ohikoa da–.

Azken finean, esan dugun bezala, dena dago zalantzetan. Zibilizazio-inflexio honi aurre egin nahi bazaio, agenda, helburu, estrategia, tresna, praktika eta aliantzak ikuspuntu kritiko eta autokritikotik aztertu behar dira, eta horrenbestez, logika askatzaileetatik abiatutako nazioarteko lankidetzak berau gainditzeko zereginik duen balioetsi. Horren harira, gaur egun nazioarteko lankidetzak bizi duen krisi integralari buruz hitz egiten ari da hainbat gunetan. Krisi hau baliabide ekonomikoaren murrizketatik haratago doan fenomeno da eta nazioarteko lankidetzaren nortasuna bera jartzen du zalantzetan. Hots, lankidetzaren politika publiko gisa; dituen helburu, osatzen duten erakunde, eta eraldatzeko tresna zilegi eta egokia den ezbaian dago.

Horrela, eta nazioarteko lankidetzaren lehentasunezko helburuei dagokienez, garapenaren kontzeptua bera lortu beharreko helburu gisa argi dago zalantzan jartzen dela. Ikuspegi horrek gero eta kritika gehiago jasotzen ditu, hazkunde ekonomiko kapitalistari dagoelako lotuta –ez du guztiz horrekin apurto, ezta bertsio eraldatzaileen ere, *giza garapenean* edo *garapen iraunkor*ean, esaterako–; beraz, eraldaketak zerumuga hori izatea arriskutsua da, ez bakarrik sortzen dituen gero eta desberdinkeria handiagoengatik, argi eta garbi planetaren muga fisikoak gainditu egiten direlako ere –gaur egungo egoera energetiko eta klimatiko globalak erakusten duen bezala–. Horrek ondorio ezin okerragoak eragin ditu jada eta eragingo ditu. Gainera, bigarrenik, nazioarteko lankidetzak funtzionamendu eredu moduan Iparra-Hegoa dinamika bereganatzen jarraitzen

du. Ildo horretan, nazioarteko lankidetzaren garapen-arazoa deituriko egoeretako dinamika, politika, eragile eta lurraldeen artean dagoen interdependentzia biziaren aurrean itsu da; izan ere, garapen-arazoei, sailkapen klasiko horiek apurto egiten dituzte. Egia ere bada diskurtsoa aldatzen hasi dela 2030 Agenda berriarekin. 2015eko irailean onartu zen agenda hori, baina hala ere, berau ezartzeko dinamikek aurreko ereduari jarraitzen diote. Hirugarren eta azkenik, bestelako egiturazko desberdinkeriek (desberdintasunak, klima-aldaketa, krisi energetikoa, patriarkatua, zaintzaren krisia, arrazismoa, etab.) zehaztutako testuinguru global honetan, pobrezia aurkako borrokaren aldeko apustu hegemonikoak, nazioarteko lankidetzaren eztabaida hauetatik urruntzen du. Nahiz eta 2030 Agendak begirada sektoriala zabaldu duen, batez ere, iraunkortasunaren alde, garapenaren ikuspegi hegemonikopean betiere, ez dago bermerik pobrezia dimentsio bakarraren logika iraunkortasunaren dimentsio bakarraren logika bihurtuko ez denik. Azken finean, nazioarteko ekinbidea aniztasunaren eta errealitate globalaren konplexutasunaren aurka egiten duten suposizioetan oinarrituta egon da, eta jarraitzen du oinarritzen gero eta gehiago, (garapena, Iparra-Hegoa, pobrezia). Horrek garapen kontzeptuaren eta bere tresna ofizialen deslegitimazioa areagotzen du –besteak beste, nazioarteko lankidetzaren bera–, gehiago sozial handien aldeko erreferentzia gisa.

Baina, gainera, nazioarteko lankidetzak beste krisi bat du bere lehentasunezko eragileak definitzeko orduan. Gaur egun, eragile klasikoak gainezka egiten diete nazioarteko lankidetzan diharduten eta logika propioak dituzten eragile berri batzuek, –esaterako BRICS¹ taldeko herrialdeak–. Aldi berean, joko-aula globalean, premisa antagonikoetatik abiatuta, ETN bezalako enpresa transnazionalak eta gizarte-mugimenduek areagotu egiten dute euren zeregina. Nazioarteko lankidetzaren eragile-magma horretara ere ez da egokitu, ez irizpide garbi, koherente eta planifikatuetatik abiatuta, eta are gutxiago ikuspegi askatzaileetatik.

Azkenik, gainera, nazioarteko lankidetzari, tresna gisa ere zilegitasuna kentzen zaio, alde batetik, finantza-iturri handiagoak agertu direlako (pertsonek migranteen diru-bidalketak, kanpoko inbertsio zuzena, etab.), eta bestetik, ohiko tresnak ez direlako eraginkorrak izan (proiektuak, aurrekontuen laguntza, pobrezia murrizteko estrategiak, etab.). Ildo horretan, teknifikazioaren, burokratizazioaren eta administrazio-arrazoien hegemoniaren joera nagusitzen ari da nazioarteko lankidetzan, eta horrek, dirudienez eraldatzeko tresnaren espirituaren, eraldatze-bokazioaren eta izaera politikoaren aurka egiten du aurrez aurre.

1 Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika.

Azken finean, aurrean krisi integral bat dugu, nortasun-krisia, helburuen, eragileen, eta tresnen egiturazko krisia, eta horrenbestez, tresna erabat berdefinitzea eskatzen du honek. Zentzu horretan, krisia aukera bat izan daiteke beste parametro batzuk ezartzeko, hala nola, nazioarteko lankidetzaren berdefinitzeko parametroak esaterako.

II. Balizko aukera bat: askotariko subjektu politikoen aliantza

Nazioarteko lankidetzaren krisi integralak Elkartasuna Eraldatuz osatzen dugun erakundeoi ere² mugiarazi gaitu. Gure iritziz, nazioarteko lankidetzaren politika publikoak oraindik badu zentzurik, baina lehenetsiak erabat zehaztu behar dira berriro, eta horrekin batera, eragile sozialek martxan jarri dituzten hamaika ekimen bazterretatik zentru identitariora pasa daitezkeen ahalbidetu behar da. Gure iritziz, birdefinizio hori prozesu bat izan beharko litzateke, proiektuak lerro estrategikoen arabera finantzatzeko gaur egungo logika gaindituko lukeen trantsizio bat. Dialogo politiko internazionalistan oinarritutako subjektu politikoen aliantza eta indartzearen ikuspegi urratsak emateko trantsizioa alegia. Eta horrela, urratsez urrats aurrera egitea proposatzen da, garapenean efikazia eta eraginkortasuna bilatuz lehenik, eta gero, agenda alternatiboetarako espazioak zabaltze aldera eragile estrategikoak artikulatuz.

Ildo horretatik, nazioarteko lankidetzaren parte hartzen duten gaur egungo eragileen begirada zabaltzeko premia nabarmendu behar da; batez ere, instituzioak eta enpresak baitira eragile horiek, eta neurri txikiago batean, GGKEak. Horrela, batetik, garapen eta lankidetzaren agenda hegemonikoak formulatzeko eta ezartzeko botere korporatiboak gaur egun duen eragina murriztea proposatzen da. Eta, aldi berean, bestetik, ekintza kolektiboaren bestelako eredu anitzekin artikulatzeari begiratzeko modua zabaltzea. Begirada berri honetan gizarte mugimenduen zeregina nabarmenduz. Gure iritziz, horiek nazioarteko lankidetzaren era aktiboan eta modu naturalean sartzen badira, aipatu krisiaren dimentsio guztietan eragin positiboa izango lukete (helburuak, eragileak eta tresnak). Beraz, sustatuko diren prozesuek ondorio politiko handiagoa izan dezakete: tokikoa globaletik artikulatzeko

2 Lankidetzaren emantzipatzailearen aldeko euskla plataforma bat da, 2015eko maiatzean sortua; bertan era aktiboan erakunde hauek hartzen dute parte: Mugarik Gabe, Bizilur, Paz con Dignidad-Euskadi, VSF-Justicia Alimentaria Global, Mundubat, Gernikatik Mundura, Lumaltik, EHNE-Bizkaia eta Euskadi-Kuba.

Iparra-Hegoa logika gainditu daiteke; beste agenda alternatiboetara zabaldu daiteke, esaterako feminismoena, bizitza onarena, deskolonialitatearena, ekologiarena, etab.; gizartearen sostengua zabaldu daiteke administrazioetako politiken koherentzian eragite aldera; administrazioekin elkarrizketa politikorako dinamikak sortu daitezke, edo behar besteko baliabideak dituen politika publikoa sendotu dadin eragin daiteke.

Beraz, nazioarteko lankidetzaren ulertzeko beste modu bat da, zeinak gizarte-mugimenduak aintzat hartzen dituen beraien aniztasun, indar eta ahulguneekin. Ildo horretan, ekintza kolektibo hori ez da esentzializatzen, instituzio eta GGKE-en aurrean nazioarteko lankidetzaren ahalmen askatzailea sustatuko lukeen agenda, estrategia eta praktika berriak eskaini ditzake ekintza kolektibo honek. Gizarte mugimenduak ere aintzat hartzearekin esan nahi da batuketak aberastasuna duela, –ez da inoiz kenketa bat–; beraz, askotarikoen arteko artikulazio eta aliantzaren alde egiten da (GGKE; mugimenduak, ekonomia solidarioko erakundeak, etab.), agenda komunaren alde alegia.

Hala ere, gizarte-mugimenduek nazioarteko lankidetzaren parte hartzeak berarekin dakar nazioarteko lankidetzako parametro hegemonikoak berriz planteatu behar izatea. Hau da, ez da bakarrik borondate-kontua, edo gizarte-eragile horiei dei egitea, besterik aldatu nahi ez bada. Kontrara. Goitik behera berpentsatu behar da, nazioarteko lankidetzaren dinamikak ekintza kolektibo horien agenda, estrategia eta praktiketara egokitu daitezen. Ildo horretan, premisa osagarri bi izango dituen lankidetzaren ikuspegiaren proposatzen da: lehenik, emantzipatzeko gaitasun berezia duten subjektuak indartzea helburu nagusia da –beraz, lankidetzaren ildo horretan dagoen guztia izango da: formazio politikoa, artikulazioa, prozesu parte-hartzaileak, mobilizazioa, mistika, etab.; bigarrenik, subjektu horien arteko artikulazioa eta elkarrizketa politikoa erraztea, eta horrela, Iparra-Hegoa gakoa guztiz apurtzea. Azken batean, nazioarteko lankidetzaren beste modu batez ulertzeko trantsizio bat proposatzen da, non gizarte-eragileak protagonistak izango diren eta politika publikoak ikuspegi demokratikoago eta inklusiboagoetatik abiatuko diren.

III. Formazio politikoa eta lankidetzaren

Nazioarteko lankidetzaren helburua subjektu estrategikoak indartu eta artikulatzea bada, formazio politikoa funtsezko zeregina da. Ildo horretan, helburu horiek erdietsi daitezkeen premisa gisa ulertu daiteke ere; izan ere, eztabaida, ezagutza era jakintzak partekatzea gakoa dira logika askatzaileak

aurrera egin dezaten testuinguru konplexu eta dinamiko batean. Ildo horretan, formazio askatzaileari esker, tokiko, eskualdeko, mundu osoko testuinguru aldakorrek era kritikoa aztertzen dira; agendak, estrategiak eta praktikak eguneratu eta egokitzen dira, eta elkarrekin hitz egiteko eta elkarrengandik ikasteko espazioak sortzen dira, eta baita asimetriak identifikatu eta gainditzeko.

Baina, gainera, herri-heziketaren alde egitea halako prestakuntza-prozesuetan bereziki interesgarria da, lehen esan bezala, edukiak eta metodologiak osotasunaren osagaiak baitira. Beraz, ezagutza transmititzea bezain inportantea da ezagutza hori nola transmititzen den; hainbat koloretan sortutako konbinazio berriak ehuntzea ahalbidetuko digu honek, jakintza eta subjektu askotarikoen arteko elkarriketa horizontalean egindako sorkuntza kolektiboari esker.

Ildo horretan, argitalpen honetan sistematizatutako esperientzia-multzoak analisi-oinarri on bat eskaintzen digu herri-heziketatik abiatuz formazio-prozesuak sendotzeko. Izan ere, hainbat aurrerapen eta muga partekatu azaleratzen dira eta horrek nazioarteko lankidetzan, emantzipazio-subjektuak sendotu nahi baditu, eragin handiak izan ditzake. Beraz:

1. *Zentzu zabaleko formazio politikoari irekitako lankidetzaren*, dimentsio politikoak eta formazio-ikuspiezuen aniztasuna naturaltasunez onartzen eta baldintza berberetan aintzat dituenak.
2. *Artikulazioa errazten duen lankidetzaren*, formazio politikoaren bidez; erronka estrategikoa litzateke askotariko eragileen eta ikuspegiaren arteko elkarriketa, eta lehentasuna eman beharko litzateke askotariko subjektu eta formazio-ikuspiezuen topaketa-esperientziei.
3. *Ziurgabetasuna eta konplexutasuna berez onartzen dituen lankidetzaren*; formazio politikoaren prozesu guztietan daude ziurgabetasuna eta konplexutasuna, formazio politikoak herri-heziketatik hartzen bada, eta, beraz, ezin bada zehatz jakin zein den helmuga, nahiz eta abiapuntua oso ondo duen zehaztuta.
4. *Dena aintzat hartzen duen begiradaren lankidetzaren*, ez ditzan jarri laguntza eta finantzaketa irakaskuntza klasikoan eta materialetan bakarrik, baizik eta formazio politikoaren osagai estrategikoak oso baten barruan hartu ditzan, esaterako ikastaroaren egitura politiko-pedagogikoa iraunkorra izatea, mistika, zaintza, errazteko ahaleginak, espazioen eta kokatutako prestakuntzaren garrantzia, azken finean, egindako lan militante guztia balioan jarri dezan.

Horiexek dira argitalpen honetatik sortutako ekarpen garrantzitsuei buruzko gogoeta batzuk. Ildo horretan, ezagutzaren eraikuntza kolektiboan jarraitzeko adibide bat da, eta horrek zalantzarik gabe eratzen eta aberasten ari garen lankidetzaren alternatiborako proposamen berri honetarako ere balio du. Askoren eta anitzen artean eratzen ari den eta eratzen jarraitu beharko duen lankidetzaren alternatibaorako proposamena; mundu hau eraldatzeko borondatearekin, baita nazioarteko lankidetzatik ere, zergatik ez.

